

# NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

CLXIV. Urtea

Iruña - 2002.eko abenduaren 30a, astelehena

157. zenbakia

Zenbaki honek gehigarri bat du

## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

ORRIALDEA

### I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

#### Xedapen Orokorrak. Foru Dekretuak

- 250/2002 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina onesten duena. 11105

#### Xedapen Orokorrak. Foru Aginduak

- 172/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2003ko lan-egutegia onesten duena. 11115
- 1926/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 12koa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Nafarroako automozioaren sektorean sortutako hondakinen kontrola eta jarraipena egiteko agiri erraztuaren eredia onesten duena. 11116

#### Agintariak eta Langileak

- EBAZPENA, 2002ko abenduaren 16koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko 30 lanpostu igoera eta lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena. 11117
- 1236/2002 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-

trazioko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan odontologo izateko hiru lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izan-gaien behin betiko zerrenda onesten duena. 11120

#### Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak

- 624/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, eskola garraioko zerbitzua egiten duten enpresen kontratuak 2002/2003 ikasturterako luzatzeko baimena ematen duena, ondoko ikastetxe eta ibilbideetarako: Berriozarko "Mendialdea" I.P. / D.B.H.I.rako 5. ibilbidea, Otsagabiako I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, Erronkariko "Julián Garrayre" I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, Antsoaingo "Ezcaba" I.P.rako 1. ibilbidea, Agoizko "San Miguel" I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, "Benjamín de Tudela" B.H.I.rako 2. eta 3. ibilbideak. 11120

#### Beste Xedapenak

- 174/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, Osasun kontseilariak emana, beste erakunde eta osasun programa batzuetarako dirulaguntzak emateko 2003. urteko deialdia onesten duena. 11121

### III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA 11123

### IV. ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATUTAKO XEDAPEN OROKORRAK 11138

### V. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA 11147

### VI. JUSTIZI ADMINISTRAZIOA 11182

## I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### Xedapen Orokorrak. Foru Dekretuak

**250/2002 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina onesten duena.**

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legeak, Seigarren Xedapen Gehigarrian honela zehazturik jasotzen du Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategin bat egiteko Parlamentuak Gobernuari emandako baimena:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 21. artikuluan xedatuaren babesean, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari bat egin ditzan Oinordetzen eta Dohaintzen

gaineko Zergari buruzko arau indardunak 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta bat egitekoak diren lege testuak erregularizatu, argitu eta harmoniza ditzan".

Testuategina prestatzeko bidea errazteko asmoz, 3/2002 Foru Legeak Zergaren arau oinarrikoaren aldaketa zenbait jasotzen ditu. Arau oinarrikoa osatzen zuten, hain zuzen ere, 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiak onetsi zituen Oinordetzen eta Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga orokorren arauak.

3/2002 Foru Legea onetsi zenez gero, testuategina prestatzeko abiapuntua 1970eko Arauaren edukia da ezinbestean, eta, baimenaren arabera, agindu batzuk antolatuta eta beste batzuk argitu eta interpretatuz gauzatu beharko da arau koherente eta argi bat.

1970eko Arauaz honako hau esan dezakegu:

1. Gaur eguneko testua onartu zenetik denboran zehar izan dituen aldaketa eta indargabetze espresuen ondoren hartzen dugu, eta Testu Bateginaren Xedapen Indargabetzaileak zerrendan ematen dituen arauak aztertuz haien jarraipen argia egin daiteke.

2. 1981eko martxoaren 17an Foru Parlamentuaren Erabakiz onestako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Arau erregulatuak, 1970eko Arauaren aginduak espresuki indargabetzen ez bazituen ere, inplizituki hein handi batean indargabetu zuen. Izan ere, 1970eko Arauak –gorago aipatu da izenburua– arautzen zituen, alde batetik, "mortis causa" eskurapenak dei litezkeenak, zeinetaz arduratzen baitzen Oinordetzen gaineko Zerga Orokorra, eta, bestetik, "inter vivos" eskurapenak, bai kostubidezkoak bai kostugabeak, zeinak sartzen baitziren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorren esparruan, eta gainera Atariko Tituluan eta Bosgarren Tituluan antzinako Zergaren bi esparruetako zenbait xedapen orokor eta erkide arautzen ziren.

Horren arabera, "erkide" dei ditzakegun artikuluetako bakoitzaren edukitik Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari aplikagarri zaiona atera dezakegu, alde batera utzirik Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorra tratatu duena.

3. Aurreko puntuan adierazitakoaren ildo beretik, O.E. eta E.J.D.en gaineko Zergaren 1981eko Arauak deklaritzen du, xedapen iragankorrean, aplikagarri zaiela dohaintzei eta gainerako "inter vivos" eskualdatze kostugabeei 1970eko Arau harik eta Oinordetzen eta Dohaintzen Zerga berriak indar hartu arte.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak, orain arte ez baitzegoen halakorik, dohaintzei ere karga ezar ziezaien, beharrezkoa zen legegintzako erreforma batek Zergaren peko egintzatza argi eta garbi sar zitzan, horrela gaindituko baitzen aurreko egoera, zeinean dohaintzak, alde batetik, "inter vivos" ondare-eskualdaketen esparruan sartzen baitziren eta, bestetik, 1970eko Arauen pean baitzeuden, eta arau horiek, berek ere, "mortis causa" eskualdaketen arauetara igortzen baitzuten etengabe.

Legegintzako Erreforma hori burutu da 3/2002 Foru Legearen bidez.

4. 3/2002 Foru Legeari egin zaizkion erreformek konpondu dute ahaide hurbilen arteko eskurapenatarako zegoen 0,80ko zerga-ordainketa historikoa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan txertatzearen arazoa, eta orain karga hori ez da Egintza Juridiko Dokumentatuen kontzeptuan sartzen, martxo arteko erreforman bezala, baizik eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Tarifen barruko tasa berariazko bihurtzen da.

5. Gaur egun hor dugu Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, 13/2000 Foru Legea, oso kontuan hartu beharrekoa, bertan baitago alderdi askoren erregulazio oinarrikoa, batez ere tributuen kudeaketari buruz. Eta horrek hara igortzea behartzen gaitu batzuetan, eta, beste batzuetan, berriz, bertan ikuspegi orokorretik araututa dauden gaiak arautu gabe uztera; izan ere, horrek alferrikako bihurtzen du Oinordetzen eta Dohaintzen tratamendu berariazkoa.

6. Baldin eta Gobernuari emandako baimenaz antolatuta, argitu eta harmonizatu nahi bada bategitearen xede den araudia, 3/2002 Foru Legeko Seigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duen bezala eta 1970eko Arauaren egituraren eta edukiaren arabera, iruditzen zaigu Gobernuak baduela oniritzia Estatuan eta beste erkidego batzuetan Zergaren araudi ordenatuagoa eta eguneratuagoa duten lege-testuetara jotzeko.

Horrelako testuetara jo dugu 1970eko Arauak ematen diguna baino idazketa zehatzagoa denean hangoa, eta gainerako artikuluekin hobeki heldu denean.

7. Kontuan hartu beharreko beste gorabehera bat honako hau da: Zerga hau erakunde zenbaiten tratamendu fiskalari ere badagokiola, eta haien erregulazioa, funtsean, legeria zibilean aurkitzen dugula.

1970. urtean hiru urte falta ziren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa martxoaren 1eko 1/1973 Legeaz onesteko, eta, horregatik, Arau hark batez ere Kode Zibilean du oinarri erakunde haien kalifikazio juridikorako.

Gaur egun, Konpilazioak indarra duenez, ezinbestekoa da haren aipamenak egitea.

8. Azkenik, 1970eko araua aplikatuz Zergaren kudeaketan lortutako eskarmentuak aukera eman du jatorrizko idazketan zenbait aginduk zuten interpretazio-zailtasunaz jabetzeko; izan ere, batzuetan, benetan aplikaezina zen haietako baten bat.

Testu ongi eratu eta koherentea lortzeko asmoz, aldatu egin da 1970eko idazketa, eta ez da bertan sartu berez ulertzen dena, ezta ezer gehitu gabe nahastea dakarrena ere.

Legegintzako Foru Dekretuak dauzka: artikulua bakar bat, Testu bategina onesten duena, xedapen gehigarri bat, iragankor bat eta azken bat.

Testu Bategina honela dago osatua: 62 artikulua, hamabi kapitulutan banatuak, Xedapen Gehigarri bat eta Azken Xedapen bat.

Gorago 1970eko Arauari buruz esandakoak argi uzten du, beraz, hura funtsean oinordetzez gain "inter vivos" ondare-eskualdaketa arautzeko egin zela eta, horregatik, alde batetik, oso zaila dela haren eskemari eustea, eta, bestetik, ez batere eraginkorra. Horregatik hartu dugu Estaturako oinarritzat, eta Testu Bateginaren zati bakoitzean sartu ditugu 1970eko zenbait arau, betiere, beste leku batean egon arren, zati batean hobeki txertatzen baziren.

I. Kapituluak, "Xedapen Orokorra" izenekoak, 1etik 7ra bitarteko artikulua biltzen ditu.

Kapitulu horretan adierazten da Zergaren xedea dela pertsona fisikoek kosturik gabe lortutako ondare-gehikuntzak zergapean jartzea. Pertsona juridikoek lortuak, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren pean daude.

Kapitulu horretan beste alderdi batzuk ere arautzen dira: legeria zibileria jo beharra (Konpilazioa espresuki aipatzen da) Zergan zeregina duten erakundeen eta ondasunen kalifikazio juridikorako; nola aplikatzen diren ahaidetasun-mailak, bereziki tarifen; kredituen eskualdaketa; ondasunen titulartasun eta titularkidetasun presuntzioak; baldintza etenarazle edo suntsitzaileak noiz gertatzen diren; likidazioaren geroratzeko kasu bat eskualdaketa baten zenbatekoa erabaki ezin denean eta Zergaren itzulketarako eskubidea kasu jakin batzuetan.

II. Kapituluak, "Zergapeko egintza" izenekoak, 8tik 10era bitarteko artikulua biltzen ditu.

Egintza zehazki mugatzen da. Alde batetik, zergapeko gehikuntzen zerrenda ematen da eta, bestetik, zergapekoak ez diren lau kasu finkatzen dira, zeinetako batek argitzen duen zein den Zerga honen esparrua pentsio-planen eta aseguruaren arloan Pertsona Fiskoaren Errentaren gaineko Zergari buruz.

Kapitulu honetan eskualdatze kostugabea ustez badelako hiru kasu ere aztertzen dira.

III. Kapituluak, "Salbuespenak" izenekoak, 11., 12. eta 13. artikulua biltzen ditu. Bertan jasotzen dira gaur egun indarra duten salbuespenak eta bereizten dira "mortis causa" eskurapenetan, "inter vivos" eskurapen doakoetan eta aseguruaren eragina dutenak.

IV. Kapituluak "Subjektu pasiboak eta Zergaren erantzuleak" izenekoak, 14.etik 17.era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta esaten digu nortzuk diren zergadunak: kausadunak, dohaintza-hartzaileak eta onuradunak. Kasuren batean oinordekoa legatadunaren ordekoztat hartzen da eta erantzukizun subsidiarioko hiru kasu eta solidarioko bat agertzen dira.

V. Kapituluak, "Zerga-oinarria" izenekoak, lau Ataletan banatzen da.

1. Atalak, 18. eta 19. artikuluetan, zergapeko egintza bakoitzari dagokio zerga-oinarria finkatzen du: banakoaren partearen balio garbia, onuradunak jasotako ondasun eta eskubide eskuratuen eta hartutako zenbatekoen balio garbia.

2. Atalak 20.etik 25.era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta bana-koaren parte hori eta etxeko arrea kalkulatzeko arauak ematen. Pre-untzio zenbait ezartzen dira, eta horien arabera ondasuntzaren barruan kokatzen dira ondasun jakin batzuk, eta, azkenik, kargak, kausatzailearen zorrak eta kengarri diren gastuak arautzen dira.

3. Atalean, "Arau bereziak" "inter vivos" eskurapen doakoetarako" izenekoan, 26. eta 27. artikulua daude bilduta, eta horrelako eskurapenean kengarri diren kargez eta zorrez arri da.

Azkenik, 4. Atalak, "Balioen egiaztapena" izenekoak, artikulua bakarra du, 28.a, eta bertan, Tributuei buruzko Foru Legea igorri ondoren, azaltzen dira Zergaren egiaztapenerako bi bitarteko berariazko, ematen da aitortutakoaren eta egiaztatutakoaren arteko baliorik handienaren lehentasuna finkatzeko araua, eta aurrez ikusten da egiaztapenaren eta likidazioaren jakinarazpen bateratua.

VI. Kapituluak, "Likidazio-oinarria" izenekoan, 29.etik a 32.era bitarteko artikulua jasotzen dira, eta murrizketa batzuk ere bai, hala "mortis causa" dohaintzetakoak, nola aseguruetakoa.

VII. Kapituluak, "Zerga-zorra" izenekoak, 33.etik 35.era bitarteko artikuluek osatzen dute. Likidazio-arau orokorrak finkatu ondoren, batez ere ahaidetasun maileri buruzkoak, 34. artikulua zergaren kuotaz arri da. Zazpi tarifa arautzen dira ahaidetasun-mailaren arabera; lehenbizikoa, 100eko 0,80 tasakoa da, eta, hortik abiatuz, ahaidetasuna zenbat eta urrunagoa izan, gero eta garestiagoak. Tarifa horietakoren batean likidazio-oinarria banatu egiten da, muga bateraino 100eko 0,80 tarifa eta soberakinari, berriz, dagokion eskala aplikatzeko.

Aurrez ikusia dago zerga-ezarpen bikoitzagatiko kenkaria aplikatu ahal izatea, beren egoitza Espainiako lurraldean izan eta atzerriko zerga bati lotuak direnen kasuan.

VIII. Kapituluak, "Sorrarazpena eta Preskripzioa", bi artikuluz osatua da, 36.a eta 37.a, eta bakoitza figura horietako batez arri da. Preskripzioa Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra ezarritakoari lotuko zaio.

IX. Kapituluak, "Arau bereziak", hiru atalez osatua da.

1. Atalak, "Xedapen orokorrak", 38.etik 40.era bitarteko artikuluek osatuak, arautzen ditu usufuktua, erabiltzeko eta bizitzeko eskubidea, pentsioak eta beste figura batzuk, hala nola hitz-emateak eta kontratu-aukerak, zentsuak eta transakzioak.

2. Atala, "Mortis causa" eskurapenak, 41.etik 48.era bitarteko artikuluek osatuak, honako gai hauek arautzen ditu: banaketa, esleipen gehiegizkoak, "mortis causa" dohaintzak, oinordetza ez onartzea, ordezenak, fideikomisoak, konfiantzazko heredamendua eta erreserbak.

3. Atalak, "Mortis causa" Eskurapenak izenekoak, 49.etik 52.era bitarteko artikuluek osatuak, honako gai hauek arautzen ditu: kostubidezko eta ordain gisa emandako dohaintzak, ezkonsariak eta dotazioak, dohaintzen pilaketa eta dohaintzak jaraunspenari pilotzea.

X. Kapituluak, "Betebehar formalak" izenekoak, 53.etik 56.a bitarteko artikuluek osatuak, honako gai hauek arautzen ditu: subjektu pasiboek aitorpena aurkezteko duten obligazioa, agiriaren aurkezlearen figura, agintari, funtzionario eta partikularek dituzten betebehar zenbait eta agiriak bulegoetan edo erregistro publikoetan dituzten ondorioak, ordaindu eta izanaren, salbuespenaren edo loturarik ezaren kasuetan.

XI. Kapituluak, "Zergaren Kudeaketa", 57.etik a 61.era bitarteko artikuluek osatua da eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari Zerga kudeatzeko eskumena eman ondoren, likidazio partzialek, Zergaren ordainketaz eta haren geroratze eta zatitzeaz ari da.

XII. Kapituluak, "Arau-haustek eta zehapenak" izenekoak, 62. artikuluan, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak arautzen duen araubiderako igorpena dago.

Testu Bateginaren Xedapen Gehigarriari Ekonomia eta Ogasun kontseilariari ahalmena ematen zaio Jabetzaren Erregistrozaleei Zerga kudeatu eta likidatzeko eginkizunak betetzeko mandatu emateko.

Legegintzako Foru Dekretuak erabilgarritzat jotzen ditu 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiko Arauak Zergaren Erregelamendua onesten ez den bitartean, eta espresuki arautzen ditu, tarte baterako betiere, aurkezteko epeak eta epe horien luzapena. Peritu-tasazio kontraesanezkoan, hala ere, hori gertatu arte, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra eta Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua aplikatuko da.

Testu Bateginaren Xedapen Gehigarriak baimena ematen dio Gobernuari testua garatzeko.

Xedapen Indargabetzailean Testu Bateginaren aurka egiten duten heinean zenbait arau indargabetzen dituen klausula orokorrak gain, zenbait xedapen espresuki indargabetzen diren zerrrenda bat jasotzen da.

Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Kontseilura bidali zen, aginduzko irizpena eman zezan, Nafarroako Gobernuak 2002ko urriaren 14an hartutako Erabakiaz.

Irizpen hori 2002ko azaroaren 22an eman zen, eta bertan adierazten zen arauaren edukia ados zela Legeiarekin, legezotasun-oztopo zenbait konponduz gero, betiere, eta iritzi hori kontuan hartu da arauaren azken idazketan.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta biko abenduaren hamaseian egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

#### DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.-Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina onesten da.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, Ganbera horren Erregelamenduko 158. artikuluko 6. idatz-zatiak agintzen duena betetzeko.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Zergaren Erregelamendua onetsi arte indarrean jarraituko dute 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiaz onetsitako xedapenak eta Zergari buruzko gainerakoak, Testu Bateginak xedatzen duenaren aurkakoak ez diren heinean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, eta erregelamendu bidez gai honi buruzko arau berariazkorik garatzen ez den bitartean, peritu-tasazio kontraesanezkoaren praktika, Testu Bateginaren 28. artikulua aipatzen duena, Tributuei Buruzko Foru Lege Orokorraren 44. artikuluan xedatuak eta maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuak onetsi zen Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduari lotuko zaie.

3. Testu Bateginaren 53. artikulua erregelamenduz garatzen ez den arte, tributuei buruzko agiri edo aurkezpenak honako epe hauetan aurkeztuko dira:

a) Heriotzagatiko eskurapenak direnean, bizitza-aseguruen kontratuen onuradunenak barne, sei hilabeteko epean, kausatzailearen heriotza-egunetik edo heriotza-deklarazioak indar hartzen duen egunetik kontatzen hasita.

Epe horixe bera erabiliko da usufuktu-eskurapenen kasuan eta usufuktudunaren edo pentsiodunaren heriotzaren menpeko pentsioe-nean, baldin eta jabariaren zatiketa dohaintzazkoa izan bada.

Heriotza Espainiatik kanpo gertatu bata letra honek adierazten duen epea hamar hilabetekoa izanen da.

b) Gainerako kasuetan, bi hilabeteko epean, sortzapen-datatik kontatzen hasita.

4. Testu Bateginako 53. artikulua erregelamenduz garatzen ez den bitartean, xedapen iragankor honetako aurreko idatz-zatiko a) letran finkatutako epeak luzatzen ahal ditu, epe berdinatarako, agiriak edo aitorpenak jasotzeko eskumena duen bulegoak, idatz-zati horretan xedatutakoaren arabera.

Luzapen hori oinordeko, albazea edo utzitako ondarearen administrazioaileek eskatu behar dute aurkezteko dauden epeetako lehen bost hilabeteen barnean edo, kasua bada, bederatzir hilabeteen barnean, hari erantsirik kausatzailearen heriotza-agiriaren ziurtagiria eta bertan adieraziz oinordeko deklaratuaren edo ustekoaren izena eta bizilekua eta kausatzailearekiko ahaidetasun-maila, halakoren berri izanez gero, ondasun eta eskubideen egoera eta gutxi gorabeherako balioa eta eskaera hori egiteko arazoak.

Eskaera aurkeztu zenetik hilabete igarotzen bada erabakirik jakinarazi gabe, luzapena eman dela ulertuko da.

Ez da luzapenik ematen baldin eta eskaera aurkeztzen bada idatz-zati honen bigarren lerroaldeak aipatzen dituen epeak bete eta gero.

Eskatutako luzapena ukatzen bada, ulertuko da aurkezteko epeei gehitzen zaizkiela eskaera aurkeztu zen egunaren biharamunetik ukoa ematen duen erabakiaren jakinarazpenera bitarte iragan diren adina egun.

Luzapena eman izanak honako hau besterik ez du ekarriko berekin: haiseran ezarritako epeak bete zirenetik agiria edo aitorpena aurkeztzen den eguna arteko berandutza-interesak ordaindu beharra.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Indargabetzen dira Testu Bateginak xedatzen duenaren aurkakoak diren aurreko aginduak.

2. Bereziki indargabetzen dira, testuan beren lekua dutelako eta Xedapen Iragankorrak dioena ezertan ukatu gabe:

-1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakia, Oinordetzen, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak onesten dituen.

-1992ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Legeko 50. artikulua.

-Urriaren 20ko 12/1992 Foru Legea, tributu-aldaketei buruzkoa.

-Zenbait zerga aldatzen dituen abenduaren 30eko 14/1995 Foru Legeko IV. Kapituluak.

-Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa hein batean aldatzen dituen 22/1997 Foru Legeko 7. artikulua.

-Tributu-aldaketei buruzko abenduaren 30eko 23/1998 Foru Legeko 3. artikulua.

-Zerga-neurrii buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legeko 4. artikulua.

-Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 12. artikuluko 2. idatz-zatia.

-Zenbait zerga aldatu eta beste zerga-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeko 6. artikulua.

-Zenbait zergaren karga-eskalak eurotara bihurtzen dituen urriaren 18ko 254/2001 Foru Aginduko hirugarren atala.

-Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legeko 7. artikulua, zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak eta hirugarren xedapen iragankorra.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamaseian.-Nafarroako Gobernuak lehendakaria, *Miguel Sanz Sesma*.-Ekonomi eta Ogasun kontseilaria, *Francisco J. Iribarren Fentanes*.

#### OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO XEDAPENEN TESTU BATEGINA

##### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta eremua.

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak, zuzenekoak eta subjektuaren gainekoak, pertsona fisikoek lortutako ondare-gehikuntza kostugabeei ezartzen die karga, foru lege honetan jasotzen den mo-

duan eta ordainerazpenerako eskumena Hitzarmen Ekonomikoak dioenaren arabera Nafarroako Foru Komunitateari dagokionean.

2. Aurreko atalak aipatzen dituen ondare-gehikuntzak, pertsona juridikoek eskuratzen dituztenean, ez daude Zerga honen pean, Sozietateen gaineko Zergaren pean baizik.

2. artikulua. Arau zibila.

1. Zergaren esparrua alde zibiletik mugatzen duten erakundeen kalifikazio juridikorako legeria zibilak agintzen duena hartu behar da kontuan. Bereziki martxoaren 1eko 1/1973 Legeak onetsitako Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioan jasota daudenei kasu egingo zaie.

2. Izate, erabilera, xede edo aplikazio desberdinaren ondorioz Zergaren peko ondasunen kalifikazio juridikoa Kode Zibilarren II. Liburuan, I. Tituluan xedatutakoari lotuko zaio, edo, halakorik ezean, Zuzenbide Administratiboan xedatuari.

Hala ere, ondasun higieiztat joko dira, halaber, salbuespenik gabe eta Zergarako, edozein modutako instalazio iraunkorrek, are egikergatik mugigarriak direnak eta baita kokaturik dauden lurzatia instalazioen jabearena ez bada ere.

3. artikulua. Ahaidetasun-mailak.

1. Foru lege honek aipatzen dituen ahaidetasun-maila guztiak odolkidetasunekoak dira eta, pertsonen izate eta ahalmenari buruzko gainerako inguruabarrak bezala, legeria zibilarren araupekoak izan behar dute.

2. Zerga honetarako adopzioa eta odolkidetasuna parekatu egiten dira.

3. Zerga honetarako, ez aurreko ez ondorengo diren ezkontzazko ahaideak, odolkidetasunezko hurrengo mailakoekin parekatuko dira.

4. Foru lege honen ondorioetarako, bikote egonkor bateko kideak ezkontideen egoera berean daudela ulertuko da.

4. artikulua. Kreditu-eskualdaketak.

Kosturik gabe eskuratutako kreditu likidoek ere zerga ordaindu beharko dute, are orainean galdagarriak ez direnak.

5. artikulua. Titulartasun eta titularkidetasun presuntzioa.

1. Tributuei buruzko Foru Legeko 111. artikulua xedatutakoa arren, kontrakorik frogatu ezean, ulertuko da ondasunak eskualdatzailearenak zirela, haren izenean ageri zirenean gordailu, kontu korronte, mailegu bermedun edo antzeko kontratuetan edo katastro, jabetza-erregistro edo bestelako erregistro publikoetan.

2. Halaber ulertuko da ezen segurtasun-kutxetan utzitako ondasun eta baloreen kasuan, eta berdin partikularrei, bankuei, elkarte nahiz sozietatei, aurrezki-kutxa edo beste edozein entitate publiko nahiz pribatu, gordailuan, kontu korrontean edo bestelako edozein kontratu zibil nahiz merkataritzakoren arabera emandakoen kasuan, pertsona bi edo gehiagori bereizkuntzarik gabe haien gaineko eskubide berdinak aitortzen bazaizkie, jabetzan eta zati berdinez direla titularretako bakoitzarenak, kontrakorik frogatzen ez bada; frog hori bai Likidazio-bulegoak bai partikular nahiz interesatuek egin dezakete.

3. Titularkideak senarra eta emaztea baldin badira, kasu bakoitzeko ezkontza-araubide ekonomikoari dagokion legeria zibileko xedapenak aplikatuko dira, kontrako frogara ezertan galarazi gabe, betiere, bai Administrazioaren bai partikularren ekimenez egin baitaiteke.

6. artikulua. Baldintzak tartean izatea.

1. Baldintzaren bat tartean daukaten egintza edo kontratuetan, haien kalifikazioa Nafarroako Foru Berriko aginduek edo legeria zibil aplikagarriak emanen dute. Baldintza etenarazlea bada, Zerga ez da likidatuko hura bete arte, eta likidazioaren geroratzearen berri arauz agindu bezala jasoko da.

2. Testamentu-xedapena betearaztea soilik eteten duen baldintzak, Kode Zibilarren 799. artikulua arabera, ez du berekin ekarriko Zergaren likidazioa geroratzea; izan ere, Zerga oinordeko edo legatudunaren instituzioa hutsa balitz bezala eskatuko baita berehala; baina muga-eguna iristen denean, behar diren zuzenketak eginen dira Administrazioaren edo zergadunaren alde, erregelamenduz zehazten den moduan.

3. Baldintza suntsiarazlea bada, kasu horretan ere Zerga berehala galdatuko da, nahiz eta, baldintza betetzen denean, bidezko den itzulketak egin beharko den.

7. artikulua. Itzulketak.

1. Epaitegiak edo Administrazioak emandako ebazpen irmoz onartzen denean egintza edo kontratu baten deusezturik, deseginik edo suntsiturik geratu dela, zergadunak ordaindutako zerga-kuota berreskuratzeko eskubidea izanen du, kostugabeko ondorioz ekarri ez badio eta itzulketak ebazpena edo onarpena irmo egin zenetik kontaturik lau urteko epean eskatzen badu.

2. Kostugabeko ondorioak daudela ulertuko da interesatuek justifikatzen ez dutenean Kode Zibilarren 1295 artikulua aipatzen dituen elkarrentzako itzulketak.

3. Egintzak nahiz kontratuak kostugabeko ondorioz sortu badu, egindako likidazioa zuzenduko da, eta horretarako ondasun edo eskubide eskuratuen usufruktuaren balioa hartuko da oinarritzat, foru lege honen 38. artikulua ezartzen duen moduan kalkulatu, egintzak edo kontratuak iraun duen denbora kontuan hartuz, kontratuaren izaeragatik usufruktu baten existentzia erabakitzerik ez dagoenean, eta ondorioz zergadunari likidazio berriaren eta lehenbizikoaren arteko diferentzia itzuliko zaio.

4. Egintzak edo kontratuak irabazizko ondorioz sortu ez badu ere, subjektu pasiboak zergarekiko dituen betebeharrak bete ez dituelako etetea edo ebazpena deklaratzeko bada, ez da ezer itzuliko.

5. Kontratua indarrrik gabe gelditzen bada kontratu-emaile biek adostasun osoz hala erabaki dutelako, ordaindutako zergarik ez da itzuliko eta zergaren menpeko egintza berritatzat hartuko da. Elkarren arteko erabakitzat hartuko da adostasuneko adiskidetzeko egintza eta eskaria bera onartzea.

## II. KAPITULUA

### Zergapeko egintza

8. artikulua. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintzatzat honako hauek hartzen dira Zerga honen kasuan:

a) Ondasun eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz "mortis causa" eskuratzea, are inbentarioak edo banaketak formalizatu ez direnean ere.

b) Ondasun eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein "inter vivos" eta doako negozio juridikoz eskuratzea.

c) Bizitza aseguruetak kontratuen onuradunek diru-zenbatekoak jasotzea, kontratu-egilea eta onuraduna pertsona ezberdinak direnean, eta aseguruak kontratatu duenean edo aseguru kolektiboa denean.

d) Aseguratua bizirik geratzen den kasuetarako bizitza-aseguruetak kontratuengatik onuradunek diru-zenbatekoak jasotzea, onuraduna kontratu egilea ez denean.

e) Aseguratua hiltzen den kasurako bizitza-aseguruetak kontratuetatik diru-zenbatekoak jasotzea, aseguratua kontratu-egilea ez denean.

9. artikulua. Lotura-ezeko kasuak.

Ez daude zergari loturik:

a) Pentsio-planen onuradunek jasotako diru-zenbatekoak, eta ezta bizitza-aseguruaren onuradunek jasotakoak ere, kontratu-egilea onuraduna ez beste pertsona bat denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14.2. a) artikuluan araututako kasuetan.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 55.1.7. artikuluan ezarritakoaren ondorioz ezkontideen edo bikote egonkorretako kideen artean gertatutako eskualdaketak, xedapen horretan dagoen mugaraino.

c) Dirulaguntzak, bekak, sariak, primak, hobariak eta laguntzak, entitate publiko edo pribatuek ongintza, irakaskuntza, kultura, kirol edo gizarte ekintzako xedeekin emandakoak.

d) Bizitza-aseguru bateko kontratuaren onuraduna den aldetik hartzekodun batek aurreko zor baten kitzatzea bermatzeko jasotako diru-zenbatekoak, betiere hori guztia ongi frogaturik baldin badago.

10. artikulua. Zergapeko egintzen presuntzioa.

1. Kostugabeko eskualdaketa izan dela joko da:

a) Erregistro fiskaletatik edo Administrazioak dituen datuetatik pertsona baten ondarearen gutxitzea gertatu eta aldi berean edo gerago, ez ordea bi urte baino gehiagora, haren araberrako ondare-gehitzea izaten badu ezkontideak edo bikotekideak, edo ondorengoek nahiz haietako edozeinen ezkontide edo bikotekideak.

b) Erregistro edo datu horiek, pertsona bat ezkontide edo bikotekide alargunik ez seme-alabarik utzi gabe hiltzen denean, kausatzailaren ondarearen gorabeheretan gutxitzeak antzeman eta aldi berean edo gerora, baina ez hiru urte gaino gehiagora, haien araberrako gehitzeak sumatzen badira oinordeko edo legatudunaren ondarean.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta bajak ikertu eta aurkitzen bada ondorengoak nahiz ezkontideak alta hartzen duela beste ezkontide edo bikotekideak baja emandako negozio berean.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen presuntzioak interesatuen berri interesatuei aditzera emanen zaie, beren eskubideen alde egoki iruditzen zaizkien alegazio eta frogak aurkez ditzaten, dagozkien likidazioak igorri aurretik.

## III. KAPITULUA

*Salbuespenak*

11. artikulua. "Mortis causa" eskurapenak.

Salbuetsirik daude:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak "mortis causa" eskuratzea Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

b) Industria-edo negozio-bankuek 1962ko azaroaren 29ko Errege Lege Dekretuaren baldintzetan jaulkitako obligazioak eta kutxa-bonoak "mortis causa" eskuratzea, betiere kausatzaileak 1992ko ekainaren 24aren aurretik erosi baldin baditu. Horiez gainera, salbuetsirik daude hasierako tituluak amortizatu eta banku beretan berriz inbertitu diren tituluak eta kutxa-bonoak ere.

12. artikulua. Doako "inter vivos" eskurapenak.

Salbuetsirik daude:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak dohaintzaz edo "inter vivos" eta doako beste edozein negozio juridiko dela medio eskuratzea, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

b) Eskualdaketak eta gainerako egintzak eta kontratuak, baldin eta beren xedea aurreko beste egintza batzuen eraginkortasunik eza salbatzea bada eta haiengatik Zerga ordaindu arren, ez izatea edo deuseztasuna dakarren akatsen bat bazuten.

13. artikulua. Aseguruak.

Foru lege honetako 8.c) artikulua aipatzen dituen bizitza-aseguruei buruzko kontratuen onuradunek diru-zenbatekoak jasotzen dituztenean, kontratu horiek 1992ko ekainaren 24a baino lehen gauzatu baziren, lehen 3.005,06 euroak salbuetsirik egonen dira kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna ezkontza bidezko aurreko edo ondorengotasuna bada.

## IV. KAPITULUA

*Subjektu pasiboak eta Zergaren erantzuleak*

14. artikulua. Zergadunak.

1. Zergadun gisa behartuak dira Zerga ordaintzera:

a) "Mortis causa" eskurapenetan, kausadunak.

b) Dohaintzetan eta gainerako kostugabeko "inter vivos" eskurapen parekagarrietan, dohaintza-hartzailea edo onura hartu duena.

c) Bizitza-aseguruetan, onuradunak.

2. Aurreko idatz-zatian xedatua aplikagarri izanen da edozein direrarik ere aldeek ezarritako hizbaketak edo testamentu-egileak emandako xedapenak.

15. artikulua. Ordezkoak.

Eskudirutan, efektu publikotan edo bestelako higigarrien balore, pitxi, kreditu eta oro har ondasun higigarritan egindako legatueta, legatadunaren kargura likidatuko da Zerga, baina zuzenean galdatzen ahal zaie jaraunspenaren oinordekoei, ordezkariei edo administratzaileei, zeinek, zergadunaren ordezko diren heinean, diru-zenbatekoak deskontatzen ahal dieten legatadunari legatua eskuratzen dutenean.

16. artikulua. Erantzuleak.

1. Zergaren erantzule subsidiarioak dira:

a) Gordailu, berme edo kontu korronteen "mortis causa" eskurapenetan, finantza-arterekariak eta gordailaturiko eskudiru edo baloreak entregatu edo eraturiko bermeak itzuli dituzten gainerako entitate edo pertsonak.

Hemen ezartzen denerako, ez da joko gordailaturiko eskudiru edo baloreen entregatza ez eta berme-itzulketatza ere banku-txekeak libratzea gordailuen, bermeen edo saldu behar adinako baloreen salmentaren etekinen kontura, baldin eta horrek xede bakartzat badu "mortis causa" eskurapenari karga gisa ezartzen zaion Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, txekea luzatzen bada Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin.

b) Onuradun gisa jaraunseak edo kontratueta izendaturikoak gertatzen direnei entregaturiko kopuruei dagokienez, entregatze horiek egiten dituzten Aseguru Entitateak.

Hemen ezartzen denerako, ez da aseguru-kontratueta onuradunari eginiko kopuru-entregatza joko prestazio horren konturako ordainketa, baldin eta ordainketa horren helburu bakarra bada eskualdaketa horren eskurapenari ezarritako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin luzaturiko banku-txeke bat onuradunari entregatzen bada.

c) Jaraunspenekoak diren titulu-baloreen eskualdeketa bitartekari aritzen direnak.

Hemen ezartzen denerako, bitartekari horiek ez dira tributuen erantzuleak joko, jaraunseak aginduta baloreen salmenta egitera mugatzen bada, baldin eta salmentaren xede bakarra "mortis causa" eskualdaketa karga gisa ezartzen zaion Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea bada; betiere, salmenta horretan lortutakoa onuradunari entregatzeko bankuko txekea luzatzen bada Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin, horretarako hark emandako baimenez.

2. Zergaren erantzule solidario izanen da foru, estatu, erkidego edo toki mailako edozein tributu edo ordinarazpenen subjektu pasiboa aldatzeko baimena ematen duen funtzionarioa, aldaketa horrek zuzenean edo zeharbidez baldin badakar Zerga honen kargaren peko eskurapen bat, eta zerga ordaindu izanaren frogarik eskatzen ez bada.

17. artikulua. Xedapen bereziak.

15. artikuluan xedatutakoa gorabehera, jarri gabekotzat hartuko dira, ondorio fiskaletarako, legatuen entregatzea Zergatik libre geldi dadila edo zergaren ordainketa jaraunspenaren edo pertsona jakin batzuen kargura izan dadila agintzen duten xedapenak, eta, ondorioz, ez da onartuko inolako aldaketarik foru lege honen arabera zerga ordaintzera behartuak diren pertsonen dagokienez.

## V. KAPITULUA

*Zerga-oinarria*

## LEHEN ATALA

*Arau orokorrak*

18. artikulua. Zerga-oinarria

Zerga honen zerga-oinarria, foru lege honetako III. Kapituluaren eta gainerako xedapen indardunetan jasotako salbuespenetatik bidezko direnak aplikatu ondoren, honako hau da:

a) "Mortis causa" eskurapenetan, kausadun bakoitzak jaraunspeneko ondasuntatik dagokion partearen balio garbia, halakotzat hartuz ondasun eta eskubide eskuratuen benetako balioa ken kargak, zorrak eta gastu kengarriak.

b) Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" eskurapen kostugabe parekagarrietan, eskuratutako ondasunen balio garbia, halakotzat hartuz ondasun eta eskubide eskuratuen benetako balioa ken kargak, zorrak eta gastu kengarriak.

c) Bizitza-aseguruetan, onuradunak jasotako diru-zenbatekoak.

Bizitza-asegurueta kontratueta jasotako zenbatekoak likidatzeko, onuradunak oinordetzaz eskuratutako gainerako ondasun eta eskubideei zenbateko horiek gehituko zaizkie, kausatzailea banako aseguruaren kontratu-egilea edo aseguru kolektiboaren aseguratu deanean.

19. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

Oro har, tributu-administrazioak finkatuko du zuzeneko balioespenez zerga-oinarria, eta ez da onartuko salbuespenik, ez bada foru lege honetan zehaztutako edo zerga-oinarrien zeharreko balioespeneraren arauetan jasotakorik.

## BIGARREN ATALA

*"Mortis causa" eskurapenetarako arau bereziak*

20. artikulua. Banakoaren parte.

1. Foru lege honetako 18. artikuluko a) letran xedatu denerako, jaraunspeneko ondasuntzat hartuko da eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioa, gehi etxeko arreoarena eta presuntzioen arabera gehitzen diren ondasunena, Atal honetan xedatutakoaren arabera.

2. Emaitzaren zifrari kargak, zorrak eta gastu kengarri izan litezkeenak kendu beharko zaizkie.

3. Oinordekotza-xedapenean agintzen denean legatuen entregatzea Zergatik libre izan dadila edo zergaren ordainketa jaraunspenaren edo pertsona jakin batzuen kargura izan dadila, Zergaren zenbatekoa ez da hartuko legatuen gehikuntzatza likidazio-oinarria zehazterakoan.

4. Testamentu-egileak edo oinordekoek egindako aitorten edo adierazpenak, esanez ondasun jakin batzuk besterenak direla, edo oinordetzako interesatuek egindakoak, esanez haietako batzuek jaraunspeneko ondasuntatik bazter gelditu behar dutela, ez dute eraginik izanen ondasun horiek jaraunspenetik baztertzeko, non eta ez den Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan jasotako frogabidez eta oinordetza gauzatzen den dataren aurretik garbi egiaztatzen besterentzat jotzen edo aitortzen den ondasunaren jabetza edo bazter uzteko arrazoi erabakigarria.

21. artikulua. Etxeko arrea.

Etxeko arrea kausatzaileak oinordetzan utzitako ondasunen 100eko 3 dela joko da, non eta interesatuek ez dioten kontzeptu horri balorazio handiagoa ematen edo ez duten frogatzen agiri fedemalaz

halakorik ez dela edo haren balioa apalagoa dela balioz, portzentaje hori aplikaturik lortzen den emaitza baino.

## 22. artikulua. Ondasun-gehitzea.

1. "Mortis causa" eskurapenetan, Zergaren likidazio eta ordainketarako, honako hauek hartuko dira oinordetzan utzitako ondasunen osagaiatzat:

a) Hil baino urtebete lehenago bitarte gehienez ere kausatzailearenak ziren ondasunak, non eta agiri fedemailez frogatzen ez den hark ondasun horiek eskualdatu zituela eta oinordekoa, legatuduna, hirugarren maila bitarteko ahaideren bat, edo haietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea ez den beste norbaiten eskuetan daudela. Presuntzio horrek indarra galduko du baldin eta behar bezala frogatzen bada oinordetzan utzitako ondasuntzan sarturik dagoela eskudirua edo subrogatutako beste ondasun batzuk, balio bertsuko desagertuen orde.

Ondasun horiek kausatzailearenak izan zirela frogatzeko askitzat joko da, Zuzenbideko frogabide orokorrez gain, ondasun horiek haren izenean agertzea gordailu, kontu korrante, mailegu, eta abarretan, edo Katastroan eta Erregistro Publikoetan haren izenean inskribaturik egotea. Frogabide horien aurka gailentzeko, Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan jasotako baliabideak oinarritzat hartuz, frogatu beharko da, urte bete lehenagotik ondasun horiek ez zirela jada kausatzailearenak.

b) Heriotza baino hiru urte lehenagoko epean kausatzaileak kostubidez usufuktuan eskuratutako eskubide eta ondasunak eta jabetza soilean oinordeko batek nahiz legatadun, hirugarren mailaz barneko ahaide, haietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontideak edo bikote egonkorreko kideak eskuratuak ere.

c) Kausatzaileak bere heriotzaren aurreko lau urteetan eskualdatutako ondasun eta eskubideak, betiere haien edo eskuratzaileren beste edozein ondasunen usufuktua nahiz biziarteko beste edozein eskubide beretzat gordez, salbu utzirik biziarteko errenta-asegurua, horrelako eragiketetan legearen babesean aritzen diren entitateekin kontratatuak.

d) Balore edo efektu gordailuak haien gordekinak endosatu badira, eta endosatzailearen heriotza baino lehen ez badira erretiratu edo endosoaren kontuhartzarik ez bada egin gordailatzailearen liburuetan, eta baita endosatutako balio izendunak ere, baldin eta transferentzia ez bada jaso Entitate jaulkitzailearen liburuetan kausatzailea hil baino lehen.

Ez da horrelako presuntziorik eginen behar adinako frogak daudenean eskualdatutako ondasun edo efektuen prezioa edo baliokidetasuna saltzailearen edo lagatzailearen ondarean sartua dela eta haren jaraunspenaren inbentarioan ageri dela, zeina kontuan hartu beharko baita Zergaren likidaziorako, edo behar bezala argitzen bada balore edo efektuen erretiratzea nahiz endosoaren kontu-hartzea ez dela egiaztazerik izan kausatzailearen heriotza baino lehen, haren eta endosatzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik Lerroalde honetan xedatuak ez du ezertan galarazten aurreko a), b) y c) letretan oharatarazia.

2. 1. idatz-zatiko c) eta d) letrek aipatzen dituzten eskuratzailak eta endosu-hartzaileak, oinordekoaz beste edonor badira, legataduntzat hartuko dira.

3. Ondasun horien balioa jaraunspeneko ondasuntzari gehituko zaio, eta oinordeko nahi legatadunari egotziko, bai berak baldin baditu bere esku bai haren ezkontide edo bikote egonkorreko kideak baditu.

4. Artikulu honetan xedatutakoa betetzean Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarengatik galdatzen ahal denean kuota handiagoa Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuetan gaineko Zergan aterako litzatekeena baino, azken zerga horrengatik ordaindutakoa kenduko zaio lehenbiziko zergarengatik ordaintzea egokituko litzatekeenari.

5. Artikulu honetan ezarritako presuntzioak direla medio ondasun eta eskubideren batzuk jaraunspeneko ondasuntzan sartzeari uko egiten badiote interesatuek, horien balioa kenduko da zerga-oinarritik, harik eta sortutako arazoari bide administratiboan behin betiko ebazpena eman arte.

6. Ahalorde-emailea hil eta gero ahalordeaz edo baimenez baliatuz erretiratutako ondasun edo baloreen zenbatekoa jaraunspeneko ondasuntzaren zenbateko likidoari gehituko zaio, eta, horrenbestez, interesatuak beharturik daude oinordetzan utzitako ondasunen inbentarioan ondasun horiek sartzera, eta horrek ez ditu libratuko, legeko baldintzez kanpo erretiratzearen ondorioz bereganatuak izan litzaketen erantzukizunetatik.

## 23. artikulua. Zama-eta karga-kenketa.

1. Heriotzagatik eskurapenetan honako hauek baizik ez dira kengarri izanen: ondasunen gainean zuzenean ezarritako zama edo karga etengabekoak, aldi batekoak nahiz berrerogarriak, baldin eta haien kapitala eta balioa gutxitzen badute, hala nola zentsu eta pen-

tsioak, eta ez dira halakotzat hartuko eskuratzaileren betebeharrak pertsonaltzat jotzen direnak, ez eta, hipotekak eta bahiturak bezala, eskualdatutakoaren balioaren gutxitzea ez dakartenak, eta horrek ez du ezertan galaraziko horien bitartez bermatzen diren zorretan kenketa egitearen zilegatasuna, hurrengo artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira.

2. Aurkeztutako dokumentuetan pentsio, zama edo karga kengarri iraupena espresuki jasoa ez badago, mugarik gabekoa dela joko da.

3. Zentsuaren baliotzat, kenketarako, honako hau hartuko da: legeria zibilaren arauen arabera berrerosteko eman behar den kapitalarenena.

4. Horretarako, pentsioen balioa lortzeko, Estatu Aurrekontu Orokorren Legean finkatutako diruaren legezko interes-tasaren arabera kapitalizatu behar da eta hortik ateratzen den kapitaletik hartu, usufuktua baloratzeko arauen arabera, pentsiodunaren adinari dagokion parte, pentsioa bizi artekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, aldi batekoa bada.

## 24. artikulua. Kausatzailearen zorren kenketa.

1. Heriotzagatik eskurapenetan kengarriak izanen dira:

a) Oinordetzaren kausatzailearen zorrak, baldin eta haren heriotzaren datan Prozedura Zibileko Legeak ezarritakoaren arabera exekuzioa berekin dakarren agiri publiko zein pribatu erabat fidagarri frogatzen badira eta hil baino hilabete lehenagoko epean eginak ez badira, kasu horretan haien benetakotasuna frogatzen ez bada.

b) Kausatzailearen aurkako zorrak, baldin eta mailegu pertsonal edo bermedunetatik sortuak eta fedemaile publiko batek kontuhartutako poliza batean jasoa badira. Kenketa egin ahal izateko, jatorrizko poliza edo haren ziurtagiria aurkeztu behar da, non jasoko baita kausatzailearen heriotza-egunean mailegua dela medio haren kontra legokeen saldoa.

c) Oinordetzaren kausatzailearen aurkako zorrak, aurreko bi letretan jaso gabeak, honako beharkizun hauek betetzen badira:

1.a Haien existentzia Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan aipatzen diren baliabideez frogatzea.

2.a Gainera, zorra oinordekoek agiri publikoan berrestea, hartzekoduna bertan dela, edo, bestela, agiri publikoan ere ordainketa jasoa izatea.

3.a Egindako zorra ez dadila ager parte alikuotaren oinordekoen edo legatu-hartzaileen alde eginik ez eta oinordeko edo legatadun horien ezkontide edo bikote egonkorreko kideen, aurrekoen, ondorengoen edo anai-arreben alde ere.

2. Bereziki kengarri izanen dira kausatzaileak Foru Komunitatearen, Estatuaren, erkidego eutonomen, toki-korporazioen tributuen-gatik edo Gizarte Segurantzarengatik zor litzuzkeenak eta legatu-hartzaile, albacea edo utzitako jaraunspeneko ondasuntzaren administratzaileak ordainduak, heriotzaren ondoren igorritako likidazioei buruzkoak izan arren.

3. Heriotzagatik eskualdatzeetan kengarriak izanen dira:

a) Oinordekoek nahiz albazeek egindakotzat agertzen diren zorrak, are testamentu egitetik edo abintestatokik sortutako gastu edo bestelako betebeharretatik eratorriak, salbuespen bakarra izanen delarik foru lege honetako 25. artikuluko a) lettran jasoa.

b) Kausatzaileak bere testamentuan nahiz interesatuek jaraunspenean, banaketa-eskirituran edo ondasunen deskribapenean onartutako zorrak, non eta haien existentzia ez den frogatzen artikulu honetako 1. idatz-zatiaren arabera.

4. Zorrak ez dira kengarriak izanen harik eta haiek jasotzen dituen agiriak aurkezten den arte edo haiek eragin dituen egintza Zergaren likidaziora aurkezten den arte.

5. Zorren kenketa bidezko bada eta ez baldin badago eskudirurik haiek kitatzeko, ordainetan edo ordainketarako ondasun-esleipen espresua egiten bada, Ondasun-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuetan gaineko Zergan ezarritako arauen arabera, esleipen-hartzaileak ordainduko du Zerga, dagokion kontzeptuagatik.

Horretarako, lehenbizi eta iristen deneraino, ondasun higigarriak erabiliko dira, eta horiek eskas badira baizik ez da joko ondasun higiezinietara.

## 25. artikulua. Gastuen kenketa:

Heriotzagatik eskurapenetan kengarriak dira zerga-oinarria zehazteko:

a) Testamentu edo abintestatoa arazotsu bihurtzen denean oinordeko guztien interesaren alde testamentu edo abintestato horien ordezkari legitimoek auzian egindako gastuak, oinordetzan utzitako ondasunak administratzean sortutakoak izan ezik, haiek behar bezala justifikatzen direnean autoen lekukotasun bidez.

b) Azken gaixotasunak, lur-emateak eta hiletak sortutako gastuak, frogatzen diren heinean. Lur-emate eta hiletakoak, gainera, neurritzkoak

izan beharko dute oinordetzan utzitako ondasunekiko, bizilekuko usadio eta ohituren arabera.

**HIRUGARREN ATALA**

*Doako "inter vivos" eskurapenatarako arau bereziak*

26. artikulua. Kargen kenketa:

Dohaintzetan eta gainerako kostugabeko "inter vivos" eskurapen parekagarrietan, ondasun eta eskubideen benetako baliotik foru lege honetako 23. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten kargak kenduko dira.

27. artikulua. Zorren kenketa:

Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" eskurapen kostugabe parekagarrietan eskuratzailearen betebeharrak pertsonala diren zorrak izan behar dira kengarri eta halaber eskubide errealez bermatuak, ordaintzeko dagoen heinean, baldin eta foru lege honetako 24. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badira eta eskuratzaileak agiri fede-emailean hartu bada bere gain zorra ordaintzeko betebeharra, eta horrek guztiak ez du galaraziko, kasua bada, Ondare-eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arauetan xedatutakoaren arabera bidezko den zerga-ordainketa.

**LAUGARREN ATALA**

*Balioen egiaztapena*

28. artikulua. Arau orokorrak.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zilegi du, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 44. artikuluan ezarritako frogabideen arabera, eskuratutako ondasun eta eskubideen balioa egiaztatzea. Eta gainera beste bide hauek ere erabiltzen ahal ditu:

a) Administrazioak bere esku dituen balantze eta datuak, estatuko edo atzerriko merkatuetan kotizatzen ez duten sozietateetako edo sozietate ez diren enpresetako partaidetzak direnean, zeinen balantzeak erabat indarduntzat joko baitira, ondorio fiskalatarako, enpresaren hurrengo ekitaldi ekonomikoan, agiri bidezko kontrako frogarik baldin bada salbu, eskualdaketaren datako balantzea galdatzearen zilegitasuna ezertan galarazi gabe.

b) Subsidiarioki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legean ezarritako balorazio-arauek, Zergaren sorrarazpenaren datari buruzkoak.

2. Tributu-administrazioak aukeran du aipatutako frogabide horietatik zein erabili, baina ez da beharrezko horiez guztiez baliatzea, horietako baten batez lortutakoa benetako balioaren argitzailetzat jotzen denean.

3. Interesatuak, 53. artikuluan arabera, aurkeztera beharturik dauden aitopenean, behartuak dira kargapeko ondare-gehitzearen barnean sartzen den ondasun eta eskubide bakoitzari sorrarazpenaren datan ematen dioten benetako balioa jasotzera. Balio hori lehenetsiko da egiaztatutakoa baino handiagoa bada.

4. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egiten duen likidazioarekin batera jakinaraziko du balio-egiaztapena.

5. Ondasun-egiaztapenean interesatuek aitortutakoak baino balio handiagoak hautematen badira, haiek zilegi dute aurka egitea, balio berriak kontuan hartuz egiten diren likidazioen erreklamazioetarako ezarritako epe beretan edo peritu-tasazio kontraesanezkora jotzea, erregelamenduz ezartzen diren modu eta epeetan. Peritu-tasazio kontraesanezkoaren eskaera aurkezteak egindako likidazioen sarrera etenezaraziko du eta baita haien aurkako erreklamazio-epea ere.

"Inter vivos" eskurapen kostugabeetan, egiaztapen administratibotik sortzen diren balioek tributu-arloko ondorioak izan ditzaketenean eskualdatzaileengan, banan bana jakinaraziko zaizkie, epe berean aurka egin edo peritu-tasazio kontraesanezkoaren bidez zuzendu ahal ditzaten, eta erreklamazioa nahiz zuzenketa osorik edo hein batez onartzen bada, emandako ebazpena onuragarri izanen da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako subjektu pasiboentzat ere.

**VI. KAPITULUA**

*Likidazio-oinarria*

29. artikulua. Likidazio-oinarria

Zergaren likidazio-oinarria lortzen da zerga-oinarriari Kapitulu honetako eta gainerako legeko xedapenetan jasotakoetatik bidezko diren murrizketak aplikatuz.

30. artikulua. "Mortis causa" eskurapenak.

Naturgune babestutzat nahiz Natura 2000 Sareko Komunitatearen interesgunezkat proposatutako lurren jabari osoaren nahiz "jabetza soil"aren "mortis causa" eskurapenak 100eko 95eko murrizketa izanen dute Zergaren oinarrian. Murrizketa berdina eginen zaio usufektuaren iraugintzeari.

31. artikulua. Dohaintzak.

Naturgune babestutzat nahiz Natura 2000 Sareko Komunitatearen interesgunezkat proposatutako lurren jabari osoaren nahiz "jabetza soil"aren "inter vivos"ko dohaintzek 100eko 95eko murrizketa izanen dute Zergaren oinarrian. Murrizketa berdina eginen zaio eskualdatzaileak beretzat gordetako usufektuaren iraugintzeari.

32. artikulua. Aseguruak.

8.c) artikulua aipatzen dituen bizitzaren gaineko aseguruaren kontratuen onuradunak aseguru-entitateetatik jasotako diru-zenbatekoak, 1992ko ekainaren 24a baino lehen gauzatu baziren, honako murrizketa hauek izanen dituzte zerga-oinarrian:

a) 100eko 90eko murrizketa 3.005,06 eurotik gorako zenbatekoetan, ezkontza bidezko aurrekotasuna nahiz ondorengotasuna denean kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna.

b) 100eko 50eko murrizketa, albo-ahaidetasunezko bigarren mailakoa denean kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna.

c) 100eko 25eko murrizketa, albo-ahaidetasunezko hirugarren edo laugarren mailakoa denean kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna.

d) 100eko 10eko murrizketa, ahaidetasun hori urrunagokoa denean edo ahaidetasunik ez denean.

**VII. KAPITULUA**

*Zerga-zorra*

33. artikulua. Likidazio-arauek.

1. Kausatzailearen eta kausadunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga dagokie jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordekotza-tituluz "mortis causa" eskuratutakoei.

Kausadunak ezezagunak badira, arrotzen arteko oinordetzari dagoen tarifaren arabera eginen da likidazioa, nahiz eta horrek ez duen galarazten nortzu diren jakitean itzulketa egin beharra.

2. Dohaintza-emailearen eta hartzailearen arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga ordaintzea dagokie dohaintzaz nahiz doako eta "inter vivos"ko beste edozein bide juridikoz eskuratutakoei.

3. Aseguruaren kontratu-egile edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga ordainduko da bizitza-aseguruaren kasuan. Aseguru kolektiboetan eta enpresek beren langileen alde kontratatutakoetan aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunak aginduko du.

34. artikulua. Zerga-kuota.

1. Zergaren kuotaren emaitza honela lortzen da: likidazio-oinarriari, aurreko Kapituluaren xedatutakoaren arabera kalkulaturik betiere, jarraian ematen direnetatik aurreko artikuluan xedatutakoarri jarraikiz zehaztutako ahaidetasun-mailaren arabera dagokion karga-tasa aplikatuko zaio.

a) Ezkontideak edo bikote egonkorreko kideak, odolkidetasuneko lerro zuzeneko aurreko nahiz ondorengoak, adoptatzaile nahiz adoptatuak:

Karga-tasa: 100eko 0,80.

b) Ezkontza bidezko aurreko eta ondorengoan eta bigarren eta hirugarren mailako albo-ahaiden "mortis causa" eskurapenak direnean eta berdin 8. artikuluko c) letrak aipatzen duen aseguruaren heriotza-kasurako bizitzaren gaineko aseguru-kontratuak eskurapenak direnean:

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
7.813,16raino .....	% 0,80 %
7.813,16tik gora .....	Ondoko c) d) eta e) letreren arabera dagokiona

c) Ezkontza bidezko aurreko eta ondorengoak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopuritik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
6.010,12raino .....	% 6,00
6.010,13tik 12.020,24raino .....	% 7,00
12.020,25etik 30.050,61eraino .....	% 8,00
30.050,62tik 60.101,21eraino .....	% 10,00
60.101,22tik 90.151,82raino .....	% 11,00
90.151,83tik 120.202,42raino .....	% 13,00
120.202,43tik 150.253,03raino .....	% 14,00
150.253,04tik 300.506,05eraino .....	% 16,00
300.506,06tik 601.012,10eraino .....	% 17,00
601.012,11tik 1.803.036,31raino .....	% 18,00
1.803.036,32tik 3.005.060,52raino .....	% 19,00
3.005.060,53tik gora .....	% 20,00



d) Bigarren mailako albo-ahaideak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopuritik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
6.010,12raino .....	% 8,00
6.010,13tik 12.020,24raino .....	% 9,00
12.020,25etik 30.050,61eraino .....	% 10,00
30.050,62tik 60.101,21eraino .....	% 11,00
60.101,22 tik 90.151,82raino .....	% 13,00
90.151,83tik 120.202,42raino .....	% 15,00
120.202,43tik 150.253,03raino .....	% 17,00
150.253,04tik 300.506,05eraino .....	% 20,00
300.506,06tik 601.012,10eraino .....	% 23,00
601.012,11tik 1.803.036,31raino .....	% 26,00
1.803.036,32tik 3.005.060,52raino .....	% 30,00
3.005.060,53tik gora .....	% 35,00

d) Hirugarren mailako albo-ahaideak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopuritik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
6.010,12raino .....	% 9,00
6.010,13tik 12.020,24raino .....	% 10,00
12.020,25etik 30.050,61eraino .....	% 11,00
30.050,62tik 60.101,21eraino .....	% 13,00
60.101,22 tik 90.151,82raino .....	% 15,00
90.151,83tik 120.202,42raino .....	% 17,00
120.202,43tik 150.253,03raino .....	% 20,00
150.253,04tik 300.506,05eraino .....	% 23,00
300.506,06tik 601.012,10eraino .....	% 26,00
601.012,11tik 1.803.036,31raino .....	% 30,00
1.803.036,32tik 3.005.060,52raino .....	% 34,00
3.005.060,53tik gora .....	% 39,00

d) Laugarren mailako albo-ahaideak.

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
6.010,12raino .....	% 11,00
6.010,13tik 12.020,24raino .....	% 12,00
12.020,25etik 30.050,61eraino .....	% 15,00
30.050,62tik 60.101,21eraino .....	% 15,00
60.101,22tik 90.151,82raino .....	% 17,00
90.151,83tik 120.202,42raino .....	% 20,00
120.202,43tik 150.253,03raino .....	% 23,00
150.253,04tik 300.506,05eraino .....	% 26,00
300.506,06tik 601.012,10eraino .....	% 35,00
601.012,11tik 1.803.036,31raino .....	% 38,00
1.803.036,32tik 3.005.060,52raino .....	% 41,00
3.005.060,53tik gora .....	% 44,00

g) Albo-ahaidetasun urrunagokoak eta arrotzak.

LIKIDAZIO-OINARRIA	KARGA-TASA
6.010,12raino .....	% 11,00
6.010,13tik 12.020,24raino .....	% 12,00
12.020,25etik 30.050,61eraino .....	% 14,00
30.050,62tik 60.101,21eraino .....	% 16,00
60.101,22tik 90.151,82raino .....	% 18,00
90.151,83tik 120.202,42raino .....	% 21,00
120.202,43tik 150.253,03raino .....	% 24,00
150.253,04tik 300.506,05eraino .....	% 29,00
300.506,06tik 601.012,10eraino .....	% 36,00
601.012,11tik 1.803.036,31raino .....	% 40,00
1.803.036,32tik 3.005.060,52raino .....	% 45,00
3.005.060,53tik gora .....	% 48,00

2. Aurreko tarifak ez dira gehikorrek eta likidazio-oinarri osoari aplikatuko zaizkio.

3. Tasak aplikatu eta gertatzen denean oinarriaren gehikuntzari dagokiola gehikuntza hori baino kuota-zati handiagoa, kuotari soberakin edo diferentzia horren zenbatekoa ofizioz kenduko zaio.

35. artikulua. Zerga-ezarpen bikoitzagatikoa kenketa.

Zergadunak bizilekua Espainiako lurraldean duenean, estatuko arauetan ezartzen denaren arabera, honako bi kopuru hauetako txikiaren kenketa egiteko eskubidea izanen du:

a) Zerga honen peko ondare-gehikuntza dela eta, atzerrian ordaindu duen benetako zenbatekoa.

b) Zerga honen benetako batez besteko karga-tasa Espainiatik kanpo kokaturiko ondasunei edo gauza daitezkeen eskubideen onda-

re-gehikuntzari aplikatetik sortzen den emaitza, atzerrian antzeko zerga bat ordaindu duenean.

## VI. KAPITULUA

### Sorrazpena eta preskripzioa

36. artikulua. Sorrazpena

1. Aseguratua hiltzen den kasurako bizitza-aseguruko kontratuen onuradunek heriotzagatikoa eskurapenetan eta diru-kopuruak jasotzean, edozein modalitatekoak direla ere, kausatzailearen edo aseguruaren heriotza-egunean sorrazpena da Zerga, edo absentea hildakotzat ematen duen agiria irmo egiten den egunean, Kode Zibileko 196. artikulua arabera. Horrek ez du ezertan galaraziko foru lege honetako 6. artikuluan desegite-baldintzei buruz xedatutakoa, Kode Zibileko 197. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen badira.

2. Dohaintza edo "inter vivos" eta kostugabeko bestelako negozio juridikoen bidez eskuratutakoarik dagokionez, egintza nahiz kontratua gauzatzen den egunean sorrazpena da Zerga, eta halakotzat joko da, kontratu-egilea nahiz aseguratu bizirik gelditzen den kasurako bizitza-aseguru baten onuradunak jasotako diru-kopuruaren kasuan, onuradunak jaso behar duen lehen diru-kopurua edo bakarra eskatzea daukan eguna.

3. Ondasun edo eskubideen edozein eskurapenek bere eragina etenda daukanean baldintza, muga, fideikomiso nahiz beste edozein mugapen dela medio, muga horiek desagertzen diren egunean gauzatatutako joko da, eta une horri begiratuko zaio ondasunen balioa eta karga-tasa zehazteko.

37. artikulua. Preskripzioa.

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren preskripzioa Tributuei buruzko Foru Legeko 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arauen pean dago.

2. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, preskripziorako, likidazioa aurkezten diren agirien kasuan aurkezpen eguna joko balioz-kotza pribatuetan, non eta lehenago gertatzen ez den Kode Zibileko 1227 artikuluan jasotako kasuetakoren bat; izan ere, orduan inkorporazio, inskripzio, heriotza edo entregatze-data izanen baitira baliagarri, hurrenez hurren. Agiri bidez jaso gabeko kontratuetan, ondorio horietarako, interesatuek foru lege honetako 53. artikuluan ezarritakoa betetzen duten eguna hartuko da baliagarritzat.

3. Uko-egitearen ondoriozko eskurapenak kargatzen dituen zerga likidatzeko preskripzio-epela, foru lege honetako 44. artikulua arabera, ukoaren datatik aurrera hasiko da kontatzen, eta, ondorio fiskal horietarako soilik, ez da aplikagarri izanen Kode Zibileko 989. artikuluan eta Konpilazioako 315.ean xedatutakoa.

## IX. KAPITULUA

### Arau bereziak

### LEHEN SAILA

#### Xedapen orokorrak

38. artikulua. Usufuktu, erabilera eta bizilekurako eskubidea.

1. Usufuktu, erabiltzeko, bizitzeko eta jabetza soilerako eskubideak baloratze, honako erregelok aplikatuko dira:

a) Aldi baterako usufuktuaren balioa gozagai diren ondasunen guztizko balioaren ehuneko jakin bat izanen da, usufuktuaren iraupenaren arabera. Hala, usufuktuak bost urte edo gutxiago irauten badu, ehuneko hamar izanen da, eta hortik gorako urte bakoitzeko, ondasunen guztizko balioaren ehuneko bi gehituko zaio. Nolanahi ere, inoiz ez da izanen ondasunen guztizko balioaren ehuneko hirurogeita hamar baino handiagoa.

b) Biziarteko usufuktuaren, balioa ondasunen guztizko balioaren 100eko 70 izanen da, usufuktuaren 20 urte baino gutxiago izanez gero, eta hortik gorako urte bakoitzeko 100eko 1eko proportzioan txikituko da. Gutxienezko muga guztizko balioaren 100eko 10 izanen da.

c) Jabetza soilaren balioa usufuktu, erabilera eta bizilekuaren balioaren eta ondasunen guztizko balioaren arteko aldearen arabera kontatuko da. Aldi berean biziartekoak eta aldi baterakoak diren usufuktuaren, jabetza soilaren baloratze, aurreko erregelatik hari baliorik txikiena ematen dion erregela aplikatuko da.

d) Usufuktu pertsona juridiko batentzat eratua bada, a) eta c) leterako erregelak aplikatuko dira pertsona fisiko bati eratzitako jabetza soilaren balioa zehazteko. Usufuktuaren iraupena zehaztugabea denean, usufuktuari ondasunei egotzitako guztizko balioaren 100eko 60ko balioa emanen zaio.

e) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealean balioa zehazteko, eskubide horiek dagozkien ondasunen balioaren 100eko 75i aplikatuko zaizkio, kasuen arabera, aldi baterako edo biziarteko usufuktuak baloratze erregelak.

2. Eskuratzaileak ondasunak baliatzeko ahalmena izanez gero, jabari osoagatik likidatuko da Zerga, bidezkoa izan litekeen itzulketaren kalterik gabe.



3. Usufurkturako, erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak eskuratzen direnean, eskuratzaileari eskatuko zaio Zerga, haren eskurapen-titulua irenbatzeko araberako, eta eskubide horien balioa oinarri harturik.

4. Jabetza soilaren eskuratzaileari, berriz, eskurapen-titulua irenbatzeko araberako eskatuko zaio Zerga, jabetza soilaren balioa oinarri hartuta, eta ondasunen balio osoari dagokion tasa aplikatuko da.

Aurrean aipatutako likidazioaren kalterik gabe, usufurktua iraungitzean, lehenbiziko jabe soilak, eskurapen-titulua indarrez, usufurktuaren iraungipenagatik ordaindu behar du, jabetza soil eskuratzean zergarik likidatu ez zitzaion ehunekoaren gainean. Ehuneko hori jabaria kontsolidatu zen unean ondasunek zuten balioari aplikatuko zaio, orduan indarra izan zuten tarifei loturik eta ondasunen balio osoari dagokion tasaren arabera.

Usufurktua iraungitzean lehenbiziko jabe soilaren titulua egiaztatzen ez bada, iraungipenaren zerga-ondorioei begira, titulua arrotzen arteko jaraunspentzat joko da.

Aurreko idatz-zatietan jabe soilari ezarri zaizkion betebeharrak jabetza soilaren eskuratzaileengana aldatuko dira beti, eta, usufurktua iraungitzen denean, lehenbiziko jabe soilak ordaindu behar zukeena ordaindu beharko dute.

5. a) Usufurktua edo jabetza soil eskualdatuz gero, beste likidazio bat eginen da. Hartan, aurreko erregelen arabera baloratuko da usufurktua edo jabetza soil eta kontuan hartuko da eskualdatzailearen eta eskuratzailearen arteko lotura juridikoa, aurreko idatz-zatietan xedatutakoaren arabera bidezkoak izan litezkeen likidazioak gorabehera.

b) Usufurktudunak bere eskubidea jabe soilari eskualdatzen badiu, bigarrenari eskatuko zaizkio jabariaren zatiketagatik ordaindu beharreko likidazioetan handiena eta usufurktua eskuratzeko bide ematen dion negozio juridikoari dagokiona.

Jabe soilak bere eskubidea usufurktudunari eskualdatzen badiu, edo biok hirugarren bati eskualdatzen badiote, eskurapen horiei dagozkien likidazioak baizik ez dira eskatuko.

c) Onartuta dagoen usufurktuari uko egitea, uko egite huts eta soil izan arren, usufurktudunak jabe soilari egiten dion dohaintzat hartuko da zergen ondorioetarako, eta aurreko b) letran xedatutakoa aplikatuko da.

6. Elkarren segidako usufurktuetan jabe soilari Zerga eskatzeko, ehuneko handieneko usufurktua hartuko da kontuan, eta, usufurktu hori iraungitzean, jabe soilak ondokoengatik ordainduko du: ehuneko txikiagoko usufurktua hastearekin batera jabetza soilaren balioak izan duen balio-igoerengatik; sendotze partzialaren tituluagatik, baldin eta ehuneko handieneko usufurktua lehenbizikoa izan bada; eta baldintza etengarria bete edo epea bukatzeagatik, geroagokoa izan bada. Eta horrela, hurrenez hurren, gainerako usufurktuak iraungitzean.

7. Usufurktudunaren bizitza ez den baldintza suntsiarazlearekin eratan bada usufurktua, biziarteko usufurktuetarako aurreko idatz-zatietan ezarritako erregelak hartuko dira kontuan likidazioa egiteko. Hala ere, baldintza suntsiarazlea beteta, beste likidazio bat eginen da, aldi baterako usufurktuetarako ezarritako erregelen arabera, eta haren indarrez bidezko zuzenketak eginen dira Foru Komunitatearen edo interesatuen mesedetan.

8. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak iraungitzean, Zerga eskatuko zaio usufurktudunari, usufurkturik badago, haren balio-igoerari dagokion heinean; eta, usufurkturik ez badago, jabe soilari eginen zaio eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak baino lehenago usufurktua iraungitzen bada, jabe soilak likidazioa ordainduko du usufurktu-eskubidearen iraungipenak eragindako kontsolidazio partzialagatik, horren bidez beraren jabetza soilak izandako balio-igoerari dagokion heinean.

### 39. artikulua. Pentsioak.

1. Doan eratan diren pentsioak direla-eta, pentsiodunak pentsioaren eratailearekin duen ahaidetasunaren arabera ordainduko da Zerga. Horrelako pentsioak foru lege honetako 23.4 artikuluko erregelen arabera baloratuko dira.

2. Testamentuz eratan diren pentsioak direla-eta, horrelako pentsio bat iraungi eta jaraunspen bidez utzitako ondasuntzak haren kapitala galtzen duenean, pentsioaren kapitalari dagokion Zerga ordaindu behar du ondasunaren eskuratzaileak, pentsioa eratu zenean indarrean zegoen tarifaren arabera.

3. Ondasun edo eskubideen lagapenaren truke eratan diren pentsioak direla eta, eskualdatzailea pentsioduna bera ez bada, bien arteko ahaidetasun mailari dagokion tarifaren arabera ordainduko da Zerga.

### 40. artikulua. Beste figura batzuk.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagozkien balorazio-erregelak erabiliko dira doako kontratu eta zentsuetako agintza eta aukerak eratan direnean. Transakzioetan, on-

dasun edo eskubide auzigaiak esleitu, deklaratu edo aintzatesten diren titulua irenbatzeko araberako likidatuko da Zerga.

### BIGARREN ATALA

#### "Mortis causa" eskurapenak

### 41. artikulua. Banaketa.

1. Jaraunspenezko oinordetzetan, interesatuek beren artean egiten dituzten banaketak eta esleipenak egiten dituztela ere, Zergaren ondorioetarako uste izanen da hainbanaketa egin dutela eta oinordetzari buruzko arauak bete dituztela, berdin dio ondasunak zergapekoak izan, zerga ordaindu beharretik salbuesiak izan nahiz hobaridunak. Beraz, balioak egiaztatzean azaltzen diren igoerak eskuratzaile edo jaraunspen artean hainbanatuko dira.

2. Testamentugile batek norbait berariaz utzitako ondasunen edo jaraunspena ez den bidetik norbait esleitu zaizkion ondasunen egiaztatzen direnean haien balioaren igoera azaltzen bada, edo ondasunoi zerga-loturarik eza, salbuespena edo hoberia aplikatu behar bazaie, igoerak edo gutxitzeak ondasunen eskuratzaileari soilik eragingen dio.

### 42. artikulua. Gehiegizko esleipenak.

Jaraunspenezko oinordetzetan, jaraunse edo legatadunetako bati esleitzen zaizkion ondasunen balio deklaratuak berak hartu behar duena baino handiagoa bada eta soberakina gainerako jaraunseei eskudirutan ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, berak ordainduko du esleipenari dagokion Zerga, hartu duen soberakinaren neurrian, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauak jarraituz; baina gainerako jaraunselek ere Zerga ordaindu beharko dute, bakoitzak jaraunspenean esleitu zaion kopuruaren arabera.

### 43. artikulua. "Mortis causa" dohaintzak.

"Mortis causa" dohaintzak eta kidekoak egiten direnean, ondasun-mota edozein izanda ere, jaraunspenetan bezala ordainduko da Zerga, zenbatekoaren arabera eta dohaintza-emallearen eta dohaintza-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, baldin eta, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioako 166. legeari jarraituz, dohaintza ondasunak emanez egiten bada, "inter vivos" dohaintzetan bezala ordainduko da Zerga.

### 44. artikulua. Jaraunspenari uko egitea.

1. Kode Zibilarren 1.000. artikuluko 3. zenbakiaren azken zatian adierazitako moduan, jaraunspenari uko egiten ahal zaio, uko egite soil eta doakoan, uko-egilearen zatia hartuko duten jaraunseleki guztien mesedetan. Horrelako ukoa ez da zergapeko egintza; hala ere, bai kasu honetan eta bai uko egite soil eta doakoaren bidez norberaren legatua jaraunseleki guztientzat uzten denean ere, ukoaren onura jasotzen duten pertsonak Zerga ordaindu behar dute uko-egilearen zatia jaraunseleki guztientzat, uko-egileak jaraunspenen eskalan aplikatu behar zukeen tasaren arabera, salbu eta, kausatzaileak ukoaren onuradunarekin duen ahaidetasunaren zioz, onuradunari tasa handiagoa dagokion kasuetan.

Kode Zibilarren 1.000. artikuluan ageri diren gainerako uko-kasuetan, uko-egileari jaraunspenagatik Zerga eskatuko zaio, eta gainera, bidezkoa bada, likidazioa eginen da uko egindako zatiaren lagapen edo dohaintzagatik.

2. Jaraunspen edo legatuari dagokion Zerga behin preskribatu eta gero, hura zapuzten bada edo uko egiten bazaio, Zergaren ondorioetarako, zapuztaile edo uko-egileak zapuzketa edo ukoaren onura jasotzen duenari dohaintza egin balio bezala joko da.

### 45. artikulua. Ordezpenak.

1. Ordezpen arruntetan ordezkoari soilik eskatuko zaio Zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasun-mailari erreparatuta, baldin eta eraturako jaraunseleki kausatzailea baino lehen hiltzen bada edo jaraunspena onartzerik ez badu. Jaraunspena onartu nahi ez badu, ukoari buruz xedatutakoari eutsiko zaio.

2. Kode Zibilean azaltzen diren ordezpen pupilarrean eta eredu-zkoan, ordezkoari eskatuko zaio Zerga, ordezpena egiten denean, ordaintzeko ondorengoarekin duen ahaidetasun mailaren arabera. Hala ere, kontuan hartuko da ondorengo horrek testamentugilea hildakoan ordaindutakoa.

3. a) Fideikomisozko ordezpenetan, Zerga ordainduko da bai eraketan eta bai ordezpen bakoitzean, ordezkoak kausatzailearekin duen ahaidetasuna kontuan harturik, eta foru lege honetako 36.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

b) Kontzeptu hori dela bide eraturako jaraunselek ez badute eskubiderik, ez "inter vivos" egintzen bidez ez heriotzaren zioz, ordezpenari loturik dauden jaraunspeneko ondasunen baliatzeak, orduan usufurktudun soiltzat hartuko dira.

c) Ondasun horiek baliatzeko ahalmena nahibadako baldintza bati loturik badago eta baldintza hori betetzea jaraunseleki, albazea, kontulari-banatzale edo testamentuan berariaz izendatutako beste pertsonaren baten esku badago soil-soilik, ondasunen jabetza osoagatik eginen da

likidazioa. Hala ere, jaraunsearen eskubidedunek beren kausatzaileak ordainduta Zergaren itzulketa eskatzen ahalko dute, jabetza soilari dagokion zatian; horretarako frogatu egin beharko dute baldintza bete dela eta ordezenari loturiko ondasunak oso-osorik eskualdatu zaizkiola izendatutako ordezoari.

d) Aurreko letrako xedapena bete beharrekoa izanen da, halaber, testamentugileak jaraunseari baimena ematen dionean ondasunak baliatzeko, horien premia izanez gero, eta aurretik bere ondasunak besterendurik, berdin dio premia frogatu beharra ezartzen dion edo ez; bai eta baimen hori jaraunselekidetara, albazea edo kontulari-banatzailleak edo testamentugileak berariaz izendatutako beste pertsonaren batek ematen dutenean ere.

Itzulketa bidezkoa izan dadin, gainera, horrelakoetan egiaztatu egin behar da ordezenari loturik dauden jaraunspeneko ondasunak oso-osorik eskualdatu zaizkiola ordezoari.

4. Artikulu honetan xedatutakoa legatuen ordezenetan ere aplikatu behar da.

46. artikulua. Fideikomisoak.

1. Fideikomisoetan, likidazioa egin behar den epeetan fideikomisozko jaraunselekidetara ez bada, fiduziarioak ordainduko du Zerga, arrotzen arteko jaraunspenarako ezarritako tasen arabera, kausatzailearekin duen ahaidetasuna edozein delarik ere.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera ordainduta fideikomisoaren mesede egingo dio, fideikomisoaren ezaguna bada. Berari dagokion tarifa fiduziarioari aplikaturikoa baino txikiagoa bada, gehien ordaindu duenak edo beraren kausadunek eskubidea izango dute ordainduta soberakina itzul dakien.

3. Likidazioa egiteko epeetan jaraunsele fideikomisoaren ezagutzen bada, beronek Zerga ordainduko du kausatzailearekin duen ahaidetasun mailari dagokion jaraunspen-escalaren arabera eta eskuratutako ondasunen balioaren arabera.

4. Fiduziarioak, edo testamentugileak jaraunspena eskualdatzeko agindu dion pertsonak, ondasunak osoz edo zati batean, aldi baterako edo bizitza osoan gozatzeko ahal badiu, edo fideikomisozko jaraunselekidetara eman arte ondasunen errentak edo produktuak baliatzeko ahalmena bada, usufuktudun gisa ordainduko du Zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasun mailaren arabera. Kasu horretan, fideikomisoaren ordainduko du, halaber, dagokion Zerga, ondasunetaz jabetzen denean, eta ez da beraren mesedetan konputatuko fiduziarioak ordainduta.

5. Fideikomisoetan, jaraunsele fiduziarioari jaraunspeneko ondasunak jabetzan uzten bazaizkio, kargaren bat kendu behar bada ere, Kode Zibilarren 788. artikuluan xedatu bezala, jaraunspen bidez jabetza eskuratzeko ordainduko da Zerga. Horrelakoetan, karga kenduko da, kendu ahal bada, eta horregatik Zerga ordainduko du jaraunselekidetara ezarritako kargaren ondoriozko onura eskuratzeko duenak, ezaguna bada, egintzari juridikoki dagokion titularen arabera edo kontzeptuaren arabera; onuraduna ezaguna ez bada, jaraunselekidetara ordainduko du kontzeptu horri dagokion Zerga, eta foru lege honetako 15. artikuluan aintzatetsitako eskubidea erabili ahal izanen du.

Fideikomisoetan kontuan hartuko da, fideikomisoaren dagokion likidazioa egiteko, foru lege honetako 36.3 artikuluan xedatutakoa.

47. artikulua. Konfiantzako heredamendua.

Konfiantzako heredamendua, Konpilazioko II. Liburuako XII. Tituluan arautu dena, fideikomisoetat joko da Zergaren ondorio guztietarako.

48. artikulua. Erreserbak.

1. Ondasun erreserbagarrien jaraunspenak direla-eta, Konpilazioko 274. legean eta hurrengoetan, 177.ean eta 179.ean eta Kode Zibilarren 811. artikuluan xedatutakoaren arabera, erreserba-gordetzaileak ordainduko du Zerga, usufuktudun gisa; baina erreserba iraungitzen bada, erreserba-gordetzaileak jabetza soilari dagokion Zerga ordaindu beharko du; halakoetan 36.3 artikuluko xedapena aplikatuko da, eta bai, egoki denean, 46. artikuluko xedapena ere.

2. Kode Zibilarren 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan arautzen den erreserba arrunta egiten denean, erreserba-gordetzaileari Zerga likidatuko zaio jabari osoz. Hala ere, eskubidea izanen du erreserbapeko ondasunen jabetza soilagatik ordaindu duena itzul dakion, ondasun horiek edo berorien subrogatuak erreserba-hartzaileari eskualdatu izana frogatzen bada.

3. Erreserba-gordetzaileak, balizko erreserba-hartzaile guztiak ados daudelarik, erreserbapeko ondasunak besterentzen badiu, Zergaren ondorioetarako erreserba iraungitzaile joko da eta likidazioa egiten da kontzeptu horregatik.

4. Erreserba-hartzaileak jaraunspenarako eskalaren arabera ordainduko du Zerga, 36.3 artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, eta ondasunak utzi dituen pertsonarekin duen ahaidetasun mailaren arabera, baina kontuan hartu gabe erreserba-gordetzailearekin izan dezakeen ahaidetasun maila.

## HIRUGARREN ATALA

"Inter vivos" eskurapen doakoak

49. artikulua. Kostubidezko dohaintzak eta ordain gisa ematen direnak.

1. Kostubidezko eta ordainezko dohaintzek kontzeptu horietatik eta beren zenbateko osoa kontuan harturik ordainduko dute Zerga. Elkarrentzako prestaziorik badago edo dohaintza-hartzaileari kargarik ezartzen bazaio, diferentziari dagokion Zerga baizik ez da ordainduko kontzeptu horregatik. Horrez gain, bidezkoa bada, bateratzen diren prestazioengatik edo kargak ezartzeagatik ere zerga ordainduko da.

2. Biziarteko edo aldi baterako pentsioen truke ondasunik lagatuz gero, dohaintzetan bezala ordainduko da Zerga, ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiarengatik, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauekin bat etorririk.

50. artikulua. Doteak eta zuzkidurak.

Doteak eta zuzkidurak dohaintzetan hartuko dira Zergaren ondorioetarako. Doteak eta zuzkidurak dohaintzetan hartuko dira Zergaren ondorioetarako. Biziarteko edo aldi baterako errenta edo pentsioa ordainduz gauzatzen baldin badira, 39. artikuluan xedatutakoa beteko da.

51. artikulua. Dohaintzen metaketa.

Dohaintza-emaile batek dohaintza-hartzaile bati egiten dizkion dohaintzak eta horien pareko "inter vivos" eskualdaketak, hurrenez hurren egiten badira batetik bestera hiru urteko epea iragan baino lehen, eskualdaketa bakartat joko dira Zergaren likidazioan, eta aplikatu behar zaizkien tasak oinarri guztien baturaren arabera zehaztuko dira.

52. artikulua. Dohaintzen eta jaraunspenaren metaketa.

Dohaintzak eta horien pareko "inter vivos" eskualdaketak metatu ahal izanen dira dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearentzat kausatzen duen jaraunspenarekin batera, baldin eta honen eta haien artean gehienez hiru urteko epea iragaten bada, eta eskurapen bakartat joko dira aplikatu beharreko tasa zehazteko orduan.

## X. KAPITULUA

Formazko betebeharrak

53. artikulua. Aitorpena.

Subjektu pasiboek zerga-aitorpena aurkeztu behar dute foru lege honetan arautu diren zergapeko egintzen berri emateko. Aitorpenaren edukia eta hura aurkezteko epeak eta bideak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Administrazioak baimena ematen ahal du aitorpena aurkezteko epea luzatzeko, arau bidez zehazten den moduan.

54. artikulua. Agiriaren aurkezlea.

Agiriaren aurkezlea, hori egiteagatik, Zerga ordaindu behar dutenen mandataria izango da eta, hortaz, aurkeztu duen aitorpenari buruz egiten zaizkion jakinarazpenek, bai balioak egiaztatzearen bai egiten diren likidazioen gainekoek, eta izenpetzen dituen eginbideek, interesatuek onetsiko zituztenen balioa izango dute eta ondorio berdinak sortuko dituzte.

55. artikulua. Agintari, funtzionario eta norbanakoen betebeharrak.

1. Epai-organoei Ekonomia eta Ogasun Departamentuari hilerio bidaliko diote beteazitako epaitzen edo epai irmoen zerrenda, baldin eta berauetatik ondorioztatzen bada Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapean dagoen ondare-gehikuntzaren bat dagoela.

2. Erregistro Zibileko arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari hilerio, lehenengo hamabostaldian, aurreko hilabetean hildakoen izenen eta helbideen zerrenda bidaliko diote.

3. Notarioek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eman behar dizkiote beraiek beren eginkizunak burutzeko esku hartu duten egintzei buruz eskatzen dizkien datuak, eta dohainik luzatu behar dituzte, hamabost eguneko epean, hark eskatuz gero, eskuetsi dituzten edo beren protokoloetan sartu dituzten agiriaren kopiak, 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34 eta 35. artikuluetan aipatzen diren agiri publikoen kasuan izan ezik; eta senar-emaztearen kontuei buruzkoak ere bai, ezkontza-sozietatearen ekonomia-araubideari dagozkionak izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian bidali beharko dituzte aurreko hiruhilekoan eskuetsitako agiri guztien zerrenda eta aurkibidea, baldin eta haiek Zergaren peko egintzak diren ondare-gehikuntzak ekartzen ahal dituzten egintzei edo kontratuei buruzkoak badira. Gainera, epe berean bidali beharko dute arestian adierazitako edukia duten agiri pribatuen zerrenda, baldin eta beraiek ezagutuko edo sinaturak legebidezatzeko aurkeztu bazaizkie.

4. Epai-organoei, finantza-bitartekariei, elkarteek, fundazioek, sozietateek, funtzionarioek norbanakoei eta beste erakunde publiko edo pribatu guztiek ez dute erabakiko ondasunak beraien titularrak ez direnei ematea, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik egiaztatu behar dute.

tzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena eman ezean.

5. Aseguru-erakundeek ezin likidatu edo ordainduko dituzte pertsona baten biziaren gainean itundutakoak, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena eman ezean.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak betetzen ez bada, zehapena jarriko da foru lege honen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzioko organoen kasuan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gertaerak jakinarazi ahal izango dizkio Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari, Fiskaltzaren bidez, ondorio egokietarako.

56. artikulua. Ordainketa, salbuespena edo loturarik eza ez frogatzeak dakartzan ondorioak.

Zerga honen kargapean dauden egintza edo kontratuak agerrarazteko egiten diren agiriak bulego edo erregistro publikoetan onartu daitezzen eta ondorioak izan ditzaten, Zerga ordainduta dagoela, edo salbuespena nahiz ordaindu beharrik ez dagoela frogatu beharko da, salbu eta hipotekei buruzko legerian aurreikusitako kasuetan eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena ematen duen kasuetan. Epaitegi eta auzitegiek departamentu horretara bidali behar dituzte onartzen dituzten agirien kopia egiletsiak, baldin eta agiriok likidaziorako aurkeztuak izanaren oharririk ez badute.

## XI. KAPITULUA

### Zergaren kudeaketa

57. artikulua. Eskumena:

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta biltzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio.

2. Nafarroako Gobernuak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga likidatu eta ordaintzeko prozedurak arautu ahal izanen ditu, baita, egoki denean, autolikidaziorako araubidea ere, zeina orokorki nahiz balizko berezietarako ezar baitaiteke.

58. artikulua. Likidazio partzialak.

1. Foru lege honetako 8.c) artikuluan aipatutako asegurueta eta jaraunspenezko oinordetzetan interesa dutenek Zergaren likidazio partziala egiteko eskatu ahal izanen dute, soil-soilik bizitza aseguruak, kausatzailearen kredituak eta kausatzaileak sortu bai baina jaso ez dituen hartzeak kobratzeko, gordailuan dauden ondasunak, balioak, efektuak edo diruak jasotzeko eta antzeko helburuetarako.

2. Arau bidez zehaztuko dira likidazio horiek egiteko era eta epeak eta interesatuek bete beharreko baldintzak, diru-kopuruak kobratu edo gordailutatuko dirutzak edo ondasunak jaso ahal izateko.

Aurreko idatz-zatian adierazitako bizitza-aseguruak kobratzeko egiten diren likidazio partzialetan kontuan hartuko dira foru lege honetako III. Kapituluan aurreikusitako salbuespenak, bertan ezarritako baldintza eta mugekin.

3. Likidazio partzialak dena-delako jaraunspenezko oinordetzari dagokion behin betiko likidazioaren konturako sarreratzat joko dira.

59. artikulua. Likidazioa geroratzea.

Ondokoak gertatzen direnean likidazioa geroratu egiten da:

a) Egintza edo kontratuetan baldintza etengarriren bat dagoenean, foru lege honen 6. artikulua arabera.

b) Kreditu ez-likidoak edo zenbateko ezezaguneko kredituak kosturik gabe eskuratzen direnean, kredituok likidoak izan arte, arau bidez zehazten den eran.

c) Eskurapenaren zenbatekoa garbi zehazterik ez dagoenean, zenbatekoa zehazten den eguna arte; egun horretatik aurrera berriz ere zenbatuko da likidazioa eskatzeko epea.

d) Eskurapenaren zenbatekoa garbi zehazterik ez dagoenean, zenbatekoa zehazten den eguna arte; egun horretatik aurrera berriz ere zenbatuko da likidazioa eskatzeko epea. Letra honetan xedatutakoak ez dio kalterik egiten fideikomiso hutsei buruz xedatutakoari.

60. artikulua. Zergaren ordainketa.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan egiten diren likidazioak Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritako epeetan ordaindu behar dira.

61. artikulua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea.

1. Hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe, aplikagarri izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ordainketa geroratu eta zatikatzeari buruz ezarritako arauak.

2. Foru lege honetako 8.c) artikuluan aipatzen diren bizitza asegurueta, baldin eta horien zenbatekoa errenta gisa hartzen bada,

onuradunak hala eskatuz gero, Zerga zatika ordainduko da, pentsioa zenbat urtetan jasotzen den, hainbat urtetan, aldi baterako errenta bada, edo hamabost urtetan, gehienez ere, biziarteko errenta bada. Hori horrela izanen da erreskate-eskubidea baliatzen ez den artean.

Geroratze horrengatik ez da inolako kuziorik jartzeko eskatuko, eta ez da inolako korriturik sortuko.

Pentsioa iraungitzen denean, ordaindu gabe dauden zatiak ez dira ordainaraziko; baina erreskaterako eskubidea baliatzen bada bai, ordaindu egin beharko dira.

Arau bidez zehaztuko da artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeko prozedura.

## XII. KAPITULUA

### Arau-hausteak eta zehapenak

62. artikulua. Zehapen-araubidea.

Foru lege honetan arautu den Zergaren eremuko arau-hausteak Zergei buruzko Foru Lege Orokorrean eta hura garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Nafarroako Foru Komunitateko jabetzaren erregistratzaileei eginkizunak ezarri ahal izanen dizkie Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa eta likidazioaren arloan, eta haiekin akordioak sinatu ahal izanen ditu eginkizun horiei buruz.

## AZKEN XEDAPENA

Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

A0213565

## Xedapen Orokorrak. Foru Aginduak

**172/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2003ko lan-egutegia onesten duena.**

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak, uztailaren 4ko 85/2002 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatean 2003. urteko jaiegunak zein izanen diren erabaki ondoren, bidezko da langile horien 2003ko astegunetako jaien egutegia eta haien lanaldiaren urteko lanordu kopuruaren banaketa onestea, abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuak ezarritako urteko lanordu kopuruaren arabera.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Legearen 46.5 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

### AGINDU DUT:

1. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileendako, 2003an, astegunetako jaiegunak hauek izanen dira:

Urtarrilaren 1a: Urteberri.

Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

Apirilaren 17a: Ostegun Santua.

Apirilaren 18a: Ostiral Santua.

Apirilaren 21a: Pazko biharamuna.

Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

Uztailaren 7, 8, 9 eta 10a: Sanferminak, besta Iruñean lan egiten dutenendako.

Uztailaren 25a: Done Jakue apostolua.

Abuztuaren 15a: Abuztuko Ama Birjina.

Azaroaren 1a: Omiasaindu.

Azaroaren 29a: San Saturnino, jaieguna Iruñean lan egiten dutenendako.

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa, Nafarroaren Eguna.

Abenduaren 6a: Konstituzio eguna.

Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

2. Iruñean lan egiten ez dutenentzat jaiegun izanen dira, herriko bestak direla-eta, santu zaindariaren eguna, hurrengo hirurak eta bestepera, azken hau hamabietatik aurrera. Gainera, beste jaiegun bat ere izanen da, herriari usadioz edo erlijioaren aginduz dagokiona hain zuzen ere.

2. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan lanaldiaren urteko lanordu-kopurua, 1.592koa izanzen dena, honela banatuko da:

A) Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da. Nahitaez aritu beharko da 8:00etatik 15:00ak arte; gainerako 20 minutuak langileak sartzen ahalko ditu, aukeran eta malgutasunez, 7:40tik 8:00ak arte eta 15:00etatik 15:20 arte.

B) Artikulu honetan ezarritako urteko lan orduen banaketa doitzeko, A) idatz-zatiak ezarritako lanaldia duten langileek murrizketa hauek izanzen dituzte, Iruñean arituz gero:

Uztailaren 11 eta 14a: San Ferminetako bestak, bina ordu lanaldiaren bukaeran.

Abenduaren 24 eta 31: ordu bat eta hogeit hamar minutu lanaldiaren bukaeran.

Abenduaren 26a: zazpi ordu eta hogeit hamar minutu, eguneko lanaldi arruntarekin bat datorrena.

C) Artikulu honetan ezarritako urteko lan orduen banaketa doitzeko, A) idatz-zatiak ezarritako lanaldia duten langileek murrizketa hauek izanzen dituzte, Iruñean aritu ezik:

33 ordu eta 20 minutu herriko bestak edo herriari usadioz edo erlijioaren aginduz dagokiona ospatzen direino, kasuan kasuan banatu beharrekoak. Murrizketa honek Iruñean diharduten langileei dagozkienak bezainbat ordu egiten du.

Abenduaren 24 eta 31: ordu bat eta hogeit hamar minutu lanaldiaren bukaeran.

Abenduaren 26a: zazpi ordu eta hogeit hamar minutu, eguneko lanaldi arruntarekin bat datorrena.

D) Artikulu honetako idatz-zati horietan ezarritako lanaldiaren banaketa ez zaie, zerbitzuko beharrak direla eta, lanaldi berezia edo ordu konpentsazioren bat (lana txandaka, gauez, e.a.) dutenei aplikatuko. Ezta ikastetxe eta osasun zentroi ere, horiek lan-egutegi berezia izanzen baitute.

Urteko lanorduen kopurua banatzeko orokorrean ezarritakoa ez bezalako erregimena dagoen kasuetan, lan egutegi berezi horrek, betiere lanaldiaren urteko kopurua errespetatuz, indarrean dagoen erregimenari eutsiko dio, bai eguneko lanaldiaren edo txanden iraupenari dago-kionez, bai urteko lanorduak asteko egunetan banatzeko kasu bakoitzean erabiltzen den moduari dago-kionez; horrek guztiak ez du galarratzen urteko lan egutegia edo lanorduak banatzeko bestelako erregimenak ezartzeko aukera, zerbitzuaren beharrak hala aholkatzen dutenean, dagokion Mahai Orokorrean edo sektorialean negoziatu ondoren.

E) Zerbitzuaren beharrak direla-eta hala komeni denean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, horretan interesa duen Departamentuak proposaturik, zenbait kasu edo administrazio unitatean artikulu honetako lan-ordutegia ez-bezalakoa izatea baimen dezaie, aitzinetik goiko idatz-zatian aipatu diren Mahai Orokorrarekin edo sektorialekin negoziatu ondoren eta, betiere, ezarritako urteko lanordu-kopurua errespetatzen bada.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Agindu honen 2. artikuluko b) eta c) idatz-zatietan araututako ordutegi murrizpena, abenduaren 26ri dagokiona, ez da jaieguntzat hartuko, urtean zehar eguneko lan-orduak banatzeko egoerak agindutako doitzea baita.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamaseian.—Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria, *Rafael Gurrea Induráin*.

A0213504

**1926/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 12koa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Nafarroako automozioaren sektorean sortutako hondakinen kontrola eta jarraipena egiteko agiri erraztuaren erdua onesten duena.**

Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea garatzeko, hondakin berezien kantitate txikien bilketa kontrolatzeko araubide erraztu bat ezartzeko duen uztailaren 29ko 295/1996 Foru Dekretua eman zen.

Garapen arau horren xedea desoreka bat konpontzea zen, alegia, kontrol eta jarraipenerako dokumentazioari buruz ezarritako betebeharraren eta jardura batzuetan sortutako hondakinen bolumen urriaren artean zegoena. Horregatik, legez eskatutako dokumentazioa errazten saiatu zen, baina legearen funtsezko helburua, hondakinen benetako mugimenduari eta haien destinoari buruzko informazioa hiltzea, alegia, ahaztu gabe.

Nafarroako automozio sektorean bildutako esperientzia ikusirik, badirudi komeni dela neurri hori hedatzea ibilgailuak, nekazaritzako makinak eta antzekoak konpondu eta mantentzeko tailerretan sortutako hondakin arriskutsuetara, burutu beharreko tramiteak azkarragoak izan daitezkeen.

Ikusirik Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren adostasun txostena, 295/1996 Foru Dekretuaren azken xedapenetan lehenbizikoan ezarritakoari jarraikiz, eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 36.2 artikulua bidez esleiturik ditudan eskurantzak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. Nafarroako automozioaren sektorean sortutako hondakinen kontrola eta jarraipena egiteko agiri erraztuaren erdua onestea.

2. Hondakinen kudeatzaileek egiten dute agiria, Foru Agindu honen eranskinean ageri den ereduaren arabera.

3. Agiri erraztua ondoko baldintza hauekin erabiliko da:

3.1. Kontrolerako agiria erabiliko da ibilgailuak, nekazaritzako makinak eta antzekoak konpondu eta mantentzeko tailerretan sortutako hondakin arriskutsuak bildu direla egiaztatzeko.

3.2. Agiria ez da nahitaezkoa eta produktoreek zilegi izanzen dute 833/1988 Errege Dekretuan, 1990eko ekainaren 13ko Aginduan eta 295/1996 Foru Dekretuan ezarritako agiriak erabiltzea.

3.3. Agiria, kopia-paper txuri eta horiko bi orri dituen, kudeatzaileek erabiliko dute.

Ale txuria kudeatzaileak gordeko du, eta horia, ordea, produktoreak. Bai produktoreak, bai kudeatzaileak, alea gordeko dute gutxienez bost urtez.

3.4. Produktoreak eta kudeatzaileak agiria bete eta sinatzeak esan nahi du hondakinen titulatasuna haien artean eskualdatu dela, eta, hortaz, hortik aurrera kudeatzailea dela hondakinen titularrak, ondorio guztietarako. Horregatik, agiria formalizatu baino lehen, kudeatzaileak behar diren frogak egiten ditu hondakinaren ezaugarriak 833/1988 Errege Dekretuko 34. artikuluan ezarritako onarpen-agirian finkatutakoarekin bat datozen egiaztatzeko.

3.5. Hilero, hilabete bakoitzaren 10a baino lehen, sistema erabiltzen duen kudeatzaileak aurreko hilabetean bere hondakinak kudeatu dituzten produktoreen zerrenda bidaliko du Ingurumen Kalitatearen Zerbitzura. Zerrenda hori euskarri informatikoan igorriko dute eta bertan hondakina zein eta zenbat zen eta noiz eman zen adieraziko da.

3.6. Agiri hau erabiltzeak ez dizkio kentzen kudeatzaileari hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimenduna den aldetik dituen gainerako betebeharrak, besteak beste, kudeatzaileen urteko memoria egitea, produktoreei onarpen agiria ematea eta jardueren erregistro eguneratua eramatea.

4. Foru Agindu honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

5. Foru Agindu honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta hura aldatu duen 4/1999 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedaturikoarekin bat.

6. Foru Agindu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

7. Foru Agindu hau Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuari igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamabian.—Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, *Jesús Javier Marcotegui Ros*.

## ERANSKINA

KUDEATZAILEAREN SOZIALTATE IZENA

Eguna: Ordena zk.:

PRODUKTOREA:  
HELBIDEA:  
HERRIA:

IFZ:

HONDAKINA	Kg	Unitateak
Xurgatzaile kutsatuak		
Erabilitako olioak		
Izotz-kontrakoa		
Disolbatzailea		
Ontzi kutsatuak		
Olio-iragazkiak		
Koipeak		
Balazta-likidoa		
Masilla hondarrak		
Trapu kutsatuak		

Produktorearen sinadura:

Kudeatzailearen sinadura:

A0213358

## Agintariak eta Langileak

**EBAZPENA, 2002ko abenduaren 16koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko 30 lanpostu igoera eta lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko abenduaren 16an emandako Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko 30 lanpostu igoera eta lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi da.

## OINARRIAK

## 1. Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko hogeita hamar lanpostu betetzea, Nafarroako Polizia Kidegoetako kideen igoera bidez eta lehiaketa sistema erabiliz. Lanpostuak honela banatuta daude:

20 lanpostu barne igoerako txandan, Nafarroako Foruzaingoko kideentzat (aurrerantzean barne igoerako txanda).

10 lanpostu igoera txanda irekian, Nafarroako gainerako Polizia Kidegoetako kideentzat (aurrerantzean igoera txanda irekia).

1.2. Hasiara batean, deialdiko lanpostu hutsek zenbaki hauek dituzte: 5668tik 5678ra, biak barne, eta 5976tik 5994ra, biak barne. Hala ere, behin betiko lanpostuak, Atala eta destinoko herria zehazteko, lehenbizi lehiaketa egin beharko da, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuaren arabera.

1.3. Orobat, barne igoerako txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gairatzen badute, txanda horretan lanpostua eskuratzen ez dutenek aukera izanen dute igoera txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta lortutako azken puntuazioaren arabera.

Hautapen probak gairatzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada igoera txanda irekiko lanpostu hutsen bat, orduan barne igoerako txandakoei gehituko zaie.

Hautapen probak gairatzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada barne igoerako txandako lanpostu hutsen bat, orduan bete gabekotzat joko da eta ez zaie gehituko igoera txanda irekiko.

1.4. Izendapenarekin batera pertsona izendatu horiek nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko dira, funtzionarioen arloan indarrean dauden xedapenetan ezarri diren eskubide eta betebeharrak guztiek.

1.5. Lanpostuek C mailako lansariak izanen dituzte, eta aplikatu beharreko xedapeneko araberrako osagarriak.

1.6. Izangaiak, hautapen probak gairatzen eta deialdi honetako lanpostuetan aritzeko izendatu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartu eta funtzionario eginez gero, Gizarte Seguran-

tzaren Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta alta emanen zaie, araubide horretan aurreikusitako babesean.

Deialdi honetako lanpostuetarako izendatu eta lehendik eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean, hots, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den hartan, afiliatuta dauden funtzionarioek bertan segitzea aukeratzen ahal dute edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

1.7. Izendatutako izangaiek lanlekua duten herrian bertan bizi beharko dute, eta hori betetzeko udalerrri horretan finkatuko dute beren bizilekua.

## 2. Izangaiekin betebeharrak.

2.1. Lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

## a) Barne igoerako txandan:

1.-Gutxienez bi urteko antzintasuna izatea Foruzain bezala.

2.-Abiapuntuak lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

## b) Igoera txanda irekian:

1.-Gutxienez bi urteko antzintasuna izatea Nafarroako Udaltzainen Kidego bateko udaltzain edo agente bezala.

2.-Abiapuntuak lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira baldintza horiek.

## 3. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkeztu beharko dira Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean (Karlos III.a etorbidea, 2, Iruña) edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztientzako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiliz, deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturalerako epean. Aipatu eskabideak deialdian argitaratutako ereduari lotuko zaizkio, Nafarroako Gobernuaren Argibide Bulegoan eskuratzen ahalko dira (Karlos III.a etorbidea, 2, ataria), eta haietan izangaiek adierazi beharko dute eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehenago.

## 3.2. Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren bi aldean fotokopia, behar bezala konpultsatua.

b) Nafarroako foruzain edo Udaltzaingoen Kidegoetako udaltzain edo agente izendatu izana frogatzen duen egiaztagiria; era berean frogatuko da lanpostu horretako antzintasuna eta egoera administratiboa.

c) Deialdiaren II. eranskineko baremoaren arabera alegatutako merezimenduen egiaztagiriak.

## 3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. Onartu eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatutik, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila aginduko du.

Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko duen Ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

4.2. Izangai baztertuek bost egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta horiek ebatzita, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena emanen du, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila aginduko du.

## 5. Epaimahaia.

## 5.1. Ondoko kideek osatuko dute epaimahaia:

Mahaiburua: José Miguel Gorriño Ochoa jauna, Araubide Juridiko eta Administrazioaren Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: Raúl López Merino jauna, Lankidetzeta, Segurtasun eta Udaltzaingoen Koordinatzaile Zerbitzuko zuzendaria.

Mahaikidea: Gerardo Goñi Ilundáin jauna, Foruzaingoko ofiziala.

Ordezkoa: Felipe Zabalza Oyaga jauna, Foruzaingoko sarjentua.

Mahaikidea: Purificación González Merchán andrea, Araubide Juridikoaren Ataleko burua.

Ordezkoa: María Jesús González Muñoz andrea, A.P.T., arlo juridikoa.

Mahaikidea: Langileak ordezkatzen dituzten organoek hautaturiko ordezkarri bat.

Ordezkoa: Langileak ordezkatzen dituzten organoek hautaturiko ordezkarri bat.

Mahaikide idazkaria: Pedro Segura González jauna, administraria.

Ordezkoa: María Paz Diago Rodríguez andrea, administraria.

Hautapen probak egiten hasi aurretik eratuko da epaimahaia.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Organo kolegiatu horren eraketa baliozkoa izateko, beharrezkoa izanen da kide hauek biltzea: mahaiburua eta idazkaria edo horien ordezkoak, eta gutxienez ere mahaikideen erdiak.

5.3. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietakoa bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta deialdia egin duen organoari eman beharko diote horren berri.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeara, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengoz erabakiko ditu deialdi honetako oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen gorabeherak oro.

5.5. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaia horietan baizik ez diote lagunduko.

6. Lehiaketa.

6.1. Lehiaketa honela osatuko da:

- a) Merezimenduak baloratzea.
- b) Proba psikoteknikoak.
- c) Igoerarako gaitzeko ikastaroa.

6.2. Merezimenduen balorazioa:

Merezimenduen balorazioan, gehienez ere 150 puntuko izanen den eskalan, honako alderdi hauek baloratuko dira:

- a) Abiapuntuko lanpostuan izandako errendimendua: gehienez 75 puntu.
- b) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak: gehienez 35 puntu.
- b) Prestakuntza, irakaskuntza, ikerketa eta bestelako merezimenduak: gehienez 25 puntu.
- d) Hizkuntzak jakitea: frantsesa, ingelesa eta alemana: gehienez 15 puntu.

Errendimenduen balorazioa (a atala), deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu aurreko urteari dagokiona, deialdiko II. eranskinean ageri diren datu objektiboen bitartez azalduko da. Nafarroako kasuan kasuko Polizia Kidegoko buruak egingen du hori, epaimahaia eskaturik.

Aurreko b), c) eta d) ataletan alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak epaimahaia kalifikatu eta puntuatuko ditu, deialdiko III. eranskineko baremoaren arabera. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztzen duten uenak azaldu behar dituzte izangaiek beren merezimenduak eta, frogatu ere, une horretan frogatu behar dituzte, agiri bidez. Epaimahaia ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik baloratu, ez eta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Lanpostuko errendimenduen balorazioari eta lehiatzaileek aurkeztu merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu epaimahaia.

6.3. Proba psikoteknikoak: gehienez 50 puntu.

Proba psikoteknikoak egin baino lehen, Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, Barne Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin ondoren, profil profesiografikoaren proposamena igorriko du Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusira. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak profil hori onartu eta epaimahaia jakinaraziko dio.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, egoki diren probak egin ondoren, txosten psikotekniko bat emanen du lehiatzaile bakoitzari buruz. Horretan, norbera deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta ezaugarriak nola egokitzen zaien baloratuko da. Zerbitzu horrek txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari ematen dion puntuazioa loteslea izanen da epaimahaiarentzat.

Proba guztiak deialdi bakarrean egingen dira. Baztertu egingen dira horietako edozeinetara agertzen ez diren izangaia.

Baztertu egingen dira 25 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

6.4. Igoerarako gaitzeko ikastaroa: gehienez 150 puntu.

Proba psikoteknikoak egindakoan, epaimahaia jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta azken probaren tokian, probak gainditu dituzten izangaiei behin-behineko zerrenda, lortutako puntuazioa eta txanda adierazita, eta gaikuntza ikastaroa egiteko onartu diren izangaiei zerrenda (30 ikasle gehienez). Gaikuntza ikastaroa egiteko onartu diren izangaiei zerrenda osatzeko, deialdiaren 1.3 oinarrian ezarritako irizpideak izanen dira kontuan.

Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen du gaikuntza ikastaroa, gutxienez 250 eskola ordukoa; hautatzailea izanen da eta 150 puntuko balorazioa izanen du.

Epaimahaia gaikuntza ikastaroa egiteko onartutako behin-behineko zerrendarekin batera adieraziko du ikastaroa zein toki, egun eta ordutan hasiko den.

Gaikuntza ikastaroa egin bitartean izangaia zerbitzu berezien egoeran deklaratu ditugokien administrazioak, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ikastaroa bukatutakoan, langilea jarduneko egoerara itzuliko da beharrezkoa, zerbitzu berezien egoeran deklaratu zenean zuen lanpostura.

Zerbitzu berezien egoeran deklaratuak ez du aldaketarik sortuko izangaia gizarre aurreikuspeneko erregimenean, jatorriko lanpostuan zutenarekin segituko baitu.

Zerbitzu berezien egoeran deklaratu eta gaikuntza ikastaroa egiteko onartzen diren izangaiek honako lansariak jasoko dituzte Nafarroako Gobernutik: C mailako hasierako soldadari dagozkionak, deialdiko lanpostuaren bateraezintasuneko eta arrisku bereziko osagarriak, bai eta gradua, antzintasuna eta famili laguntza ere, indarra duen legeriaren arabera.

Izangaia ikastaro hautatzailea uzten badu, ikastaroa uzten duen egunera arte izanen du eskubidea aurreko atalean aipatu lansariak jasotzeko.

Zerbitzu berezien egoera bukatzen denean aurreko atalean aipaturiko lansariaren erregimena izateari utziko zaio, eta ez du eskubiderik ekarriko, ez eskubide pasiborik sortuko, ez eta deialdiko lanpostuaren ondoriozko inolako eskubiderik ere.

Izangaia Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Segurtasun Eskolari atxikiko zaizkio.

Izangaiek, gaikuntza ikastarorako onartu eta baztertu diren behin-behineko zerrenda argitaratu eta hamabost egun naturaleko epean, ikastaroa egin bitartean zerbitzu berezien egoeran daudela frogatu beharko dute.

Baztertu egingen dira ikastaroa osatzen duten arloetakoren bat gainditzen ez duten izangaia.

Izangaia bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko lehiaketako eta oposizio puntuazioak batuko dira.

7. Probak gainditzen dituztenen zerrenda eta izendapen proposamena.

7.1. Gaikuntza ikastaroa bukatutakoan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak epaimahaiari igorriko dizkio ikastaroko puntuazioak, bai eta arlo bakoitzeko kalifikazio proposamena eta ikastaroaren azken kalifikazioa ere.

Epaimahaia izangaiek kalifikazioa onetsiko du eta lehiaketa gainditzen duten izangaiei zerrenda, azken puntuazioaren arabera, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari igorriko dio.

8. Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak Nafarroako Foruzaingoko kabo izendatuko ditu lehiaketa gainditzen duten izangaia. Izendapenak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

8.2. Izangaia izendatuek hamar egun naturaleko epea izanen dute lanpostuaren jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten denetik hasita. Aipatu epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, jabetza hartzen ez badute, goerarako eskubidea galduko dute.

9. Errekurtsoak.

Deialdiaren, bere oinarrien eta aplikazio egintzen kontra gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtitutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan eta hura aldatzen duen urtarilaren 13ko 4/1999 Legean xedaturikoarekin bat.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamaseian.—Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Ignacio Bandrés Urriza.

I. ERANSKINA

*Eskabide eredu*

Izena: ....., adinez nagusia, N.A.N: ....., jaioteguna: ....., jaioterrria: ....., probintzia: ....., egungo helbidearen herria: ....., probintzia: ....., kalea: ....., zenbakia.: ....., solairua: ....., letra: ....., posta kodea: ....., etxeko telefonoa: ....., laneko telefonoa: ....., sakelako telefonoa: .....

Zure aurrean azaldu eta adierazten du:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko 30 lanpostu lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartzeko onar dezatela eskatzen duela, aipatu txandan (deialdia ..... zenbakiko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, .....(e)an).

Barne igoerako txanda, Nafarroako Foruzaingoko kideak.

Igoera txanda irekia, Nafarroako gainerako Polizia Kidegoetako kideak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Iruñean, 2002ko .....aren .....(e)an.  
(Sinadura)

NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA.

II. ERANSKINA

*Balorazio orria*

..... J/A-k, ..... Polizia Kidegoko buruak, epaimahaiak eskutatukoari erantzunez eta Nafarroako Foruzaingoko kabo izateko 30 lanpostu betetzeko deialdiaren ondorioetarako (.....(eko) Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, ..... zk.), honako balorazioa egin du Kidego honetako ..... polizia/agente jaun/andreairean gainean.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Lanbideko gaitasuna	Lan egiteko beharrezkoak diren ezagutza teoriko eta praktikoak menderatzea. Bere teknika eta ezagutzak hobetzen saiatzen da. ....
Kanpo harremanak	Bere Polizia Kidegotik kanpoko pertsonen gaineko arreta pertsonalean maila ona erakusten du. ....
Komunikazioa	Beste batzuei informazioa emateko eta haiengan adierazpen argiaren bidez (ahoz eta idatziz) eragina izateko trebetasuna. ....
Talde lana	Jendarteko harremanetarako, talde lanerako eta lankidetzarako trebetasuna. ....
Antolaketa	Trebetasuna dauden baliabideak eta denbora koordinatzeko, lehentasunak ezartzeko, laneko prozedura era eraginkorrean programatzeko, helburuak lortzeari begira. ....
Egokitzea	Baldintza berrietara egokitzeko, giro berri eta askotara ohitzeko malgutasuna eta gaitasuna. ....
Ekimena	Ekintzei ekiteko, ideia berri eta sortzaileak azaltzeko eta gertaerei aurrea hartzeko gaitasuna. ....
Analisis, Erabakiak	Arazoen identifikazio eta analisis. Zentzua eta logika. Behar den unean erabakiak hartu eta ekintzara jotzeko gaitasuna. ....
Arauk betetzea	Lanean eta nagusiei dagokienez jokatzea eta jarrera positiboa. Arauk betetzen ditu (lana, jokaera, puntualtasuna). Gatazkarik ez. ....
Dedikazioa	
Lanari buruzko jarrera	Laneko denbora, ahalegin eta baliabide dedikazioa. Norberaren lanpostuarekin zerikusia duten lan guztiak egiteko konstantzia. ....
Eraginkortasuna	Lana egitean duen eraginkortasuna, aldi berean maila kuantitatibo eta kualitatibo egokia lortuz. Emaitza positiboak lortzeko konstantzia. ....
Ikasteko gaitasuna	Ezagutza teoriko eta praktiko berriak bereganatzeko gaitasuna. ....

Ebaluaziorako jarraibideak:

1.-Ez onargarria/maila urria: Espero zirenak baino emaitza apalagoak argi eta garbi. Lanean ari direnean beren lanpostuaren oinarriko eskakizunetatik beherago nabarmen gelditzen direnei aplikatzen zaie.

2.-Erregularra/Neurritzkoa: Lan egitean ez ditu osorik betetzen lanpostuaren eskakizunak bere ardurapeko arlo guztietan. Zeregin gehienak betetzeko gaitasuna erakusten du, baina hobetu beharra du.

3.-Ongi/Nahiko: Espero diren emaitzak lortzen ditu. Lanpostuaren eskakizun nagusiak argi eta garbi betetzen ditu, bai kalitatez bai kuantitatez. Bere zereginak era profesional eta eraginkorrean betetzen ditu erregularri.

4.-Oso ongi/Nabarmen: Emaitzak espero baino hobeak dira. Erregularri lorpen aipagarriak erakusten ditu, bai kalitatez bai kuantitatez.

5.-Bikain: Beren ardurapeko arlo nagusi guztietan lorpen bikain eta apartak nabarmenki eta etengabe erakusten dituzten pertsonak.

KIDEGOKO BURUA  
(Sinadura)

III. ERANSKINA

*Merezimenduak baloratzeko baremoa*

a) Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak.

1) Nafarroako Polizia Kidego batean egiazki egindako zerbitzu urte bakoitzeko: 1,50 puntu.

2) Edozein administrazio publikotan, aurrekoak ez bezalako lanpostuetan langile finko gisa egindako zerbitzuak: 0,37 puntu urteko.

3) Edozein administrazio publikotan, aurrekoak ez bezalako lanpostuetan aldi baterako langile gisa egindako zerbitzuak: 0,30 puntu urteko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 35 puntukoa izanen da.

3. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratu.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldiak zerbitzuak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa eta beste merezimendu batzuk.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta Unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokide (10 ikastordu) bakoitzeko; gehienez ere, 10 puntu.

Oharrak:

1. Baloratu beharreko prestakuntza jardueretan, irakastorduen zatikiak hainbanatuko dira.

2. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriei kreditu bateko balorazioa emanen zaie.

3. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez baituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritziarik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo saria jaso duten zientzia edo ikerketa lanak egitea eta aldiakari espezializatu lanak argitaratzea: 3 puntu, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera batek edo taldean egina den eta biltzarra edo argitalpena zein mailakoa den (tokikoa, herrialdekoa, nazionala edo nazioartekoa).

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, 2 puntu, epaimahaiak haien iraupenaren arabera baloratu beharrekoak.

4) Titulazio eta espezialitate akademikoak, deialdian eskutatukoak ez direnak: 4 puntu gehienez.

5) Doktore edo lizentziatu maila, deialdian eskatutako titulazioari buruz: 2 puntu gehienez.

6) Bestelako merezimenduak, epaimahaiak baloratu beharrekoak: besteak beste, hizkuntzak, sektore pribatuan egindako lanak, beka edo prestakuntza egonaldiak, kontsulta egiteko, aholku emateko, parte hartzeko edo ordezkartzeko organoetan parte hartzea: 4 puntu gehienez.

Oharrak b) atal osorako:

1. Atal honetan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuarekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Honako b) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.



c) Hizkuntzak jakitea.

1) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakitea, 5 puntu bakoitzeko.

2) Ondorio horietarako, hizkuntza eskola ofizial batek luzaturiko gaitasun agiria edo ofizialki baliokidea den titulua edukitzeagatik aurreko ataletan adierazten den gehieneko puntuazioa emanen da hizkuntza bakoitzeko.

Halako titulaziorik ez dutenei, hizkuntza eskola ofizialen batean gauditutako maila bakoitzagatik guztira gehienez eman daitekeen puntuazioaren bostena emanen zaie.

A0213628

**1236/2002 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan odontologo izateko hiru lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onesten duena.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, maiatzaren 3ko 885/2002 Ebazpenaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan odontologo izateko hiru lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdi hori 2002ko 71. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, ekainaren 12an.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak, abuztuaren 6ko 915/2002 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi zuen.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu, bidezko da onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen egitura organikoak aldatu zuen abenduaren 26ko 604/95 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan odontologo izateko hiru lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea:

–Txanda irekia

Onartuak:

ALONSO EZPELETA, LUIS  
ALONSO TOQUERO, EDUARDO  
AYESTARAN OQUINENA, ANA  
DUQUELA MARMOLEJOS, LUIS  
FIGUERIDO GARMENDIA, JORGE  
GINER MUÑOZ, FERNANDO  
GOÑI VIAMONTE, MARIA JOSE  
GONZALEZ GARDE, JESUS  
GUEVARA PUENTES, CLARA  
HECK SESE, SUSAN INGRID  
SADA GONZALEZ, MARIA ASUNCION  
SAINZ GOMEZ, ESTHER

Baztertuak: inor ez.

2. Oposizioaldiko lehenbiziko ariketa 2003ko urtarrilaren 20an eginen dela adieraztea, 17:00etan, Nafarroako Ospitaleko Irakaskuntza Gelan.

3. José Angel Napal Goizueta eta Miguel Angel Chueca Lenzano, Estomatologo eta Odontologo Elkargo Ofizialak hautatuak, mahaikide titular eta mahaikide ordezkari izendatzea, hurrenez hurren.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

5. Ebazpen hau igortzea mahaikide titularrei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langilerien Kudeaketa, Sarrera eta Barne Igoerarako Zerbitzua eta Deialdiak Izapidatzeko Unitatera, eta Osasun Departamentuko idazkari teknikoari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta biko azaroaren hemezortzian.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendaria, Alberto Andérez González.

A0212924

## Herrilanak eta Zerbitzu Publikoak

**624/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, eskola garraio zerbitzua egiten duten enpresen kontratuak 2002/2003 ikasturterako luzatzeko baimena ematen duena, ondoko ikastetxe eta ibilbideetarako: Berriozarko "Mendialdea" I.P. / D.B.H.I.rako 5. ibilbidea, Otsagabiako I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, Erronkariko "Julián Gayarre" I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, Antsoaingo "Ezkaba" I.P.rako 1. ibilbidea, Agoitzko "San Miguel" I.P. / D.B.H.I.rako 1. ibilbidea, "Benjamín de Tudela" B.H.I.rako 2. eta 3. ibilbideak.**

El Servicio de Centros y Ayudas al Estudio ha presentado un informe en el que se proponen las prórrogas de los contratos de transporte escolar que vienen prestándose habitualmente para las rutas de los centros públicos del Gobierno de Navarra citados, para el mes de diciembre de 2002, a las empresas que en su día fueron adjudicatarias de los mismos.

Eskola garraio zerbitzuen kontratazioak onesteko baimena Foru Agindu hauen bidez eman zen: 488/2002, 489/2002, 490/2002, 491/2002, 492/2002, 493/2002 eta 494/2002.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 36. artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Baimena ematea Foru Agindu horien bidez sinatu ziren kontratuak 2002ko abendurako luzatzeko. Foru Agindu honen eranskinean enpresak, egin beharreko zerbitzuak eta bakoitzari dagokion diru kopurua ageri dira.

2. Aipatzen den gasturako baimena ematea. Gehieneko kostua, abenduko denbora-tarte luzatuari dagokiona, 37.340,94 eurokoa da. Diru kopuru hori 2002. urtera luzatutako 2001. urteko aurrekontuko 41620-2230-425200 kontusailaren kargura ordainduko da.

3. Foru Agindu hau eta bere eranskina Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

4. Foru Agindu hau honako enpresa hauei jakinaraztea: Ativar, S.A., Autobuses Río Irati, S.A., La Tafallesa, S.A., Autocares Félix Gastón, S.L. Autobuses Elcarte-Labarga, Conda, S.A. Halaber, ohartaraztea Foru Agindu horren kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal dutela, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 115. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5. Foru Agindu hau eta bere eranskina igortzea Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zerbitzuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Hezkuntza eta Kulturakoan duen kontu-hartzaile delegatuari, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari, Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari, Ikasketetarako Laguntzen Atalari, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Zerbitzu Osagarrien Bulegoari, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren lauan.–Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, *Jesús María Laguna Peña*.

### ERANSKINA

BARRUTIA	HERRIA	IKASTETXEA	ALD.	Ikasle	IBILBIDEA	ENPRESA	Lizitazioko gehieneko
13.–IRUÑA-TXANTREA	Berriozar	"Mendialdea" I.P./D.B.H.I.	5	483	Berriozar (Zortziko, San Agustín, Eguzki) (8 autobus eta 6 laguntzaile) Ativar, S.A.	993,45	
13.–IRUÑA-TXANTREA	Otsagabia	H.L.H.I.P./D.B.H.I.	1	30	Aizpurgi, Nabaskoze, Uskartze, Sartze, Orontze, Ezkaroze	AUTOBUSES RIO IRATI,S.A.	332,15
13.–IRUÑA-TXANTREA	Erronkari	"Julián Gayarre" H.L.H.I.P./D.B.H.I.	1	27	Bidankoze, Burgi, Garde	LA TAFALLESA, S.A.	333,42
13.–IRUÑA-TXANTREA	Antsoain	"Ezkaba" H.L.H.I.P.	1	146	Artika, Iruña (Txantrea, Arrotxapea) ( 3 autobus)	AUTOCARES FELIX GASTON, S.L.	368,55
13.–IRUÑA-TXANTREA	Agoitz	"San Miguel" H.L.H.I.P./D.B.H.I..	1	25	Elkoatz, Irurozki, Santsoain, Artieda, Artaxo, Meotz, Murelu-Longida, Aos, Billabeta	AUTOBUSES RIO IRATI,S.A.	299,83

BARRUTIA	HERRIA	IKASTETXEA	ALD.	Ikasle	IBILBIDEA	ENPRESA	Lizitazioko gehieneko
10.-TUTERA Tuter	"Benjamin de Tudela" B.H.I.	2	48	Cascante, Abilitas ( 2 autobus; laguntzailerik gabe)	AUTOBUSES ELCARTE-LA-BARGA	276,64	
10.-TUTERA Tuter	"Benjamin de Tudela" B.H.I.	3	68	Monteagudo, Murchante ( 2 autobus; laguntzailerik gabe)	CONDA, S.A.	268,34	

A0213382

## Beste Xedapenak

### 174/2002 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, Osasun kontseilariak emana, beste erakunde eta osasun programa batzuetarako dirulaguntzak emateko 2003. urteko deialdia onesten duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen bidez ezarri da, eta 1997ko 74. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu, ekainaren 20an hain zuzen ere.

Aipatutako Foru Legearen 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzak publizitate, lehiakortasun eta objektibotasunean oinarrituta emanen dira.

Hauk dira dirulaguntzen deialdi honen xede: toki entitateek eta irabazteko asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek autolaguntza taldeen eraketa eta funtzionamendua sustatzeko egiten dituzten berriazko ekintzak, eta herritarren parte-hartzea duten osasun programak garatzen dituzten beste entitate batzuenak.

Deialdi honek bide ematen du interesa duten elkarte eta entitate guztiak berdintasunez sar daitezzen, eta aldi berean bermatzen du dirulaguntzak irizpide objektiboen arabera banatuko direla. Irizpide horien lehentasunak, bestalde, Osasun Departamentuak osasun politikaren arloan sustatzen dituen ildoekin bat etorri ezarriko dira, bereziki Osasun Planaren barrenean azaltzen diren helburuak betetzeko xedea dutenekin bat.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 5. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. 1. Dirulaguntza deialdia onestea, 2003. urtean autolaguntza taldeak garatu eta osasun programak abian jartzeko helburua duten jarduketak eta programak egiteko, betiere Osasun Departamentuaren eta bere erakunde autonomoen jardueren osagarri direnak. Ekintza eta programa horiek Osasun Departamentuak zehaztu eta deialdi honen 1. eranskinean azaltzen diren lehentasunekin bat etorri beharko dute.

2. Toki entitateak, erakundeak, fundazioak edo elkarteak egin beharreko ekintzaren xedearen arabera, honako hauk dira kontuan hartu beharko diren jarduketak esparruak:

–Osasuna eta/edo autolaguntzarako harremanak sustatzeko programak garatzea.

–Gizartearentzako aurreneurrien programak eta droga menpekotasunen kontrako udal planak garatzea.

–Gizarteko garapena eta lan programak HIES-GIBaren inguruan.

–Drogekin eta HIESarekin ikustekorik ez duten aurreneurri programak eta osasuna sustatzekoak garatzea.

2. Deialdi honen babesean banatuko diren dirulaguntzek 2003. urtean egiten diren jarduketak finantzatu dituzte. Era berean, dirulaguntza eskatzen ahalko da behar bezala justifikatzen baldin bada jarduketak garatzeko beharrezkoa dela jarduketak horiek 2003 eta 2004ko aurrekontu ekitaldietako parte batean exekututzea, betiere iraupena urtebetekoa baino luzeagoa ez bada.

3. Nafarroako Foru Komunitatean 2003. urtean autolaguntzarako eta osasuna sustatzeko ekintzak edo programak garatzen dituzten toki entitate eta irabazteko asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek eskatzen ahalko dituzte Foru Agindu honetan ezartzen diren dirulaguntzak, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Elkartearen Erregistroan inskribaturik badaude.

4. 1. Dirulaguntzarako eskabideak, lehentasunez, Osasun Departamentuaren Erregistroan aurkeztuko dira (Iruñeko Amaia kalea, 2-A), honako agiri hauekin batera:

Dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten toki entitate, erakunde, fundazio eta elkarteek:

a) Elkartearen edo erakundearen estatutuak.

b) Dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofiziala, behar bezala bete eta egin beharreko proiektu, ekintza edo programaren atal tekniko eta ekonomikoak azalduko dituen. Inprimakia Osasun Departamentuko Osasun Laguntzaren Zerbitzuan jasoko da.

c) Dirulaguntza eskatzailea erakundearen ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria (eskabide inprimaki ofizialean sartua).

d) Nafarroako Foru Komunitateko Elkartearen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria.

e) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia konpultsatua.

f) Entitate edo elkarte eskatzaileak kontratupeko langilerik baldin badu: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak luzatutako ziurtagiria, entitate edo elkarte eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Gainerako erakunde, fundazio eta elkarteek, baldin eta Estatutuak aldatu badituzte, horien aldaketak aurkeztu beharko dituzte.

Kasu guztietan, b), c) eta f) ataletan adierazitako agiriari.

2. Dirulaguntza eskatzeak deialdia zuzentzen duten oinarriak onartzea dakar.

3. Aurkeztutako datuak egiazkoak ez badira edo eskatzaileak faltutzen baditu, zehapena jar daiteke, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 27. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

5. 1. Eskabideak aurkezteko epea 2003ko urtarrilaren 31n bukatuko da.

2. Toki entitate, erakunde, fundazio eta elkarteek egindako dirulaguntza-eskaerak ez dira tramitatuko baldin eta aurreko urteko dirulaguntzarri dagozkin memoria teknikoak eta ekonomikoak eta fakturak aurkezten ez badituzte.

3. Eskabideak aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, Osasun Laguntzaren Zerbitzuko interesatuari eskatuko dio 10 egun balioduneko epean zuzen dezala, eta adieraziko dio hala egiten ez badu eskabideari uko egiten diola eta artxibatu egingen dela.

6. 1. Aurkeztutako eskabideak aztertu, baloratu eta dirulaguntzak emateko proposamena egiteko, Ebaluazio Batzorde bat eratuko da, honako kide hauek osatua:

–Osasun Laguntzaren Zerbitzuko zuzendaria, batzordeburu lanetan arituko dena.

–Organo Birlandaketen eta Elkartearen Koordinaziorako atalburua, Batzordeko buruorde lanetan arituko dena.

–Droga menpekotasunaren aurkako Foru Planeko bi kide, zuzendariak izendatu beharrekoak.

–Osasun Publikoaren Institutuko hiru kide, institutuko zuzendariak izendatu beharrekoak.

–Gizarte Ongizate Departamentuko kide bat, bertako zuzendari nagusiak izendatu beharrekoak.

–Osasun Departamentuko Kudeaketa Ekonomikoaren Ataleko kide bat, idazkari teknikoak izendatu beharrekoak.

–Osasun Laguntzaren Zerbitzuko kide bat, bertako zuzendariak dirulaguntzak kudeatuko dituzten langileen artean izendatu beharrekoak.

–Osasun Departamentuko Ikuskatzailetza eta Araubide Juridikoaren Ataleko kide bat, idazkari teknikoak izendatu beharrekoak eta idazkari lanetan arituko dena.

2. Ebaluazio Batzordeak, haren esku utzitako eginkizunak betetzeko, egoki juzgatzen dituen egiaztapenak egiten ahalko ditu diruz la-

gundutako jardueraren inguruan, eta haren egiaztagiri guztiak eskatzen ahalko ditu.

Batzordeak emandako proposamena lotzailea izanen da, ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 5.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

7. Dirulaguntzak emateko hauek izanen dira irizpide nagusiak:

–Aurkeztutako programa Osasun Departamentuaren lehenastu-nezko alor eta xedeekin bat etortzea.

–Osasun barruti edo eskualdean egiten diren beste programa batzuekin osagarria den eta nola txertatzen den (agiri bidez egiaztatutako).

–Gizartearen parte-hartzearen sustapena.

–Eskara egiten duen elkarteak edo bere jardura esparruko beste entitate batzuek ere finantzabidean parte hartzea.

–Programaren xede den pertsona multzoa.

–Proposatutako helburuak beteko direla bermatzeko azpiegitura nahikoa izatea.

–Aurreko urteetako programek izan duten eragingarritasuna.

–Elkartean boluntarioak izatea eta haien inplikazio maila programako jardueretan.

–Lokalak eta baliabide administratiboak elkarte desberdinek elkarrekin erabiltzea.

–Eta drogekin eta HIESarekin ikustekorik ez duten prebentzio programetan eta osasuna sustatzekoetan, erakunde eta zerbitzu ezberdinen arteko lankidetzeta eta proiektuaren bideragarritasuna sei mila eurotik beheitiko aurrekontu mugen barrenean.

8. Dirulaguntzak aurkeztu den proiektuaren edo programaren jardura, material suntsigarria, edo/eta langile gastuak finantzatzeko izanen dira. Horiez gain, funtzionamenduko gastu orokorrak finantzatzeko ahaliko dituzte, dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 arte, gehienez, harrera programak izan ezik, ez baitute muga hori izanen.

Proiektuak toki entitate eta irabazi asmorik gabeko erakunde, fundazio edo elkartearenak berarenak diren baliabideekin egiten dira batez ere. Dirulaguntza jasoko duten proiektuak hautatzerakoan lehenastu izanen dute jarduerak beren baliabideak erabiliz egiten direla azaltzen duten eskaerak. Jardura batzuk hirugarrenekin hitzartu edo kontratatuturik egitea aurreikusita baldin badago, aurkeztutako proiektuetan zehaztu beharko da hori.

Hala ere, droga menpekotasunaren kontrako eta gizarte aurreneurriko udal planen programak garatzeko toki entitateei ematen zaizkien dirulaguntzek, baldin eta langileei ordaintzeko badira, konpromisoa sortzen diote toki entitateari kontzeptu horrexetarako gutxienez kopuru bera gastatzeko bere dirua erabiliz.

9. Laguntza hauek eta beste edozein dirulaguntza edo laguntza bateragarriak izanen dira. Dena dela, proiektu edo programa bererako erakunde edo entitateetarik biltzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ezin izanen du gainditu haren kostu osoa.

10. 1. Dirulaguntzak Osasun zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez emanen dira, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena aztertutik ondoren eta Osasun Laguntzaren Zerbitzuak txostena eman ondoren onuradunek dirulaguntza lortzeko behar diren baldintzak bete zezaten buruz.

2. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hiru hilabete iraganik Ebazpena eman gabe, eskabideak ukatu egin direla ulertuko da.

11. 1. Emandako dirulaguntza honela ordainduko da, oro har:

–%70, emateko unean, horri buruzko Ebazpena onetsitakoan.

–Gainerako %30, diruz lagundutako proiektua edo programa burutu dela frogatzen duten egiaztagiri ekonomiko eta teknikoak jaso ondoren.

%30eko zatia ordaintzeko beharrezkoa den egiaztapen ekonomiko eta teknikoak egiteko, 2004ko urtarrilaren 10a baino lehen Osasun Departamentuko Erregistroan hauek aurkeztu beharko dira: Memoria Tekniko eta Ekonomikoaren eredu ofiziala eta 2003ko abenduaren 31 baino lehen egindako fakturak, jatorrizkoak eta fotokopiak (Gizarte Segurantzaren abenduko ziurtagiriak, eta zergei eta beste tributuei buruzkoak izan ezik, horiek ordainketa egin eta handik bost egunera aurkeztuko baitira). Aurkeztzen diren faktura horiek fakturen luzatzea eta gastu eta kenkariaren egiaztatzea arautzen duen martxoaren 8ko 85/1993 Foru Dekretuan adierazitakoari lotu beharko zaizkio. Fakturak zenbaki zerrenda baten arabera eta kontzeptuak zehaztuta daudela aurkeztuko dira.

Udalek dirulaguntza zertarako den honakoak aurkeztuz frogatzen ahal dute: memoria eta gastu eta dirusarreraren balantzea, Udaleko idazkariak ziurtatua fedee-maila publikoa den aldetik, eta Udaleko kontu-hartzaileak ikusi eta onetsia.

2. Lehenengo atalean aurreikusitakoa hala izanik ere, dirulaguntzak 3.100 euro edo hortik beheitikoak direnean, dirulaguntzaren ordainketa bakarria izanen da, aldez aurretik betiere.

Diru frogagiriak (jatorrizkoa eta fotokopia, zenbakiak jarritako zerrenda, e.a.) aurreko ataleko kasuetako berbera izanen da. Fakturak eta memoria tekniko eta ekonomikoak 2004ko urtarrilaren 31n aurkeztu beharko dira.

3. Gutxiengo etnikoentzako jarduerak biltzen dituzten programak direnean, bi aurrekontu ekitalditan finantzatuak, honako hau izanen da ordaintzeko modua, salbuespen gisa:

Aurreko deialdiaren emandako dirulaguntza frogatu ondoren, 2003. urteko ekitaldiari dagokion dirulaguntzaren zatiaren ordainketa.

Bigarren ordainketa egiten da lehenbizikoa 2003ko abenduaren 31n frogatu ondoren; zenbatekoa zati proportzionala izanen da, 2004. urteko ekitaldiaren kargura ordaindua.

Gutxiengo etnikoentzako programako memoria tekniko eta ekonomikoak 2003ko uztailean aurkeztuko dira.

4. 1997ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 30. artikulua arabera (Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 41. artikulua aldatzen duena), baimena ematen da jarduerak beste bi urtez egiteko. Iraupena urtebetekoa izanen da gehienez eta gastua bi aurrekontu ekitalditan banatuko da.

12. Beste erakunde batzuek ere diruz laguntzen badute jardura horretarako, onuradunak beharurik daude Osasun Departamentuari horren berri ematera.

13. Oro har, eta ekintzaren helburua dela-eta desegokitzat hartzen diren kasuak alde batera utzita, programa eta jardura horien berri emateko argibideetan, zabalkundeetan, liburuxketan eta antzekoetan, eta, oro har, jendaurrean jartzen den informazio orotan Nafarroako Gobernuaren logotipo ofiziala jarri beharko da eta Osasun Departamentua finantzaketan laguntzaile gisa aritu dela aipatu.

14. Diruz lagundutako programaren baldintzaren bat edo guztiak ez betetzeak jasotako dirulaguntza osoa edo parte bat itzuli beharra ekarriko du berarekin, bai eta dirulaguntza ordaindu zenetik ordu arte sortutako berandutza korritua ordaindu beharra ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

15. Deialdi hau garatzeko aurrekusi den gastua 2003ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuko kontusail hauen kargura egiten da: 511002-51120-4810-413900 "Osasun Programetarako laguntzak"; 500000-51000-4600-411100 "Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntzak"; 51000-500000-4810-411100 "Entitateendako laguntzak gizartearen aurreneurri programak garatzeko"; 510000-51000-4810-413900 "Gobernuz kanpoko erakundeekin egindako hitzarmenak (HIESa)", eta 510000-51000-4600-413900 "Prebentzio eta osasuna sustatzeko programetarako hitzarmenak".

Nolanahi den, 2002ko ekitaldian horretarako diru aski baldin bada emanen dira dirulaguntzak, ez bestela.

16. Deialdi honetan espresuki ezarritik ez dagoen orotan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea aplikatuko da.

17. Deialdi honen eta honetatik sortzen diren egintza guztien aurka, interesatuek gora jotzeko helegitea jartzen ahal dute, Nafarroako Gobernuari zuzendua, helegitearen xede den egintza argitaratu edo jakinarazten denetik hilabeteko epean.

18. Foru Agindu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamaikan.–Osasun kontseilaria, *Santiago Cervera Soto*.

## 1. ERANSKINA

### *Lehenastuaren osasun programak*

–Prebentzioa eta osasunaren sustapena, arriskuko jokabideak dauden kasuetan.

–Ohitura osasungarrien sustapena

–Osasuna sustatzeko programak, berariazko taldeentzat

–Gizartearen parte-hartzea sustatzen duten programak.

–Drogamenpekotasunaren kontrako prebentzioa eta gizarteratzea.

–Osasunaren sustapena HIES-GIBaren inguruan.

### III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### ARANGUREN

##### Arau-haustearen jakinarazpena

30/1992 Legearen 59-4 eta 60. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ondoko zerrendan agertzen diren salatuei, zeinen azken helbide eza-gunak ere aipatzen baitira, zehazten diren zehapen espedienteak abiarazi direla ematen zaie aditzera. Espediente horiek Udaltzaingoa prestatu ditu, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Erregelamendua urratzeagatik (urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua).

Espedientea: 2002/204. Jabea: Fidel Calvo Valero. Matrikula: NA-6153-BD. Tokia: Anaitasuna, z.g., Mutiloagoiti. Data: 2002-10-18. Ordua: 17:30. Zenbatekoa: 90. BSL: 39.2. ZEO: 94.2. ORD: 43.i.

Espedientea: 2002/206. Jabea: Angel eta Pedro García Ecay. Matrikula: 3096-BJR. Tokia: Eskolak, z.g., Mutiloagoiti. Data: 2002-10-18. Ordua: 10:35. Zenbatekoa: 60. BSL: 53.1. ZEO: 154.1. ORD: 41.i.

Espedientea: 2002/210. Jabea: Autocares Ibargoiti, S.L. Matrikula: NA-1172-AZ. Tokia: Anaitasuna, z.g., Mutiloagoiti. Data: 2002-10-28. Ordua: 17:39. Zenbatekoa: 90. BSL: 39.2. ZEO: 94.2. ORD: 43.i.

Espedientea: 2002/212. Jabea: Joseba Imanol Muñoz Trigo. Matrikula: SS-0635-BF. Tokia: Anaitasuna, z.g., Mutiloagoiti. Data: 2002-10-29. Ordua: 17:30. Zenbatekoa: 90. BSL: 39.2. ZEO: 94.2. ORD: 43.i.

Salatuek 15 egun balioduneko epea izanen dute alegazioak egiteko eta beren defentsarako egokiak iruditzen zaizkien frogak aurkezteko.

Halaber, ediktu hau argitaratu ondoko hamar egun balioduneko epean isuna ehuneko hogeit hamar ordaindu ahalko dute, egindako arau-hauste motari horrelakorik ezin aplikatu dakiokeen salbu.

Arangurenen, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkate udalburua, Manuel Romero Pardo.

A0212446

#### ARANGUREN

##### Zehapenen jakinarazpena

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea hausteagatik Alkatetzak ezarritako zehapenak, ondoko zerrendan ageri direnak, jakinarazi ahal izan ez direnez, Guztindako Administrazio Prozedurari buruzko Legean eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoari jarraituz, ediktu hau ematen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Espedientea: 2002/174. Jabea: Aitor Celaya Sanz. Matrikula: NA-0543-BD. Tokia: Iruña etorb., 61, Mutiloagoiti. Data: 2002-07-30. Ordua: 13:55. Zenbatekoa: 90. BSL: 39,1 D. ZEO: 94.1.1E. ORD: 41.d.

Espedientea: 2002/181. Jabea: María Pilar Fernández Trabazos. Matrikula: NA-1193-BC. Tokia: Eskolak, 17, Mutiloagoiti. Data: 2002-08-21. Ordua: 8. Zenbatekoa: 60. BSL: 39,1.C. ZEO: 94.1. ORD: 91.2 m.

Isuna, irmo egin eta ondoko hamabost egun balioduneko epearen barrenean ordaindu beharko da. Epe hori iraganik isuna ordaindu ez bada, premiamendu bidez ordainaraziko da.

Zehapen horien kontra errekurtsio hauetakoren bat jar daiteke, hau-tara:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta bihamunetik hasita, edo, bestela,

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ediktu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Arangurenen, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkate udalburua, Manuel Romero Pardo.

A0212447

#### AÑEZKAR

##### Herrilurretako larre baten enkantea

Añezkarko Kontzejuak, 2002ko azaroaren 7an egin bilkura arruntean, herrilurretako larre honen aprobetxamendua enkantean ematea erabaki zuen:

Xedea: Añezkarko mendiko herrilurretako larre bat errentan.

Adjudikatze modua: plegu itxiko enkante publikoa.

Hasierako prezioa: 2.103,54 euro, gehi ur kontsumoaren gastuak.

Adjudikazioaren epea: 8 urte.

Behin-behineko fidantza: hasierako prezioaren % 2 (42,07 euro).

Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aitzina.

Proposamen ekonomikoak non eta noiz irekiko diren: Berribeiteko Udaletxean eginen da enkantea, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoko bosgarren egun baliodunean, eguerdiko ordu bietan.

Enkantea arautzen duen baldintza plegua interesatuen eskura dago, Berribeiteko Udalaren bulegoetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bietara, astelehenetik ostiralera. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala Infolocal zerbitzura, 012 telefonora, eta Añezkarko mendiko enkante erreferentzia aipa dezala.

Añezkarren, bi mila eta biko azaroaren hamaikan. Kontzejuburua, María Angeles Irisarri.

A0212481

#### ARRAITZA

##### 2001eko ekitaldiko kontuak hasiera batez onetsita

Arraitzako Kontzejuak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste, 2002ko abuztuaren 30ean egin bilkuran:

1.-2001eko ekitaldiko kontu orokorrak onetsi eta jendaurrean paratzea, 15 egun baliodunetarako, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aitzina. Epe horretan, interesatuek erreklamazioa, kexa edo oharra aurkez ditzakete, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 305. artikuluan xedatuarekin bat.

Arraitzan, bi mila eta biko azaroaren hamahiruan. Kontzejuburua, Alfredo Izco Rezusta.

A0212482

#### ARRAITZA

##### 2002ko aurrekontu orokor eta bakarra hasiera batez onetsita

Arraitzako Kontzejuak, 2002ko abuztuaren 30ean egin bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2002ko aurrekontu orokor eta bakarra, eta hura betearazteko oinarriak. Horien espedientea jendaurrean egonen da idazkaritzan hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 276. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 202. artikuluan xedatuarekin bat, herritarrek edo interesatuek hura aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betikoz onetsitaz joko da jendaurreko epea iragandakoan.

Arraitzan, bi mila eta biko azaroaren hamahiruan. Kontzejuburua, Alfredo Izco Rezusta.

A0212483

#### ARRAITZA

##### Arraitzako Kontzejuko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza hasiera batez onetsirik

Arraitzako Kontzejuko Batzarrak, 2002ko abuztuaren 30ean egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Arraitzako Kontzejuko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

Onetsitako ordenantza hori jendaurrean egonen da hogeita hamar egunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hasita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazioa, kexa edo oharra aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

Jendaurreko epea alegaziorik gabe iragaten bada, ordenantza behin betiko onetsita geldituko da, eta osorik emanen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Arraitzan, bi mila eta biko azaroaren hamahiruan. Kontzejuburua, Alfredo Izco Rezusta.

A0212484

**UBANI****Ubaniko Kontzejuko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza hasiera batez onetsirik**

Ubaniko Kontzejua, 2002ko urriaren 11n egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Ubaniko Kontzejuko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

Ordenantza hori jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliadunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

Jendaurreko epea alegaziorik gabe iragaten bada, ordenantza behin betiko onetsita geldituko da, eta osorik emanen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Ubanin, bi mila eta biko azaroaren hamahiruan. Kontzejubura, Francisco Javier Oroz Goñi.

A0212485

**BERRIOZAR****Ebazpen proposamenen jakinarazpena**

30/92 Legearen 59.4 eta 60. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ondoko zerrendan agertzen diren salatuei, zeinen azken helbide ezagunak ere aipatzen baitira, zehazten diren zehapen espedienteak abiarazi direla jakinarazten zaie. Espediente horiek Udaltzaingoko Burutzak prestatu ditu, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Erregelamendua urratzeagatik (urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua).

Espedienteak: 2/190. Izen-abizenak: Seguín Ovejas, José Enrique. Matrikula: NA-7708-AU. Karrika: Arantzazu, 1. Data: 2002ko otsailaren 16a. Ordua: 19,45. Zenbatekoa: 96,16. euro BSL: 53.1. ZEO: 132.1.

Frogatutzat jotzen diren egitateak, dakarten arau-haustea, kalifikazioa, erantzulea eta proposatzen den zehapena, ebazpen proposamen honen aurkiko laukitxoetan agertzen dira, hurrenez hurren idazkun hauek dituztela: "egitate salatua", "agindu urratua", "kalifikazioa", "salatua" edo "zenbatekoa".

Alegazioak aurkezturik ere edo eskatutako frogak eginik ere, ez du baliorik galduko egindako arau-hausteak.

Otsailaren 25eko 320/94 Errege Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, salatuek hamabortz egun baliaduneko epea izanen dute, ebazpen proposamen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita, bidezko juzgatzen duten guztia alegatzeko eta egokitzen jotzen dituzten agiriak aurkezteko, eta hori guztia egin beharko dute Udalaren erregistro orokorraren bitartez edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako bideren batez baliatuz.

Espedienteak Udaleko bulegoetan dago interesatuaren eskura, Kaleberriko 12an. 10:30etik 13:30era hantxe aztertzen ahalko du, baita espedienteko agirietatik nahi dituen kopiak eskatu ere.

Halaber, ediktu hau argitaratu ondoko hamar egun baliaduneko epean isuna ordaintzen ahalko dute ehuneko berrogeita hamar merkeago, egindako arau-hauste motari horrelakorik ezin aplikatu dakiokenean salbu.

Berriozarren, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkatea, Benito José Ríos Ochoa.

A0212537

**ATARRABIA****EDIKTUA**

Alkatetzaren ebazpenak, ondotik laburturik ematen direnak, jakinarazi ahal izan ez direnez, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta interesatuak bizi diren Udal edo Kontzejua iragarki oholean argitaratzen dira:

Interesatua: Iñaki Álvarez Muñoz. Arau-haustearen data: 2002ko urriaren 26a. Espedienteak: 529/2002 ebazpena, urriaren 31koa. Arrazoiak: pareta batean pintatzea baimenik izan gabe. Isunaren zenbatekoa: 150,25 euro.

Interesatua: Pablo Montoya Galar. Arau-haustearen data: 2002ko urriaren 26a. Espedienteak: 526/2002 ebazpena, urriaren 31koa. Arrazoiak: pareta batean pintatzea baimenik izan gabe. Isunaren zenbatekoa: 150,25 euro.

Argitaratutako ebazpenaren aurka errekurtsio hauetako bat paratzen ahalko da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ediktu hau argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Atarrabian, bi mila eta biko azaroaren hemezortzian. Alkate udalburua, Miguel Alfonso Ucar Zaratiegui.

A0212579

**IRUÑA****Ebazpenaren jakinarazpena**

Jakinarazterik izan ez denez Ekonomi eta Funtzio Publikoaren alorreko zinegotziak 2002ko urriaren 14an eman ebazpena (9/EC), patinatzaile batzuk gainera etorri zitzaizkionean izandako kalteen ordainak jasotzeko eskaera ezesteari buruzkoa, honen bitartez argitara ematen da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Administrazio Prozedurari buruzko Legearen eta aplikatzen ahal den gainerako legerian xedatutakoa betetzeko:

"Ikusirik Belén Alvarez San Juan andreak aurkeztutako eskaera, 95/02B kalteei buruzko espedientearen izapadatan ari dena, non kalteen ordaina eskatzen duen, Antoniutiko pistan patinatzen ari zela, berak dioenez, beste patinatzaile batzuk gainera etorri zitzaizkiolako, eta txosten juridikoa prestatu dutelarik, aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki dut, kalte hori ez delako Udalaren zerbitzu publiko baten funtzionamenduari ondorioa, baizik eta zehatz identifikatuta dagoen hirugarren batek eragina.

Ebazpen honen kontra, errekurtsio hauetako bat aurkeztzen ahal da, hautara:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina; edo bestela,

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi ondoko hilabetean.

Iruñean, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkate Udalburua, Yolanda Barcina Angulo.

A0212580

**ZIZUR NAGUSIA****Zehapen espedienteko jarduketaren jakinarazpena**

Ondotik aipatzen diren pertsonen ez zaienez jakinarazi ahal izan, eta indarra duen ordenamendu juridikoa betetzeari dagokionez Udal honek egin dituen jarduketak direla eta, ediktu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta salatua bizi den tokiko Udalaren ediktu oholean paratuko da, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztien-dako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen eta aplikatutakoak diren gainerako legeetan xedatutakoari jarraikiz:

Jorge Ramón Rezusta Echarren jauna; agiria: 15838963J; helbidea: Erreniega parkea, 49-1.a, eskuina, Zizur Nagusia. Espediente hau ireki zaiola jakinarazten zaio: DA 229, 2002ko irailaren 23ko zehapen prozeduran, Zaratei buruzko 135/1989 Foru Dekretuko arau-hauste larriagatik. Hamar egun ditu alegazioak egiteko.

Jorge Ramón Rezusta Echarren jauna; agiria: 15838963J; helbidea: Erreniega parkea, 49-1.a, eskuina, Zizur Nagusia. Espediente hau ireki zaiola jakinarazten zaio: DA 228, 2002ko irailaren 23ko zehapen prozeduran, Zaratei buruzko 135/1989 Foru Dekretuko arau-hauste arinagatik. Hamar egun ditu alegazioak egiteko.

Koxtob Eugueni Petrov jauna; agiria: 31188530; helbidea: Santa Krutz 5-4.a C, Zizur Nagusia. Kargu plegua jakinarazten zaio, espediente honetan: 2002ko irailaren 9ko zehapen prozedura, Zaratei buruzko 135/1989 Foru Dekretuko arau-hauste larriagatik. Hamabortz egun ditu alegazioak egiteko.

Joseba Lardizabal Urra jauna; agiria: 44627634; helbidea: Santa Krutz 15-8.a C, Zizur Nagusia. Kargu plegua jakinarazten zaio, espediente honetan: 2002ko irailaren 9ko zehapen prozedura, Zaratei buruzko 135/1989 Foru Dekretuko arau-hauste larriagatik. Hamabortz egun ditu alegazioak egiteko.

Zizur Nagusian, bi mila eta biko azaroaren hemeretzian. Alkatea, Luis María Iriarte Larumbe.

A0212638

**ZIZUR NAGUSIA****Jakinarazpen ediktua**

Zizur Nagusiko biztanleen udal erroldatik ofizioz kentzeko espedienteen jakinarazpena

Zizur Nagusiko biztanleen udal erroldatik ofizioz kentzeko espediente, ondotik ematen dena, jakinarazi ahal izan ez denez, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen da:

Ebazpena eman duen organoa eta data: 269. A.D., 2002-11-14. Izen-deiturak: Azemar Sola, Jorge. Helbidea: Artzarapea plaza, 11. N.A.N.: 44621501Y.

1. Erroldatik ofizioz kentzeko espedienteak abiarazi da, Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren gaineko Erregelamenduko 72. artikuluan 54. artikuluari dagokionez aurreikusitakoarekin bat.

2. Udaltzatuko idazkari Jesús Múgica Martinena jauna prozedura honetako idazkari-instruktoare izendatu da.

3. Espedienteak ireki dela jakinarazten da eta hamabost eguneko epea ematen, alegazioetarako.

Zizur Nagusian, bi mila eta biko azaroaren zortzian. Alkatea, Luis María Iriarte Larumbe.

A0212639

**IRUÑA  
EDIKTUA**

Ondotik zehazten diren zehapen espedienteak hasiera eman zaiela jakinarazi ahal izan ez denez, Administrazio Publikoen Araubideari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean eta aplikatzen ahal den gainerako legerian xedatutakoari jarraikiz, argitara ematen da ediktu hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta salatuak bizi diren herriko Udalaren iragarki oholean.

Salatua: Roberto Bueno Moreno (NANA: 15844655). Ebazpen edo eginbidearen eguna: RAL 2002ko abuztuaren 28koa (3/MA). Usteko arau-haustearen arrazoiak: 40/1522/2002 espedienteak. Otartekoak eta edari alkoholduak saltzea baimenik gabe. Isunaren zenbatekoa: 450 euro. Arau urratuak: 27. artikulua, 10/90 Foru Legea.

Salatua: Iñaki Pérez Sanz (NANA: 45661573). Ebazpen edo eginbidearen eguna: RMA 2002ko urriaren 4koa (3/MA). Usteko arau-haustearren arrazoiak: 40/1574/2002 espedienteak. Zakurrak aske. Isunaren zenbatekoa: 120 euro. Arau urratuak: 7/94 Foru Legearen 24.2h artikulua.

Hamabost egun baliodunean, ediktu hau jakinarazi eta bihamunetik hasita, espedientatuak alegazioak nahiz frogak proposatu eta agiriak nahiz argibideak aurkeztu ahal izango ditu, betiere idatziz, Iruñeko Udalaren erregistro orokorrean, edota azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako tokietako batean.

Halaber, aditzera ematen da espedienteak interesatuen eskura dagoela Ingurugiro eta Osasun Alorreko bulegoetan (San Saturnino karrika, 2) eta hantxe aztertzen ahal izango dutela, lanegunetan, 8:00etatik 14:00etara.

Iruñean, bi mila eta biko azaroaren hemezortzian. Alkatea, Yolanda Barcina Angulo.

A0212660

**B E R A****Akats zuzenketa**

2002ko azaroaren 22an 141 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako U.U.16.1eko xehetasun azterlana behin-behineko onestea: P. Aguinaga eta beste batzuk iragarkia baliogabe gelditzen da, balio duena hurrengo iragarkia izanik.

U.U.16.1eko xehetasun azterlana behin-behineko onestea: P. Aguinaga eta beste batzuk.

2002ko irailaren 26an Udaltzatuko Bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1) Pilar Aguinaga Arribillaga eta beste batzuk aurkeztutako U.U.16.1eko xehetasun azterlana behin betikoz onestea, honako oharren arabera:

1.1) Xehetasun azterlanaren urbanizazio planoetan agertzen den argi sarea lurperatu egin behar da.

2) Behin betiko onespenean hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Erabaki hau eta azterlanaren ale bat Nafarroako Gobernu In- gurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura bidaltzea.

4) Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Beran, bi mila eta biko azaroaren hogeita zazpian. Alkatea, J.J. Goia Etxeberria.

A0213068

**B E R A****U.U.1eko urbanizazio proiektua hasiera batez onestea**

2002ko azaroaren 27an Udaleko Gobernu Batzardeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1) María Carmen Irazoki Irazokik aurkeztutako U.U.1eko urbanizazio proiektua, hasiera batez onestea, honako oharren arabera:

1.1) Proiektuan agertzen diren argiak jarri beharrean herri honetan dagoen modelo berakoak izanzen dira, hots, VILLA 250 de ATP modelo-koak edo antzekoak.

1.2) Proiektuan agertzen diren euri-urek eta ur beltzek iparraldera jo behar bute, Zia erreka eta kolektore orokorreraino, hurrenez hurren.

2) Aipatu urbanizazio proiektua, Foru Komunitatean gehien zabal- tzen den egunkarietatiko batean, gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofi- zialean eta iragarki taulan aldeztu argitaratua, 15 eguneko epean jendaurren jartzea.

3) Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Beran, bi mila eta biko azaroaren hogeita zortzian. Alkatea, J.J. Goia Etxeberria.

A0213069

**B E R A****U.C.13ko xehetasun azterlana hasiera batez onestea**

2002ko azaroaren 21ean Udaleko Gobernu Batzardeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1) José María Zabaleta Etxeberriak aurkeztutako U.C.13ko xehe- tasun azterlana (3. poligonoa, 336. lurzatia) hasiera batez onestea, ho- nako oharren arabera:

1.1) Jarritako lerrokadura maximoak ezin dira bat etorri eraiki- koekin zeren grafiatu den azalera 16 x 18 metrotakoa baita, hots, 288 m<sup>2</sup> eta plantaren azalera maximoa 200 m<sup>2</sup>-koa da. Beraz, eraikien proiektuan eraikia nahitaezko lerrokaduran kokatu behar da eta beste gainontzeko lerro-kadura maximoen barnean.

2) Aipatu xehetasun azterlana, iragarki taulan, Nafarroako Aldiz- kari Ofizialean, eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabalitzen den egunkarietatiko batean aldeztu argitaratua, 15 eguneko epean jendaurren jartzea.

3) Xehetasun azterlan hau Nafarroako Gobernuko Herrilan, Ga- rraio eta Komunikazio Departamentura bidaltzea

4) Erabaki hau interesatuei bidaltzea.

Beran, bi mila eta biko azaroaren hogeita zazpian. Alkatea, J.J. Goia Etxeberria.

A0213070

**U X U E****Balorazio txostena behin betiko onetsita**

Batzorde Mistoko Udalaren ordezkariak Balorazio txosten berria hasiera batez onetsi ondotik, proiektua hamabost egunetan egon zen jendaurrean Udalaren iragarki oholean. Epe horretan erreklamaziorik jaso ez denez, Batzorde Misto horretan bertan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak txostena aztertu ondotik, behin betiko onetsi da, aipatu Ba- tzordeak 2002ko azaroaren 25ean hartutako erabakiaren bitartez.

Argitara ematen da, interesatu orok jakin dezan.

Uxuen, bi mila eta biko azaroaren hogeita zortzian. Jarduneko al- katea, María Jesús Zoroza.

A0213185

**B A R A Ñ A I N****Ebazpen proposamena**

30/1992 Legearen 59.4 eta 60. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ondotik aipatzen den salatuari, zeinaren azken helbide ezaguna ere esaten baita, zehazten den zehapen espedientearen ebazpen propo- samena jakinarazten zaio. Espediente hori Udaltzaindik Buruzak prestatu du, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Erregelamendua hausteagatik (urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua).

Espedienteak: 2872. Jabea: López Vitas Yolanda. Matrikula: NA-7272-AN. Tokia: Erdiko hiribidea, 12. Data: 2002ko urriaren 16a. Ordua: 8:20. Zenbatekoa: 96,00 euro. BSL: 38.3. ZEO: 91.2 m.

Salatuak 15 egun balioduneko epea izanen du alegazioak egiteko eta bere defentsarako egokiak iruditzen zaizkion frogak aurkezteko.

Halaber, ediktu hau argitaratu ondoko hamar egun balioduneko epean isuna ordaintzen ahalko dute ehuneko berrogeita hamar merkeago, egindako arau-hauste motari horrelakorik ezin aplika dakiokeen salbu.

Barañainen, bi mila eta biko azaroaren hogeita seian. Alkatea, Joaquín Olloqui Osés.

A0213207

## L E S A K A

### Oihan enkantea, % 10 merkeago

2002ko urriaren 14ko 124. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarritako oihan aprobetxamenduaren enkantea hutsik geratu denez, Udal honek, behar den bezala baimenduta, plegu itxiaren bidez eta % 10eko beherapenarekin enkante irekian salgai jartzen du ondoko oihan aprobetxamendua:

Lote bakarra: 2.960 pinu radiata, 2.755 metro kubiko zur egiten dutenak. Hasierako prezioa: 141.533,90 euro. Garbisu alderdian dago.

Proposamenak, eta lotearen balioaren % 2 udal Gordaluzaintzan utzi izanaren gordekina, Herriko Etxeko idazkaritzan aurkeztuko dira.

Epea: pleguak Lesakako Udaletxean aurkeztu beharko dira, 2003ko urtarrilaren 22ko ordu bata baino lehen.

Proposamenak hurrengo laneguneko eguerdiko hamabietan irekiko dira, Herriko Etxeko Idazkaritzan.

Enkantean parte hartu ahal izateko enpresaren sailkapen agiria aurkeztu behar da nahitanahiez.

Baldintza fakultatibo eta ekonomiko-administratiboak udal idazkaritzan ikusgai daude.

Lesakan, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkatea, José Luis Etxegarai Andueza.

A0213340

## NOAIN (ELORTZIBAR)

### 2002ko aurrekontu orokor eta bakarreko aldaketak. Hasierako onespena

Noain-Elortzibarko Udalak, 2002ko abenduaren 4an egin osoko bilkuran, erregelamenduzko quoruma izanik, aurrekontuko aldaketa hauek onetsi zituen:

FUNTZ.	EKON.	DESKRIPZIOA	ZENBA-TEKOA	FINANTZAKETA	ALDAKETA MOTA	BOL-TSA	BOL-TSAREN
121	1310101	BULEGOET. ALDI BATER. LANG. OINAR. LANS.	21.200,00	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	1-1
121	281	EZUSTEKO GASTUAK, ADMI. OROK.	14.885,51	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	1-2
222	22201	UDALTAINGOAREN TELEF.	7.627,94	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	2-2
222	62902	BESTELAKO IBILGETUA, UDALTAINGOA	2.459,20	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	EZ	-
314	16001	LANGILEEN GIZARTE ASEGURUAK	17.000,00	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	3-1
43201	1310101	LORATEGIETAKO ALD. BATER. LANGIL. OINAR. LANSAR.	7.000,00	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	4-1
43200	281	EZUSTEKOAK, GIZARTE MAILAKO ONDASUN PUBLIKOAK	39.527,00	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	BAI	4-2
43200	64802	TRAMIT. SETOCUR, NAFARROAKO UBIDEA ETA AUTOBIA	3.456,80	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	EZ	-
45203	62501	FUTBOL ZELAI BERRIKO ALDAGEL. EKIPAM.	1.649,24	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	EZ	-
45300	62902	FESTETARAKO HESIAK	106,51	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU GEHIKUNTZ.	EZ	-
56100	60102	POLIGONOETAKO HIRI ALTZARIAK	2.000,00	56100-60103 "Poligonoak pinta-tzea" kontusailetik zenbateko bereko transferentzia.	KREDITU TRANSFERENTZIA	EZ	-
56100	60104	ELORTZ ETA NOAIN-ESKIROTZ POLIGONOAK EGOKITZEA	494,98	56100-60103 "Poligonoak pinta-tzea" kontusailetik zenbateko bereko transferentzia.	KREDITU TRANSFERENTZIA	EZ	-
121	64801	UDAL PLANA	3.441,14	Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuetarako.	KREDITU BEREZIA	EZ	-
121	64801	UDAL PLANA	19.648,03	N.G.ren dirulaguntza, aurrekontuko 75520 "N.G.ren dirulaguntza, Udal Plana" aplikazio berria erabiliz.	KREDITU BEREZIA	EZ	-
45100	62201	LUDOTEKAKO KOMUNA ETA ERRALDOIEN TXOKOKO METALEZKO ATEA	6.724,87	Diruzaintzako gerakina, balibide atxikiak.	KREDITU BEREZIA	EZ	-
43200	60116	SAN MIGUEL KALEA (FRONTOI ZAHAR.) ZOLATZEA	-11.938,96	Diruzaintzako gerakina, balibide atxikiak.	KREDITU BEREZIA DEUSEZTATZEA	-	-
222	62501	UDALTAINGOKO TAKILLAK	-1.992,94	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU BEREZIA DEUSEZTATZEA	-	-
46302	62601	EKIPO INFORMATIKOAK, INFOLOCAL	6.000,00	N.G.ren diru-laguntza, 75519 "N.G.ren diru-lag., ekipo informatikoak, info-local" aurrekontuko aplikazio berria erabiliz.	KREDITU BEREZIA	EZ	-
46302	62601	EKIPO INFORMATIKOAK, INFOLOCAL	200,00	Gastu orokor. diruzain. gerak.	KREDITU BEREZIA	EZ	-
<b>GUZTIRA</b>				<b>139.489,32</b>			

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aldaketak ..... 113.119,26  
 Balibide atxikiarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aldaketak ..... -5.214,09  
 Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aldaketak .. 3.441,14  
 N.G. diru-laguntzekin finantzaturako aldaketak ..... 25.648,03

GUZTIRA ..... 139.489,32

(\*) Oharra: "Boltsa" izeneko zutabearen "BAI" azaltzen denean, aurrekontuko aldaketak boltsa osorik finantzatzen du.

Aurrekontuko aldaketa hauek finantzaturako dira diruzaintzako gerakin likidoaren bidez, bere hiru moduetan. Horretarako, 270/1998 Foru Dekretuko 37. artikuluarri jarraituz, kontu-hartzaileak egiaztatzen du diruzaintzan badagoela gerakin likidorik aski, aipaturako aurrekontu-aldaketei erantzuteko.

Espedientea interesatuen eskura dago, aztertu eta bidezko alega-

zioak aurkezteko aukera izan dezaten, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita. Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztean ez bada, behin betikoz onetsitza hartuko da.

Noain-Elortzibarren, bi mila eta biko abenduaren bostean Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

A0213254



**NOAIN (ELORTZIBAR)****Noaingo Etxe Zaharra Kultur Patronatuko 2002ko aurrekontuko aldaketak. Hasierako onespena**

Noain-Elortzibarko Udalak, 2002ko abenduaren 4an egin osoko bilkuran, erregelamenduzko quoruma izanik, aurrekontuko aldaketa hauek onetsi zituen:

Noaingo Etxe Zaharra Kultur Patronatuko aurrekontuko aldaketak:

-3.000 euroko kreditu gehikuntza 12100220000 "Telefonia" kontusaileraren bideratutako aurrekontuko lerroa, 45132 2271100 "Ikastaroak-monitoreak kontratatzea" izeneko kontusaileraren kargura.

Espedientea interesatuen eskura dago, aztertu eta bidezko alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita. Erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoz onetsitzat hartuko da.

Noain-Elortzibarren, bi mila eta biko abenduaren bostean. Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

A0213255

**NOAIN (ELORTZIBAR)****2003ko karga-tasak**

Noain-Elortzibarko Udalak, 2002ko abenduaren 4an egin osoko bilkuran, gehiengoarekin honako hau erabaki zuen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz:

2003ko urtarilaren 1etik aurrera indarra hartuko duten zerga eta tasa hauen karga-tasa aldatzea:

-Hirilurraren gaineko kontribuzioa: % 0,1530.

-Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: % 20.

Erabaki horien aurka, errekurtso hauetarikoa bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Noain-Elortzibarren, bi mila eta biko abenduaren bostean. Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

A0213256

**NOAIN (ELORTZIBAR)****Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren eranskina. Behin betiko onspena**

Noain-Elortzibarko Udalak 2002ko urriaren 10ean egin osoko bilkuran onetsi zuen hasiera batez Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren eranskineko aldaketa. Horri buruzko iragarkia 2002ko 131. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urriaren 30ean.

2002ko azaroaren 5ean egin bilkuran, alegazioetarako epearen barnean, Noain-Elortzibarko Udalak eranskin horri aldaketa bat egin zion.

Beraz, argitaratu zenetik hogeita hamar eguneko epea iragan baita espedientearen aurkako erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe, 2002ko abenduaren 4an egin bilkuran behin betiko onetsi da, erregelamenduzko quorumarekin. Hona hemen testu osoa:

**ERANSKINA****Zutoinbakarra ezartzeko tarifa, publizitate enpresendako**

Tarifa hau ezarriko zaie Noain-Elortzibarko mugapeko industrialdeetan kokatzen ez diren enpresei edota publizitatearen arloan dihardutenei, publizitateko zutoinbakarrekin lurzoria okupatzeagatik.

Publizitateko panelak gehienez ere 5 metroko altuera izan du eta 12 metroko zabalera.

Zutoinbakarrak hartzen duen altuera osoaren arabera aplikatuko dira tarifak; hau da, fustea eta publizitate panela batuz. Hona hemen:

Altuera osoa: iparraldean, 20 metroko altuera, guztira. Prezioa: 3.305,57 euro.

Altuera osoa: hegoaldean, 23 metroko altuera, guztira. Prezioa: 3.305,57 euro.

Iparraldetzat jotzen da, Talluntxe industrialdean errekaren iparraldera dagoen lur eremua, eta hegoaldeztat, berriz, gainerako guztia.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Noain-Elortzibarren, bi mila eta biko abenduaren bostean. Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

A0213257

**IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA****Plantilla Organikoa 2003**

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzorde Iraunkorrek, 2002ko abenduaren 10ean egindako bileran Plantilla Organikoa onesteko erabakia hartu zuen. Hona hemen testua:

1. Iruñerriko Mankomunitatearen Plantilla Organikoa onestea, zein ondoan ageri diren lanpostuez osatua baita:

A) FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostua: Idazkaritza Nagusia. Kopurua: (1). Maila: A. Ordainsari osagarriak: eskusibotasun osag. % 55; lanpostuko osag. % 75. Egoera: okupatua.

Lanpostua: Kontuhartzailatza. Kopurua: (1). Maila: A. Ordainsari osagarriak: eskusibotasun osag. % 55; lanpostuko osag. % 75. Egoera: okupatua.

Lanpostua: Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritza. Kopurua: (1). Maila: A. Ordainsari osagarriak: eskusibotasun osag. % 55; lanpostuko osag. % 60. Egoera: okupatua.

Lanpostua: Aholkularitza Juridikoa. Kopurua: (1). Maila: A. Ordainsari osagarriak: eskusibotasun osag. % 55; lanpostuko osag. % 10. Egoera: okupatua.

Lanpostua: Aholkularitza Juridikoa. Kopurua: (1). Maila: A. Ordainsari osagarriak: eskusibotasun osag. 55 %; lanpostuko osag. % 10. Egoera: hutsik (aldi baterako lan-kontratu bidez okupatua).

B) ALDI BATERAKO LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostua: Burutza Gabinetea. Ordainsaria: 32.127,34 euro. Egoera: okupatua.

2. Iruñerriko Mankomunitatearen zerbitzuan ari diren langileen zerrenda onestea, ondoan ageri diren funtzionarioez osatua:

A) LANGILE FUNTZIONARIOEN ZERRENDA

Datu pertsonalak: Donázar Pascal, María Teresa. Maila: A. Gradua: 3. Lanpostua: Idazkaritza Nagusia. Egoera: aktibo.

Datu pertsonalak: Lumbreras Navas, Manuel. Maila: A. Gradua: 2. Lanpostua: Kontuhartzailatza. Egoera: aktibo.

Datu pertsonalak: Pérez Remondegui, Gonzalo. Maila: A. Gradua: 2. Lanpostua: Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritza. Egoera: aktibo.

Datu pertsonalak: Agúndez Caminos, María Ángeles. Maila: A. Gradua: 2. Lanpostua: Aholkularitza Juridikoa. Egoera: aktibo.

B) ALDI BATERAKO LANGILEEN ZERRENDA

Datu pertsonalak: Ardáiz Egüés, Pedro. Lanpostua: Burutza Gabinetea. Egoera: aktibo.

3. Mankomunitatearekin aldi baterako kontratua duten langileen zerrenda onestea.

Datu pertsonalak: Chueca Inchusta, Fernando. Kontratua: laboral. Ezaugarriak: Zuzenbidean lizentziatua, Aholkularitza Juridikoaren menpekkoa.

Aldi baterako kontratua Aholkularitza Juridikoko lanpostua betetzearan kariaz iraungiko da; delako lanpostua 2002ko ekitaldirako onetsirik dagoen lan eskaintza publikoan sarturik dago, eta dagokion deialdia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu da.

4. 2003ko ekitaldirako aldi baterako langileen ordainsaria Nafarroako Gobernuko izendapen libreko aldi baterako langileentzat finkatuko den gehipenaren neurri berean emendatuko da.

Iruñean, bi mila eta bigarren urteko abenduaren hamaikan. Mankomunitateburua, Javier Iturbe Ecay jauna.

A0213418

**SUNBILLA****2003ko karga-tasak onetsita**

Udalak, 2002ko abenduaren 5ean egin bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, erabaki hau hartu zuen, erregelamenduzko quorumarekin:

1. Udal Administrazioiko Kontu Berezien Informazio Batzordeak egindako proposamenak onestea. Ondorioz, honako zerga tasa hauek ezarri dira 2003. urterako.

–Hirilurraren gaineko kontribuzioa: 0,3600 karga.

–Landalurraren gaineko kontribuzioa: 0,7800 karga.

2. Erabaki honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izanen du aldatu edo indargabetzea erabakitzen den bitartean.

3. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan. Haren kontra egungo legeetan ezarritako errekursoak aurkeztu ahalgo dira, (administrazioarekikoa edota aurretik eta aukeran, gora jotzekoa eta berraztertzekoa).

Sunbillan, bi mila eta biko abenduaren hamarrean. Alkatea, José María Hernandorena Lastiri.

A0213419

**SUNBILLA****Ordenantza fiskaletako tarifen aldaketa hasiera batean onetsirik**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 13. ean xedatutakoari jarraituz, ondotik heldu diren ordenantza fiskaletako tarifen aldaketak ematen dira argitaratu. Aldaketa horiek hasiera batean onetsi ziren, 2002ko abenduaren 5eko osoko bikuran hartu erabakiaren bidez.

Aditzera ematen da ezen bai aldaketak bai aipatu udal erabakia ikusgai egon direla Udaltzaren iragarki oholean, 30 egun baliodu-nean egon ere, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espediente udal idazkaritzan azter dezaten eta egoki juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik erreklamaziorik aurkezten ez bada, aipatu aldaketak behin betikoz onetsiztat hartuko dira.

Tarifa berriek 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko dute indarra.

Sunbillan, bi mila eta biko abenduaren hamarrean. Alkatea, José María Hernandorena Lastiri.

**1. ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

6. artikulua. Honako tarifa hauek aplikatuko dira.

A) Igerilekuak (hilabeteko abonua)

–6 urte arte, dohainik, txartelik gabe, arduradun heldu batekin.

–6 urtetik 12 urtera: 11,00 euro.

–12 urtetik 18 urtera: 17,00 euro.

–18 urte edo hortik aurrera: 23,00 euro.

B) Igerilekuak (udako denboraldiko abonua)

–6 urte arte, dohainik, txartelik gabe, arduradun heldu batekin.

–6 urtetik 12 urtera: 15,50 euro.

–12 urtetik 18 urtera 21,50 euro.

–18 urte edo hortik aurrera: 33,50 euro.

A0213420

**LIZARRA****Hasierako onespina zerga, tasa eta prezio publikoen eta dagozkien ordenantzen 2003rako aldaketari**

Lizarrako Udalak, 2002ko abenduaren 5ean egin osoko bilkura arruntan, legezko gehiengo osoaren quoruma izanik, besteak beste honako hau erabaki zuen:

"1. Hasiera batean onestea ordenantza fiskaletako aldaketak, aldaketari buruzko dokumentazio administratiboan jasotzen denari jarraituz, erabaki honi erantsi baitzaio.

2. Lurraren gaineko kontribuzioaren zergarako ondoko karga-tasa hauek ezartzea:

–Hirilurreko ondasunetarako: 0'3404.

–Landalurreko ondasunetarako: 0'8.

3. Ordenantza fiskaletan berariaz aldatzen ez den orotarako 2002koa bere horretan mantenduko da 2003. urtean.

4. Aipatu aldaketek, erregelamenduzko tramiteak beteta, 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

5. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan eta hurrengoetan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13. ean xedatutakoari jarraituz, erabaki honen gaineko espediente jendaurrean egon da 30 eguneko epean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki oholean iragarkia agertu ondotik, erreklamazio, kexa edo oharrek aurkez daitezten. Ordenantza fiskal, tasa, tarifa eta ponderazio indizeetan egindako aldaketen hasierako onespina behin betikoa bilakatuko da baldin eta 30 eguneko epe horretan ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten.

6. Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13.5 artikuluan eta abenduaren 24ko 683/1996 F.D. an xedatutakoaren arabera, ordenantzetako aldaketak behin betikoz onetsitakoan, horien kopia eta testuategina Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren Departamentuari igorri beharko zaio, Ordenantza Fiskalen Erregistroan sartu eta jaso ditzan.

**ERANSKINA**

*Aldatutako ordenantzen zerrenda. Oro har, % 6,71ko igoera jasan dute*

"2. ordenantza: Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

6. ordenantza: Agiriak luzatu eta izapidatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

7. ordenantza: Autotaxien, bidaiarien garraio publikoko hiri zerbitzu eta alokatzen diren gainerako ibilgailuen tasak arautzen dituen ordenantza fiskala

8. ordenantza: Lizentziak eman eta hirigintzako bestelako jarduerak egiteko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

9. ordenantza: Ingurumena babestearen aldera kontrolatu beharrezkotzat sailkatutako jardueretarako eta jarduera kaltegabeetarako baimenak emateagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

10. ordenantza: Udal ordenantza eta erabakietan aurreikusitako ikuskapenen gaineko tasak arautzen dituen ordenantza.

11. ordenantza: Ibilgailuak eremu publikotik kendu eta ondotik altxatzeko zerbitzua emateko eskubideak eta tasak arautzen dituen ordenantza.

13. ordenantza: Hilerriko zerbitzuak emateko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

14. ordenantza: Hiltegiko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen ordenantza

15. ordenantza: Ezkontza zibilak egiteko tasak arautzen dituen.

16. ordenantza: Lizarrako Udalaren herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

17. ordenantza: Espalioetan eta zirkulazio murriztuko aldean barna ibilgailuak sartzeko tasak eta aparkatzeko lekua nahiz edozein motatako salgaien zabalak egiteko bidea gordetzekoak arautzen dituen.

18. ordenantza: Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen.

20. ordenantza: Udalaren hilerriko kontzesioen tasak arautzen dituen.

21. ordenantza: Hiriko halako eremu publiko batzuetan ibilgailuen aparkamenduaren mugapena eta antolamendua kontrolatzeko zerbitzu publikoa eta horri dagokion tasa arautzen dituen.

22. ordenantza: Autobus geltokiko zerbitzuak egiteko tasak arautzen dituen.

1.1.: Prezio publikoak, kirol instalazioak eta eskoletako areto eta instalazioak erabiltzeagatik, eta tarifak lokalen errentamenduetatik.

1.2.: Prezio publikoak etxez etxeko laguntzako udal zerbitzuak emateagatik.

1.4.: "Julián Romano Ugarte" Musika Eskolan inskripzioa eta matrikulazioa egiteko prezio publikoak.

1.5.: Gazte eta emakumeendako jarduerak egiteko ordaindu beharreko prezio publikoak.

1.6.: Kirol jardueren zerbitzua emateko prezio publikoak.

1.7.: Udalaren langileak, makineria, ibilgailuak, lanabesak eta bertzelako elementuak uzteko prezio pribatuak, eta telealarma bidezko zainketa tasak.

Lizarran, bi mila eta biko abenduaren bostean. Sinadura ulertezina.

A0213523

**BURLATA****Lurraren gaineko kontribuzioaren karga tasen eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren gutxieneko kuoten ponderazio indizearen onespina, 2003rako**

Udal honek, 2002ko abenduaren 12an egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, erregelamenduari jarraituz:

1.–Ondoko karga tasa hau hasiera batean onestea, hirilurraren gaineko kontribuzioa 2003an ordainarazteko: ehuneko 0,212.

2.–2003rako 1,40 indizea ezartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren gutxieneko kuoten ponderaziorako, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 154. artikuluari jarraituz.

Erabaki horren aurka honako errekurtso hauetakoren bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Burlatan, bi mila eta biko abenduaren hamahiruan. Alkate udalburua, José Luis Góngora Setuáin.

A0213524

**BURLATA****Herriko etxea eraikitzeko ideien lehiaketa**

Burlatako Udalak, 2002ko abenduaren hamabian egin bilkuran, ideien lehiaketarako deialdia onetsi zuen, hain zuzen ere Burlatako Herriko Etxea eraikitzeko lanen proiektua prestatu eta lanak zuzenduko dituen ekipo teknikoa hautatzeko. Herriko Etxea Burlatako Alde Zaharreko Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren Berrikuspeneko U.A.1 unitateko BD-1 lurtzatian eraikiko da.

Ideien lehiaketa zuzenduko duten baldintza administratiboen plegua interesatuen eskura dago udal bulegoetan (San Juan Bautista plaza, 1).

Lehiaketako partaideek prestatutako lanak eta agiriak Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita hirurogeigarren egun naturaleko 13:30ak baino lehen. Hirurogeigarren egun hori balio-gabea bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da, 13:30etan.

Burlatan, bi mila eta biko abenduaren hamaseian. Alkatea, José Luis Góngora Setuáin.

A0213525

**ALTSASU****Xehetasun azterlanaren hasierako onespina**

Alkatetzak 2002ko abenduaren 2an eman 104/2002 ebazpenaren bitartez, hasiera batez onetsi zen Altsasuko 4. poligonoko 516. lurzatiaren xehetasun azterlana, Janin jaun arkitektoak prestatua.

Xehetasun azterlana ikusgai egonen da udal idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera, edozein pertsonak aztertu eta bidezko alegazioak egin ditzan.

Altsasun, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate andrea, Camino Mendiluze Arregi.

A0213345

**ALTSASU****Xehetasun azterlanaren hasierako onespina**

Alkatetzak 2002ko abenduaren 2an eman 105/2002 ebazpenaren bitartez, hasiera batez onetsi zen Altsasuko Zelai kaleko 84.eko UC-2 unitatearen xehetasun azterlana, Del Pozo jaun arkitektoak prestatua.

Xehetasun azterlana ikusgai egonen da udal idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera, edozein pertsonak aztertu eta bidezko alegazioak egin ditzan.

Altsasun, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate andrea, Camino Mendiluze Arregi.

A0213346

**ALTSASU****Xehetasun azterlanaren hasierako onespina**

Alkatetzak 2002ko abenduaren 2an eman 106/2002 ebazpenaren bitartez, hasiera batez onetsi zen Altsasuko 3. poligonoko 410. lurzatiaren xehetasun azterlana, Uriarte Martinez andre arkitektoak prestatua.

Xehetasun azterlana ikusgai egonen da udal idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera, edozein pertsonak aztertu eta bidezko alegazioak egin ditzan.

Altsasun, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate andrea, Camino Mendiluze Arregi.

A0213347

**ALTSASU****Xehetasun azterlanaren hasierako onespina**

Alkatetzak 2002ko abenduaren 2an eman 107/2002 ebazpenaren bitartez, hasiera batez onetsi zen Altsasuko Ondarriako UC10 unitatearen xehetasun azterlana, Albeniz eta Zamacona jaun arkitektoek prestatua.

Xehetasun azterlana ikusgai egonen da udal idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera, edozein pertsonak aztertu eta bidezko alegazioak egin ditzan.

Altsasun, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate andrea, Camino Mendiluze Arregi.

A0213348

**SAN MARTIN UNX****2001eko kontuen espedientea onetsita**

San Martin Unxeko Udalak, 2002ko abenduaren 9an egin osoko bilkuran, 2001eko kontuei buruzko espedientea onetsi zuen.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatuarekin bat, espedientea jendaurrean egonen da hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita, interesatuek bidezko juzgatzen dituzten erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Argitara ematen da, interesatu orok jakin dezan.

San Martin Unxen, bi mila eta biko abenduaren hamaikan. Alkatea, Javier Abete Blanco.

A0213658

**SAN MARTIN UNX****2002ko aurrekontua onetsita**

San Martin Unxeko Udalak, 2002ko abenduaren 9an egin osoko bilkuran, 2002ko aurrekontuei buruzko espedientea onetsi zuen, bai eta hura betearazteko oinarriak ere.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 275. artikuluan xedatuarekin bat, espedientea jendaurrean egonen da hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita, interesatuek bidezko juzgatzen dituzten erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten bada, osoko bilkurak horiek ebazteko berariazko erabakia hartuko du, eta aurrekontua behin betiko onetsiko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da, aipatu jendaurreko epea iragandakoan.

Argitara ematen da, interesatu orok jakin dezan.

San Martin Unxen, bi mila eta biko abenduaren hamaikan. Alkate udalburua, Javier Abete Blanco.

A0213659

**DONEZTEBE****2003ko aurrekontu orokor eta bakarra**

Udalaren eta Musika Eskolako Udal Patronatuaren 2003ko ekitaldiko aurrekontu arrunt eta bakarra jendaurrean paratu da, toki entitate honetako idazkaritzan, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua Udaltzatza 2002ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran onetsi zen, hura betearazteko oinarriekin eta aurrekontu bakarra osatzen duten gainerako agiriekin batera. Hona hemen laburpena, kapituluka:

## DIRUSARRERAK

KAPITULUA	UDALA	MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA	GUZTIRA
I. kapitulua .....	282.781,66	0	282.781,66
II. kapitulua .....	96.161,94	0	96.161,94
III. kapitulua .....	84.759,83	47.981,28	132.741,11
IV. kapitulua .....	532.514,25	56.777,53	589.291,78
V. kapitulua .....	16.237,54	102,17	16.339,71
VI. kapitulua .....	108.874,85	0	108.874,85
VII. kapitulua .....	104.245,18	0	104.245,18
VIII. kapitulua .....	0	0	0
IX. kapitulua .....	69.855,56	0	69.855,56
Guztira ....	1.295.430,81	104.860,98	1.400.291,79

## GASTUAK

KAPITULUA	UDALA	MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA	GUZTIRA
I. kapitulua.....	396.181,78	82.872,87	479.054,65
II. kapitulua .....	342.312,85	14.447,71	356.760,56
III. kapitulua .....	39.375,82	120,20	39.496,02
IV. kapitulua .....	167.320,49	1.410,08	168.730,57
VI. kapitulua .....	276.611,39	6.010,12	282.621,51
VII. kapitulua .....	16.287,43	0	16.287,43
VIII. kapitulua .....	420,71	0	420,71
IX. kapitulua .....	56.920,34	0	56.920,34
Guztira ....	1.295.430,81	104.860,98	1.400.291,79

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 1990eko uztailaren 2ko Foru Legearen 276. artikuluan aipatzen den bezala, herritarrek eta bidezko interesa dutenek erreklamazioak aurkez ditzakete, ondoko arauak aintzat hartuz:

a) Jendaurreko epea eta erreklamazioak jasotzeko: iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera hamabost egun baliodun.

b) Aurkezteko tokia: erregistro orokorra.

Jendaurreko epea erreklamaziorik gabe iragaten bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Donezteben, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate udalburua, sinadura ulertezina.

A0213705

## IRUÑA

Behin betiko onestea 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, indarra hartuko duten tributu dirusarreraren eta prezio publikoen erregulazioa

Iruñeko Udalaren Udaltzako, 2002ko urriaren 17an eginiko bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina indarra hartuko duten ordenantza fiskalak eta prezio publikoak arautzen dituzten arauak. Behin jendaurreko epea erreklamaziorik aurkeztu gabe iraganda, behin betiko onetsi dira, eta horien testua osorik argitaratzen da jarraian, jende orok jakin dezan eta behar diren ondorioetarako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin bat.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hemeretziaren. Alkate Udalburua, Yolanda Barcina Angulo.

A0213737

## IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

## 2003ko aurrekontuak

## GASTUAK:

1.-Langileen gastuak: 488.603,51 euro.

2.-Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 791.385,10 euro.

4.-Transferentzia arruntak: 2.901.638,99 euro.

6.-Inbertsio errealak: 25.200.733,39 euro.

Gastuak guztira: 29.382.360,99 euro.

## DIRUSARRERAK:

4.-Transferentzia arruntak: 5.565.143,99 euro.

5.-Ondareko dirusarrerak eta herrilurretako aprobetxamenduak: 25.000,00 euro.

7.-Kapital transferentziak eta bestelako dirusarrerak, kapital gastuetarako: 23.792.217,00 euro.

Dirusarrerak guztira: 29.382.360,99 euro.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hemeretziaren. Mankomunitateko presidentea, Javier Iturbe Ecay.

A0213741

## ETXARRI-ARANATZ

## 2003ko tasak eta ordenantzak

Etxarri-Aranazko Udalak, bi mila eta biko abenduaren hemezortziaren egin osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa betetzeko:

1.-Ehuneko 0,3172ko karga-tasa paratzea hirilurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

2.-Ehuneko 0,800eko karga-tasa paratzea landalurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

Halaber, ordenantzetako tarifak handitzea erabaki zen. Hona hemen:

1.-Urari buruzko ordenantzako tarifak % 4 igoko dira, hartuneen eta hornidura kontratuen tarifak izan ezik.

2.-Ordenantza hauetako tarifak ere % 4 igoko dira:

-Herrilurren aprobetxamenduak.

-Kalez kaleko salmenta.

-Kamioiak aparkatzea.

-Eremu publikoa erabiltzea.

-Musika eskolako hileko kuotak eta matrikula.

-Kontribuzio bereziak.

3.-Hilerriaren ordenantzan tarifa hauek ezartzea.

-Ehorzketa zerbitzua, erroldatuak: 150 euro.

-Ehorzketa zerbitzua, erroldatu gabeak: 360 euro.

-Hezurtegiak lagatzea: 150 euro.

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325.1.b artikuluan ezarritakoari jarraituz, ordenantzetako tarifa horien onspena jendaurrean egonen da hogeita hamar egunean, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, interesatuek espedienteaz aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Etxarri-Aranatzen, bi mila eta biko abenduaren hemezortziaren. Alkate udalburua, Fernando Flores.

A0213742

## ZIZUR NAGUSIA

## Akats zuzenketa

Akats zuzenketa, honetan: 210/2002 Ebazpena, azaroaren 29koa, Zizur Zendeako Udaleko alkate udalburuak emana, "Muru-Asteraingo hiriguneko zoladura eta azpiegiturak" eta "Muru-Asteraingo hornidura eta saneamendu sareak berritzea" izeneko lanak adjudikatze tramatatu den lehiaketako eskaintzak aurkezteko epea handitzen duena.

Aipatu Ebazpenean akatsak daudenez (151. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, 2002ko abenduaren 16koa), honako zuzenketa hauek egin dira:

Honela dioten tokian: "Kontratuaren aurrekontua (BEZa barne): 563.402,11 euro", honela behar du: "Kontratuaren aurrekontua (BEZa barne): 584.326,57".

Honela dioten tokian: "Behin-behineko bermea: 11.268,04 euro", honela behar du: "11.686,53 euro".

Gazolatzen, bi mila eta biko abenduaren hemezortziaren. Alkate udalburua, José Ricardo Pérez Torrano.

A0213833

## BERRIOZAR

## EDIKTUA

Honako honen bidez, jarraian aipatzen diren pertsona edo entitateei jakinarazten zaie Berriozarko Udalak dagozkien likidazioak egin dizkiela, kasuz kasu zehazten den bezala, eremu publikotik ibilgailuak eramanez ondortik haiek zaintzeko zerbitzuen tasak ordainarazteko.

Likidazio horiek jakinaraztea ezinezkoa izan denez, jakinarazpen bakoitzaren egiaztagirian aipatzen diren arrazoiak direla medio, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztindako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan agindutakoari jarraituz, argitara ematen da ediktu hau eta jakinarazten zaie interesatuei zortzi eguneko epea dutela, Nafarroako

ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik, udal bulegoetan agertzeko edo ordezkariaren bat igortzeko, Berriozarko Kaleberri kaleko 12-behean, jakinaren gainean daudela adierazi beharrez. Ohartarazten zaie, epe hori agertu gabe iraganez gero, behin-behineko likidazioen jakinaren gainean daudela ulertuko dela, ondorio guztietarako, aipatu epearen azken egunetik aitzina.

*Likidazioak nori egin zaizkion*

Kontzeptua: ibilgailua garabiaren bidez eramatea; matrikula: NA-7950-U. Izena: Ardila Hernández, Pedro, 619/02 espedientea. Dirua: 54,71 euro.

Kontzeptua: ibilgailua garabiaren bidez eramatea; matrikula: NA-4292-AD. Izena: Zulaica Balduz, Angélica, 737/02 espedientea. Dirua: 54,71 euro.

Kontzeptua: ibilgailua garabiaren bidez eramatea; matrikula: 9686-BSZ. Izena: Hualde Campo, Luis A. 738/02 espedientea. Dirua: 54,71 euro.

Berriozarren, bi mila eta biko azaroaren hemezortzian. Alkatea, Benito José Ríos Ochoa.

A0212643

**A R E S O**

**Obrak esleiturik**

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 10/98 Foru Legearen 97.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, aditzera ematen da Alkatetzaren honek, 2002ko azaroaren 18an emandako 47/2002 Ebazpenaren bitartez, obren kontratu hau adjudikatu duela:

Xedea: Abaleku aldeko mendi pista hobetzeko obrak, Areson.

Esleipen hartzailea: Empresa Constructora Joarbe, S.L.

Zenbatekoa: 10.500 euro, BEZa barne.

Areson, bi mila eta biko azaroaren hemeretzian. Alkatea, Josefa Onsalo Trecu.

A0212652

**A R A N O**

**Jarduera sailkatua**

Ingurumena babesteko jarduerak sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hura garatzeko otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan (urriaren 22ko 304/2001 Foru Dekretuaren bidez aldatua) xedatutakoa betez, aditzera ematen da Alkatetzaren ebazpenaren bidez lizentzia eman zaiola ondoko ezaugarriak dituen jarduerari:

Lizentzia eman zen eguna: 2002ko azaroaren 14a. Eskatzailea: José Antonio Ansa Huici. Jarduera: abelzaintzako ustategia. Tokia: Beltsakoborda baserria, 3. poligonoa, 273. lurzatia, Aranon.

Goizuetan, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkatea, Iñigo Larrea Perurena.

A0212506

**A R G U E D A S**

**Jarduera sailkatua**

7.–Eskaintzak irekitzeko egun-orduak eta tokia.

a) Erakundea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Administrazio eta Kudeaketa Eraikina. Batzar-gela.

b) Helbidea: Arrosadiko Campusa 31006 - Iruñea (Nafarroa).

c) Errektoretza eraikineko iragarki oholean jakinaraziko dute ekonomia proposamenak zein egun, ordutan eta non irekiko dituzten, ireki aurretik 48 ordu lehenago, gutxienez ere.

8.–Iragarki gastuak.

Iragarki ofizialak eta egunkarietan azaldu beharrekoak esleipen-hartzailearen kontura ordainduko dira.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hamarrean.–Errektorea, Antonio Pérez Prados.

A0213505

## Beste Xedapenak

**1868/2002 EBAZPENA, azaroaren 5ekoa, Industri zuzendari nagusiak emana, Tafalla eta Artaxoako mugapeetan "E-04 posizioko adarra, Ecoenergía Integral, S.A." izeneko gas naturaleko instalazio proiekturako administrazio baimena eman eta haren onura publikoa onartzen duena.**

2002-03-27an, Francisco Javier Lara Fornelino jaunak, Gas Natural SDG, S.A.ren izenean eta hura ordezkatzuz (ordezkatzeko aski ahalmen duela egiaztaturik), eskatu zuen Tafalla eta Artaxoako mugapeetan "E-04 posizioko adarra, Ecoenergía Integral, S.A." izeneko gas naturaleko instalazio proiekturako administrazio baimena eta haren onura publikoa onar zedila. Lan hori zehaztuta dago Ignacio Marín de la Barcena Folache Meatzetako ingeniari jaunak prestatutako proiektuan; Espainiako Meatzetako Ingeniarren Elkargoen Kontseilu Nagusiak ikus-onesitako proiektua da eta 2001-09-24ko 417/01 zenbakia du.

Instalazio proiektuaren oinarriko datuak honako hauek dira:

Ecoenergía Integral, S.A. enpresarako adarra Calahorra-Iruña gasbideko adarretik abiatuko da, E-04 posiziotik iriteten den tokitik, Tafallako mugapean, Lauzobia izeneko alderdian.



Trazadura, lehenengo 2.528 metroetan, Calahorra-Iruña gasbidearen parez pare dago; gero, ipar-ekialderantz, Vaquero, La Aquitana eta Salobral alderdietatik pasatzen da, NA-132 (Lizarr-Tafalla) eta NA-6030 (Artaxoa-Tafalla) errepideekin gurutzatzen dela. Handik, ipar-mendebalderantz joz eta gasbidearen parez pare joan gabe jada, Calahorra-Iruña gasbide hori eta San Adrian-Iruña oliobidea gurutzatzen ditu eta Portillo del Sastre eta El Monte alderdietatik jarraitzen. Adarrak, mendebalderantz joz, NA-6030 errepidea gurutzatzen du berriz, La Lobera aldeko kilometro puntutik hurbil, eta handik, ipar-ekialderantz, Artaxoako bide zaharraren parez pare jartzen da Lagunilla alderaino, Tafallako eta Artaxoako udalerrien mugan, hirugarren mailako arkeologi aztarnategi bat saihestuz. Trazadurak ipar-ekialderantz segitzen du, Ecoenergía Integral, S.A. enpresak egiten dituen instalazioen eremu-raino, auzo-bideak, alorrak eta Saragorria sakana gurutzatuz.

Adarraren 9.904 m.l.etatik 5.820 m.l. Tafallako mugapetik pasatzen dira eta 4.084 m.l. Artaxoakotik. Adarra altzairuzkoa izanen da, API 5L GrB, 8" DN eta 4 mm. lodia, eta lurpeko hodia babestuta egonen da fabrikari egindako plastikozko estaldura jarraituarekin; halaber, estaldura hotzean, obran egindakoa, zinta plastikoa eta zorro termorretraktilak erabiliz; babes katodikoa ere izanen du.

Hodia 15.000 Nm<sup>3</sup>/h-ko emaria izateko diseinatu da; diseinuko presioa 16 bar-ekoa eta tenperatura 15° C-koa.

Aurrekontua: milioi bat, berrehun eta berrogeita hemezortzi mila eta hirurogeita lau euro eta hirurogeita bederatzita zentimo (1.258.064,69 euro).

Gas Natural SDG, S.A. administrazioaren baimen batzuen titularrak da Nafarroan gas naturala banatu eta hornitzeko, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeko seigarren xedapen gehigarriarekin bat. Izan ere, Industria Ministerioak Enagas S.A.ri 1985eko abenduaren 23ko Aginduaren bidez eman zion kontzesio administratiboa iraungi da, eta titularrak orain Gas Natural SDG, S.A. da, Enagas S.A.ren jarduerak bereizi egin baitira. Halaxe jakinarazi zitzaion Departamentu honi 99-08-19an, urriaren 7ko 34/1998 Legeko 73. artikuluko 2. idatz-zatiarekin bat. Atal honetan aipatzen diren instalazioak egiteko administrazioaren baimenaren eskabidea sareak garatu eta hedatzeko zerbitzu publikoaren eginbeharretan oinarritzen da, kontzesio haren arabera ezarri baitziren. 34/1998 Legeko hamabosgarren xedapen iragankorrean halaxe xedatu zen. Xedapen hori ondasun eta zerbitzuen merkaturaren lehiakortasuna indartzeko presako neurriei buruzko 2000ko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Dekretu Legeko 14. artikuluen bidez aldatu zen (2000-06-24ko "E.A.O.", 151. zk.).

Industri Segurtasuneko Zerbitzuak proiektu horretarako arazuko tramiteak egin ditu, jendaurrean paratu baitu, 2002ko ekainaren 7ko Diario de Navarra, 2002ko 93. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, abuztuaren 2an, eta Tafalla eta Artaxoako Udaletxeetako iragarki oholean argitaratuz. Alegazioak jaso dira eta bidezkoa den denbora eta formaz tramitatu.

Gas Natural SDG, S.A.k bere eskabidean adierazi duenez, instalazioa egiteko jabetza pribatuko ondasunak ukituko dira eta beharrezkoa da, beraz, lur azaleko instalazio finakoak eraikitzeko lurren desjabetzapen espedientea tramitatzeko.

Gas Natural SDG, S.A.k ondasun eta zerbitzuak babesten dituzten erakunde publiko guztiei eskatu dizkie baimena eta baldintzak. Horregatik haiek ezartzen dizkieten baldintzak bete beharko ditu.

Proiektuak Erregai Gasdunen Sareei buruzko Erregelamendua betetzen du. Erregelamendu hori 1974ko azaroaren 18an eman eta 1974ko abenduaren 6ko "EAO"n argitaratu zen Aginduaren bidez onetsi zen, eta 1983ko apirilaren 26ko Aginduaren, 1984ko uztailaren 6ko Aginduaren, 1994ko martxoaren 9ko Aginduaren eta 1998ko maiatzaren 29ko Aginduaren bidez aldatu (Agindu horiek 1983ko azaroaren 8ko, 1984ko uztailaren 23ko, 1994ko martxoaren 21eko eta 1998ko ekainaren 11ko "EAO"etan argitaratu ziren, hurrenez hurren).

Horretarako ireki den espedientearen arazuko tramiteak beteterik, Industri Segurtasuneko Zerbitzuaren adostasun txostena ikusirik, eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak urriaren 14an eman eta 133. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, urriaren 25ean, argitaratu zen 572/1999 Foru Aginduaren bidez eman dizkidan ahalmenak erabiliz.

Horrenbestez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak urriaren 14ko 572/1999 Foru Aginduaren bidez (99-10-25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAL, 133. zk.) eman dizkidan ahalmenez baliaturik,

#### EBATZI DUT:

1.º Gas Natural SDG, S.A. enpresari administrazioaren baimena ematea, E-04 posizioko adarra-Ecoenergía Integral, S.A. proiektua gauzatzeko, Tafalla eta Artaxoako udalerrietan.

Administrazio baimena ondoko baldintzetara egokituko da:

Lehena.—Gas Natural SDG, S.A. enpresak bi hilabeteko epean 25.161,40 euroko bermea jarri beharko du, espedientearen agertzen diren instalazioen aurrekontuaren 100eko 2a, bere eginbeharrak beteko dituela ziurtatzeko, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeko 73. artikuluko 4. puntuaren arabera. Delako bermea

Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentuan jarri beharko da, uztailaren 22ko 1775/1967 Dekretuaren 11. artikuluen 3. idatz-zatian zehaztutako moduetako batean. Berme hori instalazioak abian jartzeko akta gauzatzeko berreskuratu beharko da.

Instalazioetan eta beren muntaketan bete beharko da Gas Erregaien Sare eta Hartuneei buruzko Erregelamendua, 1974ko azaroaren 18an Industria Ministerioaren Aginduaren bidez onetsia, zeina, gero, Industria eta Energia Ministerioaren 1983ko urriaren 26ko, 1984ko uztailaren 6ko, 1994ko martxoaren 9ko eta 1998ko maiatzaren 29ko Aginduen bidez aldatu baitzen. Instalazio horiek prestatu beharko dira gas alorreko aurrerakuntza teknologikoekin batera joateko eta hornidura malgu eta segururak lortzeko.

Bigarrena.—Gasa saltzeko tarifak finkatzerakoan, gai horri buruz indarrean dauden xedapenek diotenari jarraikiko zaio.

Hirugarrena.—Gas Natural SDG, S.A.k Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legeko 74. artikuluan eta, bereziki, d) idatz-zatian aipatzen diren eginbeharrak beteko ditu. Artikulu horren indarrez Gas Natural SDG,S.A. beharturik dago, baimen honen esparruan zerbitzua eskatzen duen edonori gas hornidura ematera, bai eta horri erantzuteko behar diren hedakuntzak egitera ere.

Laugarrena.—Gas Natural SDG, S.A.k Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legeko 75. eta 76. artikuluetan aipatzen diren eskubide eta baldintzak izanen ditu banatzailea den aldetik, baita 83. artikuluan aipatzen direnak ere, banatzaile eta merkaturatzaileek hornidurarekin dituzten eskubide eta eginbeharrei dagokienez.

Bosgarrena.—Baimen honek ez du erabateko eskubiderik ematen eta ez du monopoliarik onartzen.

Seigarrena.—Industri Segurtasunerako Zerbitzuak Ebazpen honetan zehaztutako baldintzak zehazki betetzen diren begiratu du.

Instalazioak eraiki eta gero, Zerbitzu horrek ikuskatuko du lan eta muntatzeak burutu diren eta, horiek bukatutakoan, eta instalazioen obra bukaeraren ziurtagiria -eskumena duen teknikari batek sinatu eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia-kontzesio-hartzaileak aurkeztu duela frogatu ondotik, aipatu Zerbitzuak hori guztia biltzen duen akta egiten du, eta ondotik Zuzendaritza Nagusi honetara igorriko.

Kontzesioko instalazioetan indarrean dauden xedapenen arabera egin beharreko ikuskapen, saio eta proba orokor nahiz partzialen berri alde aurretik eman beharko dio banatzaileak Industri Segurtasunerako Zerbitzuari.

Halaber, eta obrak hasi baino lehenago, kontzesio-hartzaileak haiek egiteko plan zehatza aurkeztu beharko du.

Zazpigarrena.—Urriaren 7ko 34/1998 Legeko 73. artikuluko 6. idatz-zatian aipatzen direnak ez ezik, haiek ere izanen dira administrazio baimen hau bertan behera uzteko arrazoiak:

- Bermea adieraziriko moduan eta epean ez ordaintzea.
- Proiektuak aurrera eramaterakoan, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak baimendu ez duen aldakuntza edo hedakuntzarik sartzea, indarrean dauden xedapenak bete ahal izateko egiten diren aldatetarik salbu.
- Instalazioak Ebazpen honek ezarritako baldintzei jarraikiz ez egitea edo indarra duten erregelamenduek pertsonen eta gauzen segurtasuna bermatzearren ezartzen dituzten baldintza eta agindu tekniko oinarritzaileak eta hornidurarako baldintzak ez betetzea.

Zortzigarrena.—Udalaren eta probintziaren eskumeneko onespene, lizentzia edo baimenak nahiz gas instalazioen obrak egiteko behar diren beste batzuk ezertan ukatu gabe eta haietat aparte eman da baimen hau, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Gas Natural SDG, S.A.k Tafalla eta Artaxoako udal mugapeetan "E-04 posizioko adarra-Ecoenergía Integral, S.A." proiektua onestea, eta hura egiteko baiemena ematea. Lanak indarra duen legeriari jarraikiz egin behar dira eta hiru hilabeteko epean, lurren egiazko okupazio egunetik hasita.

3. Instalazio horren onura publikoa aitortzea. Horrek berarekin dakar ukituriko ondasunak okupatzea eta eskubideak eskuratzea, eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeko 52 eta 53. artikuluen ondorioetarako, presaz okupatzera behartzen du, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeko IV. Tituluko 103, 104, 105, 106 eta 107. artikuluekin bat.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea aurkez daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Ebazpen hau Gas Natural SDG, S.A.ri jakinaraziko zaio eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta biko azaroaren bostean.—Industri zuzendari nagusia, Enrique Jiménez Goicoa.



**AKATS ZUZENKETA, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak azaroaren 12an emaniko 219/2002 Ebazpenarena. Ebazpen horren bidez Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia onetsi zen.**

2002ko 140. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, azaroaren 20an, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak azaroaren 12an emaniko 219/2002 Ebazpena argitaratu zen, Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia onetsi zuena.

Akats bat dagoela oharturik, zerbait falta baita, bidezko da honelaxe zuzentzea:

A) Ebazpenaren idazpuruaren ondoren testu hau erantsi behar da:

"Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, 27. artikuluan, Nafarroako Administrazio Publikoak premiatzen ditu hedabide publiko eta pribatuak euskara sustatzera, horietan gero eta maizago ager dadin.

Horrenbestez, Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuaren adostasun txostena eta txosten juridikoa ikusirik, Kontuhartzaitza delegatuarekin bat, eta Hezkuntza eta Kultura kontseilariak 29ko 255/2000 Foru Aginduaren bidez eman dizkidan eskurantzak erabiliz,

**EBATZI DUT:**

1. Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia onestea. Haren arauak Ebazpen honen eranskinean ageri dira.

2. 249.541 euroko gastua onartzea, "Hedabideetako euskarari buruzko programak" izeneko 442000-43200-4810-455100 kontusailetik finantzatzeko dena.

3. Ebazpen hau jakinaraztea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuan duen kontu-hartzaile delegatuari, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuari, Hizkuntza Garapenerako Atalari, Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalari, Programazio Bulegoari, Administrazio Orokorraren Bulegoari eta Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, bi mila eta biko azaroaren hamabian.—Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, Pedro Pegenaute Garde.

B) Ebazpenak honelaxe segitzen du: "Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia" (argitaratua) eta haren atzetik doan gutzia (argitaratua).

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hogeita zazpian.—Zuzendari nagusia, Pedro Pegenaute Garde.

A0214012

### III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Z A N G O Z A

##### Hirilurraren balorazio txostenaren bigarren berrikuspena behin betiko onetsita

Batzorde Mistoko Udalaren ordezkariak Hirilurraren balorazio txostenaren bigarren berrikuspena hasiera batez onetsi ondotik, proiektua hamabost egunean egon zen jendaurrean Udalaren iragarki oholean, eta erreklamaziorik jaso ez denez, Batzorde Misto horrexetako Nafarroako Gobernuaren ordezkariak txostena behin aztertuz gero, behin betikoz onetsi da, aipatu Batzordeak 2002ko abenduaren 23an hartutako erabakiaren bitartez.

Zangozan, bi mila eta biko abenduaren hogeita hiruan. Alkatea, José Daniel Plano Izaguirre.

A0213864

#### E R A T S U N

##### Herrilurrak aprobetxatzeko kanona

Eratsungo Udalak, 2002ko abenduaren 12an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen honako hau:

Eratsungo herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituzten ordenantzetan agindutakoa aplikatuz, erabaki da 2003. urtean eta hurrengoetan, honako kanonak paratzea:

1.—Hamabi euro hektarea bakoitzeko, herrilurren aprobetxamenduetan.

2.—Aprobetxamendu horietan zuhaitz landatuak baldin badira, eta entresaka edo matarrasa egiten den denboran, aurreko kanonaz gain onuradunak ordaindu beharko dio Udalari egur horien balioaren % 25.

Azkeneko hori ez da aplikatuko Eratsungo herrilurrak berreskuratzeko transakzio hitzarmena sinatu dutenen kasuan, ekainaren 25eko 164/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarrien arabera. Hain zuzen ere, horrelako kasuetan oinarri horietan ezarritako portzentajeak aplikatuko dira.

Jendaurrean egonen da hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aitzina, aztertzeke eta izan daitezkeen erreklamazioak, kexak edo oharak aurkezteko.

Eratsunen, bi mila eta biko abenduaren hamahiruan. Alkatea, José Luis Escudero.

A0213657

#### L E I T Z A

##### 2003ko karga-tasak

Leitzako Udalak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, erabaki hau hartu zuen, 2002ko azaroaren 29an egin osoko bilkuran:

1.—Ondoko karga-tasak ezartzea:

a) Lurraren gaineko kontribuzioa:

—Hirilurra: 0,45%.

—Landalurra: 0,66%.

b) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga:

—Egiazko kostu errala, 60.101,21 euro bitarte: 2%.

—Egiazko kostu errala, 60.101,21 eurotik 120.202,42 euro bitarte: 3,5%.

—Egiazko kostu errala, 120.202,42 eurotik 240.404,84 euro bitarte: 3,5%.

—Egiazko kostu errala, 240.404,84 eurotik gora: 5%.

c) Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga:

—Igoeraren urteko portzentajeak:

—5 urte bitarte: 2,75%.

—5etik 10 urtera bitarte: 2,65%.

—5etik 15 urtera bitarte: 2,55 %.

—15etik 20 urtera bitarte: 2,55%.

—Karga-eskala: 14%.

d) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga. indizea: 1,4.

Erabaki honek indarra hartuko du 2003ko urtarrilaren 1ean.

Argitaratutako ebazpenaren aurka errekurtsio hauetakoren bat paratzen ahalko da, aukeran:

a) Berraztertzeke errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aitzina.

Leitzan, bi mila eta biko abenduaren lauan. Alkatea, Tomás Azpiroz Alkoz.

A0213521

#### L E I T Z A

##### Ordenantzetako aldaketa hasiera batez onetsita

Leitzako Udalak, 2002ko azaroaren 29an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea ondoko ordenantzetako aldaketak:

—Ur horniduraren tasak arautzen dituen ordenantza.

—Zaborrak bildu eta tratatzeko zerbitzuen tasak arautzen dituen ordenantza.

—Hautzaindegi zerbitzua emateko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, onetsitako aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, interesatuek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epea alegaziorik gabe iragaten bada, ordenantza fiskaletako aldaketa behin betiko onetsita geldituko da, eta osorik emanen da argitara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Leitzan, bi mila eta biko abenduaren lauan. Alkatea, Tomás Azpiroz Alkoz.

A0213522

**LEITZA****Jarduera sailkatua**

Ingurumena babesteko jardueren kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hura garatzeko otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan (urriaren 22ko 304/2001 Foru Dekretuaren bitartez aldatu baitzen) xedatutakoa betez, aditzera ematen da ondoko ezaugarriak dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2002ko azaroaren 19a. Eskatzailea: Ramón Lizarraga Iraola. Jarduera: abeltzaintzako ustiatagia. Tokia: 5. poligonoa, 127. lurzatia.

Leitzan, bi mila eta biko abenduaren lauan. Alkatea, Tomás Azpiroz Alkoz.

A0213518

**LEITZA****Jarduera sailkatua**

Ingurumena babesteko jardueren kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hura garatzeko otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan (urriaren 22ko 304/2001 Foru Dekretuaren bitartez aldatu baitzen) xedatutakoa betez, aditzera ematen da ondoko ezaugarriak dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2002ko azaroaren 11a. Eskatzailea: Juan José Zabaleta Arregui. Jarduera: abeltzaintzako ustiatagia. Tokia: 4. poligonoa, 214. lurzatia.

Leitzan, bi mila eta biko abenduaren lauan. Alkatea, Tomás Azpiroz Alkoz.

A0213519

**LEITZA****Jarduera sailkatua**

Ingurumena babesteko jardueren kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hura garatzeko otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamenduan (urriaren 22ko 304/2001 Foru Dekretuaren bitartez aldatu baitzen) xedatutakoa betez, aditzera ematen da ondoko ezaugarriak dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2002ko azaroaren 11. Eskatzailea: Promotora Leizaran 2000.

Jarduera: garajea. Tokia: Gure Etxea, Elbarren 23.

Leitzan, bi mila eta biko abenduaren lauan. Alkatea, Tomás Azpiroz Alkoz.

A0213520

**IRUÑA****Ordenantza fiskalak****ORDENANTZA FISKAL OROKORRA***0. Ordenantza***I. KAPITULUA***Printzipio orokorrak**Xedea*

1. art. Ordenantza Fiskal Orokor honen xedea da udalerrri honetako zerga erregimena osatzen duten zerga-baliabideen ordainarazpenari dagozkion arau erkideak eta oinarri orokorrak finkatzea. Ordenantza honen arauak ordenantza partikular bakoitzaren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten orotan.

*Ezarpenaren orokortasuna*

2. art. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta bai toki ogasunei buruzko foru legeek ere -halakorik beharrezkoa ez izateagatik ordenantza partikularrik onetsi ez den kasuetan-, agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa, guztion betebeharra da, eta ukitzen ditu pertsona fisiko zein juridiko oro, eta bai eskubide eta betebeharrak dituzten nortasun juridikorik gabeko subjektuak ere.

Ezin izanen da bestelako hobari fiskalik ezarri, salbu eta Foru Lege batek halaxe aurreikusten badu, eta, era berean, ez da onartuko inolako analogiarik, zergagaiaren edo zerga salbuespen edo hobarien eremua bere muga hertsietatik haratago hedatzeko.

*Ezarpen eremua*

3. art. Ordenantza Fiskalak Iruñeko udalerrri osoan ezarriko dira, indarra hartzen duten unetik bertatik indargabetu edo aldatzen diren arte.

**II.KAPITULUA***Zerga harremanen elementuak**Zerga-gaia*

4. art. Zerga-gaia premisa juridikoa edo ekonomikoa dugu, zeina dagokion ordenantzan finkatzen baita, ordainarazpen bakoitza gauzatzeko; hura gauzatzen denean, ordaintzeko obligazioa sortzen da.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzak zehaztuko du zein den zergagai konkretu eta jakina, lokabetasunaren zergatiak aipatuz, bai eta zerga ordaintzeko beharra sorrarazten duten baldintzak ere.

Ordainarazpenek, horien ezaugarriak direla medio, zergagaien jarraitasuna eragiten duten kasuetan, erroldatu, matrikulatu edo erregistratu egin beharko dira.

*Subjektu pasiboa*

5. art. 1) Subjektu pasiboa pertsona natural edo juridiko oro da, baldin eta Legearekin bat zerga-prestazioak betetzeko obligazioa badu, zergadun gisa nahiz horren ordezkio bezala.

Zergaduna pertsona natural edo juridiko oro da, baldin eta Legeak ezartzen badio zergagaiak sorrarazitako tributuaren zama.

Zergadunaren ordezkioa subjektu pasibo oro da, baldin eta, Legeak hala ezarriki eta haren ordezkio, zerga-obligazioaren prestazio material eta formalak betetzera beharturik badago.

2) Zergagai bati titular bi edo gehiago batera egokitzeak berekin ekarriko du horiek elkarrekin beharturik izanen direla, Udal Ogasunari begira, salbu eta Legeak, tributua erregulatzean, kontrakoa ezartzen badu.

6. art. Subjektu pasiboaren eta tributu obligazioaren gainerako elementuak ez dira aldatzen ahal partikularren egintza edo hitzarmenen eraginpean.

Halako egintza eta hitzarmenek ez dute eraginik izanen Udal Administrazioan, berekin dakartzaten ondorio juridiko-ribatuak galarazi gabe.

*Egoitza fiskala*

7. art. Pertsona naturalendako helbidea, zergetarako, haien ohiko etxebizitzarena izanen da; pertsona juridikoendako, aldiz, horien elkarre-egoitzarena, beti ere, bertan baldin badituzte zentralizatuak kudeaketa administratiboa eta haien negozioen zuzendaritza. Horrela ez bada, aipatu kudeaketa edo zuzendaritza non kokatu eta bertara igorriko dira afera horiek.

Udal Administrazioak beren egoitza fiskala aitor dezaten eskatzen ahal die subjektu pasiboei. Subjektu pasibo batek helbidea aldatzen duenean, horri jakinarazi beharko dio, horretarako aitortzen berezia eginez; Administrazioari dagokionean, helbide aldaketak ez du ondorio sortuko zerga-aitortpen hori aurkezten ez deino. Administrazioak behar den bezala egiaztatuz aldatzen ahal du subjektu pasiboen egoitza fiskala.

*Karga-oinarria*

8. art. Tributuei buruzko ordenantzetan, zorra zehazteko oinarritzat zerga-oinarriak hartzen direnean, horiek zehazteko behar diren bitartekoak eta metodoak paratuko dira.

9. art. Likidazio-oinarritzat hartuko da zerga-oinarria, hala egokituz gero, eginiko murrizketen emaitzak, murrizketa horiek tributua arautzen duen legean edo dagokion ordenantza fiskalean xedaturik daudenean.

*Kuotaren zehaztapena*

10. art. Tributu-kuota hauetako bat izanen da, dagokion ordenantza fiskalaren arabera:

- Horretarako ezarritako kopuru finkoa.
- Tarifa bat aplikatu eta horren ondoriozko kopurua.
- Bi prozedura horiek batera aplikatu eta horien ondoriozko kopurua.
- Oinarriari karga-tasa bat aplikatu eta horren ondoriozko kopurua.

e) Kontribuzio berezietan, subjektu pasibo bakoitzari zerga-oinarri zati bat egotzi, hori arautzen duen ordenantzaren jasotako banatze-irizpideei jarraituz, eta horren ondoriozko kopurua.

#### *Tributu zorra*

11. art. Tributu-zorra subjektu pasiboak Udal Administrazioari zor dion dirukopurua da; kopuru horrek tributu-kuota hartzen du, eta, kasuan kasu, ondoko kontzeptuak ere:

- Oinarrien edo kuoten gainean legez galdatzen ahal diren erre-karguak.
- Berandutze-korritua, zeinak sortu eta aldi horretan baitu indarra.
- Tributuen Lege Orokorreko 61. artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako erre-karguak.
- Premiamendu erre-kargua.
- Zerga izaera duten diru-zehapenak

#### *Erantzukizuna, tributu zorra ordaintzean*

12. art. Erantzukizunak tributu-zor osoa hartuko du, zehapenak izan ezik. Edonola ere, premiamenduko erre-kargua bakarrik galdatu ahalgo zaio erantzuleari Ordenantza honen 17. artikularen 1) atalean araututako kasuan.

13. art. Tributuei dagokien arau-hauste baten eragile edo laguntzaile diren pertsonen orok elkarrekin eta batera erantzun beharko diete tributu obligazioei.

14. art. Tributuen Lege Orokorren 33. artikulua aipatzen dituen entitate juridiko nahiz ekonomikoaren partaidekideek edo titularkideek elkarrekin eta batera erantzun beharko dute, aipatu entitateen tributu obligazioetan bakoitzak duen partaidetzaren neurrian.

15. art. 1) Pertsona juridikoek burututako arau-hauste arinen erantzule subsidiarioak nahiz tributu-zor osoaren erantzule, arau-hauste larriak direnean, haien administratzaileak izanen dira, baldin eta asmo gaiztoz nahiz axolagabekeriak, horiei dagozkien egitekoak ez badituzte burutu, hautsitako tributu obligazioak betetzeko, edota beren menpekoei utzi badiete arauak hausten, edota arau-haustea ahalbidetu duen erabakirik hartu badute. Halaber, ordaindu gabeko tributu obligazioen erantzule subsidiarioak izanen dira, beti ere, haien jardueran bertan behera utzi duten pertsona juridikoen administratzaileak.

2) Porroten, lehiaketan, elkarrekin, edo, oro har, edozein entitateen sindikoak, esku-hartzaileak edo likidatzaileak erantzule subsidiarioak izanen dira, baldin eta, asmo gaiztoz nahiz axolagabekeriak, ez badituzte beharrezkoak diren gestioak egiten, egoera horien aurretik sortu eta subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen tributu obligazioak arras bete daitezten.

16. art. Zor baten erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago badira, zorra oso-osorik galdatu ahalgo zaie horietako edonori.

17. art. 1) Tributu zorra ordaintzeko jardute administratiboa erantzuleengana bideratzeak eskatuko du egintza administratibo bat burutzea, non erantzukizuna adieraziko baita eta horrek noraino hartzen duen zehaztuko, interesdunari entzun eta gero. Egintza hori erantzuleei jakinaraziko zaie, likidazioaren oinarriko elementuak adieraziz, eta une horretatik aitzina zordun nagusiaren eskubideak oro ematen zaizkie.

Erantzuleari borondatezko epe bat emanen zaio, ordaintzeko, eta behin hori iraganik ordaindu ezbadu, premiamendu bidezko dirubilketak aurreikusten duen %20ko erre-karguari ere erantzun beharko dio, eta zorra aipatu bide hori erabiliz galdatuko zaio.

2) Jardute administratiboa erantzule subsidiarioengana bideratu ahal izateko, aurretik adierazi beharko da zordun nagusiari kobratu ezin izan zaiola, ezta gainerako erantzule solidarioei ere, hori guztia adierazi aurretik hartzen ahal diren kautelazko neurriak galarazi gabe.

18. art. 1) Pertsona fisikoek edo juridikoek edo Tributuen Lege Orokorren 33. artikulua aipatzen dituen entitateek ustiapen eta jardueraren ekonomikoak burutzean eragindako tributu zorrak eta erantzukizuna haien titular gisa nahiz haietan aritzen edozein kontzeptu dela bide jarraituko dietenei galdatu ahalgo zaizkie. Erantzukizun hori ezin zaio galdatu enpresa horien elementu solteak erosten dituztenei, salbu eta elementu solte horiek pertsona batek edo gehiagok erosteak ustiapenari edo jarduerari segitzeko aukera ematen badu.

2) Eskuratzaileren erantzukizunak ez dio kentzen transmisioa egiten duenari ordaintzeko betebeharra, biak baitira horren erantzule solidarioak. Erantzukizuna exijitzeko prozedura Ordenantza honen 17.1 artikuluan aurreikusten da.

3) Sozietateak edo entitateak deuseztu edo likidatu direnean, betetzeke dituzten tributu-obligazioak bazkideei edo kapitaleko partaideei transmitituko zaizkie, eta horiek elkarrekin eta batera erantzun beharko diete obligazio horiei, esleituko zaien likidazio-kuotaren balioak zenbat jo eta horraino.

#### *Tributu zorraren iraungipena*

19. art. Tributu zorra iraungiko da:

- Ordaindu edo bete delako.
- Preskribitu delako.
- Ordainezintasuna frogatu delako.
- Konpentsazioa dela bide.

20. art. 1) Edonola ere, lau urteko epean iraungiko dira ondoko eskubide eta ekintzak:

a) Tributu zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko eskubidea, betiere epea sortzapean egunetik aitzina kontatzen hasita.

b) Likidaturiko tributu zorrak ordaintzea exijitzeko ekintza, betiere epea borondatezko ordainketaren epea noiz amaitu eta egun horretatik aitzina kontatzen hasita.

c) Tributu arau-haustea direla medio zehapenak ezartzeko ekintza, betiere epea arau-haustea noiz izan eta egun horretatik aitzina kontatzen hasita.

2) Orobat, lau urteko epean iraungiko da beharrik gabe egin duten ordainketen itzulera jasotzeko zergadunek duten eskubidea, non epea hasiko baita ordainketa egin den egunean.

3) Preskripzioa iraungitzen den kasuetan, lau urteko epea etena izan den datatik aitzina kontatuko da.

21. art. 1) Aurreko artikularen 1. atalak aipatzen duen preskripzio epea honakoetan eteten da:

a) Edozein administrazio ekintza egiten bada, subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean dagoela, kreditu edo eskubide hori aitortu, erregularizatu, ikuskatu, segurtatu, egiaztatu, likidatu eta jasotzeko asmoz.

b) Edonolako erreklamazio edo errekurtsioak jartzeagatik.

c) Subjektu pasiboak tributu zorra ordaindu edo likidatzeko egiten duen edozein ekintzagatik.

2) Aurreko artikularen 2. atalaren kasuan, bidegabeko dirusarrerara itzultzeko helburuz subjektu pasiboak egiten duen edozein ekintza fedemailek etenen du preskripzio epea, edo kasuko toki entitateak dirusarreraren existentzia aitortuz egiten duen edozein ekintzak.

22. art. Preskripzioa administrazioaren kabuz aplikatuko da, subjektu pasiboak izendatu edo salbuetsi beharrik gabe.

23. art. Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen kaudimen gabezia ziurra dela bide burutu ezin izan diren tributu zorrak behin-behinekoz iraungitatzat deklaratu dira, preskripzio epearen barnean birgaitzen ez diren bitartean. Epe hori akiturik, zorra birgaitzen ez bada, behin-betiko iraungirik geratuko da.

Bat-bateko kaudimena suertatuz gero, eta preskripziorik ez balego, prozedura exekutiboa irekiko da berriz. Erabaki hori aldi berean jakinaraziko zaio dagokion bulego kudeatzaileari, baja emanda dauden kredituen likidazio berria egin dezan, eta, honela, kasuan kasuko titulu exekutiboak luza daitezten kaudimen gabezia deklaratu zen momentuan zeuden kobrantza egoera berean.

### III. KAPITULUA.

#### *Tributu-haustea eta ondoriozko zehapenak*

#### *Tributu-haustea*

24. art. 1) Tributu-haustea dira, bai ordenantza honetan, bai toki entitateen ogasuna arautzen duten lege-xedapenetan tipifikatutako eta zehatutako egintzak eta omisioak. Arau-haustea zehatzen ahal dira, axolagabekeria hutsezkoak izanik ere.

2) Subjektu arau-haustetzat joko dira legez arau-haustetzat tipifikatutako egintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta, bereziki, ondoko hauek:

a) Tributuen subjektu pasiboak, zergadunak izan nahiz ordezkarioak.

b) Egintzarako gaitasunik ez duten subjektu pasiboaren legezko ordezkaria.

c) Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 62. artikulua xedatutakoari jarraituz, Administrazioari informazioa eta laguntza eman beharrean dauden pertsona fisiko nahiz juridikoak.

3) Legeak arau-haustetzat tipifikatzen dituen egintzek edo ez-egiteek, honako kasuetan ez dute erantzukizunik sortuko:

a) Tributu gaietan egintzarako gaitasunik ez dutenek eginak direnean.

b) Ezinbesteko kasua delarik.

c) Erabakia anitzen artean hartua delarik, beren botoa gorde duten edo erabakia hartu zeneko bileran egon gabeendako.

4) Aurreko zenbakiak aipatzen dituen kasuetan, subjektu pasiboaren edo beharturik dauden gainerakoaren tributu egoera erregularizatzean behar den berandutze korritua eskatuko da, egoki diren kuota eta erre-karguez gain.

5) Toki Administrazioak arau-hausteei Ogasun Publikoaren kontrako delituak izan daitezkeela deritzen kasuetan, jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dio dagokiokeen errua eta administrazio prozedura etenen du, epaileek epai irmoa eman, jarduketakargetsi edo artxibatu, edo Ministerio Fiskalak espedientea itzuli arte.

Epaileek zigortzeko epaia emanez gero, ez da administrazio zehapenik izanen.

6) Deliturik atzematen ez bada, Administrazioak aurrera eragingo dio zehapen espedienteari, epaitegiek frogatutzat juzkatu dituzten gertaerak oinarri harturik.

25. art. Arau-haustek izan daitezke:

- a) Arinak.
- b) Larriak.

26. art. Arau-hauste arintzat hartzen da tributuen kudeatzean edozein pertsonari, subjektu pasiboa izan ala ez, eskatzen zaizkion tributu eginbide edo betekizunak ez kunplitzea, arau-hauste larriak ez direnean, eta horiek zehapena graduatzeko osagai gisa hartzen ez direnean.

27. art. Arau-hauste larriak hauek dira:

- a) Legeek edo behar den ordenantzak ezarritako epeetan ez ordaintzea tributu zor osoa, edo haren parte bat.
- b) Salbuespenak, onura fiskalak edo itzulkinak bidegabe gozatu edo erdiestea.
- c) Toki entitateak autolikidazio prozeduraren bidez exijitzen ez diren tributua likidatu ahal izateko behar dituen aitorten edo agiriak ez aurkeztu, epez kanpo aurkeztu, edo osatu gabe edo era okerrean aurkezte.

#### Zehapenak

28. art. Arau-haustek zigortzeko, diruzko isunak jarriko dira, finkoak edo proportzionalak. Diru bidezko isun proportzionala zerga kuotari, ordaindu gabeko kopuruei eta behar ez bezala lorturiko onura edo itzulketen zenbatekoari ezarriko zaie.

29. art. 1) Arau-hauste arin bakoitzak 6,01etik 901,52 euro bitarteko zehapena izanen du.

2) Ikuskatzaileen jardunari, beren eskumenak erabiltzen ari direlarik, kontra, uko edo traba egiten bazaio, 300,51etik 6.010,12 euro bitarteko isuna ezarriko da.

3) Arau-hauste larriei diru-isun proportzionala jarriko zaie, kuotaren ehuneko 50etik 150era bitartekoa, 30. artikuluan aipatutako gutitzea ezertan galarazi gabe.

Orobat, zilegi izanen da berandutze korrituak eskatzea borondatezko epea bukatu eta zerga-egoera erregularizatzeko duen likidazioa egiten den egunera bitarteko eperako.

#### Zehapenen graduazioa

30. art. 1) Tributu zehapenak graduatzeko ondokoak hartuko dira kontuan:

- a) Tributu-haustek behin eta berriz egin izanak.
- b) Toki entitatearen ikerketei kontra, uko edo traba egitea.
- c) Arau-hausterako maulazko baliabideak erabiltzea edo hura pertsona bat tartean paratuz burutzea.
- d) Aitorpenik ez aurkeztea edo aitorten faltsu, osagabe edo zehaztugabeak aurkeztea, horrek tributu zorra gutitzea badakar berekin.
- e) Eginbide edo betekizun formalak edo laguntzakoak, nork bere kabuz ez betetzea ala horietan berandu ibiltzea.
- f) Eman gabeko datu, txosten edo aurrekariak izan dezaketen munta, eta, oro har, eginbide formalak, kontabilitatekoak edo erregistrokoak, eta toki entitateari lagundu edo informatzekoak ere, ez bete zezarena.

2) Graduatzeko irizpideak aldi berean aplika daitezke.

3) Tributu arau-hauste larrien zehapenen zenbatekoa %30 murriztuko da, subjektu arau-hausleak, edo, hala bada, erantzuleak adierazten badu egiten zaion erregularizazio proposamenarekin bat dato-rra.

Orobat, e) eta f) letretan aipatzen diren irizpideak arau-hauste arinei dagozkien zehapenak graduatzeko besterik ez dira erabiliko. Bestalde, d) letretan aipatzen diren irizpideak arau-hauste larriei dagozkien zehapenak graduatzeko besterik ez da erabiliko.

#### Prozedura zehatzailea

31. art. Tributu zehapenak ezartzeko espedientea ez da izanen subjektu arau-hauslearen tributu-egoera egiaztatuta eta ikertzeko instruitutako bera, baizik eta beste bat, eta horretan interesdunari entzunen zaio.

Zehapenak tributuen behin-behinko edo behin betiko likidazioak burutzeko egintza administratiboak eman behar dituzten organo berek erabaki edo ezarriko dituzte.

#### Erantzukizunaren iraingitzea

32. art. 1) Arau-haustek sortzen duten erantzukizuna zehapena ordaindu edo betetzean iraingitzen da, preskripzioz.

2) Subjektu arau-hausleak hiltzean, burutu gabeko tributu eginbe-harrak oinordeko edo legaziodunei transmituko zaizkie, legeria zibilean herentzia eskuratzeari buruz finkatzen dena galarazi gabe. Zehapenak ezin dira, inolaz ere, eskualdatu.

3) Sozietateak edo entitateak deuseztu eta likidatzen direlarik, horien tributu-obligazio burutu gabeak bazkide edo kapital-partaideei eskualdatuko zaizkie, eta horiek elkarrekin eta batera erantzunen diete haiei, halako eran non horretarako muga esleitzen zaian likidazio kuotaren balioa izanen baitute.

#### IV. KAPITULUA.

##### Kudeaketa arauak

##### Tributu kudeaketaren hasierako erak

33. art. Tributuen kudeaketa ondoko bidez hasiko da:

- a) Subjektu pasiboaren adierazpen edo ekimenaren bidez.
- b) Administrazioaren kabuz.
- c) Ikerketa bidez.

##### Tributu aitortpena

34. art. a) Tributu aitortpentzat hartuko da zergagai baten inguruabarrak edo elementuak gertatu edo sortu direla adierazi edo aitortzen duen dokumentu oro. Halaber, aitorten balioa izanen du, zergagai bat biltzen edo bere baitan hartzen duen dokumentuaren aurkezte hutsak.

b) Inondik inora ere ez da galdutako zerga aitortenak zinpean egin daitezke.

c) Aurkezteko garaian interesdunei emanen zaie aitortenaren hartu-agiria, aitortenaren kopiak horretarako ere balio duelarik.

d) Froga agiria aurkeztean, interesdunek atxikitzen ahal diote kopia soil bat edo fotokopiaren bat, hain zuzen ere, Udal Administrazioak erkatu ondoren, jatorrizkoa itzul diezaion. Hala ere, horrek ez du itzuli beharrik izanen pribatua izateagatik, edo legeko beste edozein arrazoireratik, jotzen badu prozedura behin-betikoz ebatzi baino lehenago ezin duela itzuli.

##### Aitortpena nahitaez aurkeztu beharra

35. art. Aitortpena nahitaez aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean zehaztutako epeetan, eta, oro har, zergagaia gertatzen den egunaren ondoko hogeita hamar egun balioduneko epearen barnean. Epe horietan aurkezten ez bada, arau-hauste arintzat hartuko da eta horren ondoren dagoen zehapena ezarriko.

##### Aurkezpenaren ondorioak

36. art. a) Aitortpena Udal Administrazioan aurkezteak ez du erran nahi zerga bidezkoa dela ontzat eman edo aitortzen dela.

b) Udal Administrazioak aitortenak eska ditzake, eta hauek gehitzea ere, bai eta, orobat, nabari diren okerrak zuzentzea ere, ordainarazpena likidatu eta egiaztatzeko beharrezko den neurrian.

c) Aurreko zenbakian aipatzen diren eginbeharrei muzin egitea arau-hauste arintzat hartuko da, eta dagoen zehapena ezarriko zaio.

##### Izapidatzeko epeak

37. art. a) Ordenantza partikularretan tramite bakoitza burutzeko zein izanen diren bete beharreko epeak adieraziko da. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez dela sei hila-bete baino gehiago izanen administrazio prozedura hasten denetik prozedurari amaiera ematen dion ebazpena ematen den egunera arteko denbora; beti ere, hori galarazteko behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiak ez badira, behintzat. Epe hori bi urtekoa izanen da jarduketa ikuskatzailea izaten denean.

b) Administrazioak epeak ez betetzeak ez du erran nahi administrazio ekintza iraungi egiten dela, baina, hala ere, interesdunei kexatzeko erreklamazioa aurkezteko bidea ematen die.

c) Tramitazioaren akatsen kontra kexatzeko erreklamazioak noiz-nahi egiten ahal dira, eta bereziki, prozedura etetea, jarritako epeak haustea edo arazoa behin-betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen tramiteak ez egitea dakartzatzen aurka. Kexa jasotzen bada, horretarako arrazoirik izanez gero, erantzukizuna duen funtzionarioaren kontrako disziplina espedientea irekitzea ekarriko du.

*Ikerketa eta ikuskaritza*

38. art. Udal Administrazioak ikertuko ditu zergaia osatzen edo baldintzatzen dituzten egite, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak oro, eta egiaztatuko karga-oinarriaren balorazioa.

39. art. Ikerketa burutzeko subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiaren edo osagarriaren dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta oharpenak aztertuko dira; era berean, ondasunen, elementuen, ustiapenen eta tributua zehazteko beharrezko den edozein argibide aurrekinen ikuskapena eginen da.

40. art. Subjektu pasiboek kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen den beste dokumentuak egunera eraman eta kontserbatzeko obligazioa dute, bai eta ikuskaritza lanetan erraztasunak emateko ere, Administrazioari zergagaiarekin zerikusirik duten datu, txosten eta aurrekinak eskuratuz.

41. art. a) Ikuskaritza jarduketak subjektu pasiboendako eragin ekonomikorik baldin badakar, alde aurreko nahiz behin-betiko eginbide, jakinarazpen eta akten bidez dokumentatuko dira. Dokumentu horietan ondoko hauek zehaztuko dira:

Eginbidea norena den eta pertsona horren izen-deiturak, bai eta eginbidean zer gisa edo noren izenean ari den ere.

Zergagaiaren eta hori subjektu pasiboari atxikitzearen funtsezko elementuak.

Bidezko jotzen diren tributua egoerak.

Subjektu pasiboaren adostasuna edo desadostasuna, edo haren ordezkariera.

b) Subjektu pasiboak akta izenpetu ez, edo izenpetu arren bertan bildutako inguruabarrekin ados dagoela adierazten ez badu, bai eta hartarako behar bezala baimendutako pertsonak izenpetzen ez badu, dagokion espediente administratiboa irekiko da, non aipatu akta buru gisa jasoko baita; bertan subjektu pasiboari hamabost eguneko epea emanen zaio, alegazioak aurkez ditzan.

c) Espedienteari buruzko ebazpena handik ateratzen den likidazioan jakinaraziko da.

*Salaketa*

42. art. a) Toki entitateen ikerketa lanari salaketa batek eman ahal dio hasiera. Salaketa paratzeak ez du galarazten Administrazioarekin lagun egiteko obligazioa, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Salatzailea ez da interesduntzat hartuko salaketaren ondorioz has daitekeen ikerketan, ezta legitimatutzat ere, errekurso edo erreklamazio hori jartzeko.

c) Salaketak besterik gabe artxibatuko dira, nabarmenki oinarririk gabeak badira.

*Tributuen likidazioa*

43. art. a) Zerga oinarriak zehaztu ondoan, kudeaketak segituko du, tributua zorra finkatzeko likidazioa eginez. Likidazioak izanen dira behin-behinekoak edo behin-betikoak.

b) Behin-betikoak honako hauek izanen dira:

Zergagaiaren administrazio ikerketa egin ondoan eta zerga oinarria egiaztatuz geroz burututakoak, behin-behineko likidaziorik izan bada edo ez.

Preskripzio epearen barnean egiaztatu ez direnak.

c) Aurreko idatz-zatian adierazitako kasuetatik aparte, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, kontuaren gainekoak, osagarriak, bermeak, partzialak edo osokoak badira ere.

44. art. a) Likidazioak egiterakoan Administrazioak egiaztatuko ditu tributua aitortzen adierazitako egintza, elementu eta balorazio guztiak.

b) Aitorpenen emaitzaren gaineko tributua oinarria handitzen bada, subjektu pasiboari adierazi beharko zaio, gehiketa sortarazten duten egitateak eta elementu gehigarriak konkretuki azalduz, burutzen den likidazioarekin batera.

45. art. a) Likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, hauek adieraziz:

–Haien funtsezko elementuak.

–Erabili daitezkeen inpuazio bideak, hauek jartzeko epeak, bai eta zein erakundetan jarri ere.

–Tributu zorra ordaindu behar den tokia, epea eta modua.

b) Subjektu pasiboari behar bezala jakinarazitako likidazio orok behartuko du subjektu pasiboari tributua zorra ordaintzera.

c) Jakinarazpen akastunek beren eragina izanen dute subjektu pasiboak haren berri baduela berriaz adierazi, dagokion errekursoa jarri edo tributua zorra ordaintzen duenean.

d) Dena den, subjektu pasiboari pertsonalki emandako jakinarazpenek sei hilabeteren buruan izanen dute eragina, baldin eta egintzaren testu osoa izanik, beste edozein baldintza saihestu badute, salbu eta Administrazioak akatsa zuzen dezan eskatuz epe horretan arau bidezko protesta egin bada.

46. art. Subjektu pasibo baten gainean diren tributuen likidazioa edo bilketa egintza batean birbiltzen ahal dira, eta kasu horretan ondokoak eskatuko dira:

–Likidazioan jaso beharko dira kontzeptu bakoitzeko oinarriak eta tasak edo kuotak, halako eran non birbiltzen diren likidazioak oro zehazturik eta bereizturik geratuko baitira.

–Bilketan berezirik jaso beharko dira kontzeptu bakoitzari dagokion zorrak, eta horiek batuz finkatuko da ordainarazi beharreko zor birbidua.

*Zergadunen errolda*

47. art. Ordenantza partikularrean bertan zehaztutako kasuetan, Udal Administrazioak, interesdunen aitortzen ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera, eta, orobat, administrazio ikuskaritzaren ondoan, dagokion zergadunen erroldak prestatzeko ekinen dio. Zergadunen errolda horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, zeinak Udalak paratu nahi duen edonolako tresneria bidez, mekanikoa ere barne dela, jardunen baitu.

48. art. a) Zergadunen errolda eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak erreklamatzeko ahal den administrazio egintza baten bidez onetsi beharko dira, eta legeari jarraikiz subjektu pasiboari horien berri emanen zaie.

b) Erroldan zernahi alta, baja edo ganbiorik ekar dezakeen edozein aldaketaren berri eman beharko diote zergadunek Udal Administrazioari, hura gertatu eta hogeita hamar egun baldiduneko epean.

49. art. Zergadunen erroldak dokumentu fiskaltzat hartuko dira, zeina aipatu beharko baita kobratzeko zerrenda, ordainagiri eta beste dokumentuetan, behar den ordainarazpena eskuratu ahal izateko.

## V. KAPITULUA

*Dirubilketa**Ordainketa-aldiak*

50. art. a) Honela egin ahalko da bilketa:

–Borondatezko epean.

–Nahitaezko epean.

b) Borondatezko epean ordaintzera behartuak daudenean hartarako jarri diren epeetan ordainduko dituzte beren zorrak. Nahitaezko epean, indarrez eginen da bilketa, premiamendu bidea erabiliz, indarrean diren legeekin bat, bere bizkar zuen eginbidea borondatezko epean bete ez duen behartuaren ondarearen kontra.

*Zorren sailkapena, dirubilketaren ondorioetarako*

51. art. a) Udal agintariak burututako likidazioen ondoriozko tributua zorrak, horrela sailkatzen dira, bilketa kontuetarako: jakinaraziak, jakinarazi gabeak eta autolikidatuak.

b) Jakinarazietan ezinbestekoa da jakinarazia egotea subjektu pasiboak jakin dezan tributua zorraren berri, bestela, eta, beraz, legeak agindu bezala jakinarazi gabe ezin eskatuko da zorra.

c) Jakinarazpen gabeko zorrak dira jakinarazpen individualik behar ez dutenak, subjektuek aurretik ezagunak dituzten zergadun erroldetatik datozelako.

Konparaziora, epe epe ordainagiri bidez kobratu beharreko tributuetan, behin errolda, padroi edo matrikula hartan alta hartuaren likidazioa jakinarazi denean, zilegi izanen da hurrengo likidazioak multzoka jakinaraztea, ediktu bidez edo aditzera emanez, baldin likidazio horiek lehenengo berdin berdinak badira, edo izan diren aldaketak orokorrak badira.

d) Autolikidatuak dira subjektu pasiboak, aitortzen-likidazio baten bitartez, tributua zorra aldi berean ordaintzen duenean.

*Ordaintzeko tokia*

52. art. a) Udalaren aldeko zorrak Udalaren Diruzaintzan sartuko dira, baldin eta tributua bakoitzari dagokion ordenantza partikularrak dirusarrera udal zerbitzu ezberdinetan eratutako Kutxetan sar daitezkeela edo sartu behar dela espreski agintzen ez bada.

b) Era berean, Udala titularra den kontuetan sartzen ahalko da tributua zorra, baldin eta kontu horiek horretarako propio irekiak badira, dirubilketa-kudeaketan laguntzeko baimena duten gordailu-entitateetan.

*Ordaintzeko epeak*

53. art. Tributu zorrak honela ordaindu beharko dira:

1. Jakinaraziak, jakinarazi eta hogeita hamar egun balioduneko epean.

2. Aldizka eta ordainagiri bidez kobratu beharreko tributuen kasuan, banan banako jakinarazpena beharrezkoa ez dutenetan, aurreko zenbakian adierazitakoa baino laburrago izan behar ez duen epean; ebazpen baten bitartez zehaztuko dira borondatezko ordainketaren aldiaren lehendabiziko eta azkeneko egunak.

Kobratzeko epea zein den era kolektiboan jakinaraziko da, eta horretarako beharrezko ediktuko argitaratuko dira Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletzeko iragarki oholean.

3. Subjektu pasibo berak autolikidatutako zorrak, dagozkien aitortpenak aurkezterakoan ordaindu beharko dira, tributu bakoitza arautzen duen Ordenantzak seinalatzen dituen egun eta epeetan, eta hori egin ezean, hogeita hamar egun balioduneko epean, zergagaia sortzen den egunetik aitzina.

*Korrituak eta errekarquak*

54. art. Epe exekutiboaren hasierak errekarqu bat sortzen du, zeinak sartu ez den zorraren zenbatekoaren %20 joko baitu, bai eta zor hori dagozkion berandutze korrituak ere.

Tartean, eten, geroratze edo zatiketarik ez dagoenean, ordaindu gabeko tributu zorra ordaintzen baldin bada, premiamenduzko probidentzia jakinarazi baino lehen, errekarqua %10ekoa izanen da, eta ez dira galdutako epe exekutiboan hastean sorturiko berandutze korrituak.

55. art. 1) Berandutze korritua galdutako da egintzaren exekuzioa eteten den kasuetan, bai eta geroratzeetan, zatiketetan edo edozein motako luzapenetan ere.

2) Aitorpen-likidazioei edo autolikidazioei dagozkien dirusarrerai, haiek epetik kanpo baina alde aurretik errekerimendurik izan gabe aurkeztu badira, bai eta epetik at eta aurreko errekerimendurik gabe aurkeztutako aitortpenak eragindako likidazioei ere, %20ko errekarqua ezarriko zaie; horiei beste zenbait kasutan galda zitezkeen zehapenak ez zaizkie galdutako, baina bai, ordea, berandutze korrituak. Aurrekoa gorabehera, sarrera edo aurkezpena egiteko borondatezko epea amaitu eta ondorengo hiru, sei edo hamabi hilabetetan burutzen bada sarrera edo aurkezten bada aitortpena, errekarqua bakarrik aplikatuko da, zeina, hurrenez hurren, ehuneko 5, 10 edo 15ekoa izanen baita, eta ez dira galdutako beste zenbait kasutan galda zitezkeen berandutze korritua eta zehapenak.

Errekarqua horiek premiamendu errekarquarekin batera galdutu ahaliko dira, baldin eta tributua ordaintzera beharturik daudenean ez bada dirua sartzen aitortpen-likidazioa edo epetik kanpoko autolikidazioa aurkeztearekin batera.

*Ordaintzeko modua*

56. art. 1) Tributu zorrak eskudiruz ordaindu beharko dira, ondoko era hauetako batean:

- Legezko dirua
- Posta edo telegrafo bidezko igorpena
- Banku txekea
- Bankuko edo Aurrezki Kutxako abonua edo transferentzia gutuna, Udalaren alde propio irekitako kontuetan.

2) Banku txeketa bidez ordainduz gero, txeketak, merkataritzako legeek galdututako betekizun orokorrez gain, ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- Izenduna izan, eta Iruñeko Udalaren alde egina izatea.
- Data txeketa noiz aurkeztu eta egun berekoa edo bi egun lehenagokoa edukitzea.
- Entitate igorpen duak adostua edo egiaztatua izatea.
- Igorlea den pertsona edo sozietatearen izena, modu argian adierazia, sinaduraren azpian.

Txekearen aurkezpenak zenbat ordaindu eta kopuru horretatik askatuko du zorduna, behin txeketa kobratuta. Kasu horretan, eragina izanen du, txeketa noiz aurkeztu eta data horretatik aitzina. Baldin eta txeketa bat ez bada kobratzen, osorik edo hein batean, behin borondatezko epea iraganda, premiamenduzko prozedura administratiboaren bidez galdutako dute haren zenbatekoa ordaintzea; Txeketa baliozko eran adostu edo egiaztatutako izanez gero, hura adostu edo egiaztatutako zuen Entitateari galdutako zaio, edo bestela, zordunari.

57. art. 1) Orain arte adierazitakoa gora behera, ordainagiri bidez eta aldizka kobratzen diren tributu zorrak direnean, halakoetan ez baita nahitaezkoa banakako jakinarazpena, ordaintzeta ondoko moduretariko batean egin beharko da:

a) Eskudiruz, dirubilketa-kudeaketan laguntzeko baimena duten gordailu-entitateetan, entitate bakoitzak zerbitzu horretarako zein bulego

hautatu eta horietan, hain zuzen, ordaintzeko epea hastean horretarako zergadun bakoitzari gortzen zaion ordainagiri-abisua aurkeztu eta. Halako agiririk jaso ezean, edo hori galduz gero, ordaindu aurretik Udal bulegoetan eskatu beharko den kopia baten bitartez gauzatu beharko da diru-sarrera.

Bankuak edo Aurrezki Kutxak likidatutako dirua jaso eta berehala ordainagiri-abisua zigilatuko du, eta orduan jasoko du, jaso ere, delako dokumentuak bertan ageri diren kuoten ordainketaren egiaztatutako balioa.

Zordunak gordailu-entitateari ordaintzeko emandako aginduek, ez dute, berez eta haiek bakarrik eraginik izanen Udalaren aurrean, ezertan galarazi gabe agindua eman duenak entitatearen kontra agindua ez betetzeagatik gauzatu ditzakeen ekintzak.

b) Ordaintzeta helbideratu bidez, gordailu-entitateetan irekitako kontuetan, halako eran non horiek subjektu pasiboaren administratzaile modura jokatu eta horrek baimendutako zorrak ordainduko baitituzte.

Helbideratzeak baldintza bakarra du, hau da, idatziz oharatzea Udal Diruzaintzari eta dagokion gordailu-entitateari helbideratze hori zein zerga kontzeptuari buruzkoa den, eta hori egin behar da zorra ordaintzeko borondatezko epea hasi eta, gutxienez, bi hilabete lehenago.

Helbideratzearen balioa epemugarik gabea izanen da, baldin eta interesdunak ez badu hori hori balio gabetzen, edo gordailu-entitateak atzera egiten, edo, bestela, Udal Administrazioak, justifikatutako arrazoiak direla medio, balio gabetzat aitortzen ez duen bitartean.

c) Udalaren Diruzaintzan ordaintzea: egoera berezian diren ordainagiriaren kasuan.

2) Mugaegin jakin bateko ordainagiri baten kobrantzak ez du lehenagokoak ordaindu direla erran nahi, eta ez du zorpekoak direnak eskuratzeko Udalak duen eskubidea iraungitzen ere.

*Ordaintzeta luzatu eta zatika egitea*

58. art. Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko zer baldintza bete behar diren, haiek erdiesteke zer jardunbide segitu behar den, zer berme eta bestelako baldintzari iritzi zaien beharrezko, hori dena, Udal Aurrekontuetarako exekuzio oinarrietan jasoko dute.

*Kautelazko neurriak*

59. art. 1) Tributu zorraren kobroa bermatze aldera, Udal Administrazioak kautelazko behin-behineko neurriak hartzen ahaliko ditu, baldin eta, halakorik hartu ezean, kobrantza ez dela gauzatuko edo oztopo handiz kobratuko delako zantzu nabariak badira.

2) Hartu beharreko neurriak ekidin nahi den kaltea nolakoa eta horren proportzioak izanen dira. Ez da, inola ere, galera konponezina edo konpongaitza eragin dezakeen neurriarik hartuko.

Kautelazko neurria ondokoetako edozein izan daiteke:

- Tributu itzulketen ordaintzeta atxikitzea, zorrak zenbat jo eta zehazki kopuru hori kobratzea bermatzen duen hainbatetan.
- Ondasun eta eskubideen prebentziozko bahitura.
- Legeek aurreikusten duten beste edozein neurri.

Prebentziozko bahitura bermatze aldera, dagozkion erregistro publikoetan jasoko da horren oharra. Edo, bestela, bahitutako ondasunak gordailuan utziko.

## VI. KAPITULUA

*Errekarquak*

60. art. Behin ordenantza fiskalak eta horien aldaketak behin betikoz onetsirik, onespren hori inpugnatu ahaliko da, bai eta kudeaketa, ikuskapen eta tributu bilketarako egintzak ere, Nafarroako toki entitateetako egintzak eta erabakien aurka joateko indarrean dagoen errekursoen araubide orokorrari jarraikiz.

61. art. 1) Bidezko diren errekursoak paratzeko ez da beharrezkoa izanen exijitutako diru kopurua aurretik ordaintzea.

2) Errekurtsua paratzeak ez du geldiaraziko inpugnatu den egintzaren exekuzioa, horrek dakartzen legezko ondorioekin, likidatutako kuota edo eskubideen, korrituen, errekarquen eta kostuen bilketa barne. Aurrekoa gorabehera, interesdunak hala eskatzen bada, inpugnatutako egintzaren exekuzioa eten egingen da, ondoko kasuetan:

a) Ondoko bermeetako bat Udalaren Diruzaintzaren eskura jartzen bada:

–Eskudirua gordailatzea

–Abal edo fidantza solidarioa, kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emana.

b) Salbuespen gisa, bermerik gabe etetea bidezkoa bada, indarra duten arauekin bat.

3) Emaniko bermea balioduna izanen da bide administratiboan etendura mantentzen den bitartean. Bermeak bere indarra galdu bada edota bermatu beharreko kopurua handiagoa bada, errekarquak, korrituak edo gehitutako beste erantzukizun batzuk direla eta, berme berri bat aurkeztu beharko da edota aurrekoa osatu.

Zorra premiamenduko prozeduraren barne dagoenean, bermeak, zor nagusiaz gain, %25 estali beharko du, premiamenduzko errekaru, korritu eta sor daitezkeen kostuak direla medio.

4) Tributua ordaindu behar duenak administrazioarekiko auzi errekaru jartzen badu, eutsi egiten zaio administrazio-bidean erabakitako etendurari, betiere, berme nahikoa izanez gero, harik eta organo judicial eskudunak etendura horren gaineko erabakia hartu arte.

5) Aurkeztutako errekaru ezetsi eta tributuzorra ordaintzen bada, tributuzoren berandutze korritua ere ordaindu beharko da, eteteak zenbat iraun, eta epe horretarako adina.

6) Bermea zorra ordaindutakoan itzuli edo askatuko da, hala dagozkion errekaru, interes eta kostuak nola etendurak iraun duen bitartean sortutako korrituak barne. Halaber, bidezkoa izanen da hura itzulzea egintza deuseza dela erabakitzen bada.

Kitapen batean errekaruak, interesak edo kuotaz bestelako elementurik deuseztuz gero, bermea zorrari atxikituko zaio hori ordaintzen ez den bitartean; edonola ere, zorraren zenbatekoa bakarrik estaltzen duen beste berme batekin ordezkatzeko ahalko da.

7) Tributuz zehapenen exekuzioa berehala etenen da, inolako bermerik aurketu behar gabe, baldin eta haien kontra bidezko den errekaru aurkezten bada, behar den era eta epeetan; hala bada, ezin gauzatuko dira bide administratiboan irmoak izan arte.

## VII. KAPITULUA

### Kaleen sailkapena

62. art. Ondorio fiskalei dagokienez, kontuan hartuko dira kastroko poligono eta industrialdeak oro, eta horiek aplikatuko dira ordenantza partikular bakoitzak ezarritakoaren arabera.

### ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

#### 1. Ordenantza

##### Oinarria

1. art. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko V. Kapituluaren 167.tik 171.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

##### Zergagaia

2. art. Zerga honen zergagaia da udalerrriaren mugapean zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, hori ematea Iruñeko Udalarri dagokion guztietan, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe.

Adierazpen huts gisara, zergari atxikitako zergagaitzat ondokoak har daitezke:

- 1) Oin berriko edozein motatako eraikinak eta instalazioak egiteko obrak.
  - 2) Lehendik izanik, edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
  - 3) Lehendik izanik, edozein eraikinen edo instalazioaren egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak.
  - 4) Eraikinen barneko egitura aldatzen duten obrak, haien erabilera edozein izanik ere.
  - 5) Behin-behineko egin beharreko obrak.
  - 6) Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
  - 7) Lur-mugimenduak, hala nola, zelaiaketa, hondeaketa eta betelanak, baldin onetsia edo baimendua den urbanizazio edo eraikitze proiektu barneko obra gisa zehaztu eta programatu ez badira.
  - 8) Finkak ixtea.
  - 9) Eraikinak botatzea, aurri egoeran deklaratuak izan ezik.
  - 10) Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.
  - 11) Bide publikotik ikusten diren propagandako kartelak paratzea, beti ere lokal itxietan ez badaude.
  - 12) Halako ahalmen ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoaren inbertsioak berekin dakartzaten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintza lizentzia behar badute.
3. art. Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatua, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomia erkidegoak, edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepide, burdinbide, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziozkoa.

### Subjektu pasiboak

4. art. 1) Zerga honen subjektu pasiboak honakoak dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, herentzia banatu gabeak, ondasun elkarteak, eta nortasun juridikorik ez dutelarik, obraren jabetasuna duten beste entitate, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen dutenak.

2) Iruñeko Udalaren aitzinean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obraren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz beste pertsona bat edo entitate bat dela, obraren bera hartuko da eraikinaren jabe gisa.

5. art. Zergadunaren ordezkotik subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatu edo eraikin, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

### Zerga oinarria

6. art. 1) Zerga oinarria eraikin, instalazio edo obraren kostu erreala eta benetakoa da.

2) Aurreko zenbaki horretan xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreala eta benetakoa exekuzio materialeko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, sariak eta industri mozkina kenduta.

### Kuota

7. art. Zerga honen kuota izanen da zerga oinarriari karga mota ezartzetik heldu dena.

### Sortzapena

8. art. Zerga hau, eraikina, instalazioa edo obra hasten delarik sortzen da, nahiz eta hartarako lizentziarik lortu ez den.

### Zergaren kudeaketa

9. art. Nahitaezko baimena ematen delarik, behin-behineko likidazio bat egiten da, eta zerga oinarria finkatuko, interesdunak aurkeztu duten aurrekontuaren arabera, baldin eta hura dagokion Elkargo Ofizialak zigitaturik badago.

Halako lizentziarik ez dagoenean, edo proiektua zigitatzea nahitaezkoa ez bada, zerga oinarria udaleko teknikariek finkatuko dute proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

Hasierako proiektua dagokion lizentzia eman ondoren aldatzen bada, likidazio osagarri bat egiten da, betiere hasierako aurrekontua zenbatean gainditu eta kopuru horren beraren arabera.

10. art. 1) Behin benetan egin diren eraikin, instalazio, obra eta haien kostu benetakoa ikusirik, Udalak, hala behar bada, behin-behineko zerga oinarria aldatuko du, hartarako behin betiko likidazioa eginez, eta behar den kantitatea galdatuko dio subjektu pasiboari edo, hala badagokio, itzuli.

2) Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, obra bukatu edo behin-behineko jaso eta hurrengo hilabetean, deklarazio bat aurkeztuko da, egoera horren berri emanez, bai eta eraikuntza, instalazioa edo obraren kostu erreala eta benetakoarena ere; deklarazio horrekin, betiere, obraren zuzendari fakultatiboak horri buruz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, edo, bestela, fakturak edo beste hainbat agiri, aipatutako kostuaren frogagarri.

11. art. Zergaren likidazioaren ondorioetarako, berdin jokatuko da administrazioaren isilbide positiboaz eman diren lizentziarik eta berriaz eman direnekin.

12. art. Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari uko egiten badiu, idatziz aurkeztu berriazko ukoaz, Iruñeko Udalak, hala behar denean, ordaindutakoa itzuliko dio.

Halaber, behin lizentzia iraungi ondoren, Iruñeko Udalak egindako likidazioa deuseztuko du eta, hala behar denean, itzuliko, titularrak ez badu, behinik behin, lizentzia horren berritzea eskatzen eta Udalak baimentzen.

### TARIFEN ERANSKINA

#### Karga-tasa

Ondoko tasa ezarri da: % 4,3.

### ORDENANTZA FISKALA, HIRILURREN BALIOA HANDITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

#### 2. Ordenantza

##### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VI. Kapituluako 172tik 178ra bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. 1) Zerga honen gaia hiri lursailen balioaren gehikuntza da, gehikuntza hori agertzen delarik hala lursailen jabetza eskualdatzeagatik, hori edozein ere izanik, nola, lursailen jabaria mugatuz, lursail horien gozamenerako edozein eskubide erreal sortu edo eskualdatzeagatik.

2) Ez da zerga honen menpean izanen Lurralde Kontribuzioaren gaietarako landa-lurtzat jotzen diren lursailek izan dezaketen balio gehikuntza.

*Salbuespenak*

3. art. Honako egintzengatik agertzen diren balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsirik egonen dira:

a) Ezkontideek ezkontza unitatera ekartzen dituzten ondasun eta eskubideak, haien alde eta haiek ordaintzeko egiten diren esleipenak eta bienak dituzten ondasunengatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdatzeak

b) Herentziaz, ordeinuz, ezkonsariz, emaitzaz edo, dohainik dela, beste edonola egiten diren edozein ondasunen eskualdatzea, aurrekoen, ondorengoen eta ezkontideen artean egiten bada.

Hala ere, aipatu diren negozio juridikoak eginez gero, horiek ez dute etengo Ordenantza honen 6. artikuluan xedatzen den hogeituroko epea.

c) Ezkontideen arteko edo haiengandik seme-alabenganako ondasun eskualdatzeak, baldin eta epaiak betetzeko ondorioz egiten bada, ezkontzen baliogabetze, banantze edo dibortzioen kasuetan

d) Zortasun-eskubideak eratu eta transmititzea, horiek edozein izanda ere.

4. art. Halaber, zerga honetatik salbuetsirik daude balio gehikuntzak, zerga hori ordaintzeko betebeharrak ondokoei dagokienean:

a) Nafarroako Foru Komunitatea, Estatuak, autonomi erkidegoak, eta haien guztien menpeko erakunde autonomo administratiboak.

b) Iruñeko Udala eta horren partaide diren toki entitateak zein Udala partaide dutenak, bai eta haren menpeko erakunde autonomo administratiboak ere.

c) Ongintza edo ongintza eta irakaskuntzako kalifikazioa eskuraturik duten erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren nahiz aseguru pribatuen gaineko legeek agindu bezala eraturiko mutualitate eta bahituretxeen entitate kudeatzaileak.

e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan salbuespena aitorturik duten pertsona edo entitateak.

f) Lehengoratzeko diren administrazioko emakiden titularrak, emakidei atxikitako lursailei dagokienez.

g) Espainiako Gurutze Gorria.

*Subjektu pasiboak*

5. art. Honakoak dira zergaren subjektu pasiboak zergadun gisa:

a) Lursail eskualdatzeetan edo irabazi asmoz jabaria mugatzen duten gozamenerako eskubide errealak eratu edo transmititzean, lursailaren eroslea, edo kasuan kasuko eskubide errealak noren alde eratu edo eskualdatu eta pertsona hori bera.

b) Lursailen eskualdatzeetan edo kostubidezko tituluar jabaria mugatzen duten gozamenerako eskubide errealak eratu edo transmititzean, lursaila besterentze duena edo kasuan kasuko eskubide errealak eratu edo eskualdatzen duen pertsona. Hala ere, eroslea zergadunaren ordezkaria izanen da, baldin eta eroslea ez bada salbuespen subjektiborik duten pertsona edo erakundeetariko bat.

Edonola ere, erosleak zergadunaren ordezkari den kasuetan, aurreko lehen zatian xedatutakoarekin bat, zilegi izanen da kargaren zenbatekoa eskualdatzen duenari jasanaraztea.

*Zerga oinarria*

6. art. Zerga honen oinarria da hiri lursailen balio gehikuntza benetazkoa, sortzapenaren unean agertzerik emana eta gehienez ere hogeituroko epe batean barna gertatutakoa.

7. art. Lursailen eskualdatzetan, lurrek sortzapenaren unean izaten duten balioa izanen da, une horretan Hirilur Kontribuzioaren ondorioetarako finkaturik duten bera.

Hirilurren balioaren gehikuntza errealak zenbatekoa den zehazteko, ondoko adierazpen matematikoa aplikatuko da:

$ZO = KB * U * \%X$ , zeinaren osagaiak ondokoak baitira:

ZO = Zerga oinarria edota lurren balioaren gehikuntza errealak.

KB = Lurraren balioa, katastroan.

U = Urte kopurua, balioaren gehikuntza zenbat urtetan zehar gertatu den.

$\% X$  = Portzentaia, lurraren balio igoera zenbat denboran sortu den, eta haren arabera finkatuko dena. Portzentaia ordenantza honen eranskinean ageri dira.

8. art. Jabaria mugatzen duten gozamenerako eskubide errealen eraketa eta eskualdatzea, balioaren gehikuntza zein epetan gertatu den eta horren arabera Udalak kalkulatuako portzentaia finkoa aipatutako eskubideen balioaren adierazgarri den lursailaren balio-zatiaren gainean aplikatuko da, balio hura, betiere, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu diren arauak aplikatuz kalkulatuako delarik.

9. art. Edifizio edo lurzoru baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko zein lurrazal-eskubide errealak izan gabe lurrazpian eraikitze eskubideen eraketan edo eskualdatzetan, balioaren gehikuntza zein epetan gertatu den eta horren arabera Udalak finkatuako portzentaia eskualdaketa-eskrituran finkatzen den proportzotasun-moduluaren edo, halakorik ez badago, hegalduran edo zorupean eraikitzeko diren solairuen azalera edo bolumenaren, eta, behin horiek eraiki ondoren, eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzetik aterako denaren adierazgarri den lursailaren balio-zatiaren gainean aplikatuko da.

10. art. Nahitaezko desjabetzapenak daudenean, balioaren gehikuntza zein epetan gertatu den eta horren arabera Udalak finkatzen duen portzentaia lurraren balioari dagokion salneurri-justuaren zatiaren gainean aplikatuko da.

*Kuota*

11. art. Zerga honen kuota zerga oinarriari Ordenantza honen Eranskinean ageri den karga-tasa aplikatuz aterako da.

*Sortzapena*

12. art. Zerga ondoko kasuetan sortzen da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostubidez edo dohainik, bizien artean edo heriotzarengatik, eskualdatzen den egunean berean.

b) Jabaria mugatzen duen gozamenerako eskubide errealen bat eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa ematen den egun berean.

Epaitegiek edo administrazioak emandako ebazpen irmoaren bidez deklaratu edo onartzen denean lurraren eskualdaketa errealaren eskualdaketa zehazten duen egintza edo kontratua deuseztatu, eten edo ebatzi dela, subjektu pasiboak eskubidea izanen du ordaindutako zerga itzul diezaioeten, betiere egintza edo kontratu horiek irabazirik sortu ez badio, eta itzulketa egiteko eskatzen badu, ebazpena irmo bihurtu eta bost urteko epean; ulertuko da irabazirik ondorioak izan direla, interesdunek elkarri itzulketa egin behar dizkiotela egiaztatzen ez denean. Itzulketa horiek Nafarroako Foru Berriko 506. legeak eta horiekin bat datozenek eta Kode Zibileko 1295. artikulua aipatzen dituzte. Egintzak edo kontratuak irabazirik sortu ez badute ere, baldin eta subjektu pasiboak zergarekiko dituen betebeharrak bete ez dituelako deklaritzen bada etetea edo ebazpena, ezer ez da itzuliko.

Kontratua indarrik gabe gelditzen bada, kontratu-emele biek adostasun osoz hala erabaki dutelako, ordaindutako zergarik ez da itzuliko eta zergaren menpekora egintza berritatz hartuko da. Elkarren arteko adostasuntzat joko da adiskidetzeko-ekitaldi baten bidez bat etortzea eta demandari amore emate hutsa.

Baldintzaren bat tartean daukaten egintza edo kontratuetan, horren kalifikazioa Nafarroako Foru Berriko aginduen arabera egiten da. Baldintza hori etenarazteko bada, baldintza hori bete arte ez da likidatuko zenbatekoa. Baldintza hori suntsiarazlea bada, zerga galdatu egiten da, betiere kontuan harturik, baldintza hori bete gero, behar den itzulketa egin beharko dela, aurreko lehen zatian erregelari jarraikiz.

*Zergaren kudeaketa*

13. art. Subjektu pasiboak edo, bestela, horren ordezkariak, behar-turik daude aitortzen bat aurkeztuta Udalaren kudeaketa bulegoan, beti ere hor emanen dieten ereduarekin bat; aitortzen horretan behar den likidazioa egiteko tributu zerrrendako nahitaezko elementuak jasoko dira.

Aitortzen hori ondoko epeetan aurkeztuko da, zerga noiz sortu eta hortik aitzina:

a) Bizidunen arteko egintzak direnean, epea bi hilabetekoa izanen da.

b) Heriotzaren ondoriozko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izanen da eta urtebetekoa, subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

Aitortzen agiri bat erantsiko zaio, non zergazpetzea sortu duten egintza edo kontratuak agertuko baitira.

14. art. Edonola ere, Udal Administrazioak behar adina datu, argibide, aurrerakin eta frogagiriak eskatzen ahalko dizkie interesdunei, zerga likidatzeko.



15. art. 13. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe, lurzoruak eskualdatu edo o jabaria mugatzen duten gozamenerako eskubide errealak eratu edo eskualdatzen dutenak oro Udalari adierazi behar diote, subjektu pasiboak dituzten epe eta era berberetan adierazi ere, zerga-gaia gauzatu dela, baldin eta horiek irabazi asmoz eta bizien arteko negoziario juridikoaren ondorioz gauzatu badira.

16. art. Zergari buruzko aitorpena aurkezten duena, aurkezteagatik beragatik, zerga nor ordaindu behar duen eta horren ordez jarduten duela joko da, eta tributua kudeatzeko jardunbidean egiten diren jakinarazpenek orok, likidazioei dagozkienek ere barne, interesdunekin berarekin egin izan balira bezainbesteko balioa izanzen dute, eta ondorio berdinak eragingo.

17. art. Notarioek betebeharra dute, Iruñeko Udalari igortzeko, hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan zerga honen gaia gauzatu dela agerian uzten duten gertakari, egintza edo negozio juridikoei buruz baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea, azken borondatezko egintzei dagozkienak izan ezik.

Halaber, beharturik egonen dira, epe berean, sinadura ezagutu edo legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuaren zerrenda, gertakari, egintza edo negozio juridiko berberak osatutakoa, igortzera.

Artikulu honetan aurreikusitakoak ez du galarazten lege orokor eta tributuzkoetan ezarritako betebeharrak orokorra.

#### TARIFEN ERANSKINAK

##### Zerga oinarria

Ezarri beharreko portzentaia, lursailen balioaren gehikuntza errearen zenbatekoa finkatzeko, sortzapen unearen arabera.

Balioaren gehikuntza sortzeko epea

-Urte batetik 5 urte bitarte: % 3,7

-10 urte bitarte: % 3,5

-15 urte bitarte: % 3,4

-20 urte bitarte: % 3,2

##### Karga-tasa

Ezarri den tasa ondokoa da: % 10,10

#### ORDENANTZA FISKALA, LUXUZKO GASTUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA: BINGOA

##### 3. Ordenantza

###### Oinarria

1. art. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen II. Tituluko VII. Kapitularen 179tik 183ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

###### Zergagaia

2. art. Zergagaia da subjektu pasiboak bingoaren jokoan sariak erdiestea; sari horien zenbatekoa da tributua xedea.

###### Subjektu pasiboa

3. art. Zerga honen subjektu pasiboak dira bingoaren jokoan sari-turik gertatu direnak, enpresa antolatzaileak behar den tributua zorra jatorrian atxiki eta Ordenantza Fiskal honetan zehaztu diren epeetan atxikipen guztiak Udala Ogasunean sartzeko duen beharra galarazi gabe.

###### Zerga oinarria

4. art. Zerga oinarria bingoaren jokoan erdietsitako sariaren zenbatekoa izanzen da.

###### Kuota

5. art. Zerga honen kuota zerga-oinarriari eranskinean ageri den karga-tasa aplikatzean ateratakoa izanzen da.

###### Sortzapena

6. art. Zerga sortzen da bingo jokoan irabaziriko sariak ordaintzen diren unean.

###### Zergaren kudeaketa

7. art. Jokoa antolatu duen enpresak, tributua atxikitzaile gisa, behar den aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du, hilabete bakoitzeko lehen hamar egunetan, Administrazioak emanen dion ereduaren ara-

bera; era berean, horretarako gaitu diren bulegoetan edo Udalaren Diruzaintzan ordaindu beharko du zorra.

Aitorpena aurkeztu edo tributua ordaindu behar baino beranduago egiten bada, horri dagozkion korrituak ordaindu beharko dira.

Aginduzko aitorpen-likidazio hori ez aurkeztea arau-hauste larritzat joko da, 2/1995 Foru Legearen 94.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoari jarraikiz zehatuko da.

Administrazioak hilabetero egiaztatuko ditu aurkeztu zaizkien aitorpenak, eta behar diren likidazio osagarriak egingen; atxikipena egin duten enpresei jakinarazi edo galdutako dizkie.

#### TARIFEN ERANSKINA

##### Karga-tasa

Ondoko tasa ezarri da: % 6

#### ORDENANTZA FISKALA, OKUPATU GABEKO ETXEBIZITZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

##### 4. Ordenantza

###### Oinarria

1. art. Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VIII. Kapituluko 184tik 191era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

###### Zergagaia

2. art. Zergagaia udalerrian kokatzen diren eta okupatu gabeko jotzen diren etxebizitzak edukitzea da.

3. art. Zergaren ondorioetarako, etxebizitzatza joko da baldintza arruntetan pertsonak, aldi baterako zein luzaroan, bizi izateko gai den eraikuntza oro.

4. art. Okupatu gabeko joko dira urtean zehar lau hilabete baino gehiago okupaturik ez dauden etxebizitzak, salbuespen honekin: etxebizitza non, hango biztanle ez den batek urteko sasoi jakin batzutan baino ez eta aisialdirako soilik erabiltzeko dena.

Ondorio horretarako, kontraturik duten etxebizitza alokatuak okupatutza joko dira.

5. art. Zerga honetatik jare izango dira etxegintzan edo etxe salmantan diharduten enpresek eraikitako etxebizitzak, horien lehen eskualdaketa egin arte.

###### Subjektu pasiboak

6. art. Zergaren subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen banatugabeak, ondasun erkidegoak, eta gainerako entitateak, nortasun juridikorik izan ez arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen dutenak, baldin eta:

a) Etxebizitza hutsen gaineko jabetza-eskubidearen titular badira, etxebizitza horien gainean gozamenerako bestelako eskubide errealk ez denean.

b) Etxebizitza hutsen gaineko gozamenerako eskubide errealen baten titular baldin badira, eskubide hori jabeari ez dago kionean.

###### Salbuespenak

7. art. Honakoak daude zerga honetatik salbuetsiak:

a) Etxebizitzak zein herritan izan eta hortik kanpo haien zereginak bete behar dituzten funtzionario publikoak titular dituztenak, betiere ezar dakizkiekeen legeekin bat.

b) Titularrak arrazoi teknikoak, antolamendukoak zein ekoizpene-koak direla medio edo, bestela, enpresaren jardunari dagozkien kontratuak direla bide edo toki-mugikortasunaren menpe daudelako, ohiko bizileku duten herritik kanpora aldi baterako joan behar izaten duten langileak dituzten etxebizitzak.

c) Soldadutza edo ordezko prestazio soziala egiten ari direnen titular dituzten etxebizitzak.

d) Titularrak Administrazio Publikoak dituzten etxebizitzak.

Edonola ere, salbuespenak etxebizitza bakarra hartuko du, aurreko zenbakiko d) letrakoari dago kionean salbu, horretan denak hartuko baititu.

*Zerga oinarria*

8. art. Zerga oinarria Hiri Lurraldeko Kontribuzioaren ordainarazteko indarra duen bera izango da.

*Kuota*

9. art. Zerga honen kuota zerga oinarriari karga-tasa aplikatzen sortuko da.

*Karga-tasak*

10. art. Karga-tasa izanen da Ordenantza honen eranskinean ageri dena.

*Zergaren sortzapena*

11. art. 1. zerga lehenbiziko aldiz sortuko da 16. artikuluan aipatzen den jakinarazpenetik urte bete igarotakoan, 3. eta 4. artikuluetan horren gainean egin den kalifikazioarekin bat.

2. Gerora, urte bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko da zerga.

Kuotak sehilekoak izango dira, sehileko naturalak, eta horien barruan, zatietan eta txikietan.

12. art. Subjektu pasiboek zera eskatu ahal izango dute, dagokion espedientearen biderapenaren bitartez: etxebizitza bete denetik aurrerako aldiari dagokion kuotaren heineko zatia itzultzea.

*Zergaren kudeaketa*

13. art. Hutsik dauden Etxebizitzen Errolda egin beharko du Udalak, zergaren ordainarazpenerako.

14. art. Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek aitopena aurkeztu beharko dute, Udalak emandako ereduarekin bat eta 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, hutsik jo daitezkeen etxebizitzak berri emateko, zerga ezartzeko erabakia argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

15. art. Aitorpenik aurkeztu ezean, edo aitopenak akastunak bada, Udalak, bere kabuz edo salaketaren ondorioz, erroldan sartuko ditu aurreko erroldan aipatzen diren etxebizitzak, interesdunari entzungo zaion espedienteaz izapidatu ondoren.

16. art. Erroldan sartu ondoren, Alkateak titularrari jakinaraziko dio zerga sortzeko urte beteko epea has dadin, 11. artikuluan xedatutakoarekin bat.

*Alta eta baje sistema*

17. art. Behin Erregistroa eraturik, eta aurreko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, subjektu pasiboek edo horien administratzaileek edo legezko ordezkariak gertatu diren aldakuntzak deklaratu behar dizkiote Udalari, eta horretarako alta, baja eta jabari edo titulartasun deklarazioak aurkeztu behar dituzte, halako gertaerak jazo eta hurrengo hogeitamar egun balioduneko epean.

18. art. Subjektu pasiboek behar diren alta, baja eta aldaketen aitopenak aurkeztuko dituzte, dokumentu fedemaileekin batera, zeinetan gertatutako aldaketa kreditatuko den; horiek eraginkorrak izanen dira aldaketak zein seihilekotan gertatu eta hurrengo seihilabeteko naturaletik aitzina, eta hari dagokion kuota ukituko du.

*Arau-haustea eta zehapenak*

19. art. Arau-hauste eta zehapenei dagokienean, Ordenantza Fiskal Orokorrean agindutakoari eginen zaio men.

**TARIFEN ERANSKINA***Karga-tasa*

Tributu kuota erdiesteko zerga oinarriari aplikagarri zaion karga-tasa indarrean dagoen hiri kontribuzioaren tasaren % 40 da.

**KONTRIBUZIO BEREZIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****5. Ordenantza***Oinarria*

1. art. Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen Lehenbiziko Tituluko IV. Kapitularen 8. Saileko 109tik 120ra bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

*Zerga-gaia*

2. art. Kontribuzio berezien zerga-gaia hau da: subjektu pasiboak onura bat edo bere ondasunen balio gehitze bat erdiestea Udalak herri-lanak burutzearen ondorioz edo beren esparruan zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzearen ondorioz.

3. art. 1. Honakoak hartuko dira udal mailako obra eta zerbitzuetzat:

a) Udalak bere eskumenen esparruan esleitu zaizkion eginkizunak burutzeko egiten dituenak, salbu eta bere ondareko ondasunen jabe titular gisa egiten dituenak.

b) Udalak beste entitate publikoren batek esleitu edo eskuordetuta egiten dituenak eta legeari jarraikiz titulartasuna bere gain hartu dituen zerbitzuak.

c) Udalak dirulaguntza emanik beste entitate publikoren batek edo haien kontzesiodunek egiten dituztenak.

2. Aurreko zenbakiko a) letran sartzen direnak Udalaren esparruko lan edo zerbitzuetzat joko dira nahiz eta haien egileak izan kapital soziala osorik Udalarena duten erakunde autonomo edo merkatarizta elkarteak, edo Udalak dirulaguntza emandako kontzesiodunak edo zergadunen administrazio elkarteak.

4. art. Kontribuzio berezien aldera bildutako kopuruak eskatzeko arazoia izan zuten obra edo zerbitzuko gastuak berdintzea izanen dute helburu zilegi bakarra.

*Subjektu pasiboa*

5. art. 1) Hauek dira kontribuzio berezien subjektu pasiboak: Unitate ekonomiko edo ondare berezia osatu eta kontribuzio eginbidea sortzen duten obra burutze edo toki mailako zerbitzuen ezartze edo zabaltzeak onura berezia ekartzen dien pertsona fisiko zein juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak.

2) Onura bereziaren hartzaileak hauek hartuko dira:

a) Kontribuzio berezia delarik ondasun higiezinak ukitzen dituzten obra burutze edo zerbitzu ezartze edo zabaltze batengatik, ondasun higiezin horien jabeak.

b) Kontribuzio berezia delarik enpresa ustiapenen batek behar duen obra burutze edo zerbitzu ezartze nahiz zabaltze batengatik, ustiatzearen jabe den pertsona edo entitate titularrek.

c) Kontribuzio berezia delarik su itzaltze zerbitzuak zabaltze edo hobetzeagatik, ondasun ukituen jabeek gain, arlo hartan lanean aritzen diren aseguru konpainiak, udalerriak.

d) Kontribuzio berezia delarik lurpeko galeriak egiteagatik, haiek erabili behar dituzten hornidura enpresak.

3) Jabetza horizontaleko kasuetan, jabeen komunitateko ordezkariak Udala Administrazioari emanen dizkio jabeekideen izenak eta komunitate horretan bakoitzak duen partaidetza koefizientea, banako kuotak igor ditzan. Horrela egiten ez bada, kuota bakarra igortzea onartzen dela ulertuko da, eta komunitateak berak eginen duela banaketa.

*Zerga oinarria*

6. art. 1) Gehenez ere, lanak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik Udalak pairatzen duen kostuaren % 90 osatuko du kontribuzio berezien zerga oinarria. Udalak, antolamendurakia erabakia hartzerakoan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko portzentaiak finkatuko du.

2) Kostu hori honako kontzeptuok osatuko dute:

a) Peritu lanen benetako kostua, bai eta proiektuen erredakzio zein obren zuzendaritzako zereginena eta plan eta egitarau teknikoena ere.

b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeko lanen zenbatekoa.

c) Lan edo zerbitzuek etenik gabe okupatu behar dituzten lurren balioa, non eta erabilera publikoko ondasunak ez diren, edo Udalari dohainik eta nahitaez emandako lurra edo Estatuak nahiz Nafarroako Foru Komunitateak Udalari emandako eraikinak.

d) Eraikinak eraitsi eta laborantzak, obrak edo instalazioak desegiteagatik ordaindu behar diren kalte-ordainak, baita lurreratu edo okupatu beharreko ondasunen errentariei dagozkien ere.

e) Zerbitzu eta obretan inbertitu den kapitalaren korritua, Udalak kreditura jo behar duenean, kontribuzio bereziak ez dutelako kostu osoa berdintzen edo, berdinduta ere, kontribuzioak orokorki zatikaturik dardelako.

3) Obra edo zerbitzuetarako aurrekontuak jarritako kostu osoa aurreikuspen hutsa izanen da. Benetako kostua handiagoa edo txikiagoa izatera, hura hartuko da dagokion kuota kalkulatzeko.

4) Obra edo zerbitzuak direlarik 3.1 c) artikuluan aipatzen dituenetako, edo artikuluko horretarako 2) zenbakiak aipatzen dituenetako, Udalak dirulaguntza emanda kontzesiodunek egindakoa alegia, kontribuzio berezien zerga oinarria finkatzeko, dirulaguntza horien zenbatekoa hartuko da kontuan; horrek ez du galarazten beste Administrazio Publikoek lan edo zerbitzu horretaz beste laguntzak ematerik. Dena dela, artikuluko honen lehen zenbakiak aipatzen duen muga begiratu da, % 90 alegia.

5) Zerga oinarria finkatzeko, hauxe adituko da udal administrazioak bere gain hartutako kostuaz: osotarako kostuaren zifrari udal administrazioak edozein pertsona edo entitate publiko nahiz pribatutatik erdiesten dituen dirulaguntzak kenduz ateratzen den zenbatekoa.

6) Dirulaguntza edo laguntza hori kontribuzio bereziaren subjektu pasibo batek emana delarik, haren zenbatekoak pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzea izanen du aurreneko helburua. Dirulaguntzaren zenbatekoak kuotari gainez egiten badio, gaindikina, hainbana partiturik, beste subjektu pasiboen kuotak gutxitzeko erabiliko da.

#### Kuota

7. art. 1) Kontribuzio berezien zerga oinarria subjektu pasiboan artean partituko da, kontuan harturik obrak eta zerbitzuak zer motakoak ziren, arau hauei men eginez.

a) Kasu guztietarako, batera nahiz bereiz, partitze modulutzat ezarriko dira eraikinen fatxadako metro linealak, haien azalera, haien bolumen eraikigarria eta Lurralde kontribuziorako duten balio katastrala.

b) Su-itzaltze zerbitzua ezarri edo zabaldu beharra delarik eta jabeekin batera aseguru entitateak agertzen badira, ezarpena egin beharreko udalerrian arriskua estaltzen dutenak, denak ere subjektu pasibo gisa, orduan zilegi izanen da entitate horiei dagokien kuota zatia haien artean partitzea aurre-aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eskatzeko zaien kuota baldin bada berak bildutako primen ehuneko bosta baino gehiagokoa, gaindikina hurrengo ekitaldietara pasako da erabat amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 5. artikuluko 2. zenbakiko d) paragrafoan aipatzen dituen obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, haiek erabili behar dituzten konpainia edo enpresen artean partituko da, bakoitzari erreserbatzen zaien espazioaren arabera edo haien osotarako sailarekiko proportzioan, nahiz eta berehala erabiltzekoak ez izan.

8. art. Lege edo hitzarmen nazioartekoek onura fiskalak ematen badituzte, onuradunei tokatuko zaizkien kuotak ez dira partituko beste zergadunen artean.

9. art. Ordaindu beharreko kuota finkatu delarik, Korporazioak zilegi izanen du, subjektu pasiboak hala eskatuta, kuota zatikatu edo gorratu dadin agintzea gehienez bost urtez.

#### Tributuaren sortzapena

10. art. 1) Kontribuzio bereziak obrak burutu diren unean sortuko dira edo zerbitzua ematen hasi denean. Obrak zatikatzea zilegi balitz, tarte edo zatiki bakoitza burutu denetik izanen da sortzapena subjektu pasibo bakoitzari.

2) Aurreko zenbakian xedatu dena galarazi gabe, ezartze eta antolatze erabaki konkretua hartu delarik, Udalak zilegi izanen du eskatzea aurrez ordain daitezela kontribuzio bereziak hurrengo urterako aurrekusten den kostuaren arabera. Ez da zilegi izanen beste urtealdi bat aurreratzeko eskatzea ez badira burutu aurreratzeko eskatu zeneko obrak.

3) Kontribuzio bereziak sortzeko momentua kontuan hartuko da, nork ordaindu behar duen finkatzeko, betiere 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, nahiz eta antolamenduari buruzko erabaki konkretuan beste subjektu pasibo bat agertu, hura onetsi zen datan halako zena, alegia, eta kuoten ordainketa hark berak aurreraturik izanik ere, artikuluko honetako 2. zenbakian xedatzen duenarekin bat. Antolamenduari buruzko erabaki konkretuan subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak jakinaren gainean egon eta ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gainean dituen eskubideak eskualdatzen baditu, erabaki hori onesten den unetik sortzapena gertatzen den momentura bitarteko epean, egin den eskualdatzearen berri eman beharko dio Udalari, eskualdatzearen datatik hasi eta hilabeteko epean, eta hala egiten ez badu, Administrazio horrek zilegi izanen du kobratzeko egintza espediente horretan subjektu pasibo gisa ageri zenaren kontra zuzentzea.

4) Obrak osorik nahiz partez bururatu direlarik, edo zerbitzua ematen hasi, zehaztuko dira subjektu pasiboak, zerga-oinarria eta kuota banan-banako eta behin betikoak, tokatzen diren likidazioak igorri eta konturako entrega gisa konpentsatuz egin diratekeen ordainketa aurreratuak. Udalak eginen du behin betiko zehaztatzeko hori, betiere tributuhori kasuan kasuko obra edo zerbitzura egokitze erabaki konkretuko arauak begiratu.

5) Ordainketa aurreratuak egin dituztenak tributua sortu zen egunean subjektu pasibo ez diren pertsonak badira, edo berez egokitu zaien banako kuota behin betikoa gainditzen badute, Udal Administrazioak bere kabuz eginen du behar den itzulketak.

#### Ezarpena eta antolamendua

11. art. 1) Kontribuzio bereziak ordainarazteko, kasuan-kasuan ezartzerik buruzko erabakia hartu behar da, aurrez.

2) Ez da zilegi izanen kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko obra bat egiteari edo zerbitzu bat ezarri nahiz zabaltzeari buruzko

erabakia exekutatzeko harik eta kontribuzio berezien antolamendu konkretua onetsi ez den arte.

3) Antolamendu-erabakia nahitaz hartu beharrekoa izanen da eta obra eta zerbitzuen kostu estimatua finkatu beharko du, eta bai onuradunen artean partitu beharreko zenbatekoa eta partitze irizpideak ere. Antolamendu erabaki konkretuak Ordenantza honi eginen dio erreferentzia.

4) Behin Kontribuzio bereziak antolatze erabaki konkretua hartu delarik eta ordaindu beharreko kuotak finkatu, subjektu pasibo bakoitzari emanen zaizkio aditzera kuota horiek, baldin subjektua edo haren helbidea ezaguna bada, edo, bestela, ediktu bidez. Interesdunek zilegi izanen dute helegitea jartzea Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen Bederatzigarren Tituluko II. Kapituluak aurrekusten duen moduan.

12. art. 1) Udal mailako eskumenen menpeko obrak eta zerbitzuak Udalak beste toki entitate baten laguntzarekin egiten dituenen, eta baldin kontribuzio bereziak ezartzen badira foru arauetan xedatzen denaren arabera, obra burutzea edo zerbitzuak ezartzea bere gain hartzen duen entitatea arduratuko da kontribuzio horiek kudeatu eta biltzeaz, nahiz horrek ez duen galaratzen entitate bakoitzak dagokion eskumena atxikitzea ezartze eta antolatze erabakiei dagokienez.

2) Entitate horietako batek onesten ez badu antolatze erabaki konkretua, ekintza unitatea baliogabetuko da eta haietako bakoitzak bakarka hartuko ditu behar diren erabakiak.

#### Hiritarren lankidetzak

13. art. 1) Lanek ukitutako jabe edo titularrek Zergadunen Elkarte Administrazioa sortzen ahal dute, Udalak lanak egin edo zerbitzuak paratu edo zabaldu ditzan sustatzeko, konpromisoa hartuz, lana edo zerbitzua zein izan, dagokien zatia ordaintzeaz gain, Udalaren finantza egoera larria denean, hari dagokion zatia ere ordaintzeko.

2) Orobat, Udalak sustatutako lanek edo zerbitzuen paratze edo ezarpenek ukitzen dituzten jabe edo titularrek ere Zergadunen Elkarte Administrazioak sortzen ahal dituzte kontribuzioak antolatze erabakia jendaurrean egon artean, Udalak aurretik erabakitakoa medio eginen den lana edo zerbitzua burutzean parte hartuz.

3) Zergadunen Elkartearen funtzionamendu eta eskumenak haien estatutuetan xedatzen direnak izanen dira. Estatutuak Udalak onetsi beharko ditu. Nolanahi dela ere, Zergadunen Elkarteak gehiengo absolutuz hartuko dituen erabakiak, ukitutako jabetzaren bi herenak biltzen baldin badituzte, gainerakoentzat lotesleak izanen dira. Elkarteak, behar den quoruma bildurik, Zuzendaritza Batzordea izendatzen baldin badu, horrek hartutako erabakiak lotesleak izanen dira interesdun guztientzat.

14. art. Aurreko artikuluko aipatzen dituen Zergadunen Elkarte Administrazioak sortu ahal izateko, ukitutako gehiengo absolutuz hartu beharko da erabakia, beti ere, ordaindu beharreko kuoten bi herenak biltzen baldin badira edo, kuotak zehaztu gabe izanez gero, ukitutako jabetzaren bi herenak biltzen baldin badira.

### ORDAINNTZA, AGIRIAK EMAN ETA IZAPIDATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

#### 6. Ordenantza

##### Oinarria

1. art. Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluako 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean.

##### Zergagaita

2. art. Ordainarazpen honen xedea da agiriak ematen dituzten udal organo eta agintariek edo haien gain ardura dutenek burutzen duten jarduera administrazioa:

- 1) Planoen kopiak.
- 2) Ziurtagiriak, salbu eta Udal Erroldaren gaineko edozein motatako datuei buruzkoak.
- 3) Kopia eginbidetuak.
- 4) Agiriaren konpulsak, salbu eta Katastroko edozein daturen gainean egindakoak.
- 5) Fotokopiak.
- 6) Arma txartelak.
- 7) Eskola garraiorako baimenak.
- 8) Lanpostuak betetzeko deialdiak.
- 9) Lizentzia eta baimenak ziurtatzeko tituluak, salbu eta ematen badira horiek egilestea, aldatu edo, tasapean berraztertzea.
- 10) Ahalordeen askiespenak.
- 11) Aurrekontuak eta Ordenantza Fiskalak.
- 12) Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak.
- 13) Esportaziorako prestaturiko jakie buruzko ziurtagiriak.

*Sortzapena*

3. art. Ordenantza honetan ezarritako tasak agiria eman edo tramitatzeke eskabidea aurkeztean sortuko dira, eta agiri hori ez da emanen, edo, hala behar bada, ez da tramitatuko, baldin eta lehenago ordaindu ez bada, eta hori egiaztatzen behar duen ordainagiria eman ez bada.

*Subjektu pasiboak*

4. art. Ordaintzeko beharra dute tasa honen xedea diren agiriak eman edo tramitatzeke eskatzen dutenek.

*Tarifak*

5. art. Ordaindu beharreko tasak Ordenantza honen eranskinean azaldu direnak dira.

*Kudeatzeko arauak*

6. art. Dirubilketarako ondoko arau bereziak ezarri dira:

a) Armen lizentziak izapidatzeagatik ordaindu beharreko tasak Hiritar Babespen Alorreko bulegoetan ordaindu beharko dira.

b) Ziurtagiriak emateagatik ordaindu beharreko tasak Erregistroko arduradunari ordaindu beharko zaizkio, eskaera egiten den unean be-  
rean.

c) Agiri eginbidetuak emateagatik ordaindu beharreko tasak dago-  
kien Alorraren bulegoetan ordaindu beharko dira.

d) Txostenak eman edo kontsultei erantzuteagatik ordaindu behar-  
reko tasak Udalaren Diruzaintzan ordaindu beharko dira. Txostena edo  
erantzuna ordaindu duela ziurtatzen duen ordainagiria aurkeztean  
emanen zaio eskatzaileari.

e) Esportaziorako prestatuturiko jakien ziurtagiriak emateagatik or-  
daindu beharreko tasak hiruhilabetean behin ordainduko dira, Udalaren  
Diruzaintzan.

*Tarifen eranskina*

I. Epigrafea.–Planoen kopiak

Plan Orokorren planoak edo espediente publikoetan daudenak  
(papera opakoa):

–Metro lineala: 5,15 euro

–DIN A0: 5,65 euro

–DIN A1: 2,75 euro

–DIN A2: 1,55 euro

–DIN A3: 0,40 euro

–Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren Krokisa: 2,60 euro

II. Epigrafea.–Egiaztagiriak

1.–Udalaren base informatikoetan bildutako datuei buruzko egiazta-  
giriak: 3,15 euro

2.–Espediente administratiboetan jasotako erabaki edo agiriari buruzko  
egiaztagiriak: 5,90 euro

3.–Emanak izateko, aurretik txosten bat behar duten egiaztagiriak:  
16,90 euro

Egiaztagiriarekin batera agiri edota planoak -eginbidez edo gabe-e-  
maten direnean, I., III. edo IV. epigrafeetatik dagozkien tasak ere gal-  
datuko dira.

III. Epigrafea.–Kopia eginbidetuak

1.–Espediente publikoetan jasotako agirien kopia eginbidetua: 3,10  
euro

2.–Udalaren base informatikoetan bildutako datuen kopia eginbi-  
detua: 4,00 euro

Tarifa aplikatzeko, eginbide bakartzat jotzen da espediente batean  
jasotako agiri eta datuen gainean egiten dena, pertsona berarendako.  
Aurreko zenbakietan ezarritako tasari gehitu beharko zaio I. eta IV.  
epigrafeetatik dagokiona, eginbidetu beharreko plano edota fotokopien-  
gatik.

3.–Trafiko istripu baten atestatuaren kopia eginbidetua: 24,25 euro

IV. Epigrafea.–Agirien konpultsa.

1.–Konpultsa bakoitzeko: 1,95 euro

Tarifa aplikatzeko, konpultsa bakartzat jotzen da espediente bakar  
batean pertsona batek eta berak aurkezten dituen agiriak oro.

V. Epigrafea.–Agirien fotokopiak, partikularrek eskatuak

1.–Espediente publikoetan bildutako agirien fotokopia bakoitzeko:

–DIN A3: 0,15 euro

–DIN A4: 0,15 euro

2.–Mikroformatetik eginiko fotokopia bakoitzeko:

–DIN A3: 0,25 euro

–DIN A4: 0,20 euro

VI. Epigrafea.–Arma-txartelak tramitatzea

1.–Txartel bakoitzeko: 4,90 euro

VII. Epigrafea.–Eskola garraiorako baimena

1.–Baimen bakoitzeko: 5,75 euro

VIII. Epigrafea.–Lanpostuak betetzeko deialdiak

1.–A eta B mailetara sartzeko (Funtzio Publikoaren Estatutuarekin  
bat). Izena emateagatik: 15,80 euro

2.–C mailara sartzeko, izena emateagatik: 7,40 euro

3.–D eta E mailetara sartzeko, izena emateagatik: 3,15 euro

Deitu beharreko postuak lan kontratukoak izanez gero, deialdian  
aurreikusitako ordainsariak funtzionario maila bati atxikitu eta maila horri  
dagozkion tasa aplikatu behar da.

IX. Epigrafea.–Lizentziak eta baimenak ziurtatzeko tituluak

1.–Ohiz kanpoko ikuskizun publikoak egiteko baimena (atari zaba-  
lean): 81,50 euro

2.–Ohiz kanpoko ikuskizun publikoak egiteko baimena (toki itxitan):  
81,50 euro

3.–Zaldiko-maldikoak, karruselak eta bestelako instalazio mugiko-  
rrak: 9,90 euro

4.–Irekitzeko lizentziak, titularra aldatzean: 9,60 euro

5.–Bestelakoak: 6,60 euro

X. Epigrafea.–Ahalordeen askiespenak.

1.–Askiespen bakoitzeko: 5,80 euro

XI. Epigrafea.–Aurrekontu eta ordenantza fiskalak

1.–Ordenantzak, ale bakoitzeko: 9,80 euro

2.–Aurrekontuak, ale bakoitzeko: 9,80 euro

XII. Epigrafea.–Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak

1.–Etxebizitza bakoitza deskalifikatzeko eskaturiko txostena ema-  
teagatik: 38,60 euro

2.–Partikularrek eskaturik, Udaltzaingoak eman beharreko txostenak  
emateagatik edo handiagotzeagatik: 42,55 euro

3.–Hirigintzari buruzko kontsultak erantzuteagatik: 117,50 euro

4.–Bestelako txostenak eman eta kontsultei erantzuteagatik: 13,30  
euro

XIII. Epigrafea.–Esportaziorako prestatuturiko jakiei buruzko ziurtagi-  
riak

1.–Ziurtagiri bakoitzeko: 26,05 euro

**ORDENANTZA, AUTOTAXI ETA ALOKATZEKO BESTELAKO  
IBILGAILUEN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

*7. Ordenantza**Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki  
Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen I. Tituluko IV.  
Kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan  
ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaiak honako kontzeptu hauek hartzen ditu bere  
baitan:

1) Lizentziak eman eta egitea.

2) Iruñeko Autotaxien Zerbitzu Publikoaren Arautegiaren 14. arti-  
kuluan aurreikusi kasuetan lizentziak eskualdatzeko baimena.

3) Ibilgailuak zerbitzua egiten hasi aurretik aztertu eta baimentzea.

4) Laguntzaile bati baimena ematea, lizentziaren titularrak ezin  
badu zerbitzua eman, Iruñeko Autotaxien Hiriko Zerbitzu Publikoaren  
Erregelamenduaren 15. artikulua ezarritakoarekin bat.

*Zerga ordaindu beharra*

3. art. Zerga ordaindu beharra ondokoetan sortzen da:

a) Lizentziak eman eta egitean.

b) Lizentziak eskualdatzean.

c) Ibilgailuak zerbitzua egiten hasi aurretik aztertu eta baimen-  
tzean.

d) Laguntzailei baimena ematean.

*Subjektu pasiboa*

4. art. Honako pertsona hauek dute ordaintzeko betebeharra:

1) Lizentziagatik, lizentzia horien titularrak.

2) Lizentziak eskualdatzeko baimenengatik, baimenaren kariaz li-  
zentzien titularrak bilakatzen direnak.

3) Ibilgailuak zerbitzua egiten hasi aurretiko azterketa eta baimen-gatik, lizentzien titularrak.

4) Laguntzaile izateko baimenengatik, lizentzien titularrak.

#### Tarifak

5. art. Zerga kontzeptu bakoitzagatik ordainarazi beharreko tarifak Ordenantza honen Eranskinean azaltzen dira.

#### Kudeatzeko arauak

6. art. Ordenantza honetan ezarritako kontzeptu bakoitzari dagokion pagamendua honelaxe eginen da:

1) Lizentziak eman eta egitea: lizentzia eman dela jakinarazi eta biharamunetik aitzina, hamabost egun baliodunen barnean, eta beti ere hura eman baino lehenago.

2) Lizentziak eskualdatu eta laguntzaileak izateko baimenak: hamabost egun baliodunen barnean, eskualdatzeko baimena eman dela jakinarazi eta biharamunetik aitzina. Lizentzia hori indarrak gabe geldituko da, aipatu epean ez badira tasak ordaintzen.

3) Azterketa zerbitzuak: azterketa egin baino lehenago.

#### Arau-haustek eta zehapenak

7. art. Arau-hausteei dagokien orotan eta hauei buruzko zehapenetan, Ordenantza Fiskal Orokorrek xedatutakoari jarraituko zaio.

#### TARIFEN ERANSKINA

Ordenantza honetan ezarritakoa kontzeptu bakoitzagatik aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

I.-Autotaxi lizentziak ematea: 4.495,30 euro

II.-Lizentzien eskualdaketa: 3.122,30 euro

III.-Ibilgailuak zerbitzua egiten hasi aurretiko azterketak eta baimenak: 233,45 euro

IV.-Laguntzaileari baimena ematea: 53,95 euro

#### ORDENANTZA FISKALA, ZAINZA BEREZIKO ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

##### 8. Ordenantza

##### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

##### Zergagaia

2. art. Zergagaia ondoko zerbitzu eta administrazio-jarduerak eman edo egitea da:

a) Ibilgailu handiak gidatu, zaindu eta laguntzeko zerbitzua a. Xede horretarako, Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorren 14. artikuluan aipatzen duen baimen berezia behar duten garraioak hartzen dira garraio astuntzat, haien masak, tamainak edo zoladuran egiten duten presioa erregelamenduzkoak gainditzeagatik.

b) Hiriko trafikoa erregulatu eta kontrolatzeko jarduera bereziak, ibilgailuen zirkulazioa errazte aldera, jarduera horiek Udaltzaingoa trafikoa seinalizatu eta antolatzeke egin ohi dituenak ez badira.

##### Zerga ordaintzeko beharra

3. art. Zergak ordaindu beharra tasaren xedea den zaintza bereziko baimena ematen den unean bertan sortzen da.

##### Subjektu pasiboak

4. art. Tasa hau ordaintzeko betebeharrak solidarioa dute garraioa egiten duen ibilgailuaren jabe diren pertsona natural edo juridikoek, edo zerbitzu hori eman dadin eskatzen dutenek.

5. art. Zaintza bereziko zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasak zerbitzua egiten emandako denbora eta erabilitako baliabideen arabera ezarriko dira, Ordenantza honetako Eranskinean azaldutako tarifekin bat.

#### TARIFEN ERANSKINA

I.-Trafiko erregulatzeko jardura bereziak

–Esku hartu behar duen udaltzain bakoitzeko: 25,75 euro/ordu edo zatiki bateko

–Erabili beharreko patruila-auto bakoitzeko: 3,40 euro/ordu edo zatiki bateko

–Erabili beharreko moto bakoitzeko: 2,95 euro/ordu edo zatiki bateko

II.–Garraio handiak zaintzeko zerbitzu bakoitzeko: 131,45 euro/ordu edo zatiki bateko

#### ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMAN ETA HIRIGINTZAKO BESTELAKO JARDUKETAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

##### 9. Ordenantza

##### Oinarria

1. art. Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

##### Zergagaia

2. art. Zergagaia hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea da, etxegintzari eta lurzoruaren erabilerari buruzko egintzak indarra duten hirigintza eta eraikuntzako arauari egokitu ahal izateko.

3. art. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legearen 221. artikuluan zehaztutako hirigintzako jarduketak, beti ere, 1976ko Zoruari buruzko Legearen testu birbiduaren 178.1 artikuluari loturik.

Argibide gisa, ondokoak dira:

–Lurzatiketak egiteko lizentziak.

–Honako obrak egiteko lizentziak: etxe berriak egitekoak, etxeak eraberritzeak, tramitazio laburrekoak, etxeak mantendu eta apaintzekoak eta eraikuntza tikiak.

–Oro har, eraikin eta instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziak.

–Eraikinak eraisteko eta botatze, hustutze eta apeoen obrak egiteko lizentziak.

–Lurrak mugitu, zelaitu eta lurrerauzteko lizentziak.

–Emandako lizentzien aldaketak.

–Eraikinen erabilera erabat edo hein batean aldatzea.

–Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen testu birbiduaren 136. artikulua babesean emandako behin-behineko lizentziak.

##### Zergak ordaindu beharra

4. art. Lizentzia noiz eskatu eta orduan bertan sortuko da tasa. Interesdunak lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen eskariari uko egiten badiu, ez du hura ordaindu beharko.

##### Subjektu pasiboa

5. art. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren entitateak, baldin egindako hirigintza-jarduerengatik edo emandako lizentziengandik eragina edo onura hartzen badute.

Zergadunaren ordezkioak izanen dira, zorua eta hiri-antolamenduari buruzko arauetan hirigintza lizentziak emateko aurreikusitako diren tasetan, eraikitzaileak eta obra kontratistak.

##### Tarifak eta karga tasak

6. art. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak Ordenantza honen eranskinean azaltzen dira.

##### Lizentzien izapidaketa eta horien ondorioak

7. art. Hirigintza jarduketari buruzko edozein eskabide Hirigintza Prozedurari buruzko Ordenantzaren eta aplikagarri diren bestelako arauetan ezarritako moduan bete beharko da.

8. art. Lizentzien iraungipenaren inguruko orotan, Hirigintza Prozedurari buruzko Ordenantzaren xedatutakoari jarraituko zaio.

##### Kudeatzeko arauak

9. art. Lizentziak emateagatik ordaindu beharreko tasak behin-behinekoz likidatuko dira, obraren kostuaren arabera.

Obraren kostua exekuzio materialerako aurrekontuaren arabera zehaztuko da, ordainsariak eta industri mozkinak barne hartu gabe.

Behin behineko likidazioa behin nahitaezko lizentzia eman eta gero egiten da, halako eran non zerga oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko baita, betiere aurrekontua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi badu.

Baldin eta ikus-onetsia nahitaezkoa ez bada, Udaleko teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, beti ere obraren kostu balioetsiaren arabera.

Baldin eta, behin lizentzia eman eta gero, hasierako proiektua aldatzen bada, likidazio osagarria eginen da, aurrekontu berria zenbat gairiditu eta kopuru horretan berean.

10 art. 1) Behin benetan egindako obrak eta horien benetako kostu erreala ikusita, Udalak, behar izanez gero, behin behineko zerga oinarria aldatuko du, halako eran non behar duen behin betiko likidazioa eginen baitu eta, kasuan-kasuan, subjektu pasiboari dagokion kopurua galdatu edo itzuliko.

2) Aurreko atalean xedatutakoarekin bat, behin obra amaitu edo hori behin-behinean onartu eta hilabetea egin baino lehen deklarazio bat aurkeztuko da inguruabar hori azalduz eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu erreala adieraziz, eta deklarazioarekin bat, obraren zuzendari eskudunak haren gainean emandako egiaztagiria, betiere dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, edo, halakorik ez bada, kostu hori egiaztatze fakturak edo bestelako agiriak.

11 art. Behin tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari emanen zaio horren berri, eta hark erregelamenduzko epean ordaindu beharko ditu.

12 art. Tramitazio laburreko lizentzien kasuan, eskatzaileak jasoko du baimenaren agiria, zeinak tributu betebeharrak ere atxikitua baititu.

#### Arau-haustek eta zehapenak

13 art. Arau-hausteei eta zehapenei buruzko afera guztietan, Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoari jarraikiko zaio.

#### TARIFEN ERANSKINA

I Epigrafea.-Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru legearen 221. Artikuluaren babesean emandako lizentziak

I.1) Lurzatiketarako lizentziak:

Lurzatiketarako lizentzia bakoitza izapidatu eta ebazteko tasak azaleraren arabera likidatuko dira, izapidatutako espediente bakoitzeko: 109,30 euro

I.2) Zaharberitzeko laguntzetarako Udal ordenantzaren babesekoak diren obretarako lizentziak:

Lizentzia bakoitza izapidatu eta ebazteak sortuko duen tasa: 38,65 euro

I.3) Obretako izapidatze laburreko lizentziak:

Lizentzia bakoitza izapidatu eta ebazteak sortuko duen tasa: 105,05 euro

I.4) Eraisteko lizentziak, eta eraikitze-obrak, berrikuntzakoak, instalazioak, zuhaitz-mozketak, errotuluen instalazioa eta oro har lizentziarik behar duten gainerako egintzak gauzatzekoak, betiere aurreko ataletan ez badira.

Tasa honen kuota honela kalkulatu da: zerga oinarriari zeina 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz zehaztuko baita ondoko karga tasa aplikatuz: % 0,62

I.5) Lizentziak, edifizioak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik:

-Eraikinen lehen erabilera edo okupaziorako Lizentzia bakoitza izapidatu eta ebazteagatik: 702,10 euro

-Lehen erabilerako lizentzia duten eraikinetan, etxebizitzaren lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia partzialeko espediente bakoitza izapidatu eta ebazteagatik, etxebizitza bakoitzeko: 69,60 euro

I.6) Eraikinen erabilera alde batez edo osoki aldatzeko lizentziak:

Lizentzia bakoitza izapidatu eta ebazteagatik, ondoko tasa sortuko da: 529,15 euro

II. Epigrafea.-Gutxieneko eskubideak

Aurreko epigrafeengatik ordaindu beharreko tasak ondoan ezarriko diren zenbatekoak baino txikiagoak badira, ondoko tasa hauek ordaindu beharko dira:

-Birzatiketak (lursail bakoitzeko): 47,75 euro

-Obretako lizentziak (I.4 epigrafea): 103,05 euro

ORDENANTZA FISKALA, INGURUMENA BABESTEAREN ALDERA KONTROLATU BEHARREKOTZAT SAILKATURIKO JARDUETARAKO ETA JARDUERA KALTEGABEETARAKO BAIMENAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

#### 10. Ordenantza

##### Oinarria

1 art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenbiziko Tituluko IV. Kapitulua 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

#### Zergagaia

2 art. Zergagaia ingurugiroaren kontrolerako edo jarduera kaltegabeetarako jarduera sailkatuetan aritzeko zerbitzu tekniko eta administratiboen ondorioa da, ondoko kasuetan:

- Jarduera lizentzia.
- Jarduera lizentzia berraztertzea.
- Irekitzeko lizentzia.
- Irekitzeko lizentziaren aldaketa.
- Instalazio eta lokalak berriro irekitzeko baimena.

#### Zergak ordaindu beharra

3 art. Tasa lizentzia noiz eskatu eta orduan bertan sortuko da. Ez da tasarik sortuko, interesdunak eskabideari uko egiten badiu, lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen.

#### Subjektu pasiboa

4 art. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, bai eta nortasun juridikorik izan ez arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen dutenek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu eta berraztertzen bada.

#### Tarifak

5 art. Aplikatuko diren tarifak ordenantza honen eranskinean jaso dira.

#### Kudeatzeko arauak

6 art. Jardun eta irekitzeko lizentzia erdiesteko interesa duten pertsonak behar duten eskabidea aurkeztuko dute Udaletxean, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta horren kokapena zehazten dituztela, Udalarari dagozkion ordenantzetan eskatutako agiriarekin batera.

7 art. Lizentzia eman eta tasaren likidazioa onetsita dela, interesdunak ordaindu egin beharko du, borondatezko kobrantza aldiaren barruan, betiere jakinarazpena jasotzen duenetik aitzina; bestela, inolako gaztigurik gabe, premiamenduzko bidez kobratuko da.

8 art. Emandako lizentziak dagokien ordenantzan ezarritako epe eta arauen arabera irauginko dira, eta hori gertatuz gero, jarduerari eutsi nahi dioten interesdunak lizentzia berria eskatu beharko dute, eta tasa oso-osorik berriz ordaindu.

9 art. Titulartasuna aldatu edo jarduera eskualdatzen bada, lizentziaren titular berriak Udalarari jakinaraziko dio hori, eta horretarako behar diren egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Lizentzia egiaztatzen duen titulua titular berriaren alde egiteak dagokion tasa ordaintzeko beharra ekarriko du.

#### Arau-haustek

10 art. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoari jarraikiko zaio.

#### Tarifen eranskina

I. Epigrafea.-Jarduera lizentzia eta jarduera lizentziaren berrikuspena.

-Emandako lizentzia bakoitzagatik: 1.256,00 euro

II. Epigrafea.-Irekitzeko lizentzia eta irekitzeko lizentziaren aldaketa

-Jarduera sailkatuetarako emandako irekitzeko lizentzia bakoitzagatik: 678,20 euro

-Jarduera kaltegabeetarako emandako irekitzeko lizentzia bakoitzagatik: 515,10 euro

III. Epigrafea.-Instalazio eta lokalak berriro irekitzeko lizentzia, egindako obrak muntadunak izanik horien gaineko egiaztapena beharrezkoa denean

-Jarduera sailkatuen egoitza diren lokaletarako: 581,55 euro

-Jarduera kaltegabeen egoitza diren lokaletarako: 581,55 euro

ORDENANTZA, UDAL ORDENANTZA ETA ERABAKIETAN AURREIKUSI EDO UDALAREN ONDAREAN EGINDAKO KALTEEN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO IKUSKAPENENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

#### 11. Ordenantza

##### Oinarria

1 art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapitulu 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia Udalaren jardun ikuskatzaileak zedarrituko du, Udaleko langileek ondokoak erdiesteko bideratua:

a) Egiaztatzea orpoz orpo betetzen direla Osasunari buruzko Ordenantzetan nahiz jarduera sailkatuei dagokien orotan eta Udalaren gainerako ordenantza eta erabakietan ezarritako arauak, ustez arau-hausterik izan bada, edo arauak bete ez badira.

b) Udalaren ondarean egindako kalteak egiaztatu eta baloratzea.

3. art. Ordenantza honetan ondokoak ez dira zergagai:

a) Udalaren zerbitzuek elkarren segidan eta haien kabuz egindako ikuskapenak, dela arauak hala galdatzen dutelako dela zerbitzu jakin batek programatutako jardueren parte direlako.

b) Salaketa baten ondorioz egindako ikuskapenak, 5. artikularen c) atalean ezarritako kasuetan izan ezik. Art.

*Tasaren sortzapena*

4. art. Tasa zein espediente edo jarduera den eta horrek ukitzen dituen Udaleko langileek ikuskatu edo egiaztatzeko bisitak sortuko du. Tasa ezartzeko orduan, bisitatat joko da ikuskatzaileek ikuskatu behar duten tokiraino joatea, nahiz, gero, ikuskatu behar duten tokira sartu ezin ez.

*Subjektu pasiboak*

5. art. Ondokoek dute ordaintzeko betebeharra:

a) Ikuskapenaren xedea zein eta horren titular diren pertsona natural edo juridikoak.

b) Ikuskapenaren xede diren eraikin, establezimendu, etxe, local edo beste zenbaiten jabeak, baldin eta arau-haustean zerikusirik badute.

c) Salatzailea bera, salaketa justifikatu gabe eta ausarkeriaz aurkeztu badu, edo, besttela, nabarmen funtsik gabe, betiere txosten teknikoaren arabera.

d) Higiezinaren jabea, auri espedientei dagozkien ikuskapenetan.

e) Udalaren ondarean egindako kalteen erantzuleztat nor aldarrikatu eta hori bera

*Tarifak*

6. art. Tarifak eta horien karga oinarriak Ordenantza honen eranskinean ageri dira.

*Tasaren kudeaketa*

7. art. Ikuskatzaileek bisitaldia egin izanaren berri emango die behar den Departamentuari, likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuekin batera, eta salaketa, kasuan kasuan, ausartegizat jotzen den edo arrazoitu gabetzat, eta horrek kasuari dagokion likidazioa eginen du, horri, egoki joz gero, zehapena gehituta, eta behar den organoari proposatuko dio, onesteko.

Onetsi ondoren, betebeharra duen pertsonari jakinaraziko zaio, eta horrek kuota jakinarazi eta ondorengo hilabetearen barnean ordaindu beharko du. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratzeari ekingo zaio, bestelako oharrik egin gabe.

Itxita egon ez diren igerilekuen urteroko ikuskapenaren kasuan, subjektu pasiboak autolikidazioa gauzatuko du, eta tasa ordainduko, lehenengo ikuskatze-bisita jaso eta gero; tasaren ordainagiria bigarren ikuskatze-bisita jasotzen duenean aurkeztu beharko du, betiere, ontzia bete ostean.

*Arau-hausteak eta zigorrak*

8. art. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoari jarraikiko zaio.

## TARIFEN ERANSKINA

Ikuskapenek sortzen dituzten tasak ondokoak dira:

I. Epigrafea.–Jarduera sailkatuen arloan eta gainerako Ordenantza eta Erabakietan ezarritakoaren arabera egindako ikuskapenak, bai eta Udal Ondarean sortutako kalteengatik egindakoak ere, ikuskaldi bakoitzarengatik: 82,20 euro

II. Epigrafea.–Eraikinen azterketak, segurtasun baldintzak direla medio, eta ikuskapenak, auri egoeretan:

–Gutxieneko ikuskapena: arkitekto edo aparejadore baten 1,5 orduko lanarengatik: 63,65 euro

–Denbora gehiago behar izanez gero, ordu bakoitzeko: 28,20 euro

III. Epigrafea.–Osasun ikuskapenak, 6 hilabete baino gehiago itxita egon diren igerileku estali gabeak berriz irekitzeko baimena eman aurretik: 126,80 euro

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK ERRETIRATU ETA, HORREN ONDORIOZ, HORIEK ZAINTEZKO ZEIN IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOAN IBILGETZEKO ZERBITZUEN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

## 12. Ordenantza

*Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia ondoko zerbitzuak ematea da:

a) Udal zerbitzuek ibilgailuak eremu publikotik erretiratzea, hala erretiratzen hasita nola ekintza hori osatuta.

b) Edozein ibilgailu udal aretoetan gorderik gelditu eta hori zain-teea.

c) Hirugarren mailako ibilgailuak eremu publikoan ibilgetzea, prozedura mekanikoak erabiliz.

3. art. Honakoek ez dute tasa hau ordaindu beharko:

1) Behar den moduko baimena duten kabalgata, desfile, segizio, kirol-saio edo beste jarduera nabarmenen bat eginen den ibilbidean aparkaturik egoteagatik erretiratuko diren ibilgailuak.

2) Dauden tokian eremu publikoa konpontzea edo garbitzea gara-razteagatik erretiratuko diren ibilgailuak.

3) Haien jabeek ebatsi dizkieten ibilgailuak, eremu publikotik erretiratu edo bertan ibilgetzen direnean.

Horretarako, ibilgailu bat horren jabeak ebatsi diotela joko da jabeak lapurretaren salaketaren kopia bat aurkezten badu, eta, horretan, salaketaren data eta ordua ibilgailua erretiratu edo ibilgetzearenak baino lehenagokoak badira. Halaber, ibilgailua ebatsia izan dela joko da, baldin eta lapurretaren zantzu agerikoak baditu (sarraila indarrez irekia, zubi elektrikoa eta abar).

4) Bahiturako xedez gordetako ibilgailuak, Iruñeko Udalaren Derigorrezko Diru-bilketak hala erabakita.

*Tasaren sortzapena*

4. art. Ibilgailua erretiratzeko tasa zerbitzua hasten den momentuan sortuko da.

5. art. Ibilgailua zainteagatik ordaindu beharreko tasa sortuko da behin ibilgailuaren gidariak edo jabeak hori udal gordelekuan dagoela jakin eta 24 ordu iragan eta gero.

*Subjektu pasiboa*

6. art. Kasu bakoitzean ezarri behar diren arauekin bat, ondokoek ordaindu beharko dute tasa: ibilgailuaren gidaria, titularra, gordetzailerak edo ibilgailuaren erantzulea.

*Karga oinarria*

7. art. Karga oinarria erretiratu, zaindu edo ibilgetzen den ibilgailu bakoitza da.

*Salbuespenak*

8. art. Ez da onartuko lege nahiz erregelamenduetako xedapenek hala aginduta nahitaez aplikatu beharrekoak direnez beste salbuespenik.

*Tarifak*

9. art. Ibilgailuak erretiratzeagatik hala erretiratzen hasiak direnen kasuan nola ekintza hori erabat osatu denean eta horiek zaindu edo ibilgetzeagatik aplikatu beharreko tarifak Ordenantza honetako eranskinean finkatu dira.

*Tributuaren kudeaketa*

10. art. Ordainarazpen honen diru-bilketarako arau berezi moduan, zerbitzu honek sortuko dituen tasak Udaltzaingoen bulegoetan ordainduko direla ezarri da. Udaltzainek ordainagiriak edo tributuefektuak emanen dituzte, tributua ordaindu dela egiaztatze aldera.

11. art. Erretiratutako ibilgailuak ez zaizkie jabeek itzuliko harik eta haiek erretiratu eta zainteak sortu dituen eskubideak ordaindu arte.

12. art. Tasa honen likidazioa ordaintzeak ez du ezertan gara-razten zirkulazio arauak hausteagatik izan daitezkeen zehapen edo isunak pagatu beharra.

## TARIFEN ERANSKINA

## Ibilgailu motak

I. Epigrafea.-Zerbitzu egitera joatea eta, behin ibilgailua Udalaren gordelekura eramateko lanak hasita, gidaria edo hark baimendutako pertsona agertzeak lana bukatzea galarazten badu:

-3500 kg. bitarteko ibilgailuak: 33,00 euro

-3500 kg.tik gorako ibilgailuak: 60,00 euro

II. Epigrafea.-Zerbitzu osorik egitea, eta ibilgailu arau-hauslea Udalaren gordelekua eraman:

-3500 kg. bitarteko ibilgailuak: 61,00 euro

-3500 kg.tik gorako ibilgailuak: 121,00 euro

III. Epigrafea.-Ibilgailua gordelekura eraman eta inork erretiratu gabe 24 ordu pasatzen denean zaintzagatik ordaindu beharreko tarifa, egun edo egun-zati bakoitzeko:

-3500 kg. bitarteko ibilgailuak: 5,25 euro

-3500 kg.tik gorako ibilgailuak: 10,70 euro

IV. Epigrafea.-Ibilgailuak eremu publikoan ibilgetzeagatik, ibilgailu bakoitzeko:

-3500 kg. bitarteko ibilgailuak: --

-3500 kg.tik gorako ibilgailuak: 121,00 euro

V. Epigrafea.-Ibilgailuen berezitasunengatik Udalak dituen baliabideekin ezin eraman badu eta zerbitzua egiteko beste batzueganara jo beharra baldin badago, kobratu beharreko tasa ondokoek osatuko dute: Udalak ibilgailuak erretiratzeko lana egiten duen enpresari ordaindu behar dion kopurua eta horren gaineko % 20, administrazio arloko gastu orokorrak medio.

3.500 kilo baino gutxiagoko ibilgailu baten berezko ezaugarriak direla bide, 3.500 kilo baino gehiagokoak erretiratzeko erabiltzen den gabaria erabili behar izanez gero, horietarako aurreikusten den tasa kobratuko da.

ORDENANTZA FISKALA, EXEKUZIO AGINDU, EXEKUZIO SUBSIDIARIO ETA PARTIKULARRENDAKO LAGUNTZETARAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

## 13. Ordenantza

## Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

## Zergaia

2. art. 1) Ondoko jarduerak egin eta ondoko zerbitzuak ematea da zergaia:

a) Obrak, eraispinak, konponketak eta beste hainbat egintza exekutatzeko aginduak, baldin eta, hirigintzako baimena nahitaezkoa edukirik, haietara beharturik den subjektuak beste inork egiten ahal baditu.

b) Exekuzio subsidiarioak, aurreko ataleko kasuetan exekuzio agindu bat bete ez izanak eraginda, edo, baita ere, Ordenantzek zein Udalaren erabakiek ezarritako betebeharrak bete ez izanaren ondorio direnean, baldin eta, aurrez, xede horretarako agindu edo ohartarazpen bati muzin egin bazaio.

c) Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda.

2. Interesdunek berek eragindako zerbitzuek, eta bereziki beren mesederako direnek, bai eta ondasunak berreskuratzeko larritasunagatik edo ordena publikoa, segurantzza, osasungarritasuna, edo higienea direla medio derrigorrean eman beharrekoak direnek ere, ordainarazpena sortzea ekarriko dute, nahiz eta interesdunek zerbitzua eskatu ez.

3. art. Udalak zilegi izanen du, edozein kasutan ere, enpresa pribatu batekin kontratatzea Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak egiteko. Larrialdiko kasuetan, eta kontratazio arautegiak agintzen duenaren arabera, udal zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari eskudunen eta beste bitarteko batzuen zerbitzuak, eta gero Alkatetzari edo Udaltzari horren berri eman.

## Tasaren sortzapena

4. art. Tasa sortuko da, kasuan-kasuan, exekuzioa agintzen denean, exekuzio subsidiarioaren espedienteari hasiera ematea ebazten denean, edo, alde aurretiko ebazpenik ezean, exekuzioaren funtsa den laguntza edo zerbitzua ematen denean.

## Subjektu pasiboa

5. art. Ondokoak dira tasa hauen subjektu pasiboak: Pertsona fisikoak eta juridikoak eta, baita ere, nortasun juridikorik gabeak izan eta unitate ekonomiko bat edo ondare bereizi bat osatzen duten entitateak,

haien kontra exekuzio agindu bat eman bada, edo halakorik eragin badute, edo, bestela, gauzatutako exekuzioak edo egindako zerbitzuak ukitu baditu edo horren onuradunak gertatu badira.

## Zerga oinarria

6. art. Ordainarazpen honen zerga oinarria honako hauek osatzen dute:

a) Exekuzio agindua: egiteko den obrari egin behar zaion balorazioaren emaitza izanen da da.

b) Exekuzio subsidiario eta partikularrendako laguntzak: gauzatutako exekuzioaren edo egindako zerbitzuaren kostuak osotara zenbat jo eta hainbeste.

## Kudeaketa arauak

7. art. Exekuzio aginduak sortutako tasa exekuzioa galdatutakoarekin bat gauzatzen denean likidatuko da.

Lizentzia behar duten egintzen exekuzio subsidiarioen kasuan tasa behin-behinekoz ahaliko da likidatu, eta exekuzioa baino lehenago gauzatu, betiere behin betiko likidazioaren zain geldituta.

## Arau-hausteak eta zehapenak

8. art. Tasa hau aplikatu eta hortik ateratzen den likidazioaren zenbatekoa gora behera, baldin eta, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa betez, espediente zehatzailek ireki eta horrek zehapenik eragiten badu, subjektu pasiboak erantzun beharko du, zehapenen aurrean.

## TARIFEN ERANSKINA

I. Epigrafea.-Exekuzio aginduak

-Karga-tasa hirigintzako lizentzien tasetarako, ordua edo zatikia ezarritakoa izanen da.

II. Epigrafea.-Exekuzio subsidiarioak

-Karga-tasa exekuzio aginduei dagozkien oinarriaren % 132,94 da.

III. Epigrafea.-Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda

-Esku hartu behar duen udaltzain bakoitzeko, ordua edo zatikia: 25,75 euro

-Erabilitako patruila-autoa bakoitzeko, ordua edo zatikia: 3,40 euro

-Motorra bakoitzeko, ordua edo zatikia: 2,95 euro

ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN SAN JOSE HILERRIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

## 14. Ordenantza

## Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

## Zergaia

2. art. Zergaia Udalaren hilerrian ondoko zerbitzuak emateak sortzen du, salbu eta ongintzako kasuetan:

a) Ehorzketak, eta berrehorzketak

b) Desehorzketak.

c) Hilobiak ixtea eta hornigaiak jartzea.

d) Panteoietako gorpuzkiak garbitzea.

e) Lurreko hilobiak, nitxoak eta kolunbarioak ematea

f) Nitxoan behin behineko okupazioa, panteoiak eta kaperak konpondu bitartean.

g) Hilobien emakiden titularrak aldatzea.

h) Erreketak.

## Subjektu pasiboa

3. art. Kasuan kasuko tasa ordaintzera behartua dago zerbitzua ematea eskatzen duen pertsona natural edo juridiko oro, hura baita subjektu pasiboa.

## Tarifak aplikatzea

4. art. Hilerri honetako beste hilobi batzuetako gorpuzkiak beste nitxo batean ehorztean, tasak ordaindu beharko dira hobitik ateratzeagatik eta ehorzketagatik. Gorpuzkiak beste hilerri batetik badatoz, tasa ehorzketagatik bakarrik ordaindu beharko da.

5. art. Erreketen errautsak, hilotzenak nola gorpuzkienak, gorpuzkien hobiratzeak bailiran hartuko dira, Ordenantza honen ondorio gutzietarako.



6. art. Hilozak edo gorpuzkiak okupaturik dauden nitxo eta kolunbarioetan sartzeko ematen diren lizentziak baimen berrizat hartuko dira, eta VI. epigrafeko prezioei VII. epigrafean aurreikusitako beherapena aplikatuko zaie, aurreko baimena edo haren luzapena eman zenetik igaro den urte bakoitzeko.

Gorpuzkiak urritu behar diren kasuetan, gorpuzkiak desehorzteari dagokion tarifa aplikatuko zaio urritze bakoitzari.

7. art. Hilobien emakiden luzapenetan, eskaera egitean indarra duen tarifa aplikatuko da, Hilerrari buruzko Ordenantzaren 15. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

8. art. Ordenantza honetan aurreikusi ez den gai orotan, San José Udaleko Hilerria arautzen duen Ordenantza hartuko da, arau osagarri gisa.

#### TARIFEN ERANSKINA

##### I. Epigrafea.-Ehorzketak eta berrehorzketak

1.-Panteoi eta kaperetan: 53,45 euro

2.-Nitxoetan: 55,15 euro

3.-Lurreko hilobietan: 162,00 euro

4.-Gorpuzkienak: 43,55 euro

##### II. Epigrafea.-Desehorzketak

1.-Hilozena: 48,55 euro

2.-Gorpuzkiak: 38,80 euro

##### III. Epigrafea.-Panteoietako gorpuzkiak kentzea

1.-Lehen gorpuzkia: 38,55 euro

2.-Hortik gorako gorpuzki bakoitzeko: 15,10 euro

##### IV. Epigrafea.-Lurreko hilobien, nitxoaren eta kolunbarioen emakida

1.-Lurreko hilobiak:

a) 10 urteko emakida, luzapen bakar batekin:

-10 urteko emakida: 383,50 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 247,10 euro

b) Haurrendako emakida (10 urte arte)

-10 urteko emakida: 146,90 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 146,90 euro

2.-Nitxoak:

a) 10 urteko emakida, mugarik gabeko luzapenekin

-Luzapen bakoitzeko: 179,45 euro

b) 10 urteko emakida, luzapen bakar batekin:

-10 urteko emakida: 278,50 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 179,45 euro

c) Haurrendako nitxoaren emakida (10 urte arte)

-10 urteko emakida: 162,30 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 162,30 euro

3.-Gorpuzkiendako kolunbarioak

-10 urteko emakida: 104,35 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 89,00 euro

4.-Errautsendako kolunbarioak

-10 urteko emakida: 97,05 euro

-Luzapen bakarra, 10 urtekoa: 97,05 euro

5.-Nitxo edo kolunbarioen emakida berria, baldin eta ehorzketa egiten bada beste hainbat gorpuzki edo errauts-kutxatila dituen hilobi batean: 2, 3 eta 4. ataleko tarifei %10eko murrizketa aplikatuko zaie, aurreko emakida edo horren luzapena amaitu arte igaro behar duen urte bakoitzeko.

V. Epigrafea.-Nitxoaren behin behineko okupazioa, panteoiak eta kaperak konpondu bitartean:

-Hilabete edo horren zatiki bakoitzeko: 5,35 euro

VI. Epigrafea.-Hilobien emakiden titularrak aldatzea

-Titulartasun aldaketa bakoitzeko: 79,80 euro

VII. Epigrafea.-Errausketak

1.-Hilozteko: 158,25 euro

2.-Gorpuzki bakoitzeko: 63,30 euro

#### ORDENANTZA FISKALA, UDALAREN ZAKURTEGIKO ZERBITZUEN ETA ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIEN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

##### 15. Ordenantza

###### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

###### Zergagaia

2. art. Zergagaia ondokoek osatzen dute:

a) Udal zakurtegiak biltzen dituen zerbitzuak :

-Zoonosi unitateak zakurrak eta bestelako animaliak biltzea

-Zakurren eta bestelako animalien egonaldiak, Udal zakurtegiak.

b) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko behar diren zerbitzu tekniko eta administratiboak.

###### Zerga ordaindu beharra

3. art. Udal zakurtegiako zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak zerbitzua ematen hastean sortuko dira, nahiz horien zenbatekoa aurretik paratzea eskatzen ahal den, osoki edo hein batean.

Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa lizentzia eskatzean sortuko da, eta lizentzia ez da tramitatuko baldin eta, aurretik, tasa ordaindu ez bada.

###### Subjektu pasiboak

4. art. Ordenantza honen 2. artikuluaen a) ataleko zerbitzuei dagozkien tasak, kasuan kasukoak, honakook ordaindu behar dituzte: eskatzaileak, edo, zuzenean interesdun izanik, zerbitzuaren onura jaso duten pertsonak, edo Udalaren esku-hartzea derrigortu duten egoeren erantzule direnak.

Ordenantza honen 2. artikuluaen b) ataleko lizentzia emateak eragindako tasak arriskugarri izan daitekeelakoan Udalaren 13. Ordenantzaren babespean horrelakotzat sailkatutako edozein animalia jabe edo edukitzaileek ordaindu behar dituzte.

###### Tarifak

5. art. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak Ordenantza honen eranskinean direnak dira.

###### Kudeaketa eta dirubilketarako arauak

6. art. Ordenantza honetan Zakurtegiako zerbitzuak direla medio ezarritako tasak Zakurtegiaren kokatutako dirubilketa-zerbitzuan ordaindu behar dira, edo, bestela, gauzatzen ahal diren banku bidezko prozedurak erabiliz.

Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateagatik ezarritako tasak Udalaren dirubilketa zerbitzuan ordainduko dira, eskaera aurkezten den momentuan.

7. art. Udal Zerbitzuek bildutako zakurrak atzera eskuratzeko Zakurtegiara jo behar da eta bertan jaso, betiere tasak ordaindu ondoren.

#### TARIFEN ERANSKINA

I. Epigrafea.-Animaliak bildu eta harrapatzea

-Etxe batean edo toki itxi batean bildutako animalia bakoitzeko: 11,15 euro

-Ereму publikoan harrapatutako animalia bakoitzeko: 80,95 euro

II. Epigrafea.-Egonaldiak zakurtegiak

-Albaitariaren aginduzko egonaldiak, eguneko: 2,35 euro

-Bestelako egonaldiak, eguneko: 5,05 euro

III. Epigrafea.-Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak

-Lizentzia bakoitzeko tarifa: 29,55 euro

#### ORDENANTZA FISKALA, AUTOBUS GELTOKIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

##### 16. Ordenantza

###### Oinarria

1 art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia erabileria hauetako ondoko zerbitzuak emateak sortzen du:

- a) Udalaren baimenez, bidaiariak garraiatzeko enpresek administrazioarako lokalak erabiltzea.
- b) Udalak baimendutako enpresek bidaiariak garraiatzeko zerbitzurako nabea erabiltzea.
- c) Geltokiko zerbitzu orokorrak erabiltzea.
- d) Zaindegia erabiltzea

*Subjektu pasiboak*

3. art. Ordenantza honetan ezarritako tasak honakook ordaindu beharko dituzte:

- a) Bidaiariak garraiatzeko enpresek, lokalak eta nabea erabiltzeagatik.
- b) Partikularrek, geltokiko zerbitzu orokorrak eta zaindegia erabiltzeagatik.

*Sortzapena*

4. art. 1) Enpresek haien administrazioarako lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean, eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu eta erabileria urtearen barruan hasi edo bukatzen den kasuetan, halakoetan zergaldia horren arabera moldatuko baita, kuota hiru hilabetez hiru hilabete hainbanatuz.

2) Nabea, geltokiko zerbitzu orokorrak eta zaindegia erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak erabileria bakoitzean sortuko dira.

*Kudeaketa eta dirubilketarako arauak*

5. art. Geltokian bidaiariak hartu edo uzten dituzten garraio enpresek bilduko dituzte geltokiko zerbitzu orokorrak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak.

Zaindegi zerbitzua ustiatzeko Udalaren baimena duten enpresek bilduko dituzte zaindegia erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak.

6. art. Nabea, geltokiko zerbitzu orokorrak eta zaindegia erabiltzeak sortutako tasen ordainketa hiruhilean behin egiten da. Horretarako hiruhileko bakoitzeko lehenbiziko hamabost egunetan bidaiarien garraio-enpresa bakoitzak aitortpena aurkeztu beharko du eta bertan adierazi, aurreko hiruhilekoan zenbat irteera eta sarerako zerbitzu egin zituzten, eta zenbat bidaiari sartu edo atera ziren, horietan.

Zaindegi zerbitzua ustiatzen duten enpresek aitortpen bakarra aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi, zaindegian, epe horretan, zenbat fardel utzi diren.

7. art. Udalak Autobus geltokiko lokalak eta instalazioak erabili eta ustiatzeko baimena erretiratzeko ahal die enpresei, Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

8. art. Udalak zilegi izanen du lankidetzak hitzarmenak sinatzea enpresa erabiltzaileekin, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 108.2 artikuluan aipatu moduan.

**TARIFEN ERANSKINA**

Atalondo eta ezkaratzeko zerbitzuak:

1.-Administrazioarako lokalak erabiltzeagatik: lokalaren metro karratu bakoitzeko kuota, urtean: 52,05 euro

2.-Zaindegia erabiltzeagatik; egun edo egun zati bakoitzeko; uzten den fardel bakoitzeko, 30 kiloko edo 400 dezimetroko; orduko, gehienez ere, 4 euro eguneko ordainduta: 0,35 euro

Bidaiariendako ibilgailuen zerbitzu nabea:

3.-Bidaiariendako ibilgailuen zerbitzu erregularrek nabea erabiltzeagatik, sartzen edo ateratzen den zerbitzu bakoitzeko: 1,20 euro

Tarifa murriztua aplikatuko zaie 10 kilometro baino tikiagoko zerbitzua egiten dutenei, beti ere egunean egindako zerbitzuen arabera, eta horretarako, aurreko tarifei ondoko murriztapenak aplikatuko zaizkie:

-Egunean 6 zerbitzu bitarte % 25

-Egunean 6 zerbitzu baino gehiago eginez gero, guztiei aplikatuko zaie ondokoa % 50

4.-Behin-behineko zerbitzuak, eta bereziak, sartzen edo ateratzen den aldiko: 1,20 euro

Zerbitzu orokorrak:

5.-Geltokiko zerbitzu orokorrak erabiltzeagatik, geltokitik atera edo geltokira ailegatzen den bidaiariaren kargura emaniko txartel bakoitzeko: 0,06 euro

**ORDENANTZA FISKALA, LABORATEGIKO ZERBITZU MEDIKO, HIGIENIKO ETA SANITARIOAK ETA KOMUNA GARRAIAGARRIAK ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA***17. Ordenantza**Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia ondokoek sortzen dute:

- a) Udal Laborategiak analisi fisiko-kimiko eta mikrobiologikoen eta halako beste batzuen zerbitzu publikoa ematea.
- b) Komuna garraiarrien zerbitzu publikoa ematea.

*Zerga noiz ordaindu behar*

3. art. Zerga ordaindu beharra ondoko egoeretan sortzen da:

- 1) Analisisetarako eskabidea aurkezten denean, 2.a) artikuluan aurreikusitako kasuan. Analisisiak egiteko ezinbestekoa izanen da behar dena aurretik ordaintzea.
- 2) Komuna garraiarriak erabili aurretik, 2.b) artikuluan aurreikusitako kasuan.

*Nork ordaindu behar*

4. art. Tasa ordaintzeko betebeharra dute, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoek eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten erakundeek, baldin eta Ordenantza honen xede diren zerbitzuak eskatu eta erabiltzen badituzte.

*Tarifen eranskina*

I. Epigrafea.-Udal laborategia

I.1. Analisi fisiko-kimikoak:

-Hezetasuna: 6,00 euro

-Hezetasuna (errefrakzio indizea): 8,70 euro

-Errautsak: 6,00 euro

-Azidotasuna: 10,65 euro

-Proteinak: 23,75 euro

-Gantza (Soxtec): 22,45 euro

-Gantza (Gerber): 9,05 euro

-Gantza (hidrolisi azidoarekin): 33,35 euro

-Hondakin finkoa: 10,65 euro

-Alkalinitatea: 9,05 euro

-Gogortasuna, osotara: 9,05 euro

-Kaltzioa: 9,05 euro

-Magnesioa (gogortasunaren arabera koantifikaturik): 9,05 euro

-Kloruroak (ura): 9,05 euro

-Kloruroak (elikagaiak, oro har): 9,05 euro

-Sulfatoak: 13,35 euro

-K232, K270, ?K: 13,35 euro

-Nitritoak: 13,35 euro

-Silizea: 13,35 euro

-Koloratzaileak (kualitatiboa): 25,50 euro

-Metalak, garretako AA bidez (ura): 31,45 euro

-Metalak, garretako AA bidez (elikagaiak, oro har): 31,45 euro

-Metalak, kamarako AA bidez (ura): 41,95 euro

-Metalak, kamarako AA bidez (elikagaiak oro har): 41,95 euro

-Kloroa, librea eta osotara: 23,70 euro

-Azido sorbikoa: 63,85 euro

-Edangarritasuna neurtzeko analisi kimikoa: 68,35 euro

-Histamina arrainetan 90,00 EUR: 90 euro

-pHa: 7,30 euro

-Uhartasuna: 7,30 euro

-Eroankortasuna: 7,30 euro

-Pergamantoarekiko oxidakortasuna: 9,05 euro

-Amonioa: 24,10 euro

-Fosfatoak: 23,30 euro

-Fruktosa, glukosa, sakarosa: 53,00 euro

-Peroxidoen indizea: 13,55 euro

- Errefrakzio indizea: 8,65 euro
  - Gantz-azidoen profila: 52,90 euro
  - Esterolen profila: 68,35 euro
  - Frakzio polarra: 35,65 euro
  - Estraktu lehorra: 9,05 euro
  - Laktosa: 21,60 euro
  - Fosfatasa: 11,10 euro
  - Hidroxipolina: 34,20 euro
  - Nitritoak (ura): 23,70 euro
  - Nitritoak (haragia): 32,45 euro
  - HPCL nitratoak: 38,25 euro
  - Sulfitoak (kuantitatiboa): 24,20 euro
  - Azido borikoa (kualitatiboa): 10,65 euro
  - Hidroximetilfurfurala: 13,35 euro
  - Diasatasa indizea: 22,70 euro
  - Sulfitoak (kualitatiboa): 10,65 euro
  - Espezien determinazioa (ELISA): 35,45 euro
  - Formola (kualitatiboa): 10,65 euro
  - Azido isozianurikoa: 22,40 euro
  - Fosforoa: 36,05 euro
  - Beste hainbat kontserbatzaile (koantitatiboa): 73,55 euro
  - Q. A.C. (Materia aktibo kationikoa): 38,15 euro
- I. 2. Analisi mikrobiologikoak:
- Enterobacterioen kontaketa: 15,10 euro
  - Lizun/legamien kontaketa: 15,10 euro
  - Aerobioen kontaketa (ura): 15,10 euro
  - Aerobioen kontaketa (elikagaiak): 15,10 euro
  - Orotariko koliformeen kontaketa: 17,35 euro
  - Echerichia coli-ren kontaketa: 22,45 euro
  - D taldeko estreptokokoen kontaketa: 17,35 euro
  - Pseudomona aeruginosaren kontaketa: 22,45 euro
  - Staphylococcus aureusen kontaketa: 22,45 euro
  - Clostridium sulfito-erreduktoreen kontaketa: 22,45 euro
  - Clostridium perfringensen kontaketa: 22,40 euro
  - Salmonella/Shigellaren kultiboa, isolamendua eta identifikazioa: 45,40 euro
  - Edangarritasuna neurtzeko analisi mikrobiologikoa: 68,95 euro
  - Koliforme fekalen kontaketa: 13,50 euro
- II. Epigrafe.–Komuna garraiagarriak
- Erabilera bakoitza: 0,20 euro

**ORDENANTZA FISKALA, EZKONTZA ZIBILAK EGITEAGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

*18. Ordenantza*

*Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko titulu IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia ezkontza zibilak egiteko zerbitzu publikoa ematea da, Kode Zibila aldatu zuen abenduaren 23ko 35/1994 Legearen babesean.

*Zerga noiz ordaindu behar*

3. art. Ezkontza zibila egiten den unean berean sortuko da ordaintzeko betebeharra. Udal bulegoetan ezkontza zibila egin izanaren eguna eta ordua zehazten dituen udal agiria, dagokion tasa ordaindu ondoren emanen da.

Subjektu pasiboari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik Ordenantza honetan aurreikusitako zerbitzu publikoa ematen ez bada, ez da itzuliko ordaindutako dirua.

*Ordaintzeko betebeharra nork*

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, Ordenantza honen xede den zerbitzua eskatzen duten edo haren onuradunak diren pertsonak.

**TARIFEN ERANSKINA**

**I. Epigrafe.–Tarifak**

Ezkontza bakoitzeko: 74,10 euro

**ORDENANTZA FISKALA, ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN  
ZANGAK, LAGINKETAK ETA ZULOAK IREKI ETA EREMU  
PUBLIKOAN ZOLADURA EDO ESPALOIAK MUGITZEKO TASAK  
ARAUTZEN DITUENA**

*19. Ordenantza*

*Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko titulu IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia da erabilera publikoko tokiko lurretan, tokiko errepide, bide eta gainontzeko eremu publikoak barne, zangak, laginketak eta zuloak irekitzea, tutueria, hodiak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko, bai eta eremu publikoan zoladura edo espaloiak mugitzea ere.

*Zerga ordaindu beharra*

3. art. Zergak ordaindu beharra toki entitatearen jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortzen da.

*Ordaintzera beharturik nor*

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta Ordenantza honetako 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, toki entitatearen jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

*Oinarria, tasa eta tarifak*

5. art. Tasa oinarritzat hartuko da egin beharreko aprobetxamendua burutu ahal izateko mugitu edo ireki beharreko toki entitatearen jabari publikoko azalera.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egingdako aprobetxamendu bereziak zein erabilera pribatiboari dagozkien tasak horren gaineko Ordenantza Fiskalak edo horiek arautzeko Udalak hartutako erabakiek gobernaturik dituzte.

**ONDASUNAK ETA INSTALAZIOAK BERRERAIKI, BIRREZARRI EDO  
KONPONTZEA**

6. art. Ordaintzeko obligazioa duenak aprobetxamendua egin den tokietako ondasun eta instalazioak berreraiki, birrezarri eta konpondu beharko ditu.

7. art. Konponezinak diren kalteak egiten badira, interesdunak ordaindu beharko ditu. Udal teknikariek zehaztuko dute kalteordainaren zenbatekoa, desegindako gaiak balio dutenaren edo kalteutakoaren balio galeraren arabera, aplikagarri diren legeei jarraikiz.

8. art. Aurreko artikuluetan ezarritakoren aldera, ordaintzeko obligazioa duenak gordailu bat egin beharko du, lehenik eta behin, zanga behar bezala betetzeko erabiliko dena eta, behar izanez gero, zoladura emateko, eta pasabideen kasuan, hurrengo batean berreraikitzeko, bai eta konponezinak gerta daitezkeen kalteak ordaintzeko ere.

Gordailu hori indarra duten arauak edo lizentzia jasotzeko baldintzak ez betetzeagatik paratu litezkeen zehapenak ordaintzeko erabili ahaliko da. Gordailua berreskuratu ahal izateko, horren aldeko txostena eman beharko da, non indarra duten arauak eta lizentzia hartzeko baldintzak hertsiki bete eta lurzorua behar bezala konpondu dela egiaztatuko baita.

9. art. Gordailuen zenbatekoak aprobetxamendurako baimendutako azaleraren arabera zehaztuko dira, tarifaren eranskinean ezarritakoarekin bat.

Gordailua ez da beharrekoa izanen, zintarriak berriz jartzeko, horiek etxebizitzetako edo lurrazpiko garajeetara sartzekoak direnean, administrazio-emakidak baldin badira edota lursail horiek garajetarako aurreikusitako badira planeamenduan; izan ere, halako kasuetan zintarriak behar bezala egon beharko du eraikitzen diren bitartean.

Zaharberritze obren kasuan, gordailuaren zenbatekoa onuradunei dagozkien dirulaguntzek osatuko dute.

*Kudeaketa arauak*

10. art. Edozein arrazoi dela medio, tokiko erabilera publikoko lurretan, zangak, laginketak edo zuloak ireki edo zoladura edo espaloiak mugitu nahi dituen pertsona natural edo juridikoak, behar den baimena eskatuko dio Udalari, eta horretarako Hirigintza Prozedurari buruzko ordenantzak eta Urbanizazio Ordenantza izenekoetan eskatutako baldintzak bete beharko ditu eta, hala egokitzen bada, Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko lizentziengatik eta eremu publikoan tokia erresebatzeko Ordenantza izenekoan eskatutakoa ere bete beharko ditu.

11. art. Lizentziak ematen diren unean behar diren tasak ordaindu beharko dira. Pasabideak egiten direnean, espaloia zeharkatzeko baimenak baldintzatuko du lizentziaren eraginkortasuna.

12. art. Baimenak indarra galduko du hura eman eta sei hilabeteko epean ez badira obrak hasi, edo ezarri epean ez badira bukatu.

**TARIFEN ERANSKINA**

Ordenantza fiskal honetan aplikatuko diren tarifak honakoak dira:

**I. Epigrafea.-Zangak irekitzea**

I.1.-Zanga, laginketa edo zuloaren metro lineal bakoitzeko: 18,75 euro

I.2.-Etxebizitzak zaharberitzeko dirulaguntzei buruzko Ordenantzaren barnean sartutako obrak badira, zanga, laginketa edo zulo bakoitza irekitzeagatik (luzera kontuan hartu gabe): 17,20 euro

I.3.-Zanga, laginketa edo zulo bat irekitzeko, beharrezkoa bada ibilgailuak pasatzen galaraztea, bai osorik bai norabide bat edota gunee muntadun samar bat ixten denean, aurreko epigrafeetako tarifak % 20 igoko dira.

II. Epigrafea.-Ibilgailuen pasabideak, karga-ahokak, aireztapenak, lukanak, kalapatxak egin edo deuseztea eta zoladura edo espaloiak mugitzea.

-Metro lineal bakoitzeko, alderik handienean: 18,15 euro

III: Epigrafea.-Gordailuak, zanga, laginketa edo zuloak egiteagatik eta zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egiteagatik

III.1.-Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, luzerako metro bakoitzeko:

-Harrizko zoladura duten lekuetan: 168,50 euro

-Zoladura orokorra duten lekuetan: 115,75 euro

-Zoladurarik gabeko lekuetan: 66,45 euro

III.2.-Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal batekoa edo handiagoa denean, metro karratu bakoitzeko:

Harrizko zoladura den lekuetan: 203,05 euro

Zoladura orokorra den lekuetan: 137,65 euro

Zoladurarik gabeko lekuetan: 77,50 euro

III.3.-Zoladuran edo espaloietan mugitutako metro karratu bakoitzeko, alderik handienean, gordailu bat ezartzen da, ibilgailuak espaloietan barna igarotzeko lizentzietan eta espazioa erresebatzeko eremu publikoetan: 298,45 euro

**ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTU, ETA IBILGAILUEN APARKALEKU ESKLUSIBO GISA EDO HORIEK GELDITZEKO ETA EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMA-LANETAN ARITZEKO EREMU PUBLIKOAN TOKIA ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

*20. Ordenantza**Oinarria*

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

*Zergagaia*

2. art. Zergagaia da ibilgailuak espaloietan barna sartzea eta aparkatzeko leku eskusiborako nahiz edozein motatako salgaien zama-lanak egiteko edo ibilgailuak gelditzeako eremu publikoan erresebatzea.

*Zerga noiz ordaindu behar*

3. art. Ordenantza honetan ezarritako tasak urtero sortuko dira, urtarrilaren 1ean, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Aprobetxamenduak urte barnean hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhilabete naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierako edo bukaerakoa ere barne harturik.

*Ordaintzera beharturik nor*

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta, Ordenantza honetako 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, toki entitatearen jabari publikoa haien alde erabili edo ustiatzen badute edo horri onura ateratzen badiote.

Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko aprobetxamendu bereziaren kasuetan, zergadunaren ordezkotza izanen dira ibilgailuendako sarreraren horien sarbide diren finka eta lokalen jabeak. Horiek zilegi izanen dute onuradunei kuota ordainaraztea.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasek dagokien Ordenantza fiskalari edo aplikagarri zaizkien udal erabakiei eginen diete men.

*Oinarriak, tasak eta tarifak*

5. art. 1) Espaloien barnako pasabideen aprobetxamenduaren kasuan, Ordenantza fiskal honen eranskinean ezarritako tarifak aplikatzeko oinarri gisa hartuko da erabilitako pasabidearen zabalera, zeina, gutxienez, 6 metrokoa izanen baita, bai eta plaza kopurua eta kalearen kategoria fiskala ere, kasuan kasu.

2) Lekua erresebatzen denean, erresebatutako lekuaren luzera eta kalearen kategoria fiskala hartuko dira oinarri.

6. art. Aplikatu beharreko tarifak Ordenantza fiskal honen eranskinean azaldutakoak dira.

*Kudeaketa arauak*

7. art. Lizentziak emateko onesten den Arauan xedatutakoak arautuko du lizentzietarako baimena.

8. art. Ibilgailuak espaloietan barna pasatzea erraztu ahal izateko beharrezko bada zintarria beheratu, tasak ordaindu beharko dira, eta gordailua eratu, Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak ireki eta eremu publikoan zoladura edo espaloiak mugitzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

Obra gauzatu ahal izateko lizentziaren eraginkortasuna ondokoek baldintzatuko dute: espaloian barna ibilgailuak sartzeko baimenak, tasak ordaindu eta gordailua eratu izanak.

9. art. Behin ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta lekua erresebatzeko lizentziak emanik, Aldizkako zergen Departamentu kudeatzaileak dagokien Erroldan sartuko ditu titularrak.

10. art. Seinalatzeko diskoak Udalak emanen ditu, IV. epigrafean ezarritako tasa ordaindu ondoren, eta lizentziaren titularraren eginkizuna izanen da diskoak paratu, mantendu, behar izanez gero berriro paratu, eta, erabilera edo aprobetxamendua bukatutakoan, horiek kentzea.

11. art. Lizentziaren titularrak beharturik daude, erabilera edo aprobetxamendua bukatu eta gero, erroldan baja ematera, eta zintarria eta espaloia lehengo hartara bueltatzera. Era berean, seinalatzeko diskoak ere kendu beharko dituzte. Bestela, ulertuko da aprobetxamendua segitu egiten duela, zintarria eta espaloia lehengora bueltatu eta diskoak kendu arte.

12. art. Udalaren Ikuskaritza eta Udaltzaingo zerbitzuek, pasabide lizentziarik gabe aprobetxamendu hori jasotzen duten egoitza edo lekukurik ikusten duten orotan, horien berri emanen diote Udalari.

## TARIFEN ERANSKINA

## I. Epigrafea.–Ibilgailuen pasabidea

## I.1.–Etxebizitzetara lotutako garajeak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
2 ibilgailu bitarte .....	62,08	55,05	45,87	37,44	30,16	24,47	19,89	17,20	15,30	14,90	14,53	14,16
3tik 5 ibilgailu bitarte .....	63,12	56,31	46,64	38,05	30,67	24,88	20,22	17,46	15,56	15,13	14,76	14,39
6tik 10 ibilgailu bitarte .....	103,46	92,34	76,30	62,17	49,94	40,30	32,42	25,32	20,26	19,25	18,23	17,22
11tik 25 ibilgailu bitarte .....	152,32	136,00	108,80	84,87	64,19	47,87	34,82	27,20	21,76	20,67	19,59	18,50
26tik 50 ibilgailu bitarte .....	172,47	153,99	123,19	96,09	72,68	54,20	39,42	30,80	24,64	23,41	22,18	20,94
51etik 100 ibilgailu bitarte .....	206,67	184,53	147,62	115,15	87,10	64,95	47,24	36,91	29,52	28,05	26,57	25,10
101etik 150 ibilgailu bitarte .....	256,29	228,83	183,06	142,79	108,01	80,55	58,58	45,77	36,61	34,78	32,95	31,12
150 ibilgailutik gora .....	285,88	255,25	241,09	193,38	146,27	109,08	79,33	61,98	49,58	47,10	44,63	42,15

## I.2.–Garaje pribatuak, merkataritza edo industriarako, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0 POLIGONOA				1 POLIGONOA				2 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
5 ibilgailu bitarte .....	62,08	51,74	43,10	34,51	55,40	46,58	39,90	33,26	46,58	39,50	34,14	28,84
6tik 10 ibilgailu bitarte .....	103,46	86,17	71,81	57,47	92,34	77,48	66,29	55,13	77,48	65,52	56,62	47,69
11tik 25 ibilgailu bitarte .....	171,64	145,52	125,90	106,32	153,24	129,92	112,43	94,93	129,92	111,25	97,30	83,28
26tik 50 ibilgailu bitarte .....	258,62	219,83	190,71	161,66	230,92	196,27	170,30	144,35	196,27	168,54	147,81	123,19
50 ibilgailutik gora .....	310,29	262,93	227,48	191,96	277,05	234,75	209,85	171,40	234,75	201,00	175,65	150,25

	3 POLIGONOA				4 POLIGONOA				5 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
5 ibilgailu bitarte .....	38,76	33,23	29,12	24,97	32,05	27,87	24,74	21,60	26,72	23,63	21,23	18,98
6tik 10 ibilgailu bitarte .....	64,38	55,06	48,12	41,11	53,08	46,00	40,74	35,48	44,12	38,86	34,91	30,97
11tik 25 ibilgailu bitarte .....	109,39	94,87	83,91	73,03	91,73	80,68	72,43	64,19	77,65	69,48	59,84	47,87
26tik 50 ibilgailu bitarte .....	165,80	142,00	120,11	96,09	130,83	109,02	90,85	72,68	97,57	81,31	67,76	54,20
50 ibilgailutik gora .....	197,60	171,25	151,50	131,65	165,51	145,52	130,60	113,79	140,13	125,24	106,08	84,86

	6 POLIGONOA				7 POLIGONOA				8 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
5 ibilgailu bitarte .....	22,47	20,22	18,50	16,83	19,98	18,27	16,89	15,56	18,27	16,83	15,73	14,70
6tik 10 ibilgailu bitarte .....	36,95	33,16	30,30	27,43	32,82	29,78	27,57	25,32	29,78	27,43	25,32	20,26
11tik 25 ibilgailu bitarte .....	62,67	52,22	43,52	34,82	48,96	40,80	34,00	27,20	39,17	32,64	27,20	21,76
26tik 50 ibilgailu bitarte .....	70,96	59,13	49,28	39,42	55,44	46,20	38,50	30,80	44,35	36,96	30,80	24,64
50 ibilgailutik gora .....	111,09	92,58	77,15	61,72	86,79	72,33	60,27	48,22	69,43	57,86	48,22	38,57

	9 POLIGONOA				10 POLIGONOA				11 eta 12 POLIGONOAK			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
5 ibilgailu bitarte .....	17,83	16,54	15,50	14,49	17,52	16,24	15,27	14,36	17,15	15,94	15,07	14,16
6tik 10 ibilgailu bitarte .....	29,72	26,89	24,06	19,25	28,64	26,49	22,79	18,23	28,00	25,83	21,53	17,22
11tik 25 ibilgailu bitarte .....	37,21	31,01	25,84	20,67	35,25	29,38	24,48	19,59	33,29	27,75	23,12	18,50
26tik 50 ibilgailu bitarte .....	42,13	35,11	29,26	23,41	39,92	33,26	27,72	22,18	37,70	31,41	26,18	20,94
50 ibilgailutik gora .....	65,96	54,97	45,80	36,64	62,49	52,08	43,40	34,72	59,02	49,18	40,99	32,79

Ibilgailu bat hamar plazako edo zatiki bakoitzeko kalkulatzeko da, auto-omnibusen kasuan, eta gehienezko zamako bi tona metrikoko edo zatiki bakoitzeko, kamioien edo arrasteko ibilgailuen kasuan.

I.3.–Ibilgailuak konpondu, garbitu edo horien olio aldatzeko lantegiak, edozein eratakoak direla ere, hornitegiak eta erakustokiak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1 aldea .....	179,15	178,18	147,54	120,65	97,43	79,06	64,38	55,80	44,85	42,61	40,37	38,13
2 aldea .....	148,39	147,54	123,14	101,53	82,97	68,28	56,51	46,72	37,38	35,51	33,64	31,77
3 aldea .....	125,30	124,63	104,78	87,25	72,12	60,19	49,84	38,94	31,15	29,59	28,04	26,48
4 aldea .....	102,28	101,70	86,40	72,90	61,34	52,14	39,87	31,15	24,92	23,67	22,43	21,18

## I.4.–Garaje publikoak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0 POLIGONOA				1 POLIGONOA				2 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
50 ibilgailu bitarte.....	240,38	203,76	176,39	148,92	239,07	201,62	168,01	134,41	193,55	161,29	134,41	107,53
50 ibilgailutik gora .....	276,76	233,98	201,86	169,75	275,26	232,70	200,76	168,83	232,70	198,64	173,13	147,54

	3 POLIGONOA				4 POLIGONOA				5 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
50 ibilgailu bitarte.....	150,97	125,81	104,84	83,87	114,19	95,16	79,30	63,44	85,16	70,97	59,14	47,31
50 ibilgailutik gora .....	195,23	168,67	148,76	128,84	169,68	148,82	133,09	113,79	143,12	126,80	106,08	84,86

	6 POLIGONOA				7 POLIGONOA				8 POLIGONOA			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
50 ibilgailu bitarte.....	61,94	51,61	43,01	34,41	48,39	40,32	33,60	26,88	38,71	32,26	26,88	21,51
50 ibilgailutik gora.....	111,09	92,58	77,15	61,72	86,79	72,33	60,27	48,22	69,43	57,86	48,22	38,57

	9 POLIGONOA				10 POLIGONOA				11 eta 12 POLIGONOK			
	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA	1 ALDEA	2 ALDEA	3 ALDEA	4 ALDEA
50 ibilgailu bitarte.....	36,77	30,64	25,54	20,43	34,84	29,03	24,20	19,36	32,90	27,42	22,85	18,28
50 ibilgailutik gora.....	65,96	54,97	45,80	36,64	62,49	52,08	43,40	34,72	59,02	49,18	40,99	32,79

1.5.-Orduka aparkatzea ahalbidetzen duten lizentziak: I.1, I.2, I.3 eta I.4 epigrafeei dagozkien tarifak % 25 ttikiturik aplikatuko dira.

1.6.-Pasabidearen parean dagoen espaloi edo leku publikoan aparkatzeko murriztapen edo debekua eskatzen ez duten lizentziak, aipatu mugapenak aurretik jarriak daudelako, eta baita hamabostaldi edo bestelako aldietan mugatuak badaude ere: I.1, I.2, I.3 eta I.4 epigrafeetako tarifak % 50 murriztuko dira pasabide iraunkorren kasuan, edo eta I.5 epigrafeetako murriztapen berarekin, ordutegia duten pasabideen kasuan.

II. Epigrafea.-Lekua erreserbatzea

II.1. Erreserba iraunkorra: metro lineal edo zatiki bakoitzeko, urtean:

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1 aldea.....	99,52	98,98	84,70	72,12	61,32	52,74	45,93	41,96	34,45	32,73	31,01	29,28
2 aldea.....	85,16	84,70	73,33	63,25	54,60	47,75	42,25	35,89	28,71	27,27	25,84	24,40
3 aldea.....	74,38	74,01	64,71	56,62	49,53	44,01	38,28	29,91	23,92	22,73	21,53	20,34
4 aldea.....	63,70	63,36	56,18	49,90	44,49	40,24	30,62	23,92	19,14	18,18	17,23	16,27

Baldin eta erreserba txandakako aparkatzeko debekua duen kale bateko bi espaloietan baimendurik badago, tarifa alde bakar baten neurriaren gainean kalkulatu da, eta zehazki, luzera handiena duen aldearen neurriaren gainean.

II.2. Ordutegi mugatuko erreserba: II.1 epigrafeetako tarifak aplikatuko dira, % 25 murriztuak

III. Epigrafea.-Espaloietan barnako aldi baterako pasabide eta leku erreserbak

III.1. Espaloietan barnako aldi baterako pasabideak:

Aldi baterako obra edo jarduketa batetrako espaloietan barnako pasabideak behar baldin bada, tasa izanen da ondoko hauen batura:

a) Baimendutako pasabidea: 9,80 euro

b) Pasabideak okupatzen duen metro lineal bakoitza: I.3 edota I.5 epigrafeetako tarifak aplikatuko dira, kasuan kasuan, eta hainbanaketa aprobetxamendu egunen arabera egingen.

III.2. Aldi baterako leku erreserbak:

Aldi baterako obra edo jarduketa baterako lekua erreserbatu behar baldin bada, prezio publikoa izanen da ondoko hauen batura:

a) Baimendutako erreserba: 9,80 euro

b) Erreserbak okupatzen duen metro lineal bakoitza: II.1 edota II.2 epigrafeetako tarifak aplikatuko dira, kasuan kasuan, eta hainbanaketa aprobetxamendu egunen arabera egingen.

IV. Epigrafea.-Seinaleztatze-diskoak

Pasabideak seinaleztatzeko diskoak: 24,15 euro

ORDENANTZA FISKALA, HIRIKO JABARI PUBLIKOKO LURZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZITAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

### 21. Ordenantza

#### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

#### Zerga-gaia

2. art. Zerga honen gaia dira hiriko jabari publikoko lurzoruen, hegalduraren eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak, hots, ondoko hauek:

a) Erabilera publikoko zorupea okupatzea.

b) Erabilera publikoko lurrak salgai, eraikuntzako material, hondakin, hesi, puntel, euskarri, aldarmio edo gisako instalazioez okupatzea.

c) Pisuetako burdinsare, lukana, arnasbide, ate, karga-aho eta horien gisako elementuak instalatzea, hiriko edozein bide publikotako zorua edo zorupea okupatuz, soto edo sotoarteei argia eta aireztapena emateko edota haietara pertsonak eta ibilgailuak sartzeko, bai eta argiteriako sare publikotik argia hartzeko ere.

d) Hiriko edozein bide publikotako hegaldura okupatzea, eraikinak itxeko elementu, terraza, behatoki, balkoi, markesina, olana edo gisako instalazioekin, bai eta eremu publikoaren gainean dauden edo fatxa-

daren lerrotik ateratzen diren hegalkinekin eta kristalez itxitako balkoi eta terrazekin ere.

e) Hariak, hodiak eta galeriak -argi indarra, ura, gasa edo beste edozein fluido eramatekoak-, lineetarako paldoak kableak, horma-be-soak, lotura, banaketa edo erregistratutako kaxak, transformadoreak, burni-barrak, baskulak, aldarmioak eta gisakoak barne, bai eta salmenta automatikotako tresnak eta gisakoak ere, baldin eta hiriko eremu publiko edo jabari publikoko bestelako eremuetan edo haien hegalduran kokatuta badaude.

f) Mahaiak, kadirak, tribunak, oholtzak edo haien gisako bestelako elementuak paratuz erabilera publikoko lurrak okupatzea, beti ere, irabazteko xedea izanik.

g) Kioskoak paratzea, eremu publikoan.

h) Postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta jolaskizunak erabilera publikoko lursailetan kokatzea, bai eta kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa ere.

i) Portada, erakuslehoi eta beirarasak.

j) Erregaiaren deposituak eta hornigailuak eta, oro har, artikuluko edo salgaiak instalatzea, eremu publikoko lursailetan kokaturik badaude.

k) Iragarkiak paratzea, hiriko jabari publikoko lurretan edo errepide edo hiriko bide publikoetatik ikusteko moduan.

l) Lur, eraikin edo hesiei eusteko hormak, behin betikoak zein behin-behinekoak, hiriko bide publikoetan paraturik.

m) Azienda hiriko eremu publiko edo jabari publikoko lur eta bi-deetan barna igarotzea.

#### Zerga ordaindu beharra

3. art. Zerga hauek ordaindu beharra erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastean sortzen da, eta aurretik behar den baimena eskatu behar da.

Erabilera edo aprobetxamendua hasten bada Udalaren nahitazeko lizentziarik aurretik eskuratu gabe, Ordenantza fiskal honetan ezarritako tasa ordaintzeak ez ditu erabilera edo aprobetxamendu horiek legeztatuko, eta instalazioak kentzeko agindua eman ahalko da, inolako kalteordainik gabe

Ordenantza honen xede diren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak tasa aldizka sortzea eskatzen badute, tasa urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera edo aprobetxamendua urte barnean hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhilabete naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierako edo bukaerakoa ere barne harturik.

#### Ordaintzera beharturik daudenak

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta hiriko jabari publikoko lurzoru, hegaldura eta zorupearen erabilera

privatibo edo aprobetxamendu berezia egiten badute, edo haiei onura ateratzen badiete.

Eremu publikoan paratzen diren zaborrontzien kasuan, halakotzat hartuko dira zaborrontziak paratzeko baimena, Udalak emanda, jaso duten enpresak.

5. art. Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek lurzoru, hegaldura eta zorupea erabili edo horien aprobetxamendua egiteagatik ordaindu beharreko tasek dagokien Ordenantza fiskalari edo aplikagarri zaizkien udal erabakiei eginen diete men.

#### Oinarriak, tasak eta tarifak

6. art. Tarifak aplikatzeko oinarria erabileraren edo aprobetxamenduaren iraupenak eta okupatutako eremu publikoaren neurriak xedatuko dute.

7. art. Tarifak honako Ordenantza honen eranskinean azaltzen direnak dira.

Enkante publikoaren prozedurarik erabiliz gero, tasaren zenbatekoa emakida, baimena edo esleipena zein proposamenari eman eta horren balio ekonomikoaren arabera xedatuko da.

#### Kudeaketa arauak

8. art. Erabilera privatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin udal ondasun edo instalazioen suntsiketa edo narriadura ekartzen badute, onuradunak, egokitzen ahal zaion tasa ezertan galarazi gabe, aipatu horiek guztiak berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaindu beharko ditu, bai eta zenbateko hori aurretik gordailatu ere.

Gordailu hori ukituta gerta daitezkeen ondasun eta instalazio guztien balioaren arabera finkatuko da, eta haiek zenbakietara ekartzeko udal teknikari batek txostena emanen dute, aurretik.

Gordailua indarra duten arauak edo lizentziaren baldintzak hausteagatik izan daitezkeen zehapenei lotzen ahal zaizkie. Fidantza itzultzeko beharrezkoa izan da aurretik aldeko txostena ematea, indarra duten arauak eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete direla eta zoladura behar bezala konpondu dela azalduz.

Eremu publikoa zaborrontziekin okupatzen bada, gordailu orokor bat eratuko da baimendutako enpresa bakoitzak egin behar dituen instalazio guztietarako, Eremu publikoan zaborrontziak paratzeari buruzko Ordenantzaren xedatutakoarekin bat.

9. art. Erabilera dela eta sortutako kalteak konponezinak badira, onuradunak suntsitutakog auzek zenbait balio duten edo kaltetutako baliogalera norainokoa den, horrenbertze emanen dio ordainetan Udalarari. Bereziki konponezintzat hartuko dira interes artistiko edo historikoa

duten monumentuetan eta 20 urte baino gehiagoko zuhaitzetan egindako kalteak.

Lehenik eta behin fidantzek kalteordain horiek estaliko dituzte.

10. art. 1) Ordenantza honetan araututako tasei lotutako erabilera edo aprobetxamenduak dagokion errolda edo zentsuan jasoko dira, betire ohikoak eta etengabeak badira. Tasa sei hilabetetik behin ordaindu beharko da, Ordenantza fiskal orokorrean ezarritako epe eta baldintzetan.

2) Erabilera edo aprobetxamenduak lizentziarik behar ez badute, aurretik dagokien kuota ordaindu beharko da. Horrela izanez gero, txartela jaso beharko da, behar bezala datatua, horretarako izendutako langileen eskutik.

3) Eremu publikoa zaborrontziekin okupatzen denean, likidazioak hilabetean behin egiten dira, baimendutako enpresek aurkeztuko dituzten aitopenen arabera, ondorengo atalean xedatutakoaren aplikazio ezertan galarazi gabe, baldin eta okupazioaren bukaera jakinarazteko betebeharrak betetzen ez bada.

4) Gainerako kasuetan, likidazioa dagokion Bulegoan egiten da, eta tasa lizentzia edo baimena eman dela jakinarazi baino lehenago ordainduko da, erabilera edo aprobetxamenduaren epea zehazki finkaturik baldin badago; hala ez bada, pagamendua erabilera edo aprobetxamendua amaitutakoan egiten da, halako manerara non ulertuko baita erabilera edo aprobetxamendua bukatzen dela partikularrak Udalarari horren berri jakinarazten dion momentuan. Partikularrak jakinarazteko duen betebeharrak betetzen ez badu, ulertuko da erabilera edo aprobetxamendua ikuskatzailetzako zerbitzuek baimendutako okupazioa amaitu dela egiaztatu arte segitu dutela.

Erabilera edo aprobetxamendua sasoi osorako ematen bada, prezio publikoa ordaintzen ahal da hiruhilabetea eta horiek iragandakoan. Ez da egiten hiruhilabetearen likidazioa erabilera edo aprobetxamenduari uko egiten bazaio, hiruhilabete hori bukatu baino gutxienez hilabete bat lehenago.

5) Mahai, kadira eta mahaitxoak izeneko 1. epigrafeari dagokionez, Udalak baimena bere osotasunean balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa eta abarrik badago, eta kobratutako tasaren zati proportzionala itzultzerak behartuta dago, soilik.

#### TARIFEN ERANSKINA

I. Epigrafea.–Zoruaren erabilera edo aprobetxamendu bereziak

I.1. Mahaiak, kadirak, mahaitxoak, barrak eta ostalaritzako jardueretarako beste zenbait baimen:

I.1.1. Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, urtean:

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1 aldea .....	48,49	48,49	41,89	36,16	31,21	23,30	16,95	13,25	10,60	10,05	9,55	9,00
2 aldea .....	41,89	41,89	36,67	32,09	26,06	19,43	14,13	11,04	8,83	8,39	7,95	7,51
3 aldea .....	37,01	37,01	32,76	28,71	21,72	16,19	11,78	9,20	7,36	6,99	6,63	6,26
4 aldea .....	32,09	32,09	28,78	22,97	17,37	12,96	9,42	7,36	5,89	5,59	5,30	5,01

I.1.2. Sanferminetan, baimentzen ahal dira urte osorako baimena duten terrazak handitzea, edo baimenak jaietarako bakarrik eman. Bi kasuetan, behar den baimena eskatu beharko da eta horretarako idazkia aurkeztu beharko da Udalaren Erregistro Orokorrean. Baimena emanen da uztailearen 6tik 14ra bitarteko eperako, bi egunak barne.

Hau izanen da aplikatuko den tarifa:

–Katastroko 0 eta 1. poligono fiskaletako 1. eremuan baimenduriko metro karratu bakoitzeko: 44,49 euro

–Gainerakoan, baimenduriko m<sup>2</sup> bakoitzeko: 29,69 euro

I.1.3. Eguneko tarifa, beste hainbat erabiletarako, urtebete baino gutxiagokoak badira:

–Metro karratuko eta eguneko: 4,38 euro

I.2. Azoka txikiak, metro linealeko edo horren zatiki bakoitzeko:

–Elikagai, arropa eta oinetakoen salmenta. Eguneko: 3,00 euro. Denboraldiko: 121,05 euro.

Eskulan, liburu, numismatika eta kulturazkotzat hartzen diren beste gai batzuen salmenta. Eguneko: 1,05 euro. Denboraldiko: 44,80 euro.

I.3. Merkatu tikiak:

–Eskulan tikiak, bisuteria eta bestelako produktu baimenduak, toki bakoitzeko. Eguneko: 3,10 euro. Denboraldiko: 46,90 euro. Sanferminetan: 23,15 euro.

Denboraldiko tarifaren barrenean ez da sartzen Sanferminetako egunei dagokiena.

Tarifa hauek hasierako prezioztat joko dira, esleipena enkante bidez egiten bada.

I.4. Baldin eta Sanferminetarako Udaleko organo eskudunak salmenta ibiltaria baimentzen badu Hirian, jarduera horrek 13,70 euroko tasa bat sortuko du, horretan jardunen duen pertsona bakoitzeko, uztailearen 6tik 14ra bitarteko eperako.

Halaber, saltoki finkeen instalazioa enkanteaz besteko prozeduraz baimentzen bada, horiek 31,75 euroko tasa sortuko dute, postu horiek salmentarako betetzen duten metro lineal bakoitzeko. Udalak instalatzen ahal dituen salmenta-postu finkeen erabilera baimentzen bada, ordaindu behar duenak tasa honetaz gain instalazioen alokerari dagokion zenbatekoa ere ordainduko du.

Esleipena enkante bidez egiten bada, zenbateko horiek hasierako prezioztat hartuko dira.

Prezio publiko horiez gain, 150 euroko fidantza gordailatzea galdatzen ahalko da.

I.5. Taberna-ibilgailuak

Tarifa hori kobratuko da baimendutako ibilgailu bakoitzeko eta erabiltzen den egun bakoitzeko, beti ere, tokia enkante bidez esleitzen ez bada: 155,40 euro

I.6. Zaborrontziak eremu publikoan erabiltzea

Zaborrontzi eta egun bakoitzeko : 0,31 euro

I.7. Banku jardueretarako erabilera: Fatxadan eta eremu publiko begira ezarritako kutzazain bakoitzeko, urtean,

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1 aldea .....	148,00	133,00	106,00	83,00	63,00	47,00	34,00	27,00	21,00	20,00	19,00	18,00
2 aldea .....	124,00	110,00	88,00	69,00	52,00	39,00	28,00	22,00	18,00	17,00	16,00	15,00
3 aldea .....	103,00	92,00	74,00	57,00	43,00	32,00	24,00	18,00	15,00	14,00	13,00	13,00
4 aldea .....	82,00	74,00	59,00	46,00	35,00	26,00	19,00	15,00	12,00	11,00	11,00	10,00

I.8. Kupoiak eta loteria saltzeko kiosko eta kabinak: Ezarritako kabina edo kiosko bakoitzeko, urtean:

0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
82,00	74,00	59,00	46,00	35,00	26,00	19,00	15,00	12,00	11,00	11,00	10,00

I.9.1. Jarduera ekonomikoetako bestelako erabilera edo aprobetxamenduak, hamar metro koadroko, egunean, betiere, 19,13 eurotik abiatuta:

	0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1 aldea .....	1,85	1,84	1,47	1,15	0,85	0,64	0,47	0,36	0,28	0,28	0,27	0,25
2 aldea .....	1,56	1,53	1,23	0,96	0,71	0,54	0,43	0,28	0,25	0,23	0,21	0,21
3 aldea .....	1,28	1,28	1,02	0,79	0,60	0,43	0,33	0,26	0,20	0,19	0,18	0,15
4 aldea .....	1,07	1,02	0,82	0,64	0,48	0,36	0,26	0,20	0,15	0,15	0,15	0,14

I.9.2. Jarduera ez-ekonomikoetako bestelako erabilera edo aprobetxamenduak, hesiturak eta jarduera ekonomikoa ez den beste edozein okupazio, hamar metro koadroko, egunean, betiere, 19,13 eurotik abiatuta:

0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1,15	1,02	0,82	0,64	0,48	0,36	0,26	0,20	0,15	0,15	0,15	0,14

II. Epigrafea.–Hegalduraren erabilera edo aprobetxamendu bereziak

Hegalduraren gainean egiten diren aprobetxamenduetan aplikatu beharreko tarifak Jarduera ekonomikoez besteko erabilera edo aprobetxamenduak izeneko I.9.2. epigrafean ezarritakoen %50 izanen dira:

III. Epigrafea.–Zorupearen aprobetxamendu bereziak

III.1. Ezarritako biltontzi bakoitzeko, urtean:

0 POL.	1 POL.	2 POL.	3 POL.	4 POL.	5 POL.	6 POL.	7 POL.	8 POL.	9 POL.	10 POL.	11-12 POL.
1.425,25	1.425,25	1.359,25	1.301,15	1.251,00	1.211,45	1.179,70	1.161,20	1.148,05	1.145,35	1.142,70	1.140,10

III.2. Hornidura zerbitzuetako sare nagusien instalazio eta aprobetxamenduengatik izanen den gutxieneko kuota:

Metro lineal bakoitzeko, urtean: 8,13 euro.

ORDENANTZA FISKALA, HORNIDURAKO ZERBITZU PUBLIKOAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK HIRIKO JABARI PUBLIKOKO LURZORU, HEGALDURA ETA ZORUPEAREN APROBETXAMENDU BEREZIENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

22. Ordenantza

Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

Zergaia

2. art. Zerga honen gaia hiriko jabari publikoko lurzoru, hegaldura eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia da, hari, hodi eta galerien bidez egindakoa, argi indarra, ura, gasa edo beste edozein fluido eramateko, bai eta kable, horma-beso, lotura, banaketa edo erregistrarako kaxa, transformadore, burni-barra, baskula, salmenta automatikorako tresna eta horien antzeko beste zenbaiten bidez egindakoak ere, baldin eta hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek ematen dituzten zerbitzuekin zerikusirik badute eta biztanleak oro edo horietako anitz ukitzen badituzte.

Zerga noiz ordaindu behar

3. art. Tasa urtero urtarilaren 1ean sortuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu eta erabilera pribatiboa edo erabilera berezia urtea hasita hasi edo bukatu egiten den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita, eta kuota hainbanatuko.

Ordaintzera beharturik nor

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, hiriko jabari publikoko lurzoru, hegaldura eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiten duten enpresak, baldin eta hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzeko egiten badute.

Oinarriak, tasak eta tarifak

5. art. Kuota emanen digun tipoa aplikatzeko oinarria enpresek udalerrian urtean lortutako fakturazioak emandako diru-sarreraren gordinen arabera kalkulatu da.

6. art. Aplikatu den tipoa % 1,5 izanen da, hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek lortutako diru-sarreraren gordinen gainekoa.

Tasa hauek bateragarri izanen dira toki eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ezar daitezkeenekin. Aipatu enpresek izan beharko dute haien subjektu pasiboak.

Kudeaketa arauak

7. art. Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziren bat egin behar badute hori egiteko behar den lizentzia eskatu beharko dute.

8. art. Erabilera edo aprobetxamendu hori egin ahal izateko obrarik egin behar badute, enpresek behar den obra lizentzia eskatu beharko dute.

9. art. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak udal ondasun edo instalazioen suntsiketa edo narriadurik ekartzen ahal badu berekin, onuraduna beharturik dago aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere.

Gordailu hori ukituta gerta daitezkeen ondasun edo instalazioen balioaren arabera finkatuko da, hura zenbakietara ekartzeko udal teknikiarik txostena aldeztuz aitzinetik eginda.

Enpresek aprobetxamenduak nola edo halako jarraitasun eta aldizkakotasun batez egiten badituzte, nahiz eta hiriko leku desberdinetan



izan, kudeaketa administratiboa erraztu ahal izateko, gordailu orokor bat eratzea itundu ahalko da, itunean bertan ezarritako aldietan ikuskatu ahal izanen dena, eta aipatu aldietako aprobetxamenduek ustez eragindako kalteen arabera.

Gordailua lotu daiteke indarra duen arautegia haustearekin edo lizentziaren baldintzekin. Fidantza itzultzeko, beharrezkoa izanen da aldeez aurretik horren aldeko txostena ematea, bertan azalduz indarra duen arautegia eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete direla eta zoladura behar bezala konpondu dela.

10. art. Tasa ordaintzera beharturik dauden hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek hiruhilero aurkeztu beharko dute udalerrian aurreko hiruhilerokoan erdietsi dirusarrera gordinen gaineko aitorpena.

Aipatu aitorpen horretan tasaren zenbatekoa Ordenantza honetan ezarritako arauarekin bat kalkulatu beharko da.

11. art. Aitorpena aurkeztearekin batera, enpresek dagokien tasaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, Udalean bertan edo horretarako ezarri erakundearen bidez.

#### ORDENANTZA FISKALA, APARKATZE MUGATU ETA MURRIZTUKO EREMUETAN TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK APARKATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

##### 23. Ordenantza

###### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 12. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

###### Zergagaia

2. art. Zergagaia honakoa da:

a) MUG eta MUR eremuetako sektoreetako bateko bizilaguna izatea ziurtatzen duen txartela ematea. Txartelak zein ibilgailutarako eskatu eta hori aparkatzea ahalbidetzen du, dagokion sektorean, urtebetez, eta ordu-mugarik gabe.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuak MUG eremuetan aparkatzea, ordutegi mugatua bitartean.

###### Zerga ordaindu beharra

3. art. a) Zerga ordaindu beharra sortzen da, 2.a) artikuluan aurreikusitako zergagaiaren kasuan, aipatu txartela eskuratzeko eskabidea aurkezten denean. Hura izapidatzeko ezinbestekoa izanen da aurretik dagokion tasa ordaintzea.

b) Zerga ordaindu beharra sortzen da, 2.b) artikuluan aurreikusitako zergagaiaren kasuan, aparkatze mugatuaren erabilera pribatiboa hasten denean.

###### Ordaintzera beharturik daudenak

4. art. Tasa, honako hauek ordaindu behar dute:

a) Ibilgailuaren titularra den pertsona fisikoa, baldin eta helbidea MUG eta MUR eremuetako sektore batean badu, bizilagun dela ziurtatzen duen txartela eskuratzearen truke.

b) MUG eremuetan aparkatzen duten gidariak, aparkatze mugatuak zenbat dirauen, hainbeste, araturiko ordutegia bitartean, eta horretarako gaitzen duen tiketa erretiratu ondoren.

###### TARIFEN ERANSKINA

I. Epigrafea.-Bizilagun izaera ziurtatzen duten txartelak

1.-Urte naturaleko eperako ematen den txartel bakoitzeko (MUR): 37,10 euro

Urte naturaleko eperako ematen den txartel bakoitzeko (MUG): 37,10 euro

2.-Txartela galdu, ibilgailua aldatu, eremuz aldatu edo beste edozer zioreratik, lehenengoaz gain ematen den txartel bakoitzeko: 5,35 euro

II. Epigrafea.-MUG eremuetan aparkatzea

1. 30 minutu bitarte, eremu guztietan: 0,40 euro

-35 minutu: 0,45 euro

-40 minutu: 0,50 euro

2. 45 minutu bitarte: 0,55 euro

-50 minutu: 0,60 euro

-55 minutu: 0,65 euro

3. Ordu bat: 0,80 euro

-65 minutu: 0,85 euro

-70 minutu: 0,90 euro

4. Ordu bat eta 15 minutu: 0,95 euro

-Ordu bat eta 20 minutu: 1,00 euro

-Ordu bat eta 25 minutu: 1,05 euro

5. Ordu bat eta 30 minutu: 1,15 euro

-Ordu bat eta 35 minutu: 1,20 euro

-Ordu bat eta 40 minutu: 1,25 euro

-Ordu bat eta 45 minutu: 1,30 euro

-Ordu bat eta 50 minutu: 1,35 euro

-Ordu bat eta 55 minutu: 1,40 euro

6. 2 ordu: 1,50 euro

7. 10. sektorean, 120 minututik aitzina 10 minutuko zatiki bakoitzeko, ordu-mugarik gabe: 0,05 euro

8. Salaketa deusezte: 3,30 euro

#### UDALAREN LOKALAK ERABILTZEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

##### 1. Araua

###### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehenbiziko tituluko III. kapituluko 2.2 atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

###### Ordaintzeko beharra noiz sortu

2. art. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da baimendutako erabilera hasten denean, baina prezio publikoaren zenbatekoa, gutxienez, ekitaldia egin baino bi egun lehenago gordailatu beharko da.

3. art. Interesdunak erabiltzeari uko egin ahal izanen dio ekintzarako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago, eta kasu horretan prezio publikoaren % 50 itzuliko zaio.

###### Ordaintzera beharturik nor

4. art. Udalak aipatu lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, horrexek du prezio publikoa ordaintzeko betebeharra.

###### Erabilera

5. art. Baimena Udalak bere lokalen erabilera onetsitako arauarekin bat ematen da.

6. art. Jai eguntzat hartuko dira Udal honetako langileen lan egutegian halakotzat ezartzen direnak.

###### Tarifak

7. art. Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean azaltzen dira, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

###### Tarifen eranskina

I. Epigrafea.-Caldereria aretoa edo antzeko lokalak erabiltzea

-3 orduko edo horien zatiki baterako lagatzea, egunean: 49,80 euro

-3 orduetik 6ra bitartean lagatzea, egunean: 85,15 euro

-6 orduetik goitik lagatzea, egunean: 124,70 euro

Lokala jarraian gutxienez 5 egunez erabiltzen bada, % 20ko beherapena aplikatuko da.

Jarraian Gutxienez 7 egunez erabiltzen bada, beherapena % 30ekoa izanen da.

Jai egunetan, tarifak % 50 gehituko dira.

#### UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ETA ESKOLETAKO ARETO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

##### 2. Araua

###### Oinarria

1. art. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehenbiziko tituluko III. kapituluko 2.2 atalean xedatutakoari jarraikiz, eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean.

###### Kontzeptua

2. art. Arau honetan ezarritako prezio publikoak Udalaren kirol instalazio eta eskoletako areto eta instalazioak kirol, kultura edo hezkuntzaren esparruetako jarduerak egiteko erabiltze baimenduaren ondorioz emaniko zerbitzuen truke eskatzen dira.

Oro har, ez da halako lokalak erabiltzeko baimenik ematen, festa erako jardueretarako, hala nola, bazkari, dantzaldi, kontzertu, feria,

azoka eta horrelakoetarako, ezta dagokion lokal edo instalazioko udal langileen lan-ordutegitik at burutu beharreko jardueretarako ere. Halako erabilerak salbuespen gisa baimentzen ahal dira, egin beharreko jardueraren Udalaren interesekotzat jotzen bada.

Ez da prezio publikorik galdatuko eskola eta kirol jardueren truke, horiek dagokion ikastetxeko Eskolako kontseiluak eta IGEk edo Udalak berak sustatuak badira, beti ere, erabilera udal langileen lan-ordutegiaren barruan gauzatzen bada.

Bestalde ez da prezio publikorik galdatuko kirol instalazioak Kirol federazio batek edo horren pareko batek erabili behar baditu, baldin eta erabilera hori Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmen jakin baten ondorio bada.

#### Ordaindu beharra

3. art. Arau honetan erregulatutako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte sarrera edo abonua eskuratzen dituzten pertsonak edo Udalaren baimena jaso dutenek, aretoak edo instalazioak erabiltzeko.

#### Kudeaketa eta dirubiltzetarako arauak

4. art. Kiroleko aretoak eta instalazioak noiz edo noiz erabiliz gero, prezio publikoa areto edo instalazioetan beraietan ordaindu beharko da, horiek erabili aurretik.

Eskolako aretoak eta instalazioak, noiz edo noiz erabiliz gero, prezio publikoa Udalaren Diruzaintzan ordaindu beharko da, beti ere, erabili baino lehen eta behin Udalak espresuki baimendu eta gero, eta hark ordaindu izanaren agiria emanen du. Ordainagiri hori dagokion aretoaren arduradunari aurkeztu beharko zaio, baimendutako erabilera gauzatzeko.

Artikulu honetan araututakoari dagokionez, noiz edo noizko erabileratzat joko dira aretoa hogeita hamar egun jarrai baino gutxiagokoak.

5. art. Kirol eta eskolako aretoak eta instalazioak hilabetea erabiltzeko baimenen kasuan, prezio publikoa hilabete oro ordaindu beharko da -beti ere, erabili baino lehen-, Udalaren Diruzaintzan, eta horrek ordaindu izanaren agiria emanen du.

6. art. Instalazioetan dauden bitartean, instalazioak edo lokalak erabiltzeko txartel edo baimenak gorde beharko dituzte erabiltzaileek, eta, instalazioen zainzaileen esku jarri beharko, horiek eskatuz gero.

7. art. Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko baimena dutenek, baldin eta ikusleak ekartzen dituzten jarduerak burutzeko baimena badute, horiek kirol arlokoak izan ala ez, sarreraren prezioak arautu ahalko dituzte.

#### Tarifak

8. art. Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean azaltzen dira, eta barne hartuko dut, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

9. art. Salbuespen gisa eta Udalaren interesekoa izateagatik baimendutako erabilera batek espazio publiko edo instalazioen suntsidura edo narriadura badakar berekin, ordaindu behar duenak, prezio publikoaren ordainketa ezertan galarazi gabe, berreraiki eta konpontzeko lanen gastuak oro ordaindu beharko ditu, eta horiek alde aurretik gordailatu ere.

Gordailu hori ukiturik gerta daitezkeen ondasun edo instalazioen balioaren arabera osatuko da. Hala gordailua itzultzeko nola hori onartutako erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da, aurrez, erabili diren espazio edo instalazioak nola gelditu diren azalduz.

#### TARIFEN ERANSKINA

##### 1. Epigrafeak.–Kirol instalazioak

###### 1.1. Kiroldegia

1.1.1. Lehendabiziko ordua, aldagelak ere erabiliz: 17,45 euro

1.1.2. Bigarren ordua eta hurrengoak: 4,80 euro

a) Zorren ordainketa helbideratu duten subjektu pasiboendako, beraiek seinalatutako Banku edo Aurrezki Entitatean eta kontuan zordunketa bidez.

b) Zorren ordainketa helbideratu ez duten subjektu pasiboendako, edota helbideratua izan arren edozein arazoirengatik zorrak bete gabe geratu diren kasuetan, I.Z.E.A.ren Kutxan.

12. artikulua. Nahiz eta 9.1 artikuluan ezarritakoa hala izan, erakina erabiltzearen eskubidea deuseztatzeak sortzapean eskubideak ezabatuko ditu, eta, hala, iraungipen dataz ondorengo egunei dagozkien ordainarazitako eta ordaindutako diruak ordaintzaileari itzuli beharko zaizkio.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

#### I. ERANSKINA

I.-Hiri Hondakin Solidoen bilketa, Garraioa eta ondoko aprobetxamendu edo hustuketa zerbitzua, nahitaezko harrerapekoa

A. Erregimen orokorra. Urteko tarifak. Zenbatekoa eurotan.

ERABILPENAK	Koef. zuz.	Tarifa aldatokorra, kuotaren oinarriaren arabera	Kuota finkoa	Kuota, gehienez
1	1	0,049%	23,76	68,63
4. Etxebizitzak (*) 96. Estudioa 92. Landetxea				
(*) Koefiziente zuzentzaileak udalerrira aplikatuz (II Eraskina)				
2	2	0,096%	148,18	489,87
9. Lokal komertzialak (elikadura izan ezik)				
3	4,25	0,096%	148,18	876,14
9. Elikadura lokal komertzialak 30. Kasino 34. Festa aretoa 43. Jatetxea 44. Kafetegia, taberna 42. Egoitza 55. Ospitala 56. Klinika 59. Kuartelak 60. Kartzelak				
4	1	0,096%	148,18	876,14
41. Ostatua 45. Pentsioa				
5	1	0,096%	148,18	1.825,22
10. Industri lokalak 12. Industri pabilioa 13. Industri biltegia 14. Aldatokia eta jantokia 61. Tren geltokia 62. Bodega kooperatiba 87. Garaje egoitza 90. Zerbitzu estazioa 93. Laborategia 94. Autobus geltokia				
6	1	0,074%	68,63	617,32
17. Bulegoak				

ERABILPENAK	Koef. zuz.	Tarifa aldatokorra, kuotaren oinarriaren arabera	Kuota finkoa	Kuota, gehienez
7	1	0,074%	27,72	152,60
7. Lokal erabili gabeak				
8	0,25	0,074%	27,72	68,63
18. Bulego publikoa 19. Udaletxea 20. Auzitegia 27. Liburutegia 28. Museoa 29. Kultur etxea 49. Erligio etxeak edo eguneroko jarduera 91. Alderdi politikoen egoitzak				
9	1	0,074%	116,44	489,87
21. Unibertsitatea 22. Institutoa 23. Lanbide eskola 24. E.H.O. eskola 25. Kolegio ikastetxea 26. Haurtzaindegia 31. Antzokia 32. Zinemategia 33. Auditorioa 35. Zezen plaza 36. Estadioak 37. Polikiroldegia 53. Babesetxea 46. Elkarteak 54. Seroretxeak 57. Anbulatorioa 58. Sorostokia				

b) Lanbide arteko gutxienezko soldata edo zenbateko txikiagoko pentsioa jasotzen dutenendako kuota berezia:

Ordenantza honetan arautzen den edozein diru-sariri dagozkion kuota osoa, era orokorrean aplikagarria den kuotari % 10 aplikatuzetik sortzen den kantitatea bezainbestekoa izanen da, ordaintzailea gizarte segurantzako edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren prestazio baten onuraduna denean, zenbatekoak lanbidearteko gutxienezko soldata gainditzen ez badu, edo ezkontide edo gisa bereko bizikidea duenean, 1,2 aldiz delako gutxienezko soldata gainditzen ez badu, bi ki-deen dirusarrera guztiak. Ezkontidea ez den beste ezekin famili-zamarik izanez gero (adin txikiko seme-alabarik, 23 urte arteko eta adin horretako seme-alabarik ikasketa egiten ari edo legezko langabetu egoeran, edo seme-alaba ezindurik eta diru sarrerarik gabeak), aipatu diru-muga horiei menpeko lagun bakoitzagatik delako gutxienezko soldataren 0,2 gehituko zaie.

Ezin izanen dute tarifa honetaz baliatu, aurreko baldintza bete izanik ere, urteko kopurua L.G.S. baino handiagoa batzen duten beste diru sarrera gehigarriak jasotzen dituztenek, eskatzailearen eskutik zein etxebizitza berean bizi direnen eskutik. Halaber, eskatzailearen edo bizikideen ondare higigarri zein higiezia ez da hiru milioi pezeta baino handiagoa, ohiko etxebizitzaren balioa kenduta.

Aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzaileek ondokoak ekarri beharko dituzte:

–Eskabidea.

–Jasotako prestazioaren egiaztagiria.

–Errenta edo ondare aitortpena, edo horrelakorik egin behar ez izateko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren agiria, hala nola eskatzailearen edo bizikideen dirusarrerak egiaztatzen dituzten beste agiriak.

–Udal erroldatik eratorritako elkarbizitza egiaztagiria.

Nolanahi dela, tarifa honen onuraduna ur-hornidura eta saneamendu kontratuko titularra izanen da, edo haren ezkontidea.

Iruñerriko Zerbitzuak, E.A.k, edozein unetan, tarifa hau emateko eskatzen diren betebeharrak mantentzen direlako egiaztapena egin ahal izanen du, baldintzuk betetzeari utzi edo egiaztapenean eskaturiko agiriak ekarzen ez dituzten onuradun guztiei tarifa osoa aplikatuko dielarik.

Halaber, Ordenantza honetan arautzen diren prezioetarik edozeini dagozkion kuota osoa, era orokorrean aplikagarria den kuotari % 10 aplikatuz ateratzen den bezainbestekoa izanen da, ordaindu behar duena Gobernuz kanpoko erakunde denean, eta zerbitzua zuzenki egintza publikorakoa denean, irabazteko asmorik gabea, eta horren xedea bere asmoetarako laguntzak biltzea denean.

## C) Sortzaile handiak:

Zerbitzuaren erabilzaileak bere eskura bi edukiontzi edo gehiago baldin badu, eta asteen sei bilketa, ondoko kuotak aplikatuko zaizkio (balio katastrala edozein delarik ere ezarriko direnak).

1.000 litroko 2 edukiontzi: 1.825,22 euro bakoitzeko.

Bitatik gora, 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko: 1.350,69 euro bakoitzeko.

Edukiontzia beste edukiera batekoa bada (alboko bilketa egiteko edukiontziak), dagokion proportzio-kontua eginen da.

Bilketa era ez-jarraian egiten den kasuetan, -hots, H.H.en bilketa asteen sei egunez egiten ez bada-, dagokion proportzio-kontua eginen da.

## D) Edukiontzien aldi baterako erabilpena

	EDUKIONTZIA/ JARRI/JASOTZEA (Euroak)	DESKARGA BAKOITZEKO (Euroak)
3.200 l.ko edukiontzia .....	64,69 euro	25,88 euro
2.400 l.ko edukiontzia .....	45,28 euro	19,41 euro
1.000 l.ko edukiontzia .....	18,11 euro	8,41 euro
240 l.ko edukiontzia .....	6,15 euro	3,23 euro

120 l-ko edukiontzien uztea, 3,23 euro/eguneko fakturatuko da.

## E) Sortzaile handiak-trinkotu gabeko kaxa hertsia bilketa

-10 m<sup>3</sup> arte: 129,39 euro/unitate/bilketa eguna.

-5 m<sup>3</sup> arte edo zatikia: 64,69 euro/unitate/bilketa eguna.

## F) Katastro balioztapenik ezean

Higiezinari balio katastralik atxiki ez zaien kasurako, koadro orokorreko jarduera multzoei dagozkien ondoko kuota aldakorrek ezarriak dira:

- 1 Kuota: 22 euro.
- 2 Kuota: 73,39 euro.
- 3 Kuota: 220,09 euro.
- 4 Kuota: 146,70 euro.
- 5 Kuota: 46,73 euro.
- 6 Kuota: 22,06 euro.
- 7 Kuota: 36,69 euro.
- 8 Kuota: 73,39 euro.

## G) Tarifa guztiei dagozkien xedapenak

1. Hondakin unitate sortzaile bakarrean erabilpen mota batzuk sar daitezkeen kasuetan, katastro unitate nagusizat hartu denaren erabilpen kuota finkoa aplikatuko da. Nolanahi dela, jatetxe, festa areto, kafetegi, taberna, hotel, egoitza, polikiroldegi eta kasino jardueretarako kuota finkoak kasu guztietan aplikatuko dira, hondakin unitate sortzaile bakar batean sarturik egon arren.

2. Iruñerriko Zerbitzuak, E.A.ko ikuskatzaileek alde aurretik konprobatutakoan, tarifak, kuotak, erabilpena eta ordaintzaileak aldatu ahal izanen dira, hauek errealitateari egokitu ez edota erabilpen edo balio katastralik atxekirik ez duten kasuetan, konprobaturiko erabilpen erreala faktura dadineko moduan. Higiezinaren erabilpen aldaketa egiaztatuko balitz, moldaketa atzerako ondorioz egin liteke, erabilpen aldaketa ziurtatzen den momentutik alegia.

3. Ezarpena dagokien higiezinaren kasuan, baldin eta bilketa tokitik 300 metro baino urrutiago egon edota iristeko edo maniobra egiteko zailtasunik badago, ikuskapen zerbitzuek txostena egin eta gero, aplikatuko den tarifa soilik kuotaren oinarriari dagokion tarifa aldakorra izanen da. (I. Eranskina)

4. Erregimen orokorreko gehieneko kuota (6.1 art. 1. lerroaldea) 1.825,22 izanen da.

## H) H.H.S.T.Z.KO Hondakinaren tratamendu zerbitzuaren erabilpena:

-Lur isurketa: 4,59 euro/Tm

-Neumatiko isurpena -xehekatuak barne-: 161,73 euro/Tm.

-Hildako animalien deuseztapena: kiloko 56,22 euro/Tm.

-Paper eta kartoi besterik ez duten hondakinaren tratamendua: 6,00 euro/Tm.

-Plastiko estalkiak besterik ez duten hondakinaren tratamendua: 6,00 euro/Tm.

-Aurrekoak ez diren hondakin onargarrien isurpena: 20,00 euro/Tm

-Paper, kartoi edo plastikoa daukaten hondakin nahasiaren isurpena 40,00 euro/Tm.

## I) Hildako animalien jasoketa, garraioa eta deuseztapena:

-Animaliak, banakako pisua edo osoa 50 kg baino gutxiago denean: 18,81 euro.

-Animaliak, banakako pisua edo osoa 50 kg eta 100 kg artekoa denean: 26,78 euro.

## II. ERANSKINA

Udalez udaleko koefiziente zuzentzailea, erabilpen kodeari (etxebizitza) aplikagarria

H E R R I A	KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA
Adios .....	1,88
Antsoain .....	1,18
Añorbe .....	2,87
Anue .....	1,91
Aranguren .....	0,94
Atez .....	2,15
Barañain .....	0,65
Basaburua .....	1,99
Belaskoain .....	2,06
Beriain .....	1,57
Berriobeiti .....	1,00
Berriozar .....	1,36
Bidaurreta .....	2,02
Biurrun-Olkotz .....	1,45
Burlata .....	0,76
Ziritza .....	1,35
Zizur .....	0,89
Etxarri .....	2,13
Egues .....	0,77
Elortz .....	1,62
Eneritz .....	1,96
Esteribar .....	1,43
Etxauri .....	1,75
Ezkabarte .....	0,89
Galar .....	1,07
Goñi .....	2,95
Girguillano .....	2,67
Uharte-Iruña .....	1,16
Imotz .....	1,90
Itza .....	1,25
Juslapeña .....	2,09
Lantz .....	2,59
Legarda .....	2,07
Muruzabal .....	2,30
Odieta .....	2,49
Olaibar .....	1,66
Oltza .....	0,95
Olo .....	2,32
Orkoien .....	0,86
Iruña .....	1,00
Tiebas-Muru Artederreta .....	1,62
Tirapu .....	3,08
Ukar .....	2,39
Ultzama .....	1,51
Uterga .....	2,00
Atarrabia .....	1,18
Zabalza .....	2,56
Zizur Nagusia .....	0,86

1 baino koefiziente zuzentzaile altuagorik ez da aplikatuko, baldin eta higiezinaren katastro balioa, 2003.eko urtealdirako, 53.993,77 euro baino altuagoa bada.

2003ko urtealdia bitartean baloratze-ponentzia berririk indarrean jarriko balitz, delako udalaren koefiziente zuzentzailea gutxitu beharko litzateke, katastro balioak gehitu izan litezkeeneko proportzioan.

Iruñean, bi mila eta biko abenduaren hemezortzian. Mankomunitateburua, Javier Iturbe Ecay.

A0213738

## IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

## Ur Hornidura eta Saneamendu Zerbitzuaren Finantzaketa Arautzeko Ordenantza 2003

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzarre Nagusiak, 2002ko abenduaren 18an egindako bilera, Ur hornidura, estolderia eta uraren ziklo integralari dagozkien beste zerbitzuak emateagatik 2003. urteko prezioak arautzeko Ordenantzaren behin betiko onepenen erabakia hartu zuen.

UR HORNIDURA, ESTOLDERIA ETA SANEAMENDUA, ARAZKETA  
ETA URAREN ZIKLO INTEGRALARI DAGOKION BESTE  
ZERBITZUAK EMATEAGATIKO PREZIOAK ARAUTZEKO  
ORDENANTZA

I. TITULUA

*Iruñerriko Zerbitzuak, E.A.ren diru-sariak, uraren ziklo integralari dagokionean*

I. KAPITULUA

*Aplikazio eremua*

1. artikulua. Ordenantza hau, Iruñerriko Mankomunitatea osatzen duten Udalen eremuetan izanen da aplikagarria, non arau-testu honek hartzen eta arautzen dituen zerbitzuak ematen diren, bai eta, halakotan, integraturik egon gabe ere, ur-hornidura edota ur-isurpenak egiten diren beste haietan ere.

Estatutuen 9. artikulua araberakoan, Mankomunitateak bere zerbitzuak udal eremuaren zati batean –Kontzeju batean edo zenbaitetan– ematen ditueneko kasuetan, honako Ordenantza zerbitzu-prestazioa egiten deneko Kontzejuen eremuetan soilik izanen da aplikagarria.

II. KAPITULUA

*Emandako zerbitzuak*

2. artikulua. Emandako zerbitzuak, ordenantza honetan arautzen diren zerbitzu eta jardueren gertatzezko edo ahalbidezko erabilpena egin edo egin ahal izatearen kariaz zehazten dira. Direlako zerbitzu eta jarduerak, dagozkien diru-sariak sorrarazten dituztenak, ondoan zerrendatzen diren hauek dira:

a) Edateko ur-horniduraren zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantenimendua.

b) Saneamendu eta estolderia sare lokalen eskuragarritasuna eta mantenimendua.

c) Edateko ur-horniduraren zerbitzuaren erabilpena. Ezarriko den diru-saria uraren erabilera edo zertarakoaren arabera aldakor gertatu ahal izango da, horniduran emandako urari erabilpen ezberdinak eman eta neurketa ekipo bakarra dagoenean tarifa konbinatuak ezarriko direlarik.

d) Edateko ur-hornidura edo/eta hondar-uren hustuketaren aldi baterako edo behin betiko kontratazioa egiteko beharrezko jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboaren prestazioa.

Ez da ordaintzekoa izanen erabilera aldaketagatiko kontratuen iza-pidaketa eta burutzapena, hala nola Uraren Ziklo Integrala arautzen duen Ordenantzaren 77. artikulua arauturikoarekin bat, beste kontrato baten subrogazioan, betiere dagokion bajaren ondorengo 30 eguneko epean egiten badira.

e) Edateko uren distribuzio sare edota hondar-ur hustuketa sareetara lotzeko eskubidea. Hornidura edota saneamendu zerbitzuak egitez eskura izatearen gertakariak zehazten da.

f) Horniketara ebentualak egiteko kontratuak.

g) Ikuskapen-lana, enpresaren langileek burututakoa, Uraren Ziklo Integrala arautzen duen Ordenantzaren ezarritako arauen betetze osoa egiaztatzeko bideratua, berorietan araturikoaren infrakzioa gertatzen den kasuetan.

3. artikulua. I.Z.E.A.-ko Administrazio Kontseiluak bidezko diru-sariak erabakiko ditu ur-loturen burutzapenak finantzatzeko, nola edateko uren distribuzio sareetarako, hala hondar-uren hustuketa sareetarako, bai eta prezintaketetan, eta kontadoreen egiaztapen, ezarpen eta ordezkapenetan ere, edo beste lanetan ere, horrelakoak aipatu Sozietateak burutzen dituen kasuetan.

III. KAPITULUA

*Ordaintzera behartuak*

4. artikulua. Ordaintzera beharturik daude:

a) Ordenantza honetako 2. artikulua a), b), c), d), eta f) ataletan zehazten diren zerbitzuen kasuan, dagokien hornidura-kontratuaren titularrak.

b) Ordenantza honetako 2. artikulua e) atalean zehazten diren zerbitzuak direnean:

b.1.) Etxebizitzetako ur-loturak: etxebizitzaren eragilea izanen da ordaintzera beharturik, halakotzat joko delarik eraikitzen edo eraikuntza kontratatzen duen eraikinaren jabea, nahiz salmenta, alokairu edo berak erabiltzeko xedea izan.

Nolanahi ere, eragileak eraikuntza-proiektua burutzea agin lezakeeneko eraikitzaileak delako tarifa ordaindu ahal izanen du, halakoetan, zenbatekoa eragilearengana bihur daitekeelarik.

b.2.) Bestelako ur-loturak: lanak, ureztatzea, etab. Ur-lotura eskatu duenak izanen du ordaindu beharra.

c) 2. artikulua g) atalean zehazten diren jardueren kasuan, arau-haustea eragin duten pertsona natural edo juridikoak.

Hornidura-kontraturik ez dagoen kasuetan, ordaintzera beharturik egonen dira ikuskapena dagokienerako lursail, eraikin, establezimendu, zentro, lokal eta bestelako higiezin jabeak, errentariak, edo edonolako erabiltzaileak, betiere zehaturiko gertakaria dela eta onuradun suertatu izan direnean.

IV. KAPITULUA

*Kuotaren oinarria*

5. artikulua. 2. artikuluan zerrendaturiko zerbitzuetako bakoitzari dagokion kuota kalkulatzeko oinarriak ondorengoak dira:

a) 2. artikulua a) atalean aipatutako zerbitzurako: kontagailuaren diametroaren arabeko kuota finkoa. Kuota honi neurketa gailu edo ekipoen alokairu kostua gehituko zaio, Mankomunitatearen edo I.Z.E.A.-ren jabetzakoak direnetan.

b) 2. artikulua b) atalean aipatutako zerbitzurako: hornidura kontadorearen diametroaren arabeko kuota finkoa. Kuota honi neurketa gailu edo ekipoen alokairu kostua gehituko zaio, Mankomunitatearen edo I.Z.E.A.-ren jabetzakoak direnetan.

c) 2. artikulua c) atalean aipatutako zerbitzurako: kontagailuak seinatzen duenaz, edo teknikoki onargarri diren beste prozeduraren bitartez zenbatutakoaz, kontsumitu diren ur metro kuboen kopurua.

d) 2. artikulua d) atalean aipatutako zerbitzurako: kuota finkoa.

e) 2. artikulua e) atalean aipatutako zerbitzurako: Ur-loturaren edo deribazioaren diametroaren arabeko kuota finkoa, edo diferentzia handiagotze kasuan. Kuota honi koefiziente zuzentzaileak aplikatuko zaizkio, eraskinean ezartzen diren erabilpen ezberdinen arabera.

f) 2. artikulua f) atalean aipatutako zerbitzurako: kontagailuak seinatzen duenaz, edo teknikoki onargarri diren beste prozeduraren bitartez zenbatutakoaz, kontsumitu diren ur metro kuboen kopurua.

g) 2. artikulua g) atalean ezarritako jardueretarako: egindako ikuskapenen kopurua.

V. KAPITULUA

*Tarifak*

6. artikulua. Kuota kalkulatzeko oinarriari aplikagarri zaizkien tarifak, eraskinean ageri direnak dira, zerbitzu bakoitzerako.

VI. KAPITULUA

*Kuotak*

7. artikulua. Zerbitzu bakoitzari egokituko zaion kuota, bere oinarriari dagokion tarifa aplikatzearen emaitza izanen da.

8. artikulua. Aterako den kuotari legeek une bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak aplikatuko zaizkio, haiek ezartzen dituzten era eta baldintzetan.

VII. KAPITULUA

*Sortzapena*

9. artikulua. 1. 2. artikulua a) eta b) ataletan ezartzen diren diru-sariak hil edo lauhil natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko dira, sareetara lotura eginik duten erabiltzaile guztiendako.

Zerbitzuari atxikitzen zaizkion erabiltzaileendako ere, diru-sariak -5. artikulua ezarritakoaren arabera, neurketa ekipoaren alokairua barne izanen dutelarik, hala denetan-, atxikipena egiten den egunean sortuko dira, nolaz eta, ordaintzera behartutakoak, hil horri geratzen zaizkion egunen proportzio-zatia eta lauhil horretako ondorengo hilei dagokienera ordain dezan.

2. 2. artikulua c) eta f) ataletan ezartzen diren diru-sariak ur erabilpena egiten deneko momentuan bertan sortuko dira.

3. 2. artikulua d) atalean ezartzen diren diru-sariak edateko ur-hornidura edota hondar-uren hustuketa-kontratua egiten denean sortuko dira.

4. 2. artikulua e) atalean ezartzen diren diru-sariak sortuko dira:

a) Eraikinetako ur-loturretan, eraikuntza lanerako lotura eskatzen den unean edo eraiketa lanetarako ur-hornidura kontratua gauzatzen den momentuan, nahiz eta ur-loturak lehenago eginak izan daitezkeen, poligono baten urbanizatzeko aldirian.

b) Bestelako ur-loturretan, delako lotura baimendua izan orduko.

5. 2. artikulua g) atalean ezartzen diren diru-sariak, ordenantzen infrakzioa gertatu izan den kasuetan, enpresak baimendutako langileek ikuskapen edo egiaztapen bisitaldia egiten duten momentuan sortuko dira.

## VIII. KAPITULUA

*Ordainarazpena*

10. artikulua. Ordenantza honen bidez erregulatzen diren diru-sariak ondoko arauari jarraituz ordainaraziko dira:

1. 2. artikulua a), b), c) eta f) ataletan aurreikusten diren diru-sariak honela ordainaraziko dira:

a) 25 mm baino diametro txikiagoko kontsumoen kontrolerako kontadoreak jarriak dituzten erabiltzaileen kasuan, lauhilean behingo alditan.

b) 25 mmko diametro edo 25 mm baino diametro handiagoko kontsumoen kontrolerako kontadoreak jarriak dituzten erabiltzaileen kasuan, hileko alditan, honek sortzapean data aldaraziko ez duelarik, 9. artikuluan ezartzen dena izanen baita.

2. 2. artikulua d) eta e) ataletan aurreikusitako diru-sariak sortzapean egiten den momentuan ordainaraziko dira.

3. 2. artikulua g) ataletan aurreikusitako diru-sariak subjeto pasiboari jakinarazten zaion momentuan ordainaraziko dira.

## IX. KAPITULUA

*Diru-bilketa*

11. artikulua. 1. Ordenantza honetan zehazten diren zerbitzuak ematek sortzen diren zorrak "jakinarazpen gabeko" kontsideratuak izanen dira, 2. g) artikuluan aipatzen diren jardueratik sortzen direnak izan ezik.

2. 2. artikulua a), b), c) eta f) ataletan aurreikusten diren diru-sariek sortzen dituzten zorrak, behin eta 10. artikulua aurreikusita koaren arabera ordainaraziak, sortzapean izan eta ondorengo hilabete epean ordaindu beharko dira.

3. 2. artikulua d) ataletan aurreikusten diren diru-sariak beren sortzapean bertan ordaindu beharko dira, baldin eta 12.a) artikuluan aurreikusten den ordaintzeko era eskatu ez bada, halakotan 30 laneguneko epean ordaindu beharko baitira.

4. 2. artikulua e) ataletan aurreikusten diren diru-sariak, Uraren Ziklo Integrala arautzen duen Ordenantzaren arabera behin ur-lotura egiteko eskubidea ezagutua izan eta gero, sortzapean egiten den ordaindu beharko dira. 9.4 artikulua b) lerroaldean zehazten den kasuan, obrarako hornidura-kontratua eratzen den momentuan ordaindu beharko dira.

5. 2. artikulua g) ataletan aurreikusten diren diru-sariak, ordaintzaileari jakinarazten zaion egunetik aitzina kontaturik, hilabete epean ordaindu beharko dira.

6. Ezarritako epean ordainduak ez diren diru-sariei dagozkien zenbatekoak legezko interes-tasa aplikatuzetik sortzen den kopuruan gehituak izanen dira.

Korrituei dagozkien zenbatekoaren sortzapean borondatezko ordaintza epea amaitzen den egunean gertatuko da, eta borondatezko ordaintza epea amaitzen den hilabetearen ondokoaren azken egunetik aitzina ordainaraziko dira.

Berandutze-korrituak ez zaizkie aplikatuko beren jarduerak lege-ordenamendu pribatura egokitu behar dituzten Administrazio Publiko, Erakunde Autonomo eta zuzenbide publikoko entitateen zorrorei.

12. artikulua. 1. Zorren ordaintza ondoko eran bete ahal izanen da:

a) Zorren ordaintza helbideratu duten ordaintzaileendako, beraiek seinalatutako Banku edo Aurrezki Entitatean eta kontuko zordunketa bidez.

b) Zorren ordaintza helbideratu ez duten ordaintzaileendako, edota helbideratua izan arren edozein arazoirengatik zorrak bete gabe gera litezkeen kasuetan, Iruñerriko Zerbitzuak-en Kutxa Bulegoetan.

2. Nahiz eta 9.1 artikuluan ezarritakoa hala izan, kontratuaren deuseztatzeak sortzapean eskubideak ezabatuko ditu, eta, hala, iraungipen dataz ondorengo egunei dagozkien ordainarazitako eta ordaindutako diruak ordaintzaileari itzuli beharko zaizkio.

## II. TITULUA

*Saneamendu kanonari buruz*

13. artikulua. Saneamendu kanona 10/1988 Nafarroako hondar-uren saneamenduari buruzko Foru Legean, abenduaren 29koa, eta apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuaren bitartez onartutako Araudi garatzailean araturik dago.

14. artikulua. Kanonaren zenbatekoa, zein 10/1988 Foru Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorrari jarraiki ezartzen den, aurrekontu-urtealdi bakoitzerako dagoekin Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legean finkaturik geratzen da.

## AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA

*Tarifak*

1. 2.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzuak

1.1. Kuota finkoak –hornidura–: ezarritako kontadorearen diametroaren arabera

KONTAGAILURAREN DIAMETROA	LAUHILABETEKO KUOTA (Euroak)
13 mm. artekoa .....	6,03
15 mm.koa .....	7,21
20 mm.koa .....	17,08

KONTAGAILUAREN DIAMETROA	HIRUHILABETEKO KUOTA (Euroak)
25 mm.koa .....	15,57
30 mm.koa .....	22,23
40 mm.koa .....	33,23
50 mm.koa .....	66,72
65 mm.koa .....	88,94
80 mm.koa .....	166,96
100 mm.koa .....	233,72
125 mm.koa .....	367,28
150 mm.koa .....	901,51
200 mm.koa .....	1.067,32
250 mm.koa .....	1.667,69

1.2. Kontagailu alokairuaren kuotak

Aplikatuko den tarifa kontagailuaren batez besteko diru-sariaren (E.A.O. 230 zk. 84-9-25koa) % 1,25 izanen da hilabete epean. Konponketa eta kontserbazio gastuak barnean sartzen dira.

1.3. Sutetarako iturri mutuengatik kuotak

Kuota finkoak, loturaren edo deribazioaren diametroaren arabera:

UR-LOTURAREN DIAMETROA	HIRUHILABETEKO KUOTA (Euroak)
30 mm.koa .....	8,28
40 mm.koa .....	15,92
50 mm.koa .....	24,85
65 mm.koa .....	33,13
80 mm.koa .....	62,19
100 mm.koa .....	87,07
125 mm.koa .....	136,83
150 mm.koa .....	335,87
200 mm.koa .....	397,62
250 mm.koa .....	621,30

Kontagailua ezarriko dagoen kasuetan, ordaindu beharreko tasa atal honetan finkatzen dena izanen da, hala nola 13 mm-tako kontagailuari dagozkiona (eranskin honetako 1 eta 2. ataletan ezarritako tasen arabera).

2. 2.b) artikuluan aurreikusitako zerbitzuak

2.1. Kuota finkoak –estolderia, saneamendua–

Ezarritako hornidura-kontagailuaren diametroaren arabera

KONTAGAILUAREN DIAMETROA	HIRUHILABETEKO KUOTA (Euroak)
13 mm. artekoa .....	6,03
15 mm.koa .....	7,21
20 mm.koa .....	17,08
25 mm.koa .....	15,57
30 mm.koa .....	22,23
40 mm.koa .....	33,23
50 mm.koa .....	66,72
65 mm.koa .....	88,94
80 mm.koa .....	166,96
100 mm.koa .....	233,72
125 mm.koa .....	367,28
150 mm.koa .....	901,51
200 mm.koa .....	1.067,32
250 mm.koa .....	1.667,69

3. 2.c) artikuluan aurreikusitako zerbitzua - Kontsumoa

Kuota Aldakorra: kontsumitutako m<sup>3</sup>ko prezioa

Tarifa 1.–Etxebizitzako erabilpena eta erabilpen eratzekiak. Barnean sartzen dira Zentru Ongileak eta ofizialki errekonozituriko eskolaurre, LH, DBH eta unibertsitate mailako Irakaskuntza Zentruak eta Administrazio Publikoak: 0,2141 euro.

Tarifa 2.–Industriako eta merkataritzako erabilpenak. Tarifa honek industria, hala nola merkataritza, bulegoak eta zerbitzuek hartzen ditu barnean. Sartzen dira, halaber, erabilera kolektiboko kirol instalakuntzetako erabilpenak, ureztapena izan ezik: 0,3254 euro.

Tarifa 3.–Finka partikularreko ureztapen eta atsedean erabilpena: 0,5563 euro.

Tarifa 4.–Erabilpen konbinatuaren tarifa.

4.1. Etxekoa-Merkataritza-Ureztapena

14 m<sup>3</sup> arte, hilabetean: 0,2141 euro.

14 - 25 m<sup>3</sup> arte, hilabetean: 0,3254 euro.

Gainerako kontsumoa: 0,5563 euro.

4.2. Etxekoa-Merkataritza

14 m<sup>3</sup> arte, hilabetean: 0,2141 euro.

Gainerako kontsumoa: 0,3254 euro.

4.3. Etxekoa-Ureztapena

14 m<sup>3</sup> arte, hilabetean: 0,2141 euro.

Gainerako kontsumoa: 0,5563 euro.

4.4. Merkataritza-Ureztapena

12 m<sup>3</sup> arte, hilabetean: 0,3254 euro.

Gainerako kontsumoa: 0,5563 euro.

Tarifa 5.1.–Iruñerriko Udal Zerbitzuak: 0,2141 euro.

Tarifa 5.2.–Udaleko ureztapen erabilpena eta erabilera publikoko jabego pribatua: 0,2342 euro.

Tarifa 6.–Mankomunatu gabeko udal –entitateei eman ur-hornidura zisterna bidezko hornidura barne–: 0,258 euro.

Tarifa 7.–Obretarako hornidura: 0,5648 euro.

Tarifa 8.–Izkutuko ur-ihesak gertaturiko kontsumoak: 0,2141 euro.

Tarifa hau aplikatzea ondorengo zirkunstantzia guztiak gertatzen direla egin ahal izanen da, izan ere egokiro egiaztaturik direnean:

1.–Izkutuko ur-ihesa izan beharko du, subjektu pasiboak alde aurretik tutuerian edo neurgailuetan matxuraren berririk ez duelako moduan.

2.–Egiaztatu beharko da ez dela inolako utzikeria egon, ihesa gertatzeke unean, halakotan, ez eta gertatutako unearen ondoren ere.

3.–Ur-ihesa eragin zuen hautsi edo matxuratutako instalakuntzaren konponketa hura bazela jakin eta ondorengo 7 eguneko gehienezko epean egina beharko du.

4. 2.d) artikuluan aurreikusitako zerbitzuak. Kontratazioa: 100,63 euro.

5. 2.e) artikuluan aurreikusitako zerbitzuak. Ur-lotura eskubidea

5.1. Hornidura eta saneamendu sareetara ur-hartze lotura egiteko eskubideak: loturaren diametroaren arabeko tarifa estandarra, zeinari seinaltzen diren koefiziente zuzentzaileak aplikatuko baitzaizkie:

LOTURAREN DIAMETROA	OINARRIAK (Euroak)
(1") 25 mm. arte .....	529,10
(1'1/4) 30 mm. ....	1.001,21
(1'1/2) 40 mm. ....	2.003,49
(2") 50 mm. ....	3.075,14
65 mm. ....	4.096,44
80 mm. ....	5.118,27
100 mm. ....	7.170,85
125 mm. ....	13.456,12
150 mm. ....	27.412,13
200 mm. ....	49.150,34
250 mm. ....	76.795,49

ERABILERA	KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA
-----------	--------------------------

Etxebizitza libreak (*) .....	0,45
B.O.E. eta birregokitutakoak (*) .....	0,3
Tasaturiko etxebizitza libreak (*) .....	0,35
Etxekoa/100 m <sup>2</sup> tik gorako lurzatirean ureztapena .....	0,8
Industria, merkataritza .....	1
Zerbitzu edo erabilpen publikoari atxikiriko jabego publikoko ondasunak .....	0,2
Ureztapen publikoa edo pribatua erabilpen publikorako ..	0,2
Ureztapen pribatua .....	2
Aldibaterako erabilpena (behinekoa) –gehienez bi urteko eperako .....	0,2

\* Ateratzen den zenbatekoa % 40 igoko da ur-lotura bulego edo etxazpiak dituen etxebizitzarako den kasuetan.

5.2. Suteen aurkako jarduneko kontsumorako ur-lotura egiteko eskubideak: loturaren diametroaren arabeko tarifa estandarrik:

UR-LOTURAREN DIAMETROA	ZENBATEKOA (Euroak)
80 mm. arte .....	290,60
100 mm. ....	527,73
125 mm. ....	828,09
150 mm. ....	2.033,39

\* Ur-lotura eraikin baten barneko saretik egiten bada tarifa zenbateko txikiena izanen da (80 mm artekoa).

5.3. Bi edo erabilpen gehiagorako deribazioak dituen halako diametroko lotura egiten den kasuetan, deribazio bakoitza lotura ezberdina bailitzan tramitatuko da, bakoitzari erabilerearen kariaz dagokion koefizientea aplikatuz. Hala ere, eskatzaileak bakarrik lotura nagusia tramitatu dadin bere nahia adierazi ahal du, deribazioak alde batera utziz, eta halakotan 1 koefizientea aplikatuko delarik.

5.4. Erregistroaren giltza diametro txikiagokoa bada, tarifa delako diametroaren gainean ezarriko da.

5.5. Uraren Ziklo Integrala arautzen duen Ordenantzarekin bat, soilik hornidura sarera ur-hartze lotura egiteko eskubidea, edo soilik saneamendu sarera lotura egiteko eskubidea eskatzen deneko salbuespen kasuetan, ondoko arauak ezartzen dira:

a) Hornidura sarera ur-hartze lotura egiteko eskubideak: tarifaren zenbatekoa globalaren %50ari dagokiona izanen da. Kasu honetarako hartzen dira ureztapenerako lotura-eskariak.

b) Saneamendu sarera lotura batua (hondar-ur eta euri-urak aldi berean) egiteko eskubideak: loturaren diametroaren arabeko tarifa estandarrik:

UR-LOTURAREN DIAMETROA	OINARRIAK (Euroak)
160 mm.koa .....	269,85
200 mm.koa .....	751,46
250 mm.koa .....	1194,35
315 mm.koa .....	1.852,09
400 mm.koa .....	3.005,85
500 mm.koa .....	4.695,44

Oinarri 5.1 atalean ezarritako koefiziente zuzentzaileak aplikatuko zaizkie.

c) Hondar-ur edo euri-uretako lotura egiteko eskubideak: tarifaren zenbatekoa b) atalean aurrikusten denaren %50ari dagokiona izanen da.

6. 2.g) artikuluan aurreikusitako jarduerak

Egindako ikuskapen bakoitzarengatik: 46,67 euro.

7. Lanbidearteko gutxieneko soldata edo zenbateko txikiagoko pensioa jasotzen dutenendako kuota berezia:

Ordenantza honetan arautzen den edozein diru-sariri dagokion kuota osoa, era orokorrean aplikagarria den kuotaren % 10 aplikatuzetik sortzen den kantitatea bezainbestekoa izanen da, ordaintzailea gizarte segurantzako edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren prestazio baten onuraduna denean, zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldata gaintzen ez duela, ezkontide edo gisa bereko bizikidea duenean 1,2 aldiz delako Gutxieneko Soldata, bion diru sarrerak baturik gaintzen ez duela. Ezkontidea ez den beste ezekin famili-zamari izanez gero (adin txikiko seme-alabarik, 23 urte arteko eta adin horretako seme-alabarik ikasketa egiten ari edo legezko langabetu egoeran, edo seme-alaba ezindurik eta diru sarrerarik gabeak), aipatu diru-muga horiei menpeko lagun bakoitzarengatik delako Gutxieneko Soldataren 0,2 gehituko zaie.

Ezin izanen dute tarifa honetaz baliatu, aurreko baldintza bete izanik ere, urteko kopurua L.G.S. baino handiagoa batzen duten beste diru sarrera gehigarriak jasotzen dituztenek, eskatzailearen eskutik zein etxebizitza berean bizi direnen eskutik. Halaber, eskatzailearen edo bizikideen ondare higigarri zein higiezina ez da hiru milioi pezeta baino handiagoa, ohiko etxebizitzaren balioa kenduta.

Aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzaileek ondo-koak ekarri beharko dituzte:

- 1.-Eskabidea
- 2.-Jasotako prestazioaren egiaztagiria
- 3.-Errenta edo Ondare Aitorpena, edo horrelakorik egin behar ez izateko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren agiria, hala nola eskatzailearen edo bizikideen diru sarrerak egiaztatzen dituzten beste agiriak.
- 4.-Udal Erroldatik eratorritako Elkarbizitze Egiaztagiria.

Edonola ere, tarifa honen erabiliztailea ur-hornidura eta saneamendu kontratuko titularrak edo bere ezkontidea izanen da.

Iruñerriko Zerbitzuak, E.A.-k, edozein unetan, tarifa hau emateko eskatzen diren betebeharrak mantentzen direlako egiaztapena egin ahal izanen du, baldintzok betetzeari utzi edo egiaztapenean eskaturiko agiriak ekartzen ez dituzten onuradun guztiei tarifa osoa aplikatuko dielarik.

8. Irabazteko asmorik gabeko jardueran, hirugarren munduaren-tzako laguntzak biltzen diren gobernuz kanpoko erakundeendako kuota berezia:

Ordenantza honetan arautzen diren prezioetarik edozeini dagokion kuota osoa, era orokorrean aplikagarri den kuotari % 10 aplikatuz atertzatzen dena bezainbestekoa izanen da, ordaindu behar duena gobernuz kanpoko erakundea denean, eta zerbitzua zuzenki egintza publikorakoa denean, irabazteko asmorik gabea, eta horren xedea bere asmoetarako laguntzak biltzea denean.

Iruñean, bi mila eta bigarren urteko abenduaren hemeretziari. Man-komunitateburua, Javier Iturbe Ecay.

A0213739

## T U T E R A

**Josteta jarduerak, motoek, ziklomotoerek eta gisakoek ateratzen dituzten asots eta dardarien kontrako hiriko ingurumenaren udal ordenantzaren behin betiko onspena**

Tuterako Udalak, 2002ko otsailaren 28an eginiko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen josteta jarduerak, motoek, ziklomotoerek eta gisakoek ateratzen dituzten asots eta dardarien kontrako hiriko ingurumenaren udal ordenantza.

Aipatu ordenantzaren hasierako onspenari eta hura ikusgai jarzeari buruzko iragarkia 2002ko apirilaren 17ko 47. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarki oholean eman zen argitara. Jendaurreko erakusketarako epea iragan denez inolako erreklamazio, erreparazio nahiz oharpenik aurkeztu gabe, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 21eko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu ordenantza behin betiko onetsita geratu da eta haren testu osoa argitaratu behar da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tuterako Udalaren Osoko Bilkurak 2002ko otsailaren 28an erabaki zuen bezala.

Tuteran, bi mila eta biko azaroaren hogeian. Alkatea, Luis Campoy Zuco.

### JOSTETA JARDUERAK, MOTOEK, ZIKLOMOTOREEK ETA GISAKOEK ATERTZEN DITUZTEN ASOTS ETA DARDARIEN KONTRAKO HIRIKO INGURUMENAREN UDAL ORDENANTZA

#### I. KAPITUA

##### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua.  
1.1. Ordenantza honen helburua da udal jarduera araupetzea Tuterako udalerrian, josteta jarduerak, motoek, ziklomotoerek eta gisakoek ateratzen dituzten asots eta dardariak egiten dituzten erasoak direla-eta ingurumena babestearen arloan.

1.2. Ordenantza honen xedeetarako, asots eta dardariak energia moduengatik atmosfera kutsatzen duten elementuen artean daudela ulertuko da.

2. artikulua. Udalaren eskumenak.

2.1. Ondokoek arautu dituzte eskumen horiek: martxoaren 13ko 2&1989 Foru Legea, abenduaren 10eko 26/2001 Foru Legeak aldatu zuen hura eta Asots edo dardariak sortzen dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezarri zituen 135/1989 Foru Dekretua, ekainaren 8koa; izan ere Dekretu horretako 2. artikuluko 2 eta 3. idatz-

zatieta xedatu zuen 10.000 biztanle baino gehiagoko udalek, dauzkaten beharren arabera, asots eta dardariei buruzko udal ordenantzak tramitatuko dituztela, hain zuzen ere foru dekretuan ematen diren irizpide eta mailen arabera. Ordenantza horietan, foru dekretuak jaso ez zituen alderdi batzuk, kasuan kasuko lekuaren arabekoak, araupetzen ahalgo ziren.

2.2. Udalari dagokio ordenantza hau betetzearen gaineko kontrola egitea, behar diren aurreneurriak eta neurri zuzentzaileak edo/eta konpontzaileak hartzea, mugak ezartzea, behar diren ikuskapen guztiak bideratzea eta agindutakoa bete ezean kasuan kasu behar diren zehapenak aplikatzea.

3. artikulua. Arau-eremua.

3.1. Ordenantza hau ezinbestez bete beharko da funtzionatzen, lanean edo erabiltzen ari diren josteta jarduera guztietan, baldin eta asots edo/eta dardariak sortzen badituzte.

3.2. Ordenantza honen betetzea eskatuko da eta aplikatu eginen da era honetako jardueretarako tramitatzen diren udal lizentzia eta baimenatarako espediente guztietan, Tuterako Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorreko erabilera-arauen arabera; halaber, ordenantza honek indarra hartzen duenetik aurrera proiektatzen diren zabalpen edo/eta berrikuntza lan guztietan aplikatu beharko da, eta bereziki, In-gurugiroa babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta jarduera horiek kontrolatzeko erregelamendua onetsi zuen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuan eta haiekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

3.3. Halaber, ordenantza honetan ezarritako menpe geratuko dira eraikuntza osatzen diren eraikuntza-elementu guztiak, haien inguruan sortzen diren asots eta dardarien transmisioa errazten edo zailtzen duten neurrian.

3.4. Halaber, asots iturri gogaikarritzat joko dira lokalean egon eta baimendutako mugak gainditzen dituzten soinu-presioko mailak sortzen dituzten aparatu guztiak.

3.5. Ordenantza indarrean sartzen denetik aurrera baimentzen diren jarduera, instalazio eta obretarako nahitaez eta zuzenean bete beharrekoak dira bertan ezarritako agindu guztiak.

3.6. Ordenantza honek indarra hartu aurretik baimendutako jarduera, instalazio eta obretan ezarritako arauen egokitzea xedapen iragankorretan ezarritakoaren arabera egin beharko da.

#### II. KAPITULUA

##### Definizioak

4. artikulua. Soinu-presioko eta isolamenduko mailak neurtzeko parametroak.

4.1. Minutu bati dagokion soinu-maila ( $L_{eq}$  1 min.).

Soinu egonkor batek minutu batez eta leku jakin batean sortzen duen presioaren maila da; A ponderazioarekin, neurketaren xede den denboraren arabera aldatzen den soinuaren soinu-energia bera dauka.

4.2. Barneko gehieneko soinu-maila ( $L_{max}$ ).

Gehieneko soinu-presioaren maila da, dBA-tan neurtua "fast" (azkar) posizioan jarritako sonometro batekin; sonometroa inpulsiio-soinuak eta musika-ekipoen emisioak neurtzeko erabiltzen da.

4.3. Aire isolamendu akustiko gordina (D).

Asotsa sortzen duen jardueraren barneko soinu-mailen arteko diferentzia da, soinu arrosa eta ukitutako esparru, lokal edo etxebizitzakoa erabiliz; dBA-tan neurtzen da. Balore hau baliagarria izateko, fondoko asotsak ukitutako esparru, lokal edo etxebizitzako barneko soinu baina 9 dBA txikiagoa izan beharko du. Diferentzia hori lortzerik ez badago, 2. taulan adierazitako zuzenketa aplikatuko da; ez dira baliozkoak izanen barneko soinu-mailen eta fondoko asots-mailen arteko 3 dBA baino gutxiagoko diferentziak.

5. artikulua. Soinu-mailak.

5.1. Kanpoko soinu maila (K.S.M.).

dBA-tan neurtutako soinu-maila da -Leq (1 min.) parametroa erabiliz neurtua, hain zuzen-, jarduera batetik (iturria) datorrena eta ondoko guneetan neurtua:

a) Asotsa sortzen duen jardueraren jabetzaren mugan, muga horretatik bi metrora neurtua, lurretik 1,2 metrotara.

b) Ukitutako jabetzaren mugan (lorategia, terraza, patioa edo antzekoa), muga horretatik bi metrora neurtua, lurretik 1,2 metrotara.

c) Ukitutako eraikinaren kanpoko aldean, kasuaren arabera muga horretatik 0,5-1 metrora neurtua, lurretik 1,2 metrotara.

5.2. Barneko soinu-maila (B.S.N.).

dBA-tan neurtutako soinu-maila da -Leq (1 min.) parametroa erabiliz neurtua, hain zuzen-, jarduera batetik (iturria) datorrena eta eraikin hartzailearen barruan neurturik, hormetatik metro bateko altuerarik behetik neurtuta eta zorutik 1,2 eta 1,5 metro bitarteko altueran neurturik. Neurketa atekak eta leihoak itxita eginen da.

5.3. Fondoko asotsaren soinu-maila (F.A.S.M.).  
dBA-tan neurtutako soinu-maila da -Leq (1 min.) parametroa erabiliz neurtua, hain zuzen-, ikuskapenaren xede den asotsik ez dagoenean.

5.4. Areto igorlean sortutako maila ( $L_1$ ).

D isolamendu gordina neurtzeko frogetan dBA-tan neurturiko soinu-presioaren maila da, asots arrosa erabiliz.

5.5. Areto hartzailean jasotako maila ( $L_2$ ).

dBA-tan neurturiko soinu-presioa, D isolamendu gordina neurtzeko frogetan, areto hartzailean, asots arrosa erabiliz.

5.6. Dardariak. Hartzeko gehieneko maila onargarria.

LA-tan adierazitako balorea, ondoko erlazioaren arabera definitua:

$LA = 20 \cdot \log A/A_0$ . Hona azalpena:

A = azelerazioaren balore eraginkorra, zortziko bakoitzeko heren batean neurtua  $m/s^2$ -tan.

$A_0$  = erreferentziako balorea  $m/s^2$ -tan, zortziko herenetako frekuentzia zentral ezberdinetan, Hz bat eta 80 Hz bitartean.

$A_0 = 2 \cdot 10E - 5 \cdot fE - 1/2$ , ( $1 < f < 4$ )rako.

$A_0 = 10E - 5$ , ( $4 < f < 8$ )rako.

$A_0 = 0.125 \cdot 10E - 5 \cdot f$ , ( $8 < f < 80$ )rako.

LA 55, LA 60, LA 65 eta LA 70 parametroen baloreak era grafikoa adierazten dira ekainaren 8ko 135/89 Foru Dekretuko eranskinean, hain zuzen ere ordenantza honetako V. eranskineko 1. irudian.

6. artikulua. Ordutegiak.

Ordenantza honen ondorioetarako, egunak bi aldi ditu: eguneko ordutegia eta gaueko ordutegia.

Horietako lehenbizikoak 8:00etatik 22:00etara bitarteko aldia hartzen du; bigarrenak, ordea, 22:00etatik 8:00etara bitarteko aldia hartzen du.

Igorritako edo transmititutako asots eta dardariak egunekoak nahiz gauekoak izanzen dira, zein alditan gertatzen diren.

7. artikulua. Beste definizio batzuk.

7.1. Soinu puruak (S.P.).

Soinu puruak -hau da, tonalitate markatua dutenak- daudela esanzen dugu soinu puruak daukan zortziko bandaren soinu-maila baliokideak 5 dBA-tan baino gutxiago gaintzen dituenean aldamenetako zortziko bandetako soinu-mailak.

7.2. Inpultsio-soinuak (I.S.).

Denboran zehar oso azkar hazten diren soinuak.

Ordenantza honetan zehazturiko definizioez gainera, "Eraikinetako Baldintza Akustikoak" NBE-CA-88 Eraikinei buruzko Oinarrizko Arauan ezarritako definizio akustikoak, oharpenak eta unitateak eta haren ondoren ezar daitezkeen gainerako aldaketak erabiliko ditugu.

### III. KAPITULUA

#### Neurtzeko unitate eta parametroak

8. artikulua. Neurketak.

8.1. Asotsak.

8.1.1. Neurtzeko unitatea.

Soinu presioaren maila dezibeliotan neurtu eta adieraziko da; dezibelio horiek ponderazio kurba normalizatuaren arabera zuzenduko dira, (A), dB(A) motako erreferentzia erabiliz.

Gune jakin batean dagoen soinu-mailaren parametro adierazgarritzat erabiliko da gune horretan dBA-tan neurturiko soinu baliokidea (Leq), betiere ordenantza honetan ezarritakoaren arabera zuzenduta.

8.1.2. Bitartekoak.

a) Zehaztasuna. Isolamendu akustikoa eta dardarien maila neurtzeko erabiltzen diren sonometroaren zehaztasun maila UNE 20464, 1. mota eta CEI-651-79, 1. mota arauan ezarritakoa izanzen da.

b) Egiaztatzea. Neurketa akustiko baten hasieran eta bukaeran, sonometroaren egiaztatzea eginen da, horretarako egokia den soinu kalibragailu bat erabiliz. Hori neurketari buruzko txostenean jasoko da, eta haren serie zenbakia, modeloa eta marka ere jasoko dira.

8.1.3. Prozesua.

a) Estazioan jartzea. Neurketa-ekipoaren estazioan jartzea ordenantza honetako II. eranskineko I.1 atalean ezarritako baldintzen arabera eginen da.

b) Neurketa akustikoaren ezaugarriak. Neurketa akustikoaren ezaugarriak ordenantza honetako II. eranskineko I.2 atalean ezarritako baldintzak beteko ditu, denboran zehar asotsak daukan aldaketen arabera.

c) Fondoko asotsa. Fondoko asotsa ordenantza honetako II. eranskineko I.3 atalean ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

8.2. Dardariak.

8.2.1. Dardarien maila.

a) Dardarien maila nola zehaztu. Dardarien maila ISO-2631-2 arauko 4.2.3. atalean ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

b) Magnitude zehatzailea. Dardariak zehazteko magnitudea haren azelerazioa izanzen da, ardatz baten gainean neurtua, hiru ardatzen gainean konbinaturiko ponderazioa aplikatuaz zuzendu ondoren ( $m/seg^2$ ).

Eraikinetan dagoen dardarien mailaren parametro adierazgarri gisa azelerazio bertikalaren balorea,  $m^2$ -tan, erabiliko da, Hz 1 eta 80 Hz bitarteko zortziko herenetan neurtua.

Azelerazio bertikalaren balore eraginkorarekin zuzenean lotuta dago. Halaber, LA parametro logaritmikoa dardarien mailaren adierazle gisa erabiliko da, ondoko erlazioaren arabera definiturik:

$LA = 20 \cdot \log A/A_0$ , 5.6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.2.2. Neurketa.

a) Estazioan jartzea. Neurketa-ekipoaren, azelerometroaren, estazioan jartzea ordenantza honetako II. eranskineko I.1 atalean ezarritako baldintzen arabera eginen da, neurtu beharreko asotsa gertatzen deneko ingurumen ezaugarrien arabera.

b) Intentsitate. Dardariaren intentsitatea zenbatzeko ondokoetan ezarritako prozeduretako edozein erabili beharko da:

b1) Neurtu nahi den dardariari dagokion kurbaren zuzeneko irakurketa zehaztea.

b2) Kontuan hartu beharreko dardariaren espektroa neurtzea, dardari hori zortziko hereneko bandetan harturik (Hz 1 eta 80 Hz bitarte), eta gero espektro horrek barne hartzen duen gutxieneko oinarritzko kurba zehaztea. Horretarako, ordenantza honetako V. eranskineko 1. irudiko diagrama erabiliko da.

Sistema batez nahiz besteaz loturiko emaitzak ezberdinak badira, balorerik altuena hartuko da aintzat.

c) Txostena.

Neurketari buruzko txostenean, gainera, ondoko datuak jaso beharko dira:

c.1) Azelerometroaren kokapenari buruzko krokis akotatua.

c.2) Sakoneko dardaria, behin sakoneko dardariak sortzen dituen iturria gelditu ondoren, hau da, pausagunean.

8.3. Isolamendua.

8.3.1. Neurketa.

Eraikinen barruti eremu ezberdinak osatzen dituzten zatiketa eta konponbide ezberdinetan eskatzen den isolamendu akustikoa neurtzeko, UNE 74-040 (IV) arauan edo haren ordeztu edo hura aldatzeko ematen den arau berria ezarritako baldintzak jarraitu beharko dira. Orientabide gisa, II. eranskineko 1. atalean ezarritako zehaztapenei jarraitzen ahalko zaie.

### IV. KAPITULUA

#### Asots maila eta dardari onargarriak

9. artikulua. Asots maila onargarriak.

9.1. Soinu iturri batek ezin izanzen ditu transmititu ordenantza honetako V. eranskineko I., III. eta IV. tauletan seinaturalurikoak baino asots-maila handiagoak.

9.2. Debeku hau ordenantza honetan jasotako eremuan ulertu behar da, alde batera utzita ibilgailuen, motoen, ziklomotoeen eta gisakoen trafikotik datozen asotsak; haiei buruzko arau berriazkoak ordenantza honetako VI. kapituluari jaso ditugu, hain zuzen ere "moto, ziklomotore eta gisakoei buruzko arauak" izenekoan.

9.3. Proiekzio ofizial, kultural, merkataritzazko, jostetazko edo bestelako berezia daukaten ekitaldiak antolatzeko edo herritarren arteko adostasun tradizionalerik, Udalak behar diren neurriak hartzen ahalko ditu, aparteko izaeraz eta aldi baterako, egun jakin eta hiriguneko leku jakin batzuetan, artikulua honetako lehen idatz-zatian aipatzen diren mailak aldatzeko.

9.4. Ezarritako mugak gorabehera, diskoteka edo/eta dantza aretoen barruan ezin izanzen dira 90 dBA-ko soinu-maila gehienekoak gaintu bezereok erabiltzeko den inongo lekutan, salbu eta aipatu lekurako sarbidean edo sarbideetan ondoko oharra jartzen denean: "Baruko soinu-mailek lesio iraunkorrak sor ditzakete entzumenean".

Kasu honetan, baimendutako soinuak ezin izanzen du 95 dBA-ko maila gaintu.

Aipaturiko oharrak ongi ikusgarria izan behar du, tamainarengatik eta argiztapenarengatik ere.

10. artikulua. Dardarien maila onargarriak.

Ez da baimenik emanen ordenantza honetako V. eranskineko 2. taulan seinaturaluriko dardarien maila (LA-tan neurturik) gaintzen duten jarduera, makina edo instalazioek funtzionatzeko.

11. artikulua. Debekaturiko dardariak.

11.1. Ez da baimenik emanen neurgailurik gabe egiaztapena egiten den lekuetan antzeman daitekeen inongo dardaririk. Hori zuzentzeko, bankada independenteak ezarriko dira eraikineko egituren eta lokaleko zoruari, bai eta zorro malguak, muntaketa flotatzaileak eta abar, edo/eta dardariak sor ditzaketan elementu guztietarako dardarien aurkako gailuak.

11.2. Inongo aparatu mekanikok ezin izanen dizkie barruti hartzailearen konpartimentazioa osatzen duten elementu solidoei transmititu ISO-2631-2 arauko A eranskinean aipaturiko dardari maila gaintzen duen dardaririk.

12. artikulua. Dardarien aurka babesteko bete beharrekoak.

Dardarien transmisioa zuzentzeko, kontuan hartu behar da NBE CA-88 izenekoan, eraikinen baldintza akustikoei buruz 17. artikuluko 2 eta 4. idatz-zatietan ezarritakoa.

13. artikulua. Eragin metatuak.

13.1. Eraikin berean, kale berean edo eremu berean asotsa sortzen duten jarduera bat baino gehiago dagoen kasuetan, edozein dela ere haien jatorria, teknikoki egiaztatuta beharko da horrek eragin metatuak sortzen ote dituen. Hala bada, soinu-iturriak batera hartuta ordenantza ezarritako mugak gaintzen badituzte, Udalak jarduera bakoitzeko arduraduneri exijitu ahalko die beren instalazioek transmititzen dituzten asotsen emisioaren maila orokorra 3 eta 7 dBA bitarte jaisteko.

13.2. Jaitsiera hori isolamendu akustikoa areagotuz eta kasu jakin batzuetan sortutako asotsa gutxitzeko mugatzaile bat jarritz.

13.3. Artikulu honetan jasotako neurria gorabehera, aurretiko egiaztapen teknikoan egiaztatzen bada eraikina, kalea edo eremua asotsen emisioa dela eta saturatuta dagoela, halako moduan non jarduerari zerbait gehitua gehieneko maila onargarriak gaintzen diren, Udalak ezarri nahi diren jarduera berrietarako jarduera eta irekitze lizentzia edo baimena ukatu ahal izanen ditu.

13.4. Edozein arrazoi dela medio egiten diren neurketa teknikoetatik ondorioztatzen bada lizentzia duten lokalen multzoak aurretik aipaturiko mailak gaintzen dituztela, haiei guztiei eskatuko zaie lokal bakoitzak transmititzen dituen mailak jaisteko, eragin metatuen biltzen diren jardueren kopuruaren arabera, V. eranskineko III. taulan ezarritakoari jarraituz.

13.5. Aurreko araua aplikatuko da bi jardueren arteko distantzia, jabetzen lerroko bi puntu hurbilenen arteko lerro zuzen bat markatuz neurturik, 15 metro baino txikiagoa denean.

## V. KAPITULUA

### *Josteta jarduerari exijitzekoak zaizkien baldintzak (Establezimendu publikoak eta aisialdikoak, tabernak, diskotekak eta abar)*

14. artikulua. Emisio baldintzak.

Aurreko artikuluan jasotako jardueretan sorturiko asots eta dardarien produkzioak eta transmisioak ordenantza honetako V. eranskineko 1, 2, 3 eta 4. tauletan ezarritako mugak bete beharko dituzte.

15. artikulua. Titularren betebeharra.

Aurreko artikuluetan aipaturiko jardueren titularrek nahitaez beren soinu-iturrien isolamendu akustikoa eta lokaletako isolamendu akustikoa areagotzeko neurriak hartu beharko dituzte, ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak betetzeko.

16. artikulua. Instalazio proiektuak.

Jarduera sailkatuetarako proiektuen edukiak maiatzaren 15eko 276/1990 Foru Aginduan ezarritakoa eta ordenantza honetan agindutakoa bete beharko dute, indarreko arauetan xedatuari jarraituz, bai eta gero egin litezkeen aldaketak guztiak, aplikatzekoak baldin bazaizkie.

Aipatu foru aginduan aipaturiko planoekin batera, lokalaren erakuntza-sekzio bat ere aurkeztu beharko da.

17. artikulua. Proiektu akustikoak.

Jarduera berriak ezartzeko edo/eta dauden jarduerak zabaltzeko jarduera sailkatuen espedienteetan, proiektu teknikoek proiektu akustiko bat izan behar duen, non aurreikusitako neurri zuzentzaileak agertuko diren, hain zuzen ere soinu-iturriek sorturiko asotsen emisioak eta transmisioak ordenantza honetan ezarritakoak bete ditzaten.

Justifikazioko azterlan horrek zehatz-mehatz definituko du jarduera mota eta hura garatzeko baldintzak, haren funtzionamendu-ordutegia finkatuko du eta gutxienez ere ondoko idatz-zatietan ezarritako alderdiak jorratuko ditu.

17.1. Aire-asotsaren kasuan:

a) Jardueraren soinu-iturri aipagarrienak identifikatu eta haien maila akustikoa balioestea.

b) Jarduerak sorturiko asotsa seguruen jasoko duen eremuaren kokapena eta haren ezaugarrien deskribapena; berariaz adieraziko dira eremu horretan legez onar daitezkeen asots-mailak.

c) Aurreko datuen arabera, aire-asotsaren isolamendurako gutxieneko betebeharreri buruzko balioespena.

d) Proposatzen den instalazio akustikoaren diseinua; berariaz deskribatuko dira hura muntatzeko erabiliko diren materialak eta erakuntzaren zehetasunak.

e) Proposatzen den instalazioaren baliozkotasunari buruzko justifikazio analitikoa.

17.2. Dardariak sorturiko egiturazko asotsaren kasuan:

a) Arazoak sortzen dituen makina edo instalazioa identifikatu eta haren funtsezko ezaugarriak (zama eta frekuentzia) zehaztea.

b) Hautaturiko dardarien aurkako gailuaren deskribapena eta kalkulua analitikoa, non instalazioa jarrita dardarien ehunekoak noraino jaitziko den adieraziko baita.

c) Muntaketaren ezaugarriak agertzen dituen krokis akotatua.

17.3. Talken ondoriozko egiturazko asotsaren kasuan:

a) Talken izaerari eta ezaugarri fisikoei buruzko deskribapena.

b) Talka horiek aldameneko eremuetara transmititzeko aukerari buruzko balioespena.

c) Talka horien egiturazko transmisioa deuseztatzeko diseinaturiko konponbide teknikoari buruzko deskribapena.

d) Xehetasun grafikoak, hautaturiko konponbidearen ezaugarriak argi adieraziz.

17.4. Gutxienez ere ondoko dokumentazio planimetrikoa erantsi beharko da:

a) Jardueraren kokapenari buruzko planoak, etxebizitzak, osasun instalazioak edo irakaskuntzarako eraikinak agertuz.

b) Isolamendu akustikoari buruzko 1/50 planoak, material, lodiera eta junturei buruzko 1/5 zehetasunekin.

c) Sekzioko planoak, non lokalaren sabaiaren eta zoruaren egitura-sistema eta eremu eta erabilera bakoitzeko benetako altuerak zehaztuko diren.

17.5. Behar den isolamendu akustikoa kalkulatzeko, zeharkako transmisioek soinu-inmisio mailak gutxienez ere 3 dBA-tan areagotzen dituztela hartu beharko da kontuan, salbu eta proposatzen den konponbide teknikoak nahikoa bermatzen badu aipatutako moduko zeharkako transmisioerik ez dela gertatuko.

17.6. Jarduera ate-leihoak itxita garatu behar denean isolamendu akustiko egokia bermatzeko, aireztapen behartuko sistema bat eduki beharko da.

17.7. Proiektuetan aintzat hartuko dira asotsaren ondorioz jardueraren inguruetan zeharkako eraginak direla-eta sor daitezkeen trabak, hain zuzen ere haiek saihestu edo gutxitzeko behar diren neurri zuzentzaileak proposatzeko.

18. artikulua. Lokalek bete beharreko baldintzak.

Jendea bizi den eraikinetan kokaturik dauden lokaletan asots-iturri bat izan daitekeen edozein jarduera egiteko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

18.1. Etxebizitzak eta beste jarduera batzuk batera dauden eraikinetan eta etxebizitza-erakinen mugakideak diren lokaletan, prebentzio neurriak areagotuko dira dardariak moteltzeko sistemen kontzepzioan, diseinuan eta muntaketan, baita talka-asotsak murrizteko sistemetan, hodieta, aire-hodietan eta barneko garraioetan, bereziki emisioak gertatzen direneko lokaleko zorua forjatuz egina denean; hau da, haren azpian bestelako egoitzak daudenena (sotoak, garajeak eta abar).

18.2. Tabernen eta bestelako ostalaritza establezimenduen instalazioetan, baldin eta barruko soinu-maila 80 dBA baino txikiagoa denean, funtsean erabiltzaileengandik datorrelako eta musika ekiporik ez dagoelako edo musika ekiporik egotekotan haren soinu-maila mugatua dagoelako, isolamendu akustiko gordin bat eduki beharko da jarduera egiten deneko lekuaren eta eragin handiena jasaten duen etxebizitzaren arteko; isolamendu hori gutxienez ere 55 dBA-koa izan behar du, baldin eta jarduera, zati batean behinik behin, gaueko ordutegian egiten denean; gutxienez ere 50 dBA-koa izan behar du, ordea, baldin eta jarduera osoa egunez egiten bada -hau da, 08:00etatik 22:00etara.

18.3. Barneko soinu-maila batez ere musika ekipoen dute taberna, pub eta gisakoen instalazioek, baldin eta 80 dBA edo gehiagoko soinu-mailak emititzen badituzte, jarduera eta eragin handiena jasaten duen etxebizitzaren artean, 30/35 dBA-ko soinu-inmisioko mugak betetzen duen isolamendu akustiko gordina eduki beharko dute, V. eranskineko 1. taulan jaso bezala.

Lokal horiek nahitaez aireztapen behartua izan behar dute, eta jendearen sarrera departamentu estanko batean egonen da, xurgapen akustikoarekin eta ate bikoitzarekin, V. eranskineko II. irudian dauden gutxieneko baldintzen arabera.

Leihorik dagoenean, itxita egonen dira jarduerak funtzionatzen duen bitartean, eta bi beira izan behar dituzte; beira horien gutxieneko lodiera 6 mm-koa izan behar du eta gutxienez ere 50 mm-ko distantzia egonen da haien artean; xurgapen akustikorako barrunbe bat izan behar dute.



18.4. Diskoteka, dantza-areto eta gisako instalazioak, baldin eta jarduerarako lizentzia ordenantza honek indarra hartu eta gero eskatzen badute, nahitaez eraikin isolatuetan edo etxebizitzarik ez duten eraikinetako sotoetan ezarri beharko dira. Ezarritako mugak gorabehera, honelako lokaletarako 9.4 artikuluan ezarritakoa hartu beharko da kon-tuan.

18.5. Isolamendu akustikoa "in situ" neurtuko da, asots arrosa emititutuz eta D parametroaren bitartez (isolamendu akustiko gordina) adieraziko da, II. eranskineko I.2 atalean zehaztutakoari jarraituz.

18.6. Honelako lokalak irekitzeko lizentzia eman baino lehen, nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan, promotoreak Udalarai aurkeztu beharko dio lortutako isolamendu akustikoaren neur-ketei buruzko ziurtagiri bat, berariaz sorturiko eredu baten arabera; ziurtagiri hori tituludun teknikari eskudun batek sinatu beharko du. Hori guztia, halere, ez da oztopo izanen Administrazioak bere egiaztapenak egiteko.

19. artikulua. Lokaletako instalazioek bete beharreko baldintzak.

19.1. Makina guztiak zoruan ainguratu edo zuzenean bermatu gabe instalatuko dira; tartean, motelgailuak edo dardarien kontrako bestelako elementu egokiak jarriko dira; esate baterako, makinak baino 5etik 2,5era aldiz pisu gehiagoko bankada flotatzaileak, halakorik behar izanez gero.

19.2. Ondokoak berariaz debekaturik geratzen dira, salbu eta dardariak transmititzeko ezintasuna behar adina bermatzen bada, hain zuzen ere jarduerak egitura independentea duen eraikin oso bat okupatzen duelako:

a) Makinak pareta edo zutabeetan ainguratu edo bermatzea. Baimena emanen da sabaietan zintzilikatze, frekuentzia beheko motel-gailuekin, kabina hosgabekatu aireztapen ekipoak, baldin eta 2 KW baino potentzia mekaniko txikiagoa badute. Makinak gutxienez ere horma edo zutabeetatik 0,70 metrotara jarri beharko dira.

b) Makinak solairu goratuetan, solairu erdietan, solairu gainekoetan, hegaletan eta gisakoetan, baldin eta 2 KW baino gehiagoko potentzia mekanikoa badute, eta sekula ere guztira 5 KW-ko potentzia gainditu gabe. Arau honetatik kanpo geratzen dira langile propioen edo publikoaren bizigarritasun baldintzak hobetzeko instalazioak; esate baterako, aireztapen sistemak, aire girotuko sistemak, igogailuak, eskailera mekanikoak, karga-jasogailuak eta abar.

19.3. Aireztapen behartua eta airea girotzea.

a) Aireztapen behartuko eta aire girotuko ekipoak eta bestelako makinak hodi eta konduktuei konektatzeko juntura edo gailu malguak erabili beharko dira.

b) Hodi eta konduktuen lehen tarteak eta, beharrezkoa bada, sare osoa, elementu malgukuen eutsiko dira, eraikinaren egiturak asots eta dardariak ez transmititzeko.

c) Hormak zeharkatzerakoan, hodiekin eta konduktuekin ez dira horman sarturik egiten, eta eraginkortasun frogatuko muntaketa malguak erabiliko dira.

d) Debekaturik dago sabaiko eta goiko solairuko isolamenduaren artean konduktuak instalatzea, bai eta horma bikoitz bateko elementuen artean ere; halaber, debekaturik dago "plenums" gisako inpulsioko edo aire girotuko itzulerako kamara akustikak erabiltzea.

19.4. Isolamenduaren, kanpoko soinu-mailen eta barneko soinu mailen baloreak emisioko lokaletako eta haien makina-aretoen aireztapenerako zulo eta mekanismoei ere aplikatuko zaizkie, uda nahiz negu. Horretarako, proiektaturiko isilgailuei buruzko kalkulak aurkeztuko dira, ordenantza betetzen dela bermatzeko.

20. artikulua. Musika jardueren lizentzia emateko baldintzak.

20.1. Asotsengatik enbarazuak sor ditzaketen jarduera guztiak ate-leihoak itxita egin beharko dira.

20.2. Musika ekipoa behar dueneko edo musika-jarduerak garatzen direnoko jarduera bat irekitzeko lizentzia emateko, kasuan kasu eskatzen den dokumentazioaz gainera, beharrezkoa izanen da teknikari eskudun batek eginiko ziurtagiri bat aurkeztea, non instalazioari buruzko ondoko xehetasunak eman beharko diren:

a) Musika ekipoen deskribapena (W rms-etan neurturiko potentzia akustikoa eta barneko gehieneko soinu-maila, asots arrosa emititutuz dBA-tan neurtua, ekipoa saturatzerira iritsi gabe, ekipoa mugatu gabekoa bada).

b) Bozgorailuen kokapena eta kopurua eta neurri zuzentzaileen deskribapena (norabideak eta euskarriak, besteak beste).

c) Isolamendu akustikoko sistemen deskribapena, horma-zorua eta horma-sabaia topalekuei buruzko eta beirei buruzko xehetasunekin.

20.3. Aisialdirako establezimendu publiko gisa aritzen diren jarduerak, baldin eta musika-ekiporik badute, kapitulu honetan oro har ezarritako baldintzak betetzeaz gainera, ondoko neurriak ere hartu beharko dituzte:

20.3.1. Debekaturik dago bozgorailuak edo ingurumena asalda dezaketen bestelako elementuak instalatzea artikulu honetan aipatzen

diren lokalez kanpo, salbu eta ordenantza IV. kapituluko 9.3 artikuluan ezarritako kasuetan.

20.3.2. 80 dBA edo gehiagoko barneko soinu maila sor dezaketen musika ekipoak dauzkaten lokal guztietan ezinbestekoa izanen da soinu-emisioren mugatzaile-erregistratzaile bat instalatzea. Mugatzaile edo/eta erregistratzaile horien erabilera neurri osagarri gisa ulertu behar da; beraz, ez da salbueslea izanen eska daitezkeen gainerako neurriak bete daitezkeen eskatzeko.

20.3.3. Mugatzaile edo/eta erregistratzaile akustikoak instalatu behar dituzten establezimenduetako titularrek behar den dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko dute horretarako izendaturiko udal zerbitzu teknikoetan; zerbitzu horiek egiaztatu beharko dute aparatu horiek ordenantzetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten.

Behar diren ziurtagiri, homologazio edo entseguei buruzko txostenak dauzkaten mugatzaile akustikoak baizik ez dira onartuko, eta agiri horiek laborategi kreditatuek eman beharko dituzte.

Udal zerbitzu teknikoek proposatu ahal izanen dute baimena kentzeko funtzionamendu zuzenean aldaketa ugari dituzten aparatuei, bai eta bortxaezinaz izatea ezin berma daitezkeen aparatuei ere.

20.3.4. Ordenantza honek indarra hartzen duenean jarduerali-zentziarik daukaten jarduerak erregistro sistema bat instalatu beharko dute, artikulu honetan ezarritako baldintzetan, udalak hala eskatzen duenean asotsengatik salaketa bat aurkeztu bada, edo udal teknikarien irizpideei jarraituz, lokal bakoitzerako baimendu den asots-maila gainditzeko azterna nahikorik baldin badago.

Udalak adierazitako sistema sonografikoa jartzeko exijitzen ahalko dio jarduera bati, jarduera horren ezagarraren ondorioz baimendutako mailaz gorako asotsak sor ditzakeenean.

20.3.5. Instalazio horiek jartzeagatik sortzen diren gastuak, aparatuen kostua barne, jardueraren titularrek ordaindu beharko dituzte.

20.3.6. Udalak, betiere, instalazioak egiaztatze aukera izanen du, ikuskatu behar den ekipoa, bolumena gorenko posizioan jarrita, potentziometroaren agingailuarekin soinu bat erreproduzitzen; hartara, gehien ukituriko etxebizitzara iristen den asotsa neurtzeko baldintzetan egonen da, eta mugatzaile erregistratzaileen datuak hartzen ahalko dira.

20.3.7. Lokaleko beste elementu batzuek sorturiko soinu musikalaria, kanporatzaileen, hozkailuen, presio-taldeen eta bestelako asotsa gehituko zaio, eta guztiak batera ezin izanen dira gainditu ordenantza honetan finkaturiko mugak.

21. artikulua. Mugatzaile-erregistratzailei eskatu beharreko gutxieneko baldintzak.

21.1. Establezimenduen barruan baimendutako gehieneko soinu-presioaren maila erregulatzeko modua eskaini behar dute, musika-instalaziorako alde zuzeneko ezarritako maila gainditzeko moduan.

21.2. Bidea eman behar dute lokalaren barruan sortzen diren soinu errearen presio-mailari antzemateko.

21.3. Doikuntza-kontrolen –eta funtzionamendu zuzena aldaraz dezaketen kable, konektore eta abarren– prezintatzeko bidea ematen duen sistema bat eduki beharko du.

21.4. Aukera eman behar dute aparatuen funtzionamendua egokia den aztertze eta baimendutako gehieneko maila aldaraz dezakeen manipulaziorik egin den aztertze.

21.5. Kasuan kasuko jardueraren funtzionamendu zaratsuen aldia erregistratu eta jasota edukitzea, auzigai diren soinu-mailak hasi eta bukatu ziren eguna eta ordua erregistratuz; halaber, jarduerarik ezaren aldiak ere erregistratuko dira, deskonexioko aldietatik berezita, bidezkoa bada.

21.6. Soinu-iturrien funtzionamendu aldiak erregistratu eta jasota edukitzea, haien jardutea zuzena ote den kontrolatu ahal izateko, gutxienez ere 10 minutuz behin.

21.7. Aurreko idatz-zatietan aipaturiko informazioa gordetzea, aldi jakin batez, ikuskapenak bideratzeko; aldi hori ez da sekula 30 eguneko baino txikiagoa izanen.

21.8. Udaleko zerbitzu teknikoei edo entitate eskuordeari soinuen harrapatze zuzena egin ahal izateko moduko sistema bat edukitzea; gainera, soinu horiek ikuskapen zerbitzuaren sistema informatikoetara aldatu ahal izanen da, bertan aztertu eta ebaluatu ahal izateko eta haien inprimaketa egin ahal izateko. Datuen harrapatze hori ez da sunsitzaila izanen, eta ezin izanen du biderik eman datuak manipulatzeko.

21.9. Halaber, aparatuen manipulazioen aurkako babesgailu bat eduki beharko du, giltza elektronikoekin nahiz sartzeko gakoekin.

## VI. KAPITULUA

### *Moto, ziklomoto eta gisako araupetzea*

22. artikulua. Ibilgailu horiek bete beharreko baldintzak.

Ibilgailu horiek funtzionamendu baldintza egokietan eduki beharko dituzte motore, transmisioa, karrozeria eta asotsak sor ditzaketen gainerako organo guztiak, eta bereziki gasak kanporatzeko ihes-hodiko

isilgailua; horren helburua da motordun ibilgailu, ziklomotore eta gisakoek motorra funtzionatzen dutela emititzen duten soinu-presioaren mailak ez gainditzea ordenantza honetan ezarritako mugak.

## 23. artikulua. Arau-haustekak.

### 23.1. Ekintzak.

Asotsak zaindu eta kontrolatzeko ardura duenak, udaltzaingoak, propio ezarritako baliabide teknikoekin egiaztatzen duenean ordenantza honetan jasotako soinu-emisioko mugak gainditzen ari direla, ahalmena izanen dute ustezko arau-hausleari eskatzeko Tuterako Udalak ezarritako lekura joateko, hain zuzen ere baldintza normalizatueta eginiko neurketa bat egin ahal izateko. Horri uko eginez gero, arau-haustea benetan gertatu dela ulertuko da, eta zehapena zuzenean ezarri ahalko da.

Behin propio ezarritako lekuan neurketa egin ondoren, baldin eta neurtutako maila arau-hauste bat denean, Udaltzaingoak salaketa bat egin ahal izanen du ordenantza honetan aipaturiko ibilgailu motetako gidariari, hain zuzen ere baimendutako emisio-mailak gainditzeagatik. Hala eta guztiz ere ibilgailuko titularrak arau-haustea lehenbiziko aldiz egin duenean, hamar eguneko epea emanen zaio arau-haustea ekarri duten emisioek sortu dituztenak zuzentzeko.

Behin arazo horiek konpondu ondoren, ibilgailua Udaltzaingoari eramanen dio, soinu-presioaren mailak egiazta ditzan; gero, salaketa hori artxibatu egingen da baldin eta neurtutako mailak egokiak badira.

### 23.2. Arau-hauste oso larriak.

Egindako arau-haustea oso larria denean, ibilgailua gerarazi egingen da eta aurreko gupila prezintatuko zaio; horri buruzko behar den akta egingen da, eta gidariari aukera emanen zaio atzemandako ibilgailua bere kasa eramateko egoki jotzen duen tokira, asotsa sortzen duen arazoa konpontzeko.

Gidariak aukera horren alde egiten ez badu, udalaren garabi-zerbitzuek erretiratu ahal izanen dute ibilgailua. Zerbitzu horrek sortutako gastuak eta ibilgailua erretiratzen den arte udal-egoitzetan gordetzeko gastuak arau-hausleak ordaindu beharko ditu. Ibilgailua udal egoitzetan utzi eta hiru hilabeteren buruan jabeak hura berreskuratzeko eskatu ez badu, ibilgailu hori enkantean jartzen ahalko da.

Arau-haustea egin duen ibilgailuko gidariak konpontzera eramateko aukeraren alde egiten badu, hogeita hamar eguneko epea izanen du konponketa horiek egin eta epe horren barruan egindako konponketak udaltzainei kreditatzeko.

Hori guztia ez da oztopo izanen egindako arau-hauste oso larriarengatik kasuan kasuko isuna ezartzeko.

## 24. artikulua. Azterketa.

Azterketa eta ikuskapena beti ibilgailua geldirik dagoela egingen dira, hain zuzen ere ordenantza honetako IV. eranskinean jasotako metodoa erabiliz.

## 25. artikulua. Ibilgailua erretiratzea.

Udaltzainek ibilgailua kontrolatu eta erretiratzeko, kasua bada, egindako esku-hartzea behar bezala dokumentatuko dira horri buruz eginiko akta edo buletinean; agiri horiek jarduketa egiten deneko unean egin beharko dira, eta hartan behar diren oharpen guztiak jasoko dira.

## 26. artikulua. Eskumenak.

Ordenantza honetan ezarritakoaren betetzeari buruzko zaintzaren gaineko eskumena Tuterako Udaltzaingoarena da; zainketa lan hori gauzatu ahal izateko, ibilgailu zaratatsuak atzeman ahal izanen ditu, eta haien gidariak nahitaez bidea eman beharko dute behar diren neurgailuak erabiltzeko eta xedearen betetzea ahalbidetzeko behar diren eragiketa guztiak egin ahal izan daitezten.

## VII. KAPITULUA

### Zehapen araubidea

## 27. artikulua. Alderdi orokorrak.

27.1. Arau-hauste administratiboak dira ordenantza honetan nahiz asotsei buruz aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako bete-beharren aurkako egite eta ez-egite guztiak.

27.2. Ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten egite edo ez-egite guztiengatik kapitulu honetan ezarritakoaren arabera zehapena ezarriko dira; hori, betiere, ez da oztopo izan arau-hausleei dagokien erantzukizun zibil, penal edo bestelakoa eskatzeko.

27.3. Erantzukizuna larriagotzen duten inguruabar gisa hartuko da arau-haustek giza osasunean izan dezakeen eragina, kaltearen atze-

raezintasuna, lekuaren ezaugarriak, asmoa, berrerortzea eta kutsadura akustikoaren arriskugarritasuna.

27.4. Zehapen ahalmena gauzatea alkateari dagokio, abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera –horren bitartez zehapen ahalmena gauzatzeko prozedurari buruzko erregelamendua onetsi zen– eta Ingurumena Babesteko Jarduera Sailkatuen Kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 35. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 29.2 artikulua araberak.

## 28. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak Arautzen dituen mar-txoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 26.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, asotsei dagozkien arau-hauste arinen zehapena gehienez ere 601,01 eurotako izanen da, arau-hausleei dagokien arau-hausteen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoa ezertan ere kendu gabe.

Dardari eta Motoei dagozkien gainerako arau-hausteetarako, berriz, arlo horretako egungo araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

Ordenantza honen ondorioetarako, honela sailkatu dira zahapenak:

### 28.A. Asotsak.

#### 28.A.1. Arau-hauste arinak.

Soinu-mugen arau-hauste arinak dira ordenantza honetan ezarritako muga onargarriak 3 dBA baino gutxiagotan gainditzen dituztenak.

#### 28.A.2. Arau-hauste larriak.

Honakoak dira arau-hauste larriak:

- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Artikulu honetako lehen lerrokadan ezarritako muga onargarriak 3 eta 10 dBA bitartean gainditzea.
- Mugatzaille-erregistratzailea manipulatu edo deskonektatzea.

#### 28.A.3. Arau-hauste oso larriak.

Honakoak dira arau-hauste oso larriak:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Artikulu honetako lehen lerrokadan adierazitako muga onargarriak 10 dBA baino gehiagotan gainditzea.

### 28.B. Dardariak.

#### 28.B.1. Arau-hauste arinak.

Dardarien mugak gainditzeagatik arau-haustek arinak izanen dira ordenantza honetako LA parametroaren muga onargarriak 3 unitate baino gutxiagotan gainditzen dituztenak.

#### 28.B.2. Arau-hauste larriak.

Honakoak izanen dira arau-hauste larriak:

- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Artikulu honetako 28.B.1 puntuan adierazitako mugak 3 eta 6 unitate bitartean gainditzea.

#### 28.B.3. Arau-hauste oso larriak.

Honakoak dira arau-hauste oso larriak:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Artikulu honetako 28.B.1 puntuan adierazitako mugak 6 unitate baino gehiagotan gainditzea.

Moto, ziklomotore eta gisakoek sorturiko asotsei dagokienez, arau-haustek honela sailkatuko dira.

### 28.C. Moto, ziklomotore eta gisakoak.

#### 28.C.1. Arau-hauste arinak.

Zirkulazioko soinu-emisioaren mugengatik arau-haustek arin gisa sailkatuko dira ordenantza honetan ezarritako muga onargarriak 4 dBA baino gutxiagotan gainditzen badituzte.

#### 28.C.2. Arau-hauste larriak.

Honelakoak jotzen dira arau-hauste larritzat:

- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Artikulu honetako 28.C.1 puntuan adierazitako mugak 4 dBA edo gehiagotan gainditzea.

#### 28.C.3. Arau-hauste oso larriak.

Ondokoak joko dira arau-hauste oso larritzat:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Ihes-hodi aske izenekoarekin zirkulatzea.
- Administrazioaren ikuskapen lana oztopatzea, ibilgailuen behar diren egiaztapen eta azterketak egin behar dituztenak.

29. artikulua. Oharpenak baliogabetzea.

29.1. Asotsak.

Arau-hauste administratiboen oharpenenak ofizioz baliogabetzen ahal dira, ondoko baldintzak betez gero:

a) Aurretiaz ezarritako zehapenak ordainduta edukitzea.

b) Zehapen ebazpena irmo bihurtu zenetik ondoko epeak iragan izatea:

Arau-hauste mota: arina. Epea: 6 hilabete.

29.2. Dardariak eta motoak.

Arau-hauste administratiboen oharpenenak ofizioz baliogabetzen ahal dira, ondoko baldintzak betez gero:

a) Aurretiaz ezarritako zehapenak ordainduta edukitzea.

b) Zehapen ebazpena irmo bihurtu zenetik ondoko epeak iragan izatea:

Arau-hauste mota: oso larria. Epea: 3 urte.

Arau-hauste mota: larria. Epea: 2 urte.

Arau-hauste mota: arina. Epea: 6 hilabete.

30. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honetako xedapenen arau-hausteengatik ondoko zehapen eta jardueretako bat edo gehiago ekarriko dituzte:

30.1. Neurri zuzentzaileak nahitaez hartzea egiazaturiko asotsen nahiz dardarien maila arintzeko edo deuseztatzeko, kasuan kasu.

30.2. Asots nahiz dardariak sortu dituzten jarduera edo instalazioak aldi baterako, guztiz nahiz partzialki, etetea.

30.3. Kasuan kasuko zehapenak ezartzea.

31. artikulua. Isunak.

31.A. Josteta jarduerak.

31.A.A. Asotsak.

31.A.A.1. Arau-hauste arinak.

Asotsak sortzen dituzten jarduera edo instalazioak aldi baterako etenarazteko zehapena eta ondoko isunak:

ARAU-HAUSTEA	ISUNAK	
	Lehen aldia	Bigarren aldia
1 dBA bit. gaind.....	18 eta 30 euro bit.	36 eta 48 euro bit.
1 eta 2 dBA bit. gaind. ....	31 eta 42 euro bit.	49 eta 90 euro bit.
2 eta 3 dBA bit. gaind. ....	43 eta 60 euro bit.	91 eta 120 euro bit.
3 eta 5 dBA bit. gaind. ....	61 eta 120 euro bit.	121 eta 300 euro bit.
5 eta 7 dBA bit. gaind. ....	121 eta 300 euro bit.	301 eta 450 euro bit.
7 eta 10 dBA bit. gaind. ....	301 eta 450 euro bit.	451 eta 600 euro bit.

Sei hilabeteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.A.A.2. Mugatzaile-erregistratzailea manipulatzeko

Lehen aldia. Zehapena: 450 euro.

Bigarren aldia. Zehapena: 600 euro.

Hiru urteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.A.B. Dardariak.

31.A.B.1. Arau-hauste arinak.

Dardariak sortzen dituzten jarduera edo instalazioak aldi baterako etenarazteko zehapena eta ondoko isunak:

Kopurua	U./LA 2 bit. gaind.	2 eta 4 U./LA bit. gaind.	4 eta 6 U./LA bit. gaind.
1. aldia .....	24 eta 36 euro bit.	36 eta 120 euro bit.	120 eta 180 euro bit.
2. aldia .....	48 eta 60 euro bit.	60 eta 180 euro bit.	180 eta 600 euro bit.

Sei hilabeteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.A.B.2. Arau hauste larriak.

Asotsak edo dardariak sortzen dituzten jarduera edo instalazioak aldi baterako etenarazteko zehapena eta ixteko zehapena eta ondoko isunak:

Kopurua	6 eta 8 U./LA bit. gaind.	8 U./LA gaind.
1. aldia .....	600 eta 900 euro bit.	900 eurotik gora
2. aldia .....	900 eurotik gora	1.200 eurotik gora

Bi urteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.A.B.3. Arau-hauste oso larriak.

Asotsak edo dardariak sortzen dituzten jarduera edo instalazioak aldi baterako etenarazteko zehapena edo behin betiko ixteko zehapena eta isunak.

Hiru urteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.B. Moto, ziklomotore eta gisakoak.

Zehapenak gidariei eta subsidiarioki arau-haustea egin duten ibilgailuen jabeek ezarriko zaizkie.

31.B.1. Arau-hauste arinak.

Ondoko isunekin zehatu ahalko dira:

Kopurua	1 dBA bit. gaind.	2 eta 3 dBA bit. gaind.	3 eta 4 dBA bit. gaind.
1. aldia .....	30 euro	45 euro	60 euro
2. aldia .....	45 euro	60 euro	90 euro

Sei hilabeteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.B.2. Arau-hauste larriak.

Asotsak sortzen duen ibilgailua aldi baterako edo behin betiko ibilgetzeko zehapena eta ondoko isunak:

Kopurua	4 eta 6 dBA bit. gaind.	6 eta 8 dBA bit. gaind.	8 dBA-tik gora gaind.
1. aldia .....	90 euro	120 euro	150 euro
2. aldia .....	120 euro	150 euro	240 euro

Bi urteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

31.B.3. Arau-hauste oso larriak.

Asotsak sortzen duen ibilgailua aldi baterako edo behin betiko ibilgetzeko zehapena eta ondoko isunak:

Kopurua	Ihes-hodi askearekin zirkulatzea	Ikuskapen lana oztopatzea	Behin eta berriz arau-haus. egit.
1. aldia .....	240 euro	240 euro	240 euro
2. aldia .....	300 euro	300 euro	360 euro

Hiru urteko epean arau-hauste bat hirugarren aldiz egitea behin eta berriz egitea bezala hartuko da, ondorio guztietarako.

32. artikulua. Organo eskudunak eta prozedura.

32.1. Josteta jarduerak sorturiko asotsak.

Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 27. artikuluan (abenduaren 10eko 26/2001 Legeak aldatua) eta abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen 35. artikuluan arautua dago zehapen ahalmena eta haien arabera ondokoei dagokie:

–Alkateari, arau-hauste arinetarako.

–Lehendakari, Justizia eta Barne kontseilariari, arau-hauste larri eta oso larrietarako.

32.2. Dardariak.

Arlo horretako zehapen-ahalmenari dagokionez, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan eta abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen 34. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

32.3. Motoak.

Arlo horretako zehapen-ahalmenari dagokionez, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

33. artikulua. Behin-behineko aurreneurriak.

1. Behin zehapen prozedura hasi denean, hura ebazteko organo eskudunak bidezko jotzen dituen aurreneurriak hartu ahal izanen ditu ezartzen den ebazpena beteko dela bermatzeko eta, edozein kasutan ere, legeak beteko direla bermatzeko; betiere, besteak beste, ondoko behin-behineko aurreneurriak hartu ahal izanen dira:

a) Jarduera guztiz edo partzialki etenaraztea.

b) Zentro, zerbitzu, establezimendu edo instalazioak ixtea.

c) Fidanantza exijitzea.

d) Motoen kasuan, ordenantza honetako 23.2 artikuluan ezarritakoak.

2. Behin-behineko neurriak ezartzeko ebazpena baino lehen, entzunaldi bat emanen zaio interesdunari, gehienez ere hamabost eguneko epean bidezko jotzen duena alega dezan.

3. Hartutako aurreneurriari edo neurri administratiboari beren horretan eutsiko zaie organo eskudunak haiei buruzko iritzia ematen ez duen bitartean.

## 34. artikulua. Solidaritatea.

Pertsona fisiko edo juridikoek asotsa edo dardariak sortutako arau-haustean izan duten partehartze maila zehazterik ez dagoenean, erantzukizuna solidarioa izanen da.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honek indarra hartzen duenerako zabalik dauden lokalek isolamendu akustikoa 50 dBA-ren parekoa edo handiagoa badute gaueko ordutegian irekitzeko baimena izanen dute, betiere soinu-igorpena gehienez ere 75 dBA-koa bada eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: ordenantzako igorpen mugak ez gaintzea, auzokoen ke-xarik ez jasotzea, isolamendu handiagoak lortzearen obrak egiteko benetako arazo tekniko gaindiezinak izatea eta Tuterako Udalak haien aurka zehapen espedienterik abiarazi ez soinu-igorpenak direla eta.

Halako lokalek aurreko lerroaldean zehazturiko baldintzetako bat betetzen ez badute, baimen hori kendu eta honako udal ordenantza hau aplikatuko da erabat.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honek ukituriko josteta jardueren jabeek gehienez ere urtebeteko epea izanen dute, indarra hartzen duenetik kontaktzen hasita, bertan ezarritakoari aurka egiten dioten era guztietako akatsak zuzentzeko.

Halaber, ordenantza honek ukituriko ibilgailuen jabeek sei hilabeteko epea izanen dute, indarra hartzen duenetik kontaktzen hasita, bertan ezarritakoari aurka egiten dioten era guztietako akatsak zuzentzeko.

Ordenantza honek indarra hartzen duenetik lehenbiziko hilabetean, alkatetzak bando bat emanen du hura indarrean dagoela gogoraraziz eta ordenantzak ukituriko ibilgailu eta jardueretako jabeei errekerimendua egiteko, hain zuzen ere beren ibilgailuetan dauzkaten akatsak, edonolakoak izanda ere, zuzen ditzaten.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen dira ordenantza honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak eta bereziki "asots eta dardarietatik babesteko udal ordenantza" 1988ko maiatzaren 6an onetsitakoa.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek, behin Osoko Bilkurak haren testua behin betiko onetsi ondoren, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eman eta hamabost egun iragan eta gero hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA

*Ikurrak*

- JJ.SS. Ingurumena babesteko jarduera sailkatuak.
- B.S.M. Barneko soinu maila.
- K.S.M. Kanpoko soinu maila.
- D Aireko asotserako isolamendu akustiko gordina.
- Gehmug Gehieneko soinu maila.
- F.A.S.M Fondoko asotsaren soinu maila.
- S.P. Soinu puruak.
- L1 Lokal emisoreko barneko soinu maila.
- L2 Lokal hartzaileko barneko soinu maila.
- dBA A ponderazioko dezibelioak.
- Leq Presio akustikoaren maila, dezibeliotan, ondoko ekuazioaren arabera:

$$L_{Aeq,T} = 10 \cdot \log \frac{1}{T} \int_{t_1}^{t_2} \left( \frac{p_A(t)}{p_0} \right)^2 dt$$

Non  $T = T_2 - T_1$ , eta non  $P_0$  erreferentziako presioa den.

## II. ERANSKINA

*Neurketa akustikoak eta dardarien neurketak egiteko erabilitako metodo operatiboen deskribapena*

## Orokorrak

Neurketa hauek egiten dira gutxienez ere soinu emisioaren ezaugarri diren aldaketak gertatzen direneko ziklo oso bat bilduko duen aldi batean. Aldi hori ez da sekula 60 segundo baino laburragoa izanen.

Ordenantzak ezartzen duen soinu-mailen balioespina ondoko arauen arabera egiten da:

## I. atala.-Neurketa akustikoak.

## I.1. Ingurumen ezaugarriak.

I.1.1. Bai barneko soinu-maila, bai kanpoko soinu maila ebaluatzeko, neurketa entsegua egin beharreko lokaleko ate-leihoak itxita egiten da.

I.1.2. Ahaleginak egiten dira neurtu beharreko iturrikoak ez diren asots guztiak murrizteko.

I.1.3. Kanpoko soinu-maila ebaluatzeko, kontuan hartuko dira neurketa egiten den unean dauden baldintza atmosferikoak, ondoko puntuei erreparaturaz, batez ere:

a) Kanpoko neurketa akustikoak egiteko, sonometroaren mikrofonoa haizearen aurkako pantaila batekin babestu beharko da.

b) Pantaila efektuaren aurka, behatzailea mikrofonoaren atzean eta hartatik ahal den guztian bereizirik jarri beharko da; mikrofonoa neurketaren adierazlearen irakurketa zuzenarekin bateragarria izanen da. Mikrofonoa tripode baten gainean jarri beharko da.

I.1.4. Inpultsio soinuak daudenean, soinu maila baliokidea V. eranskinako I. taulan ezarritakoaren arabera igoko da.

I.1.5. Soinu puruak (S.P.) egotekotan soinu maila baliokidea 5 dBA-tan igoko da. S.P. 135/1989 Foru Dekretuan definitutakoa izanen da.

## I.2. Elementu igorle eta hartzaileen kokapena.

## I.2.1. Soinu-maila normalizatua.

Eraikuntza elementuen isolamendu akustikoa neurtzeko, asots-iturri normalizatua asots arrosa emititzeko posizioan jarriko (a /UNE 7404-IV arauaren arabera), emisioak gertatzen diren lokalaren erdian jarrita, eremu akustiko ahal den difusioaren lortzeko.

## I.2.2. Sonometroa.

Isolamendu akustikoa "in situ" neurtzeko, sonometroa aretoko hiru leku ezberdinetan jarriko da, iturritik gutxienez ere 1,5 metrotara, eta zortzikoaren 1/3eko espektraok hartuko dira, 100 eta 3150 Hz bitarte. Gero haien batezbesteko lineala egingen da, 60 seg. baino gehiagoko denbora tartea hartuta.

Gero, hiru erregistro horien batez besteko aritmetikoa egingen da; horren emaitzak ematen duen espektra espektra igorle moduan hartuko dugu.

L1 balorea zortziko hereneko banden arabera mailen batuketa eginez lortuko da.

Gauza bera egingen da L2 areto hartzaileko barneko soinu maila lortzeko.

## I.2.3. Azelerometroa (Foru Dekretuko 8.3 artikulua)

## I.3. Fondoko asotsa:

## I.3.1. Nahitaezko araua.

Oro har, neurketa guztiak egin aurretik fondoko asotsaren soinu presioaren maila zehaztu beharko da.

## I.3.2. Neurketa egiteko baldintzak.

Neurketa egiteko, neurtu beharreko soinu iturria geldirik egingen da; halaber, lokal hartzailearen barruan dauden gainerako asotsak saihestuko dira, neurketa egiterakoan akatsik ez sortzeko moduan.

## I.3.3. Mailak.

Lortutako soinu-presioaren mailak transmitituriko asotsetarako baimendutako gehieneko maila gaintzen badu, fondoko maila izanen da jarduerak funtzionatzen duenean transmititzen diren mailetarako baimendutako muga berria.

## I.3.4. Isolamendua.

Isolamendu akustiko gordina neurtzeko, fondoko asotsa areto hartzailean neurtu beharko da; zortziko 1/3eko espektra lortuko da hartara, 100 eta 3.150 Hz bitarteko frekuentzien tartarako. Betiere, asots-iturria funtzionatzen ari dela, egiaztatu beharko da Leq (minutu bat) balorearen jasotzen diren mailek frekuentzia unitate bakoitzeko 9 dBA-tan gaintzen dituztela fondoko asotserako zehaztu diren mailak. Hala ez bada, emisio-iturriaren bolumena igo beharko da.

Balore horiek lortzeko 105 dBA baino gehiago emititu behar badira, ondoko neurketak hartuko dira baliozkotzat: asots-iturria funtzionatzen ari dela, areto hartzaileko barneko soinuaren maila 3 dBA-koa edo handiagoa direnekoak, fondoko asotsaren soinu-presioarekin alderatuta. Betiere ondoko zuzenketa egin beharko da, eta lortutako isolamendu gordinaren baloreari gehitu beharko zaio:  $(D=L1-L2)$ .

Fondoko asots handiarengatik zuzenketa taula ordenantza honetako V. eranskinako 2. taula da.

## II. atala.-Dardarien balioespina.

## II.1. Neurgailuen kokapena.

Azelerometroa zoru, sabai edo forjatuen leku sendoetan finkatuko da, dardariak jasotzen dituen higiezinako gelen erdian.

## III. ERANSKINA

*Ikuskapen akta betetzea*

Udalzaingoaren agenteek egindako neurketei buruzko akta bat bete beharko dute, edozein herritarrek eskatuta, baldin eta jarduera batetik, bereziki tabernetatik, datozen asotsen emisioak beren etxebizitzetan trabarik sortzen badu.

Jarduketa bakoitzari buruz, neurketa egin deneko unean, akta bat bete beharko da.

Akta horietan, lau neurketa mota jaso beharko dira; ondokoak, funtsean:

- a) Barneko soinu maila.
- b) Kanpoko soinu maila.
- c) Fondoko asotsa.
- d) Gehieneko soinu maila.

Ahal izanez gero, udaltzainek neurketa bakoitzari buruzko lau datu horiek bete beharko dituzte, bete beharreko bakoitzeko hiru neurketa eginez, ahal den neurketarik osatuena lortu ahal izateko.

Ezinbestekak bultzatuta, udaltzainek ezin badute udal ordenantzak agintzen dituen neurketa guztiak egin, inguruabar hori aktan jaso beharko dute, oharpenetarako ezarritako laukia betez; horretan, labur bada ere, neurketa guztiak ez egiteko arrazoiak jaso beharko dituzte.

Honakoak izanen dira arrazoiak:

- a) Kanpoko soinu maila neurtzeko ezintasuna:

Kalean jende gehiegi egotea edo horren antzekoak, asots maila handia sortzen baita.

Kasu horretan, ate-leiho irekiei buruzko laukia txekeatzea nahiz ez txekeatzea baliozkoa izanen da.

- b) Gehieneko soinu maila neurtzeko ezintasuna:

Lokalera sartzeko modurik ez edukitzeagatik, ordena publikoko balizko asaldurak saihesteko edo agenteen lana oztopatu, aldatu edo zaildu dezakeen beste edozein egitate edo inguruabarrengatik.

- c) Fondoko asotsaren soinu maila neurtzeko ezintasuna:

Trabak sortzen dituen lokalaren musika ez delako eteten, hura ebaluatzeko zailtasunak edukitzeagatik, kanpoko soinu maila jardueratik datorrenaren antzekoa edo hura baino handiagoa delako.

Ezinbestekoa izanen da beti barneko soinu maila neurtzea ukitutako pertsonaren etxebizitzan, gutxienez ere hiru neurri hartuta atsedena hartzeko lekuetan, saloi-egongelan eta logeletan. Ez da gomendagarria neurketak komunetan eta pasilloan egitea.

Neurketa horiek egiteko, kontuan hartuko da udal ordenantzaren ezarritakoa eta ekainaren 8ko 135/89 Foru Dekretuan ezarritakoa; izan ere azken horren bidez ezartzen dira asotsak eta dardariak sortzen dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak.

Neurketa egiten hasi baino lehen, agenteak sonometroa kalibratu beharko du, erabiltzen egoera ezin hobean dagoela egiaztatzeko. Azken neurketa egin ondoren, agenteak berriz ere kalibratu beharko du sonometroa. Egiaztatuz gero sonometroa  $\pm 1$  dBA deskalibratu dela, neurketa baliogabatu egiten da, eta beste bat egin beharko da.

Orain arte azaldutakoaz gainera, aktan zenbait kontu oso argi utzi behar dira; hala nola:

- a) Kexua aurkeztu duen pertsonaren izena.
- b) Kexua sortzen duen asotsa egiten duen lokala.
- c) Kexua aurkeztu eta neurketa egiten deneko data, eguna eta ordua adierazita.
- d) Neurketa egin duen udaltzainaren zenbakia.
- e) Kexua aurkeztu duen pertsonaren sinadura eta neurketa egin duen udaltzainarena.
- f) Posiblea bada, kexua sortu duen asotsa emititzen duen lokaleko arduradunaren sinadura. Lokalaren arduradunak, noski, uko egin diezaioke sinatzeari.
- g) Kalibratzailearen serie-zenbakia, modeloa eta marka.

Aktako ahal den lauki guztiak letra oso argiz bete beharko dira, aurretik ezarritakoaren arabera; ahal dela, ez da irakurketa oztopatzeko moduko zirriborrorik egiten.

Oharretarako utzitako lekuan, neurketa egin duen agenteak bere ustez neurketan garrantzia duten gorabehera guztiak jaso beharko ditu, bai eta neurketa egiteko garaian aurkitu dituen oztopo guztiak ere; funtsean, ondokoengatikoa:

- a) Lokal mota.
- b) Fondoko asotsaren izaera.
- c) Trabak sortzen dituen lokaleko arduradunak laguntzarik ematea ahal ez ematea.
- d) Hauetaz gainera, neurketa egiten duen udaltzainak bidezkoztat edo garrantzitsutat jotzen dituen inguruabar guztiak jasotzen ahalko dira.

#### IV. ERANSKINA

##### *Moto, ziklomotore eta gisakoien asotsak*

##### 1.–Gehieneko emisioak.

Moto, ziklomotore eta gisakoei aplikatu beharreko gehieneko mugak ibilgailu horien zilindro-kopuruaren arabera ezarritakoak izanen dira, ordenantza honetako V. eranskineko I. taulako 3. zenbakikoan ezarritakoaren arabera.

##### 2.–Neurtzeko metodo eta aparatua.

###### 2.1. Neurtzeko lanabesak.

Asotsa neurtzeko, UNE 21.314/75 arauan nahiz CEI-651 arauan, 1. mota, ezarritako baldintzak betetzen dituzten sonometroak erabiliko dira; bestela, arau horiek aldatzen edo ordeztzen dituzten arauak hartu beharko dira aintzat.

###### 2.2. Neurketak.

Neurketa ponderazio sare batekin eta tipoko konstante batekin, A kurbaren eta "azkar" (fast) erantzunaren arabekoak, hurrenez hurren.

###### 2.3. Kalibrazioa.

Sonometroa asots-iturri estandar baten arabera kalibratuko da, neurketak egin baino lehentxeago eta neurketak egin eta geroxeago. Kalibratze horietako batean sonometroak adierazten duen baloreak eremu akustiko askean eginiko azken kalibratua –hau da, urteroko kalibrazioan– neurtutako balorea baino 1 dBA baino gehiagoko alde adierazten badu, neurketa baliogabea dela jo beharko da.

##### 3.–Neurtzeko baldintza orokorrak.

###### 3.1. Eguraldi baldintzak.

Neurketak ez dira aurkako eguraldi baldintzetan egiten. Haizearen aurkako babesgailuren bat erabiltzen bada, aintzat hartu beharko dira hark mikrofonoaren sentiberatasunean eta norabide-ezaugarrietan izan ditzakeen eraginak.

###### 3.2. Ibilgailuaren egoera.

Ibilgailuak propulsiarako beharrezkoak izan ez baina errepidean normal ibiltzen hastean erabiltzen den gailurik edukiz gero -agingailu automatikoko haizagailuen kasua, adibidez-, gailu horien funtzionatzen egon beharko dute, fabrikatzaileak ezarritako zehaztapenen arabera.

###### 3.3. Neurtzen deneko zoruaren nolokotasunak eta lekuaren baldintzak.

Neurtzeko leku egokia izanen da aire libreko leku oro, baldin eta hormigoizko, bikezko edo erreflexio indar handiko bestelako material gogorre ez eginko zoladura duen eremu bat baldin badu -horretatik kanpo gelditzen dira lurrezko azalera guztiak, lurra irabiatua izanda ere-. Aipatu eremuan gutxienez ere aldeak ibilgailuaren muturretatik (eskulekua alde batera utzita) hiru metrotara dauzkan angeluzuzen bat egin ahal izanen da; angeluzuzen horretan, ez da aipatzeko moduko oztoporik izanen. Arreta berezia jarriko da ihes-hodiaren asotsa neurtzerakoan ibilgailua gutxienez ere espaloiko ertetik metro bat baino gehiago utzita kokatzeko.

Neurketak irauten duen bitartean, eremu horretan ez da inor egonen, salbu eta behatzailea eta gidaria; azken hori bertan egoteak ez du enbarazurik ekarri behar neurketaren emaitza zuzena izateko.

##### 4.–Neurtzeko metodoak.

###### 4.1. Neurketa kopurua.

Puntu bakoitzean gutxienez ere hiru neurketa egiten dira. Neurriak ez dira baliozkotzat joko bata bestearen ondo-ondotik eginko hiru neurketen arteko aldearen emaitza, laginketa batean, 2 dBA baino handiagoa denean.

Laginketaren hiru neurketa horiek emaniko balorerik txikiena jasoko da oharretan.

###### 4.2. Ibilgailuaren kokapena eta prestaketa.

Ibilgailua neurketa-eremuaren erdian kokatuko da, abiadura-kaxako palanka lokagunean ezarrita eta motorrak enbragea jarrita duela.

Ibilgailuaren diseinuak agindu hori betetzeko biderik ematen ez badu, euskarri baten gainean jarriko da, halako moduan non haren mugimendu-gurpilak libreki biratuko duen.

###### 4.3. Mikrofonoaren kokaera.

a) Mikrofonoa, zoruarekin alderatuz gero, ihes-hodiko gasen irteera zuloaren parean jarri beharko da, baina 0,2 metrotako gutxieneko balorean mugatuko da kokapen hori.

b) Mikrofonoaren mintza gasen ihes-zuloaren aldera orientatuko da, eta hartatik 0,5 metrotara jarriko da.

c) Mikrofonoaren sentikortasun handieneko ardatza zoruaren paraleloan jarriko da, eta de 45° angelu bat egiten du gasen ihes-norabidea zehazten duen plano bertikalarekiko. Sonometroaren fabrikatzaileak ardatz horri buruz ezarritakoei jarraituko zaie, betiere. Plano bertikalari dagokionez, mikrofonoa ibilgailuaren batez besteko plano longitudinaletik distantzia handiena lortzeko moduko lekuan jarriko da. Zailtzarrik izatekotan, mikrofonoaren eta ibilgailuaren ingurumenaren arteko distantzia handiena lortzeko moduko kokapenaren alde egiten da.

d) Elkarren artean 0,3 metro baino gutxiagoko distantzia gordetzen duten bi edo irteera gehiagoko ihes-hodien kasuan, laginketa bakarra egiten da, eta mikrofonoa zorutik neurtuta irteeratik altuenaren pare jarriko da.

e) Ardatzetan, elkarren artean, 0,3 metro baino distantzia handiagoa gordetzen duten irteera bat baino gehiagoko ihes-hodiak di-

tuzten ibilgailuen kasuan, hiru neurketako laginketa bat eginen da irteera bakoitzean, haietako bakoitza bakarra balitz bezala; laginketen arteko mailarik handienaren alde eginen da.

f) Motorrak funtzionatzeko baldintzak.

Motorra enbarazu nabariaren egiaztatzen direneko abiaduran egonkortuko da. Behin egonkortasuna erdietsiz gero, azelerazioaren aingailua berehala jarriko da erralenti posizioan. Soinu maila egonkortasuneko tarte labur batetik hasi eta dezelerazioak irauten duen guztian neurtu beharko da. Neurketaren baliozko emaitzatat joko da sonome- troaren neurketarik altuena.

5.-Emitzen interpretazioa.

5.1. Neurketa aparatua neurturiko baloreak dezibelio hurbilaren aldera biribilduko dira. Ondoz ondoko hiru neurketetan lortutako baloreak baizik ez dira kontuan hartuko, baldin eta aldeak 2 dBA baino handiagoak ez badira. Aintzat hartu beharreko balorea soinu-maila baxuenari dagokiona izanen da.

5.2. Balore horrek neurtzen den motozikletaren kategoriarako baimendutako mailarik altuena dBA batean gaintzen baldin badu, laginketen bigarren serie bat eginen da. Hartara lorturiko emaitza berriek ezarritako mugen barnean egon beharko dute.

5.3. Neurketa aparatuen zehaztugabetasuna kontuan hartzeko, neurketan zehar aparatua batean neurturiko baloreei dBA bat kenduko zaie.

V. ERANSKINA

Taulak eta irudiak

T A U L A K

I. taula.-Baimendutako asots maila gehienekoak.

KOKAPENA bit.	JARDUERA EREMUAK	Gehieneko maila onargarriak dB(A)-tan	
		Egunekoa 8:00ak/22:00ak bit.	Gauetara 22:00ak/8:00ak
Kanpokoa	Merkataritzakoa .....	65	55
K.S.M.	Industrialak, hiri zerbitzuak administrazioaz gainerakoak .....	70	60
K.S.M.	Ekipamendu .....	65	55
K.S.M.	sanitarioa .....	50	40
K.S.M.	Kultura-Erlijioa .....	55	45
Barnekoa	Bulegoak .....	41	36
B.S.M.	Merkataritza .....	45	45
B.S.M.	Etxebizitzak edo irakaskuntza .....	35	30
B.S.M.	Logelak, saloiak, egongelak .....	35	30
B.S.M.	Pasiluak, komunak eta sukaldeak ..	40	35
B.S.M.	Sarbide komuna, etxe-atariak, eskailerak, etxebizitzetako sarrerak, halla eta abar. ....	45	40

II. taula.-Baimendutako dardarien maila gehienekoak.

LOKAL HARTZAILEA	Hartzeko gehieneko maila onargarria, LAn	
	Egunekoa	Gauetara
Ereму ez-industriala .....	60	65
Industria eremua .....	70	75

III. taula.-Eragin metatuak.

ORDUTEGIA	Jardueren kopurua	Soinu-maila kanpoan (aurrealdean)
Gauetara nahiz mistoa .....	2	42 dBA
	3	40 dBA
	M s	38 dBA
Egunekoa, 08:00etatik 22:00etara	2	43 dBA
	3	42 dBA
	M s	41 dBA

IV. taula.-Isolamendua eta behar diren emisio-mailak.

Barneko soinu-maila gehienekoa (dBA-tan)	Isolamendu akustiko gordina (dBA-tan)
85 .....	60
90 .....	65

T A U L A K

1. taula.-Inpultsio soinetarako zuzenketak.

Lmax-LEQ	I N P U L T S I O S O I N U A K	
	Soinuek irauten duten denbora < gutxiako denboraren %10	Inpultsio soinuek irauten duten > gutxiako denboraren %10
< 10 dBA .....	+ 3 dBA	+ 5 dBA
> 10 dBA .....	+ 5 dBA	+ 10 dBA

2. taula.-Fondoko asots maila handietarako zuzenketak.


L1 - F.A.S.M.	Zuzenketa (dBA)
3 .....	1.8
4 .....	1.4
5 .....	1.2
6 .....	0.9
7 .....	0.8
8 .....	0.7

3. taula.-Moto eta ziklomotoretarako gehieneko mailak.


Ziklomotore eta motozikletaren kategoria - Zilindroak, DBA-tan adierazitako baloreak	
< 80 cc. ....	96
> 80 cc. < 175 cc. ....	98
> 175 cc. ....	101

I R U D I A K

1. irudia



Ateei buruzko planoak



A eta B: 100 pertsona baino gutxiagoko aforoa duen lokala.

C, D eta E: 100 pertsona baino gehiagoko aforoa.

**TORRALBA DEL RIO****Torralba del Rion eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziak ematea arautzen duen ordenantza hasiera batean onetsirik**

Torralba del Rioko Udalak, 2002ko uztailaren 7an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Torralba del Rion eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziak ematea arautzen duen ordenantza.

Onesteko erabakia 2002ko 109. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, irailaren 9an, eta jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betikoz onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Torralba del Rion, bi mila eta biko urriaren hogeita hamaikan. Alkate udalburua, Jesús Cayetano Oyón.

**TORRALBA DEL RIOKO ERAIKINAK LEHEN ALDIZ OKUPATU EDO ERABILTZeko LIZENTZIAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA***Xedea*

1. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 221. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ordenantza honek eraikinak lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizentziak emateko baldintzak eta prozedura ezartzeko xedea du.

*Eraikinak*

2. art. Ordenantza honetan eraikintzat hartzen dira ondoko obrak, hirigintzako lizentzia baten babesean eginak:

- Etxe berriak.
- Dauden eraikinen egiturak handitu, zaharberritu nola berriztatzen diren.
- Dauden eraikinen erabilera berariazkoak aldatzea.
- Etxebizitza berriak sortzea edo daudenetan banaketa nabarmen aldatzea.

*Helburua*

3. art. Lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizentziak honako helburu hau du zehazki:

- Zutitutako eraikina eta aldi berean egin den urbanizazioa, hala-kerik bada, proiektu teknikoaren eta bere garaian emandako hirigintza lizentziako baldintzen arabera egin diren egiaztatzea.
- Eraikitakoak bizigarritasun eta higie baldintzak betetzen dituela ziurtatzea.
- Eraikina erabilera jakin baterako izan daitekeela baieztatzea.
- Eraikitzaileak, hirigintzako ekipamenduari zein elementuei kalte egin badie, lehengoratu dituela ziurtatzea.

*Lizentziaren eskaera*

4. art. 1. Obrak amaituta, eraikinak lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizentzia eskuratu nahi dutenek eskaera bat aurkeztuko dute, Torralba del Rioko Udalari zuzendua; eskaerak hurrengo datu hauek izanen ditu:

- Interesatuaren edo, halakorik bada, ordezkatzeko duenaren izen-abizenak.
- Lizentzia zein eraikinetarako eskatzen den zehaztu beharko da, argi eta garbi.
- Tokia, data eta eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura.

2. Interesatuek eskabidearekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Etxe berria egiteko, hura handitzeko edo egitura berritzeko obretarako aginduzko lizentziaren fotokopia.
- Obrak bukatu direla dioen ziurtagiria, eta, hala bada, urbanizazioarena, onetsitako proiektu teknikoaren arabera; hura teknikari eskudunak luzatuko du eta bertan higiezinak okupatzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela adierazi beharko da.
- Hirilurren gaineko zergan alta eskatu dela dioen ziurtagiria.
- Udalaren tasa ordaindu izanaren ziurtagiria.
- Urbanizazioen kasuetan, gainera, honako hauek aurkeztuko dira:

- Obren behin betiko planoak, bai zolari bai instalazioei dagokienez.
- Enpresa hornitzaileen idazkiak, obraren onspena eta hura araudi berariazkoari jarraikiz nola egingen den adierazten dutenak.
- Herriko argien sareari dagokienez, muntadura agiriaren aurkeztu-pena.

–Bidezoruari, zoladurari eta lorezaintzari dagokienez, obran egingako entseguak aurkeztu beharko dira, alor hauen gainean: trinkotzea, prokorrak, hormigoien erresistentzia, nahasketa bituminosak, etab. Horrez gain, elementu bakoitzetik hedatutako tonen ordainagiriak aurkezteak.

*Lizentzia emateko organo eskuduna*

5. art. Lizentzia emateko eskumena alkateak izanen du edo berzenaz Hirigintza Alorreko zinegotzi eskuordeak.

*Prozedura*

Art. 6. Interesatuak eskaturik prozedura hasita, Alkateza edo Hirigintzako arduraduna gisa honetan ariko dira:

1. Udalaren zerbitzu teknikoei txostena eskatuko zaie, eta hartan adieraziko da: obrak proiektu teknikoaren eta eman hirigintzako lizentziaren arabera egin diren; obren ondorioz ukituta geratu ahal izan diren hirigintzako elementuak eta hiri ekipamendua lehengoratu diren; segurtasunaren, higieinareen eta apainketa publikoaren baldintzak betetzen dituen; eta eraikinak eman nahi zaion erabilera izaten ahal duen.

2. Txostenak gehienez ere hamabortz eguneko epean ebaluatuko dira.

3. Aipatu txosten horren ondorioz, onetsitako proiektuaren gaineko aldaketak badirela egiaztatzen bada, egin den arau-hauste mota eta, ahal bada, horren legeztatzea adierazi beharko dira txosten teknikoan.

Era berean, lehen aldiz okupatzeko lizentzia emateko, eraikinak bizigarritasun eta higie baldintzak betetzen dituen zehaztuko da, halaber, ur, gas, elektrizitate eta gisako zerbitzuak kontratatzeko baimena emateko baizik ez bada ere, eta aurkitutako akatsak zuzentzea ukatu gabe. Horrela baldin bada, bakarrik higiezina okupatzeko baimentzearen luzatuko da lehen aldiz okupatzeko lizentzia, higiezinak aipatu baldintzak betetzen baititu.

*Ebatzi beharra*

7. art. 1. Alkateak edo hirigintzako arduradunak hilabeteko epean ebatzi beharko du eskaera, udal bulegoetan sarrera ematen zaionetik.

2. Onartutako txostenak eta irizpenak ebazpenerako arrazoizat hartuko dira, ebazpenaren testuari gehitu edo eransten zaizkionean.

*Ustezko egintza*

8. art. Ebazpenerako epea agortzen bada alkateak edo hirigintzako arduradunak ebazpenik eman gabe, eskaera baietsitza hartuko da, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean xedatutakoarekin bat.

*Eraikinaren titularren betebeharrak*

9. art. 1. Lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia eskuratu aurretik eraikinaren titularrek ez dute eraikina okupatzen ahal.

2. Eraikinaren zati bat edo osorik besterentzean, hartzaileei espresuki adieraziko zaie lehen aldiz okupatzeko lizentziarik ez duela, hura besterentzerakoan eskuratu ezean.

*Argindarra eta ura banatzen duten enpresen betebeharrak*

10. art. 1. Argindarra banatzen duten enpresek, hornidura horri dagokienez, aplikatzen ahal zaizkien legeko arauak men egiten diete, obretarako behin-behineko kontagailuez eta etxebizitzak lehen aldiz okupatzeko lizentzia alde aurretik eskuratu beharraz den bezainbatean.

2. Obretarako ur-hornidura, hirigintzako aginduzko lizentzia eskuratu ondoan, enpresa hornitzaileari dagokio, zerbitzu publikoaren titularra baita; eta behin-behineko emanen da, hirigintzako lizentziak indarra duen bitartean bakarrik.

3. Lizentzian obren amaierarako eman epea eta, halakorik bada, bidezko luzapena edo luzapenak agorturik, alkateak edo hirigintzako arduradunak hornidura eteteko eskatuko die konpainia hornitzaileei, eta interesatuei hamar egun lehenago gaztigatuko.

4. Debekatua dago obretarako eman ur-hornidura bertzelako jardueretan erabiltzea, etxean, batez ere.

5. Uraren enpresa hornitzaileak ez ditu urez hornitzen ahal lehen aldiz erabiltzeko lizentziarik ez duten eraikinak.

*Arau-haustea eta zehapenak*

11. art. Hirigintzako arau-haustea izanen da lehen aldiz okupatzeko aginduzko lizentziarik gabe eraikinak lehen aldiz okupatzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Legearen 247. artikulua eta hurrengoek, Lege beraren 221. artikulua eta 1978ko ekainaren 23ko Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduaren 90. artikulua dagokienez, xedatutakoarekin bat.

12. art. 1. Aurreko artikuluan aipatu arau-haustek, jarduketa legezkatzen ahal bada, zehapen hau izanen du: egindako obraren balioaren ehuneko batetik bortzera bitarteko isuna, eta gehienez ere mila bortzehen eta bi euro eta berrogeita hamahiru zentimo, Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduaren 90. artikulua xedatzen duenari jarraikiz.

2. Aurreko artikuluan aipatu jarduera legezkatzen ahal ez bada, zehapen hau izanen du: okupatutako eraikin, oin edo lokalaren balioaren ehuneko bortzetik hamarrera bitarteko isuna, eta gehienez ere sei mila euro, Hirigintzako Diziplinaren Erregelamenduaren 79. artikulua xedatzen duenari jarraikiz.

3. Udalak inoiz ere ez dio uzten ahalko hirigintzako ordena hautsia zuzentzeko neurriak hartzeari, eta okupazioa berehala bertan behera utz dadila xedatuko du, badaezpadauk neurri gisa.

#### Erantzuleak

13. art. Eraikinak lehen aldiz lizentziarik gabe okupatzen badira, erantzuleak obraren sustatzailea eta okupazioa egiten duena izanen dira, pertsona ezberdinak badira, eta ezarriko zaien isun bakoitza ezberdina izanen da.

#### Organo eskuduna

14. art. Zehapen prozedura ebazteko organo eskuduna alkatea da, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.K) artikulua xedatzen duenari jarraikiz, salbu eta horrek Hirigintzako arduraduna eskuordetzen duenean ahalmen hauetarako.

15. art. Ordenantza honetan arautu gabeko orotan hona indarra izanen duten arauak: Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea; apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretua, zeinaren bidez Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi baitzen; Toki Araubidearen Oinarri arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Hirigintzako Diziplinaren Erregelamendua, 1978ko ekainaren 23koa; eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua.

A0212534

### M I L A G R O

#### Ezkondutako gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza. Behin betiko onspena

Milagroko Udalak, 2002ko ekainaren 28an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ezkondutako gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza.

Onesteko erabakia 2002ko 111. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, irailaren 13an, eta jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betikoz onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoari jarraikiz.

Milagron, bi mila eta biko azaroaren hamalauan. Alkatea, Jesús María Barrado Pardo.

#### MILAGROKO UDALEKO EZKONDUTAKO GABEKO BIKOTE EGONKORREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Milagroko Udaleko Ezkondutako gabeko bikote egonkorren erregistroak administrazio izaera du eta bertan ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzeak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen den eran eta baldintzetan.

2. art. Bikote guztiek, sexu berekoak izan edo ez, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatu badute.

Gutxienez, elkartutako kide batek egon beharko du Milagroko udalerrian errolatua, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikoteen bertzeko erregistro batean.

3. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aitzinera, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.

Ez da inskripziorik egiten bikoteko bat burujabetu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik egiten. Halakoetan, medikuaren irizpena beharko du, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diona.

Era berean, inskripzioa ukatuko da bikoteko bat ezkondua baldin bada eta ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.

4. art. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteak nahi dituen argitasun guztiak agertarazten ahalko ditu beren arteko elkartzeari buruz. Hitzek hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare loturak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aurreko lerroaldean aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira, bikoteko bi kideak bertara joanda.

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzezko oharpenak egiteko, aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

5. art. Erregistroa Udalaren idazkaritza orokorrean egonen da.

6. art. Aurreko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistrotzeko, Liburu Orokorra erabiliko da. Liburu orri mugigarri, zenbatu eta zigitatuz osatua dago, eta irekitzeko eta itxeko eginbideak paratuko dira hasieran da bukaeran.

7. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioak oinarriko inskripzioaren izaera izanen du eta horren bazterrean geroago Liburu Orokorrean elkartzeari buruz egiten den beste edozein idazpen agertzeko da.

8. art. Erregistroak Liburu Lagungarri bat ere izanen du, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zein orrialdetan dauden inskribaturiko bikoteekin zerikusia duten oharpenak.

9. art. Erregistroan inskribatutako intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko, ez zaio publikizaterik emanen idazpenen edukiari, salbu eta erregistroaren arduraren funtzionarioak luzatzen dituen egiaztagiriak, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondoko.

10. art. Egiten diren inskripzioak eta luzatzen diren ziurtagiriak doakoak izanen dira.

11. art. Izatezko bikoteen erregistroan inskribatzen diren ezkondu gabeko bizikidetasunezko elkartzeak, ezkontza bidezko elkartzeen tramendu bera izanen dute Milagroko Udalean.

#### XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ordenantza hau berrikusiko da, legetan aldaketarik bada gai honen inguruan.

#### I. ERANSKINA

Milagroko Herriko Etxean, udal idazkaritzan, halako egunean ....., honakook batera agertu gara:

Izena: .....; jaioterria: .....; helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu); N.A.N. zenbakia: .....; eta izena: ....., jaioterria: ....., helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu), N.A.N. zenbakia: .....

Eta adierazten dugu:

Udal honetako Ezkondutako gabeko bikote egonkorren erregistroan inskriba gaitzateko nahi dugula, horri buruzko ordenantzaren arabera, eta horretarako:

Aitortzen dugu:

Lehenbizi: Aipatu ordenantzaren aurreikusitako bizikidetasuna dela eta, gure helbidea honako hau izanen dela: ..... (oroitararazi behar zaio ..... jaun/andreaki T.A.O.L.aren 15. artikuluari jarraikiz, erroldatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian).

Bigarren: ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere.

Hirugarren: gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ez eta alboko lerrotik bigarren mailara bitarteko odolkidetasunezko ahaidetasunik ere.

Laugarren: gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik, ez eta elkartzeko inolako ezgaitasunik ere.

Borzgarren: ez dugula nahi (nahi dugula) erregistroan inskribatzea gure arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko hitzarmenik.

Seigarren: baimena ematen dugula Milagroko Udal Erroldan datu hauek egiaztatzeko.

Eta zin egiten dugu gutako inor ez dagoela inskribatua ez udalerrian honetako erregistroan, ez maila eta xede bereko inongo herritako erregistroan ere.

Milagroko Udal honetako Ezkondutako gabeko bikote egonkorren udal erregistroan inskriba gaitzateko eskatzen dugu.

Sin.: .....

Sin.: .....

#### II. ERANSKINA

Milagroko Herriko Etxean, halako egunean ....., honakook agertu gara: izena: ..... eta N.A.N. zenbakia: ....., eta izena: ..... eta N.A.N. zenbakia: ....., eta Ezkondutako gabeko bikote egonkorren Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen orde-



nantzan zehaztutakoarekin bat, adierazten dugu asmoa dugula gure arteko bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitatzat jotzeko, izan ere horrelaxe inskribatua dago aipatu Udalaren erregistroan.

Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu bukatutzat edo iraungitatzat jo dadila aipatutako elkartzearen inskripzioa.

A0212581

## CINTRUENIGO

### Ordenantza eta prezio publikoak arautzen dituen araua onetsita

Kamioiak aparkatzeko zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituzten araua eta ordenantza 2002ko ekainaren 6an egindako osoko bilkuran onetsi zituen Udalak, eta behin betiko onespeneraren erabakiari zegokion iragarkia 2002ko irailaren 6ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Cintruenigon, bi mila eta biko azaroaren seian. Alkatea, sinadura ulertezina.

### LURZORU PUBLIKOAN KAMIOIAK APARKATZEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. artikulua. Kontuan hartuz Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeko 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, 41/1999 Foru Legearen bidez emandako aldaketaren arabera, arau honetan ezartzen dira industrialdeko lurzoru publikoan kamioiak aparkatzeko zerbitzuaren prezio publikoak.

2. art. Zergagaitza.–Zergagaitza sortzen da industrialdeko aparkalekuan kamioiak aparkatzeko zerbitzua erabiltzearekin.

3. art. Arau honen ondorioetarako, honako ibilgailu hauek izanen dute zilegi aparkatzea:

–BGP 3.500 kilogramotik goitikoa duten ibilgailuak.

–21 plaza baino gehiagoko autobusak.

–Gabarrak.

Debekaturik gainerako guztiak.

Norberaren ibilgailu txikia aparkalekuaren barranean harentzat espres egokitutako lekuan aparkatzen ahalko da.

4. art. Sorrarazpena.–Zergaldia, normalean, urte naturala izanen da.

Aparkalekua lehenbiziko aldiz erabiltzen denean, zergaldia hasiko da lehenbiziko erabilera gertatzen den egunean.

Prezio publikoa sortuko da zergaldiaren lehenbiziko egunean.

Prezioaren zenbatekoa hiruhilabeteko naturaletan hainbanatuko da, lehenbiziko erabilera den kasuetan edo hartatik baja emanen denean.

5. art. Subjektu pasiboak.–Honako hauek dute ordaintzeko obligazioa:

1. Ibilgailuen jabe diren pertsona natural edo juridikoak.

2. Subsidiarioki, ibilgailuaren gidariak.

6. art. Tarifak.–Ehun (100) euro ordaindu beharko dira urtean.

7. art. Kudeaketa.–Aparkalekua erabili nahi dutenek Udalarari idatziz aurkeztu beharko diote beren eskaera.

Gaiaz arduratzen den zerbitzuak luzatuko ditu baimena eta dagokion likidazioa, zeina ordaindu beharko baita udal bulegoetan edo Cintruenigoko Udalaren aldeko banku-helbideratzea eginez.

Prezio publikoa eskatzen ahalko zaio subjektu pasiboari, zerbitzu horretan baja hartu duelako orria udal bulegoetan aurkezten duen arte.

8. art. Arau-hausteak eta zehapenak.–Aparkalekua erabiltzen bada baimenik izan gabe edo prezio publikoa likidatu gabe, 100 (ehun) euroko isuna jarriko da egun bakoitzeko.

Arau-hauste nahiz zehapenei dagokienez, aurreikusten ez den guztian, Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari eginen zaio men.

### KAMIOIENTZAKO APARKALEKUAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ETA KONTZEPTU HORRI DAGOZKION TASEN EZARPENA

#### ATARIKO KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.–Ordenantza honen xedea da kamioientzako udal aparkalekuaren erabilera arautzea.

2. art. Oinarria.–Ordenantza hau ezartzen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 99 eta 262. artikuluen eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93. eta hurrengo artikuluen babesean.

3. art. Ordenantza honek hartzen duen esparrua.–Ordenantza honetako arauak aplikatuko dira kamioientzako udal aparkalekuan.

## I. KAPITULUA

### Udal aparkalekuaren erabilera zedarrizten duten arauak

4. art. Ordenantza honek arautzen duen udal aparkalekua, bakar-bakarrik kamioiak aparkatzeko erabiltzen ahalko da. Aparkaleku hau jabari publikoko ondasun bat da, eta Cintruenigoko Udala da bere titularra.

5. art. Udal aparkalekua erabiltzeko interesa dutenek Udalaren lizentzia eskuratu beharko dute.

Ematen den lizentziak balioko du aparkalekuko plaza bakoitzaren erabilera pribatibo arrunterako, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93. artikuluan jartzen duen bezalaxe, kontuan hartuz erabileraren intentsitatearekin.

Lizentzia emanen da urtebeterako, luzatzeko aukera izanik, behin-behinekotasunez, hirugarrenei kalterik egin gabe, nahitaez bete beharko diren baldintza batzuen arabera, eta errebokatzeko ahalko da noiznahi, baldin eta baldintzak betetzen ez badira edo interes publikoko arrazoiengatik.

6. art. Lizentzia ematearekin batera, dagokion urteko tasa ordaindu ondotik, hartzaileari giltza bat emanen zaio, aparkalekuko atea ireki ahal izateko. Betiere, giltza Cintruenigoko Udalarena izanen da.

7. art. Lizentzia eskuratzeko lehentasuna izanen dute zirkulazioaren gaineko zerga eta lizentzia fiskala herri honetan ordaintzen dituzten Cintruenigoko herritarrek eta, nolana dela ere, baldintza horiek betetzen dituzten artean, aparkaleku gisa erabiltzeko moduan dagoen lurzatiarik ez dutenek. Plazaren bat eman gabe gelditzen bada, lizentzia adjudikatzen ahalko da, nahiz eta eskatzailea aparkaleku gisa erabiltzeko moduan dagoen lurzati baten jabe izan.

8. art. Lizentzia eskuratzeko duten eskatzaileek aparkalekua erabili beharko dute haren izaera eta xedea kontuan harturik, haiek kaltetu edo mendratu gabe, betiere lizentzia eskaeraren xede datekeen erabilera arrunt, egoki eta zentzuzkoak eragin dezakeen higadura onartuz.

9. art. Udal aparkalekua ezin izanen da inola ere erabili lizentziak aipatzen zituenak ez-bezalako xedeetarako.

10. art. Udal aparkalekua erabili nahi duten pertsona edo entitateek idatziz eskatuko diote Udalarari, identifikazio datu pertsonalak eta ibilgailuari dagozkionak adierazita. Lehentasuna izanen dute Udal honen eroldan sarturiko pertsonak, zeinek, gainera, ibilgailua zirkulazioaren gaineko zergarako nahiz J.E.Z.rako izena emana beharko dute, herri honetan, nahitaez.

11. art. Udalak eskatzen ahalko du fidantza era dadin, lege onartzen diren moduetako edozeinen bidez. Fidantza horrek bermatuko du udal aparkalekuko lurzatiak ongi erabiltzeko eta lagapenaren aurreko uneko egoerara lehengoratzeko betebeharrak zuzen betetzen direla. Bermea izanen da, halaber, udal aparkalekuan egiazki gertatzen diren kalte eta galeretan, erabiltzaileek erantzun dezaten. Horretaz gain, ordenantza honen aplikazioaren ondorioz ezartzen diren zehapenak ordaintzeko erabiltzen ahalko da.

Fidantzaren zenbatekoa izanen da kontzesioaren denbora guztia-rengatik likidatutako tasaren erditik osora bitartekoa.

12. art. Ematen den lizentziaren epea amaitzen denean, Udalak nahi adina egiaztapen egiten ahalko du, ordenantza honetan eta kontzesio-hartzaileen lizentzietan ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen ote diren ikusteko.

Kontzesio-hartzaileek ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta lizentziaren baldintzak betetzen dituztela, kalte-galerarik ez dagoela eta zehapenak jartzeko arazoirik ez dagoela ikusi ondoren, Udalak fidantza itzuliko du, baldin eta lehendik hura eratzeko eskatu bazen.

Bestela gertatzen bada, behar diren erantzukizunak eskatzeari ekinen dio. Horrelakoetan, fidantza erabiliko da diruz ordaintzeko ordenantza honetako betebeharrak eta lizentzien baldintzak ez betetzeagatik, kalte eta galerak eragiteagatik eta ezarritako zehapenengatik, bi-dezkatat jotzen den erantzukizuna.

## II. KAPITULUA

### Erantzukizunak, arau-hausteak eta zehapenak

13. art. Kamioientzako udal aparkalekuko kontzesio-hartzaileek eta/edo erabiltzeko lizentziaren titularek erantzun beharko dute, maltzurkeria edo utzikeria direla medio bertan eragindako kalte eta galerengatik.

14. art. Aparkalekua erabiltzeko lizentziaren titularrak bat baino gehiago badira, denek elkarrekin eta solidarioki erantzun beharko dute, ordainuz prezio publikoak, aparkalekuan eta instalazioetan eragindako kalte eta galerak eta ezartzen diren zehapenak, halakorik gertatuz gero.

15. art. Arau-haustetat hartuko da kamioien aparkaleku izatea ez den bestelako edozein jarduera, eta bereziki ingurunea hondatu eta ingurumena kaltetzen dutenak. Arau-hauste larritzat joko dira, besteak beste, edozein objektu bertan utzi edo abandonatzea eta aparkalekua zikintzen duen edozein lan mekaniko egitea. Baita ere, olio edo bestelako likidoak bertan isurtzea.

16. art. Goian aipatu arau-haustek eginez gero, honako zehapen hauek jarriko dira: Kamioientzako Cintruenigoko udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia kentzea eta 50 eurotik 500 eurora bitarteko isuna jar-tzea.

17. art. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko zeha-penak jarriko dira kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak bide exekutiboaren bitartez gauzatu eta betearaziko dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritako baldintzak bete ondoren har-tuko du indarra.

A0212582

## VII. IRAGARKIAK

### RECAUDACION EJECUTIVA DE LA MANCOMUNIDAD DE CINCO VILLAS / BORTZIRIAK

#### EDICTO

La Recaudación Ejecutiva del Organismo arriba indicado, mediante el presente edicto, hacer saber, que contra los deudores que se relacionan y por providencias de apremio desde nueve marzo dos mil uno hasta trece marzo dos mil dos, instruye expediente administrativo de apremio por los débitos relativos a los conceptos y ejercicios que a continuación se relacionan a la Hacienda de este Organismo, y no habiendo podido practicar directamente la notificación, bien por ser desconocidos en los datos obrantes en este Organismo, bien por haber resultado infructuosa la notificación en diversos intentos, realizados en

días y horas diferentes, habiendo constancia de cada circunstancia en el expediente, se les requiere para que en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación de este edicto en el BOLETIN OFICIAL de Navarra, comparezcan por sí o por persona que les represente, en la Oficina Gestora, sita en calle Erletokieta, 1-1.º derecha, de Pamplona, a fin de darse por notificados y señalar su domicilio o el de sus representantes, advirtiéndoles que transcurrido dicho plazo sin comparecer, serán declarados en rebeldía, continuándose el procedimiento de apremio sin que se hagan nuevas gestiones en su busca, efectuándose las notificaciones en la forma que dispone el artículo 93 del Reglamento de Recaudación de la Comunidad Foral de Navarra, y el artículo 99-4 de la Ley Foral 13/2000, de 14 de diciembre, General Tributaria.

#### DEUDORES QUE SE CITAN

N.º EXPEDIENTE	NOMBRE CONTRIBUYENTE	CONCEPTO	AÑO/S	PRINCIPAL	TOTAL
7266665	ABUIN ARRASATE, VALENTIN	BASURAS	2000	22,39	29,41
B31200231	AITASEMEGUI S.L.	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
31343305	ALZUGUREN ESTEBERENA, JUAN(HCIA YA	BASURAS	2000	22,39	29,41
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	223,07	267,68
		BASURAS	2000	111,55	133,86
44620035	AMADO BORTHAYRE, LONTXI	BASURAS	2001	23,50	30,74
999001GX1	ARANGUREN ANA M.*BERAUN, JAVIER	BASURAS	2001	23,50	30,74
15717255	ARIZ VIDONDO, MIGUEL ANGEL	BASURAS	2000	22,30	29,30
		BASURAS	2000	22,39	26,87
72659938	ARRAZTOA ARRAZTOA, JOSE	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
15824333	ARRECHEA GALZAGORRI, CLAUDIA	BASURAS	2001	23,50	30,74
15824330	ARTIEDA TELLECHEA, MIGUEL	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
B31539877	BARNEK.S.L.	BASURAS	2001	23,50	30,74
999001H5B	BERRUETA GOYENECHÉ, FRANCISCO	BASURAS	2001	16,44	19,73
72668760	BIURRARENA LOYARTE, PILAR	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
15771124	CALVO FORONDA, MARIA MAR	BASURAS	2000	22,39	26,87
15108743	CARRION CAMPOS, JESUS	BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
15824409	CELAYETA LAZCANO, Mª JOSEFA	BASURAS	2000	15,66	21,33
72648744	DAMBORIENA ECHARTE, JOSE JAVIER	BASURAS	2001	16,44	19,73
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2001	16,44	19,73
15963946	DIEZ AGESTA, JOSE ANTONIO	BASURAS	2001	23,50	30,74

N.º EXPEDIENTE	NOMBRE CONTRIBUYENTE	CONCEPTO	AÑO/S	PRINCIPAL	TOTAL
B31636764	DISMOLTECKA S.L.	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
15824444	ECHETO AGUIRRE, BAUTISTA	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
999001FS9	ECHEVERRIA EGUI, JUAN	BASURAS	2001	23,50	30,74
15861916	ELIZALDE SANZBERRO, J.ANTONIO	BASURAS	2000	22,39	29,41
		BASURAS	2000	22,39	26,87
999001FSN	FERNANDEZ HERRERO, MARIA JOSE	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
12108508	FORONDA PEREZ, MARIA MAGDALENA	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
B31275977	GEIR-LAK S.L.	BASURAS	2000	22,39	26,87
72625974	GENUA IRIGOYEN, JOSE ANTONIO	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	16,44	19,73
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	16,44	19,73
15995781	GOMEZ TENA, MANUEL	BASURAS	2001	23,50	30,74
1548624	IRAIZOZ OYARZUN, MARIA ASUNCION	BASURAS	2000	22,39	29,41
		BASURAS	2001	23,50	30,74
72659926	IRAZOQUI GOYENECHÉ, SEGUNDO	BASURAS	2000	22,39	29,41
		BASURAS	2001	23,50	28,20
999001FSO	IRIGOIEN MIKEL	BASURAS	2001	16,44	22,27
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2001	16,44	19,73
15825524	IRIGOYEN IPARRAGUIRRE, GREGORIO	BASURAS	2001	16,44	19,73
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2001	16,44	19,73
72623636	IRIGOYEN IPARRAGUIRRE, MIGUEL	BASURAS	2001	16,44	22,27
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2000	15,66	18,79
		BASURAS	2001	16,44	19,73
999001FSQ	LARRAÑAGA JUAN CARLOS	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
72019112	LAVIN CONDE, MARIANA	BASURAS	2000	89,28	107,14
15862997	LAZCANO ARRIETA, JOAQUIN	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2001	23,50	28,20
X0314526R	LEIPER ALAIN, EDWARD	BASURAS	2000	22,39	29,41
		BASURAS	2000	22,39	26,87
X2911000M	MACMURRAY	BASURAS	2000	22,39	29,41
16212589	MATANZAS GONZALEZ, PLACERES	BASURAS	2000	89,28	107,14
72673411	MENDEGUIA YANCI, ANE	BASURAS	2001	46,82	56,18
		BASURAS	2000	44,60	53,52
		BASURAS	2000	44,60	53,52
		BASURAS	2001	46,82	56,18
72666961	MICHELENA ITURBIDE, JOSE LUIS	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	41,43
		BASURAS	2001	23,50	28,20
15959827	OCARIZ COLLAR, ELENA	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2001	23,50	28,20
72670860	OTXOTEKO LASAGA, JOSE MANUEL	BASURAS	2001	23,50	30,74
23762035	RODRIGUEZ RUBIÑO, JOSE	BASURAS	2000	22,39	26,87
39832325	SANCHEZ DE LA FUENTE, JUAN ANTONIO	BASURAS	2000	22,39	29,41
999001FSS	SANCHEZ GUERRA-PRIVADO, DOMINGO	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
72639473	TELLECHEA IRAZABAL, JUAN -HERENCIA	BASURAS	2000	22,39	29,41
12738187	TOURIS GONZALEZ, MARIA JESUS	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20
72659681	UBIRIA LAZCANO, JOSE IGNACIO	BASURAS	2000	22,39	29,41
15862777	URROZ EZKURRA, JUAN BAUTISTA	BASURAS	2000	15,66	21,33
23778057	VASCO ALONSO, PAULINO	BASURAS	2001	23,50	30,74
		BASURAS	2000	22,39	26,87
72666865	VAZQUEZ GONZALEZ, SANTIAGO	BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87

N.º EXPEDIENTE	NOMBRE CONTRIBUYENTE	CONCEPTO	AÑO/S	PRINCIPAL	TOTAL
15789119	ZURBANO ANCIN, JUAN MARIA	BASURAS	2001	23,50	28,20
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2000	22,39	26,87
		BASURAS	2001	23,50	28,20

#### ADVERTENCIAS

Contra esta resolución cabe interponer optativamente uno de los siguientes recursos:

A) Recurso de reposición ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de esta publicación.

B) Recurso contencioso - administrativo ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de dos meses, desde el día siguiente a la notificación de esta resolución.

C) Recurso de alzada directamente ante el Tribunal Administrativo del Gobierno de Navarra dentro del mes siguiente a la notificación de esta resolución.

El procedimiento de apremio, aunque se interponga recurso, solamente se suspenderá en los términos y condiciones señalados en el artículo 166 del Reglamento de Recaudación de la Comunidad Foral de Navarra.

Etxalar, veinte de noviembre de dos mil dos. El Recaudador Ejecutivo, firma ilegible.

A0212729

#### Harpidedunarentzako argibide zerbitzua

Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Leire kalea, 6 - 4.a, 31002 Iruña. Telefonoa: 948-203800 eta Faxe: 948-203820. bon@cfnavarra.es

**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua. **Erredakzioa, Harpidetzak eta Salmenta:** Nafarroako Aldizkari Ofiziala. Leire kalea, 6 - 4.a, 31002 Iruña. Telefonoa: 948-203800. Faxe: 948-203820. **Inprimatzailea:** Gráficas Ona, S.A. (Iruña). **Argitalpen egunak:** Astelehena, asteazkena eta ostirala. **Iragarkien tarifa:** 0,09 euro hitzeko. **Prezioa:** Ale bakoitzarena, 0,54 euro. **Harpidetza:** Hamabi hilabete, 65 euro.

L.G. NA. 1-1958 ISSN 1.130-5894

[www.cfnavarra.es](http://www.cfnavarra.es)

